# BlackBerry Z10 Smartphone

Bertsioa: 10.2.1

L L 



Argitaratua: 2014-01-21 SWD-20140121165917333

# Edukiak

Lehen urratsak	5
Gailua ezagutzen hasi	5
Gailuz aldatzea	49
Pantaila	58
Bilaketa	62

Telefonoa	
Telefonoa	64
BBM Video	75
Soinuak, jakinarazpenak eta dei-tonuak	77
1. mailako alerten jakinarazpen-ezarpenak aldatu	79
lstanteko aurrebistak ikusi eta hari erantzun	80
Blokeatutako pantailaren jakinarazpenak -i buruz	81
Arazoak: Dei-tonuak, soinuak eta alertak	81

Mezuak	
BlackBerry Hub	
BlackBerry 10gailuetarako joyn	

Pasahitzak eta segurtasuna	112
Segurtasuna	112
Lan-eremua eta BlackBerry Balance	128
BlackBerry IDa	132
Pasahitz-biltzailea	136

Multimedia	
Kamera	
Argazkiak	
 Musika	
Bideoak	

BlackBerry Story Maker	162
Multimedia partekatzea	164

Mapak eta kokalekuak	
Mapak	
Kokapen-zerbitzuak	
Iparrorratza	

Aplikazioak eta eginbideak	174
Remember	174
Egutegia	
Kontaktuak	
Erlojua	
Kalkulagailua	
Arakatzailea	212
Etiketa adimendunak	
Ahots-kontrola	
Jokoak	
Aplikazioak antolatzea	231

Dokumentuak eta fitxategiak	234
Fitxategi-kudeatzailea	234
Biltegiratze-tokia eta multimedia-txartelak	

Ezarpena eta aukerak	
Konexioak	247
Software-eguneratzeak	
Hizkuntza	
Teklatua eta idazketa	
Bateria eta energia	
Erabilerraztasuna	
BlackBerry Link eginbideak zure gailuan	

Lege-oharra	 	

# Lehen urratsak

# Gailua ezagutzen hasi

# Argitalpen honetako berrikuntzak

### BlackBerry 10 OSen 10.2.1 bertsioaren aurkezpena

Software-eguneratzeak eginbide berri zoragarriak ditu, produktiboagoa izateko eta kontrol handiagoa izateko. Ezagutu zure komunikazioak azkartzeko modu gehiago, webeko edukia lineaz kanpo irakurtzeko, menuak pertsonalizatzeko, Android aplikazioak deskargatzeko eta bateria maila kontrolatzeko, denbora gehiagoan produktiboagoa izateko.

## 崖 BlackBerry Hub

BlackBerry Hub-ek pertsonaliza daitezkeen jakinarazpenak nabarmentzen ditu, mezuen zerrenda iragaz dezake atximurkatze-keinua erabiliz eta mezuak testu arruntean edo testu aberastuan idatz daitezke.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Hub eta Soinuak, jakinarazpenak eta dei-tonuak.

### A BlackBerry teklatua

Teklatuaren gaineko ekintza-barra mugikorrak ohiko ekintzak erraz gauzatzen edo bertan behera uzten laguntzen dizu. Sarri hizkuntza bat baino gehiagotan idatzi behar baduzu, teklatuak hizkuntza batetik bestera azkar aldatzen uzten dizu koma (,) tekla erabiliz. Hizkuntza eta idazkera ezarpenen pantailan aktibatu edo desaktiba dezakezu eginbidea.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Teklatua eta idazketa.

## **31** Egutegia

Egutegian data jakin bat ikusteko, kolpatu pantailaren goialdea eta hautatu data. Egutegian lehendik dagoen informazioa erabil dezakezu jarraipen-bilerak sortzeko eta Cisco WebEx Meetings aplikazioa instalatuta baduzu, WebEx bilerak programa ditzakezu.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Egutegia.

### Kontaktuak

Kontaktu bat gordetzen duzunean, kontaktua gorde nahi duzun kontua hautatu eta kontaktuak kontu batetik bestera eraman ditzakezu. Kontaktuen artean taldeak sor ditzakezu; horrela errazagoa izango da taldeko guztiei mezuak bidaltzea, bilerak konfiguratzea eta fitxategiak partekatzea. Kontaktu bakoitzari telefono-deien eta mezu mota bakoitzarentzat jakinarazpen esklusiboa ezar diezaiokezu. Esate baterako, BBM, mezu elektroniko, testu-mezu eta beste sare sozial batzuetarako.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Kontaktuak eta Soinuak, jakinarazpenak eta dei-tonuak.

## 🔪 Telefonoa

Gailuan dei bati erantzuteko, eduki ukituta pantailaren behealdean dagoen zirkulua eta irristatu hatza ezkerrera. Deia baztertzeko, irristatu hatza eskuinera.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Telefonoa.

#### 🔊 BlackBerry arakatzailea

Gorde web-orria gailuan geroago irakurtzeko, sarera konektatuta egon ala ez. Horrez gain, gogoko Android aplikazioaren webgunera joan eta aplikazioak gailura ere deskarga ditzakezu. BlackBerry Balance erabiltzen baduzu, aplikazioak eremu pertsonalera deskargatuko dira eta ezingo da lan-eremuko datuetan sartu. Aplikazio fidagarriak deskargatu. Gailuak ez du deskargatzen dituzun APK fitxategien integritatea egiaztatzen.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Arakatzailea eta ikusi Gailua ezagutzen hasi.

#### 📡 Ezarpenak

Ohiko pasahitza erabili ordez argazki bidezko pasahitza erabil dezan konfigura dezakezu gailua. Hasierako pantailaren goialdetik behera hatza irristatzen duzunean, Ezarpen bizkorrak menuan agertuko diren aukerak zehatz ditzakezu. Aukeren ordena ere zehaztu eta eremu pertsonalaren eta lan-eremuaren artean ere alda dezakezu Ezarpen bizkorrak menuan.

Gailuaren kontrola pantailan, aplikazio bakoitzak zenbat biltegiratze-toki eta bateria darabilen ikus dezakezu. CPU, memoriari eta sare mugikorraren eta Wi-Fi sarearen erabilerari buruzko informazioa ikus dezakezu.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Segurtasuna, Gailua ezagutzen hasi eta Bateria eta energia.

### BlackBerry 10en aurkezpena: ikuspegi orokorra

BlackBerry berriaren aurkezpena – etengabe zure beharretara egokitzen den esperientzia adimenduna eta intuitiboa. Hiru ikuspegi nagusi ditu – mezuak, minimizatutako aplikazioak eta aplikazio guztiak – BlackBerry 10 OS-ek esfortzurik gabe zure egitekoen eta aplikazioen artean mugitzeko aukera ematen dizu mugimendu soil eta azkarrekin.

### 🔛 BlackBerry Hub

BlackBerry Hub-ek zure mezu eta jakinarazpen guztiak kokapen egoki batean biltzen ditu. Jaso eta erantzun posta elektronikoei, testu-mezuei edo BBM berriketei eta istanteko mezuei. Edozein pantailan keinu bakar batekin, jakinarazpenak ikusi, BlackBerry Hub-en mezuak ikusi edo laster izango dituzun hitzorduak edo bilerak kontsultatu ahal izango dituzu.

BlackBerry Hub-en agertzen diren mezu motak iragaz ditzakezu, baita jasotzen dituzun mezuen eranskinak erakutsi ere. BlackBerry Hub-en mezu garrantzitsuenak eta jakinarazpenak erakusteko, mezuen arauen lehentasuna ezar dezakezu (adibidez, zu joango zaren bilera bateko mezuak).

Istanteko aurrebistaren jakinarazpenarekin, mezu elektronikoak, BBM mezuak, testu-mezuak eta asko gehiago ikus dezakezu gailuko ia edozein puntutik. BBM eta testu-mezuei ere erantzun diezaiekezu, uneko aplikazioa utzi beharrik gabe.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Hub eta Soinuak, jakinarazpenak eta dei-tonuak.

### A BlackBerry teklatua

BlackBerry gailua esan nahi duzuna eta esaldiko zein tokitan esan nahi duzun jakiteko diseinatuta dago. Zure gailuak informazio hau erabiltzen du hurrena idatziko duzun hitza zein den asmatzeko. Iradokitako hitzak BlackBerry teklatua-n bistaratuko dira. Mugitu hitza pantailara esku bakarrarekin modu eraginkorrean idazteko. Maius, ikur eta ezabatzeko teklek sakatzen dituzunean ateratzen duten tonua desberdina da, ohiko tekletatik bereiz ditzazun. Eta bi hizkuntza edo gehiagotan ere idatz dezakezu aldi berean!

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Teklatua eta idazketa eta Hizkuntza atalak.

### 😰 BBM Video Pantaila-partekatzearekin

Eduki bideo elkarrizketak aurrez aurre zure BBM kontaktuekin HSPA+, 4G LTE eta Wi-Fi sareen bidez. Hasi BBM Video telefonotik edo Kontaktuak aplikaziotik, edo aldatu BBM berriketa batetik BBM Video elkarrizketa batera, ikonoa kolpatuta. Horrez gain, pantaila kontaktu batekin ere parteka dezakezu. Horretarako, kolpatu ikonoa. Horrela, argazkiak edo aurkezpenak erakuts diezazkiokezu hitz egiten jarraitzen duzun bitartean.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BBM Video.



Zure gailuak aurreko eta atzeko kamerak ditu bereizmen handiko argazkiak ateratzeko eta HD bideoak grabatzeko. Hasierako pantailatik kamera ireki eta argazki bat atera edo bideo bat graba dezakezu. Horretarako, kolpatu pantailako edozein puntutan. Time Shift moduak argazkia baino milisegundo batzuk lehenago eta geroago kapturatzen ditu, argazki perfektua ateratzeko marko onenak zehaztu ahal izateko. Eta kameratik, atera duzun azken argazkia begira dezakezu, atera nahi zenuen hori kapturatu ote duzun ikusteko.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Kamera.

### 🎬 BlackBerry Story Maker

BlackBerry Story Maker aplikazioari esker, argazkiak, bideoak eta musika HD film batean konbina ditzakezu, geroago ikusi eta besteekin posta, testu-mezu, sare sozialetako kontu edo beste modu baten bidez partekatzeko. Abesti bat aukera dezakezu atzeko planoko musika gisa, hasierako izenburuak eta amaierako kredituak gehi ditzakezu eta gaiak gehitu BlackBerry Story Maker bideo bat gorde eta aplikazioa ixten duzunean, bideoak gordetzen jarraitzen du atzealdean.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Story Maker.

#### <u>刁</u> BlackBerry Remember

Memorandumen eta egitekoen nahasketa bat da; BlackBerry Remember aplikazioak zure interesak, ideiak eta proiektuak antolatzen lagunduko dizu. Argazkiak, zerrendak, mezuak, posta elektronikoak eta estekak taldeka ditzakezu. Egitekoak sortzen ditu mezu elektronikoetatik eta zure edukiak ekintza bihurtzen ditu gailuko edozein tokitatik. Data eta ordua eslei dezakezu, elementua noiz iraungiko den edo elementua noiz itzuli nahi duzun adierazteko. Elementu horiek Egutegia aplikazioan agertuko da eta BlackBerry Hub egutegiko jakinarazpenak.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Remember.

#### Kontaktuak

Kontaktuak aplikazioak kontaktuen xehetasunak, eguneratzeak eta kontaktuaren sare sozialetatik hartutako enpresaren berriak biltzen ditu, baita zuk eta kontaktu horrek eta zuk dituzuen gertaera berak ere. Zure kontaktuak kontu mota erabiliz (BBM kontaktuak bakarrik bistaratzea aukeratu dezakezu, esaterako) iragaz ditzakezu. Gogokoak sortu eta sare sozialetako argazkiak erabil ditzakezu kontaktuak irudikatzeko.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Kontaktuak.

## 31 Egutegia

Egutegia aplikazioa BlackBerry Hub-ekin, Kontaktuak aplikazioarekin eta beste aplikazio eta kontu batzuetan integratuta dago. Kontuaren ezarpenak erabiliz, web-egutegiak gailuan gehi ditzakezu. Horretarako ICS jarioetara harpidetu behar duzu. Zure egutegiko gertaerak iragaz ditzakezu gizarte sareetan duzun kontu bakoitzerako. Gogorarazteko jakinarazpen batean, mezua bileraren antolatzaileari edo partaide guztiei bidal diezaiekezu. Begirada batekin, egun jakin batean norekin elkartuko zaren ikusiko duzu. Egutegia aplikazioak, halaber, aurreko posta elektronikoetan eta bileretan oinarritutako partaideak eta kokalekuak iradokitzen ditu.

Informazio gehiagorako eskuratzeko, ikusi Egutegia.

### 2

#### BlackBerry arakatzailea

BlackBerry arakatzailea berria indartsua, harkorra eta super azkarra da. Arakatzen ari zarela partekatu nahi duzun zerbait aurkitzen duzunean, gizarte sare batean argitara dezakezu mugimendu gutxi batzurekin. Arakatzailearen historia ikusteko, kolpatze gutxi batzuk soilik egin behar dituzu. Web-orriak Irakurlea moduan ikus ditzakezu, anabasa deskuidatu hori saihesteko; eta koloreak alderantzika ditzakezu, testu zuria atzeko plano beltzean ikusteko.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Arakatzailea.

#### Partekatu, zuzenean erreproduzitu edo bistaratu multimediafitxategiak.

Aplikazioetan kolpe gutxi batzurekin, erraz partekatuko dituzu musika, argazkiak, bideoak, fitxategiak, web-orriak eta kontaktuak beste batzuekin, posta elektronikoa, BBM, Bluetooth-a konexioa, NFC, sare sozialetako kontuak eta beste hainbat modu erabiliz. Multimedia-fitxategiak zuzenean erreproduzi ditzakezu DLNAk ziurtatua onartzen duten gailuetan (adibidez, ordenagailuak, telebistak edo etxerako entretenimendurako beste ekipo batzuk). Bestela, HDMI kablea erabil dezakezu multimedia-fitxategiak telebistan edo ordenagailuan ikusteko.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Multimedia partekatzea.

#### 📱 Argazkia editatzea

Argazkiak zuzenean zure gailuan edita ditzakezu. Ebaki eta biratu argazkia, murriztu begi-gorriak edo aplikatu hobekuntza eta estilo artistiko desberdinak.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Argazkiak.



#### **Bideoak editatzea**

Bideoak zuzenean gailuan edita ditzakezu. Aldatu bideoaren luzera, biratu irudia eta egin hobekuntzak, adibidez, aldatu distira eta kolorea.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Bideoak.



#### Bilatu

Gailu guztian bila ditzakezu fitxategiak, ezarpenak, aplikazioak, laguntza eta gehiago. Hasierako pantailan edo aplikazio batean idatzi edo esan bilatzeko hitza. Bilaketa murriztu egin dezakezu, aplikazio jakin batzuk soilik gehitzeko, edo zabaldu egin dezakezu, Interneteko iturriak ere gehitzeko.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi .Bilaketa

### Ahots-kontrola

Ahots-kontrola aplikazioak egiteko anitzak errazten ditu. Zure argibideak esan eta ekintza ugari egin ditzakezu birtualki, eskuak erabili gabe. Ahots-kontrola aplikazioa erabil dezakezu mezuak bidaltzeko, deiak egiteko, hitzorduak zehazteko, Interneten bilatzeko, tweetak argitaratzeko, besteak beste. Ireki Ahots-kontrola aplikazioa, gailuaren alboan dagoen mututu botoia sakatuta edukita edo teklatutik mikrofonoaren kolpatuta edukita.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi .Ahots-kontrola

### BlackBerry World

Aplikazio berriak ezagutzea inoiz baino errazagoa da antzerako erosketetan oinarritutako aplikazioen gomendioekin. Aplikazio bat aukeratu eta sare sozialetan parteka dezakezu aplikazioan keinu gutxi batzuk eginda. BlackBerry World-ek aplikazio, joko, gai, musika eta bideoetarako erakusleiho bateratua bultzatzen du. Guraso-kontrolei esker, gurasoak atzitzea nahi ez duzun edukia ezkuta dezakezu.

#### NFC eta etiketa adimendunak N

NFC irismen laburra duen hari gabeko teknologia da eta datuak bizkor transferitzeko diseinatu da. BlackBerry Tag-ek NFC teknologia erabiltzen du fitxategiak trukatzeko (baita argazkiak, musika, kontaktuaren informazioa eta webguneak ere) BlackBerry gailuaren eta NFC gaitutako beste gailu batzuen artean, gailuen atzealdea elkarrekin kolpatu hutsarekin. NFC ere erabil dezakezu zure gailuan, erositako elementuak ordaintzeko eta URLak, telefono-zenbakiak eta gehiago dituzten etiketa adimendunak sortu, gorde eta besteekin partekatzeko.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi NFC eta Etiketa adimendunak.

## BlackBerry Balance

Eraman zure gailua bulegora eta sartu lasai laneko posta elektronikora, aplikazioetara eta datuetara , gailuan dauden datu pertsonalak arriskuan jarri gabe. Zure aplikazio pertsonalak eta informazioa ez dira laneko datuak eta aplikazioak dauden leku berean gordeko. Lan-eremutik eta eremu pertsonalera erraz aldatuko zara, keinu soil batekin.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Balance-(e)ri buruz .

# Zer aldatu da BlackBerry 10en?

### Nola itzuliko naiz hasierako pantailara?

- Aplikazio ugaritan, 🔀 Atzera tekla kolpa dezakezu, aurreko pantailara itzultzeko.
- Aplikazioa minimizatzeko eta hasierako pantailara itzultzeko, irristatu hatza pantailaren behealdetik gora.



#### Nola sar naiteke menura?

Ez dago menu-teklarik BlackBerry 10 gailuetan. Menuak ireki ditzakezu pantailaren behealdeko ikonoak kolpatuta eta pantailako elementuak ukituta edukiz.



#### Nola alda ditzaket nire ezarpenak eta aukerak?

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Aplikazio bateko ezarpenak aldatzeko, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera. Kolpatu 🔯 .
- Aplikazio askotan, beste ekintza batzuk ikusteko, kolpatu 📑 .
- BlackBerry gailuaren ezarpenak aldatzeko eta sare mugikorretara eta Wi-Fi sareetara konektatzeko, irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera. Kolpatu 🐼 Ezarpenak.



#### Non daude nire posta elektronikoa eta bestelako mezuak?

Zure posta elektroniko, testu mezuak, sare sozialetako jakinarazpenak, dei galduak eta ahots-posta mezuak BlackBerry Hub-en aurkituko dituzu. BlackBerry Hub ez da BlackBerry gailuko gainerako aplikazioak bezalakoa. BlackBerry 10 esperientziaren erdian dago eta etengabe abian da konektatuta egon zaitezen, zure gailuan edozer gauza egiten ari zaren bitartean.

BlackBerry Hub-en sartzeko, hasierako pantailan, irristatu hatza eskuinera.

BlackBerry Hub-en begiratu edo gailuko edozein aplikaziotatik ireki dezakezu keinu erraz batekin:



#### Non daude telefonoko teklak eta nire jakinarazpen-profilak?

- BlackBerry 10 OSek integratutako jakinarazpen-modu hauek ditu: Normala, Telefono-deiak soilik, Bibratu soilik, Isilik eta Alerta guztiak desaktibatuta.
- Isilik modua bizkor aldatzeko, irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik beherantz eta kolpatu 👔 .
- Dei-tonu pertsonalizatuak erabil ditzakezu Kontaktuak aplikazioko kontaktuentzako.
- Deia erantzuteko, eduki ukituta pantailaren behealdeko zirkulua eta irristatu hatza ezkerrera. Askatu hatza pantailatik zirkuluak 💽 estaltzen duenean.



• Deia baztertzeko, eduki ukituta pantailaren behealdeko zirkulua eta irristatu hatza eskuinera. Askatu hatza pantailatik zirkuluak 🔤 estaltzen duenean.



#### Non daude nire aplikazioak?

Baliteke BlackBerry gailu zaharrean erabilitako zeinbait aplikazio erabilgarri ez egotea BlackBerry 10 gailuan. BlackBerry World erakusleihoan, bizkor egiazta dezakezu aplikazio zahar horiek deskargatzeko erabilgarri dauden **Nire mundua** pantailan edo bilatu aplikazio berriak.

#### Nola editatzen edo mugitzen da testua?

BlackBerry 10 gailuak ez du nabigazio-teklarik edo nabigazio-bolarik behar! Eduki ukituta testua hatzarekin, testua hautatzeko, ebakitzeko, kopiatzeko edo itsasteko aukerak dituen menua erakusteko. Kurtsorea mugitu edo testua toki jakin batean txerta dezakezu, kurtsorearen kontrolak ongi erabiliz.

#### Testua hautatu

Eduki ukituta karaktere edo hitz bat.

- Hautapena bertan behera uzteko, kolpatu pantailako edozein puntutan.
- Testu-hautapena aldatzeko, arrastatu heldulekuetatik.



#### Testua mugitu

- 1. Eduki sakatuta hatza hitz edo testu-eremu batean.
- 2. Askatu hatza pantailatik. Testua editatzeko aukerak dituen menua.
- 3. Kolpatu aukera bat.

**Aholkua:** Menu-ikono batek zer esan nahi duen ziur ez bazaude, eduki sakatuta ikonoa zer egiten duen ikusteko. Ez hautatzeko, irristatu hatza ikonotik kanpora.



#### Kurtsorea sartu

- 1. Kolpatu hitz edo testu-eremu bat, kurtsorea erakusteko.
- 2. Kurtsorea beste puntu batera mugitzeko, arrastatu zirkulua.
  - Kurtsorea aldiko karaktere bat mugitzeko, kolpatu zirkuluaren goialdean, behealdean, ezkerraldean edo eskuinaldean.
- 3. Txertatu testua kurtsorea dagoen tokian.

Aholkua: Ziurtatu hatza zirkuluaren kanpoaldenera dagoen tokian jartzen duzula, kurtsorea ikusten jarrai ahal izateko.



#### Non daude nire egitekoak, memorandumak eta ahots-oharrak?

- BlackBerry Link erabili baduzu zure fitxategiak gailu zaharretik BlackBerry gailu berrira transferitzeko, zure egitekoak, memorandumak eta ahots-mezuak BlackBerry Remember aplikazio berrian egongo dira.
- Aurretik egitekoak erabili badituzu BBM Groups-en, oraindik eginbide horietara sartzeko aukera izango duzu BBMn.

#### Non aurki ditzaket nire fitxategiak?

Fitxategi-kudeatzailea aplikazioan aurki ditzakezu fitxategiak. BlackBerry gailuan laneko kontua gehitu baduzu eta administratzaileak BlackBerry Balance teknologia aktibatuta badu, gailuaren datuak, aplikazioak eta sarerako sarbidea lan-eremuan eta eremu pertsonalean zatitu dira. Eremu bananduak edukitzeak istripuz, laneko datuak aplikazio pertsonalean kopiatzea edo BBM Video berriketa batean laneko isilpeko datuak bistaratzea saihesten lagunduko dizu. Lan-eremutik eremu pertsonalera aldatzeko, arrastatu hatza hasierako pantailaren erdialdetik behera eta kolpatu **Pertsonala** edo **Lana**.

### Non aurki dezaket nire gailuaren eta pasahitzen informazioa?

#### Non aurki dezaket nire PINa?

BBMn, kolpatu zure profileko argazkia. Profileko argazkian, PINa agertuko da barra-kodearen azpian. Mezu elektroniko edo testu-mezu batean **mypin** idatz dezakezu zure PINa bistaratzeko.

#### Nola aurki dezaket nire telefono-zenbakia?

Hasierako pantailan, kolpatu ikonoa **Deiak** edo **Kontaktuak** ikuspegian, irristatu hatza pantailaren erdialdetik behera eta telefono-zenbakia pantailaren goiko aldean agertuko da. Posta elektroniko edo testu-mezu batean, **mynumber** idatz dezakezu telefono-zenbakia bistaratzeko.

#### Non dago pasahitz-biltzailea?

Pasahitz-biltzailea aplikazioa deskargatzeko prest duzu BlackBerry World erakusleihoan. BlackBerry Link edo memoria-txartela erabili baduzu zure datuak BlackBerry 5.0 edo berriagoa onartzen duen BlackBerry Device Software gailu batetik transferitzeko, zure pasahitz-biltzaileko pasahitzak lehenera ditzakezu gailu zaharretik, Pasahitz-biltzailea aplikazioa deskargatu eta ireki ondoren.

#### Non aurki ditzaket nire gailuaren sistema eragileari eta hardwareari buruzko xehetasunak?

Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.Kolpatu 😿 Ezarpenak > Honi buruz. Bistaratuko den informazio mota aldatzeko, kolpatu aukera bat goitibeherako zerrendan.

#### Nola aurki dezaket?

BlackBerry gailuan edo Interneten duzun zerbaiten bila ari bazara, kolpatu hasierako pantailako 🔍 aukera.

#### Zer da BlackBerry Link?

BlackBerry Link-ren azken bertsioa da BlackBerry Desktop Software eta BlackBerry 10 gailuarekin erabil daiteke. BlackBerry Desktop Software edo zaharragoak erabiltzen dituzten BlackBerry 7.1 gailuekin erabil dezakezu.

BlackBerry Link gailuaren eta ordenagailuaren artean datuak, multimedia-fitxategiak eta aplikazioak lotzeko instala dezakezun softwarea da BlackBerry.

ZureBlackBerry Link ordenagailutik deskargatzeko bisitatu www.blackberry.com/BlackBerryLink eta hautatu Windows edo Mac aukera.

## Hasierako pantaila, gakoak eta ikonoak

#### Gailua begi-kolpe bakarrean



Hasierako pantaila begirada batean



#### Aplikazioen ikonoak

Ikonoa	Deskribapena
	BlackBerry Hub
-	Sartu hainbat kontutatik jasotako mezu eta jakinarazpen guztietara, kokapen bakarretik.
	Kontaktuak
	Eskuratu zure kontaktuak zure kontu guztietatik, baita hauen eguneratzeak eta partekatutako jarduerak aplikazio bakar batean.
2	Arakatzailea
	Ikusi webgunean errazago irakurtzeko moduan eta partekatu webguneak bizkor zure kontaktuekin.
	Egutegia
	Ikusi zure gertaera guztiak toki bakarrean, baita kontu elektronikoetatik eta sare sozialetako kontuetatik gehitutako gertaerak ere. Gertaerak kontuaren arabera iragaz ditzakezu.

Ikonoa	Deskribapena
	BBM
	Berriketan egin testua edo bideoa erabiliz eta partekatu fitxategiak 30 BBM kontaktu baino gehiagorekin.
	Testu-mezuak
	Bidali eta jaso SMS eta MMS mezuak, zure hari gabeko zerbitzu planaren barruan badaude.
	BlackBerry World
	Deskargatu, erosi, sailkatu eta iruzkindu aplikazioak, jokoak, musika eta bideoak.
	Remember
	Gogoratu nahi duzun informazioa biltzeko eta sailkatzeko produktibitate-aplikazioa.
	Docs To Go
	Sortu, editatu eta eman formatua Microsoft Word dokumentuei eta Microsoft Excel kalkulu-orriei. Editatu, ikusi eta aurkeztu Microsoft PowerPoint aurkezpenak.
	Argazkiak
<b>_</b>	Ikusi, editatu eta partekatu Kamera aplikazioarekin ateratako argazkiak edo zure gailuan gordetako argazkiak.
	Musika
	Partekatu musika bizkor eta erraz zure kontaktuekin. Erreproduzitu musika hari gabe zure etxeko entretenimendu ekipoetan.
	Bideoak
	Ikusi, editatu eta partekatu Kamera aplikazioarekin grabatutako bideoak edo zure gailuan gordetako bideoak. Erreproduzitu bideoak hari gabe zure etxeko entretenimendu ekipoetan.
	Story Maker
	Sortu eta partekatu zure gailuko argazkiak, bideoak eta musika erabiliz bideo bat sortu eta partekatzeko.
f	Facebook
	Ikusi Facebook jakinarazpenak, igotako argazkiak eta bideoak eta egiaztatu Tokiak aplikazioan.
<b>S</b>	Twitter
	Jarraitu interesatzen zaizkizun istorioak, ideiak eta iritziak tweet gisa ezagutzen diren mezu motzak bidaliz eta jasoz.

Ikonoa	Deskribapena
in	LinkedIn
	Eraiki eta konektatu zure sare pertsonalarekin eta eskuratu zure ibilbide profesionalarekin lotutako ideietara eta aukeretara sarbidea.
	Марак
	Bilatu tokiak, eskuratu urratsez urratseko argibideak eta gorde toki gogokoenak.
<b>9</b>	Jokoak
	Aurkitu jokoak deskargatzeko eta jolasteko. Gehitu zure lagunak beraien jokoak ikusteko edo joko batean jolasteko erronka botatzeko.
You Tube -	YouTube
	Partekatu zure bideoak lagunekin, senitartekoekin eta munduarekin.
Ų	Ahots-kontrola
	Agindu nori deitu, nori mezuak bidali, Interneten zer bilatu eta gehiago.
	Erlojua
	Jakin zer ordu den munduko erlojua, kronometroa, kontagailua eta alarma erabiliz.
	Kalkulagailua
	Egin kalkuluak kalkulagailu estandarra eta espezifikoa, eskupekoen kalkulagailua eta unitate-bihurgailua erabiliz.
	Iparrorratza
	Nabigatu iparrorratza erabiliz edo utzi iparrorratza sateliteetara konektatzen zure kokapena aurkitzeko.
	Fitxategi-kudeatzailea
	Ikusi, gorde eta partekatu gailuan, memoria-txartelean edo gailua konektatuta dagoen gailu edo sareetan dauden fitxategiak.
	Etiketa adimendunak
	Biltegiratu eta sortu besteekin inprimatutako materialaren bidez edo gailuen atzeko aldeak elkartuz parteka ditzakezun etiketak, testuarekin, telefono-zenbakiekin eta estekekin.
	Ezarpenak
	Aldatu sareko konexioen, kontuen, pantailaren, hizkuntzaren eta gehiagoren ezarpenak.
Y	Adobe Reader
	Ikusi PDF fitxategiak zure gailuan eta parteka itzazu besteekin, posta elektroniko, BBM eta gehiagoren bidez.
L.	Telefonoa
<b>`</b>	

Ikonoa	Deskribapena
	Egin konferentzia-deiak, ikusi ahots-posta edo mugitu dei bat BBM Videora.
	Kamera
	Aurreko eta atzeko kamerak eta Time Shift modua ditu argazki perfektua ateratzen laguntzeko.
<ul> <li><b>⊘</b> </li> <li><b>⊘</b> </li> </ul>	Konfigurazioa
	Konfiguratu zure kontuak, pertsonalizatu zure gailua eta ikusi BlackBerry 10 OSen erabilerari buruzko tutorialak.
0	Laguntza
	lkasi zure gailuan gauzak bizkor nola egiten diren, irakurri ohiko galderak eta ikasi zure produktibitatea areagotzen lagunduko dizuten gomendioak.

#### Jakinarazpen-ikonoak

Jakinarazpen-ikonoek BlackBerry Hub-en elementu berriak edo ireki gabeak dituzun erakusten dizute. Elementu berri bat duzunean, 🛞 adierazlea agertzen da jakinarazpen-ikonoan. Jakinarazpen-ikonoak begiratzeko, irristatu hatza pantailaren behealdetik gora gailuko edozein tokitan.

Ikonoa	Deskribapena
	Mezu elektronikoa
	Testu-mezua
₩.	BBM mezua
f	Facebook mezua
Y	Twitter mezua
in	LinkedIn mezua
で	Telefono-deia
	Aplikazioen eta zerbitzuen jakinarazpen mezuak, adibidez, BlackBerry World

# Konfigurazioa eta aktibazioa

## Mikro SIM txartela, bateria eta multimedia-txartela sartzea Bateriaren estalkia kendu

Aholkua: Bateriaren estalkia malgua da eta oker daiteke kentzerakoan.

Bateriaren estalkia kentzeko, tiratu gorantz bateriaren estalkiaren behealdea.



#### Sartu edo atera mikro SIM txartela

**KONTUZ:** Zure BlackBerry gailua mikro SIM txartelarekin erabiltzeko diseinatu da. Zure gailuan kalteak saihesteko, ez sartu SIM txartelaren moldagailua gailuan.

Zerbitzu-hornitzailearen eta gailua erosi zenuen tokiaren arabera, baliteke mikro SIM txartela dagoeneko sartuta egotea.

Mikro SIM txartela sartzeko, irristatu bere lekura, ilustrazioan erakusten den bezala.

Mikro SIM txartela ateratzeko:

- 1. Bultza mikro SIM txartela zati bat kanpora atera dadin, hatz erakuslea irekigunean jarrita.
- 2. Irristatu mikro SIM txartela erabat kanpora, hatz erakuslea edo hatz lodia erabiliz, edo hatz lodiarekin mikro SIM txartelaren goialdean sakatuta.





#### Multimedia-txartela sartu

**Aholkua:** BlackBerry gailua aktibatuta dagoen bitartean, multimedia-txartela sartu edo atera dezakezu. Ez duzu gailua desaktibatu edo berrezarri beharrik.

Multimedia-txartela aukerakoa da. Multimedia-txartelarekin banatzen bada, baliteke dagoeneko sartuta egotea.

Multimedia-txartela (microSD txartela) sartzeko, irristatu txartela bateriaren eskuinaldeko zirrikituan, txartelaren kontaktueremua behera begira dagoela.





#### Bateria sartu edo kendu

BlackBerry gailua erabiltzen hasi baino lehen, bateria kargatu beharko duzu. Zure gailua zetorren kutxan dagoen bateria ez dago guztiz kargatuta.

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Bateria sartzeko, kontaktuak lerrokatu.
- Bateria kentzeko, bateriaren kontaktuen beste aldetik, jaso eta tira egin bateriatik kanporantz.





### Gailua konfiguratu

BlackBerry gailua lehenengoz piztean, Konfigurazioa aplikazioa irekiko da. Konfigurazioa aplikazioak sare-konexioa behar du; beraz, ziurtatu gailua sare mugikor batera konektatuta dagoela Wi-Fi sare baten estaldurapean. Hasierako konfigurazioa burutu eta gero, Konfigurazioa aplikazioa ireki dezakezu hasierako pantailako **Sconfigurazioa** ikonoa kolpatuz.

Konfigurazioa aplikazioak dagoeneko badagoen BlackBerry ID bat edo berri bat sortzeko eskatuko dizu. Dagoeneko BlackBerry ID bat ote duzun ez badakizu, bisitatu ordenagailutik www.blackberry.com/blackberryid helbidea.

Konfigurazio aplikazioa erabil dezakezu:

- Posta elektronikoa, BBM, istanteko mezularitza eta sare sozialetako kontuak gehitzeko
- BlackBerry World erakusleihoan egiten dituzun erosketak ordaintzeko moduak konfiguratzeko

- BlackBerry 7 edo 7.1 bertsioa exekutatzen duten gailuetatik datuak transferitzeko
- Pertsonalizatu zure gailuaren ezarpenak
- Ikusi tutorialak edo ireki Laguntza aplikazioa BlackBerry 10 OS i buruz gehiago jakiteko

#### Posta elektronikoa eta beste kontu mota batzuk gailuan konfiguratu

Posta-kontuak, sare sozialetako kontuak (Facebook, Twitter edoLinkedIn, adibidez) edo Evernote kontuak gehi ditzakezu gailuan.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🌣 Ezarpenak > Kontuak.
- 3. Dagoeneko kontu bat gehitu baduzu zure gailuan, beste kontu bat gehitzeko, kolpatu 👰 .

#### Posta-kontu pertsonala gehitu

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu Posta elektronikoa, egutegia eta kontaktuak.
- 2. Idatzi helbide elektronikoa.
- 3. Kolpatu Hurrengoa.
- 4. Idatzi kontuaren pasahitza.
- 5. Kolpatu Hurrengoa.
- 6. Aldatu ezarpen gehigarriak (adibidez, zure gailuarekin sinkronizatzeko eduki motak).
- 7. Kolpatu Eginda.

#### Sare sozial bat edo Evernote kontu bat gehitu

Facebook, Twitter, LinkedIn edo Evernote kontuak gehi ditzakezu gailuan. Zure gailuan Evernote kontu bat gehitzen duzunean, Evernote koadernoak erabilgarri egongo diraBlackBerry Remember-en.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu Facebook, Twitter, LinkedIn edo Evernote.
- 2. Idatzi kontuaren informazioa.
  - Beharrezkoa bada, aldatu sinkronizatutako ezarpen aukerak.
  - Facebook kontu bat gehitu baduzu, lagunen urtebetetzeen jakinarazpenak noiz jasoko dituzun aldatzeko, kolpatu gogorarazle aukera bat, **Urteurrenaren gogorarazleak** goitibeherako zerrendatik.
- 3. Kolpatu Eginda. Beharrezkoa bada, kolpatu Baimendu.

#### BlackBerry Enterprise Service 10 -k onartutako laneko kontu bat gehitu

Erakundeak BlackBerry Enterprise Service 10 erabiltzen badu, laneko kontua gehi dezakezu gailuan eta BlackBerry Balance eginbidea bezalako abantailak izango dituzu. Erakundeak ez badu BlackBerry Enterprise Service 10 bertsio berriena eta BlackBerry Enterprise Server 5 edo zaharragoa exekutatzen badu, laneko kontua gehi dezakezu Microsoft Exchange ActiveSync erabil dezan. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan administratzailearekin. Ziurtatu administratzailearen informazio hau ezagutzen duzula:

- Erabiltzaile-izena
- Enpresaren aktibazio-pasahitza
- Zerbitzariaren izena
- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 🗮 > Laneko kontua.
- 2. Idatzi zure kontuaren erabiltzaile-izena, aktibazio-pasahitza eta zerbitzari-helbidea
- 3. Kolpatu Eginda.

Laneko kontu bat gehitu eta gero, lan-eremuko pasahitz bat ezartzeko abisuak jarraitu BlackBerry Balance-rekin erabiltzeko eta zure laneko sareko pasahitza idazteko.

#### Gehitu Microsoft Exchange ActiveSync -k onartzen duen posta-kontu bat

Ziurtatu administratzailearen edo posta elektronikoaren zerbitzu-hornitzailearen informazio hau ezagutzen duzula:

- Erabiltzaile-izena eta laneko sarearen pasahitza
- Zerbitzariaren helbidea

Microsoft Exchange ActiveSync-ek onartzen duen helbide elektroniko bat gehitzen duzunean, kontuarekin lotutako mezuak, egutegiko gertaerak, kontaktuak, zereginak eta oharrak BlackBerry gailuarekin sinkronizatuko dira.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 📰 > Microsoft Exchange ActiveSync.
- 2. Idatzi zure kontuarentzako helbide elektronikoa, pasahitza eta zerbitzariaren helbidea.
  - Push posta elektronikoa desaktibatzeko, hautatu **O Push** aukeran. Zure gailuak mezu berriak zein maiztasunekin egiaztatzen dituen konfiguratzeko, **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendan, kolpatu aukera bat.
  - Zure erakundearen VPN erabiltzeko, hautatu I VPN aukeran.
  - Zure gailuak mezuak zenbatean behin sinkronizatzen dituen aldatzeko, hautatu aukera bat **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendan.
- 3. Kolpatu **Hurrengoa**.

#### IBM Notes Traveler posta-kontu bat gehitu

Ziurtatu administratzailearen edo posta elektronikoaren zerbitzu-hornitzailearen informazio hau ezagutzen duzula:

- Zure erabiltzailearen izena eta laneko sarearen pasahitza
- Zerbitzariaren helbidea

IBM Notes Traveler helbide elektroniko bat gehitzen duzunean, kontuarekin lotutako mezuak, egutegiko gertaerak, kontaktuak, zereginak eta oharrak BlackBerry gailuarekin sinkronizatuko dira.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 🚆 > IBM Notes Traveler.
- 2. Idatzi zure kontuaren helbide elektronikoa, pasahitza eta zerbitzariaren helbidea.

- Push posta elektronikoa desaktibatzeko, hautatu **O Push** etengailuan. Gailuak mezu berriak zein maiztasunekin egiaztatzen dituen konfiguratzeko, kolpatu **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendako aukera bat.
- Zure erakundearen VPN erabiltzeko, hautatu I VPN etengailuan.
- Zure gailuak mezuak noiztik sinkronizatzen dituen aldatzeko, hautatu aukera bat **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendan.
- 3. Kolpatu Hurrengoa.

### BlackBerry kontu elektroniko bat gehitu

BlackBerry kontu elektroniko bat konfiguratzen baduzu (normalean erabiltzailea@<zerbitzu-hornitzailea>.blackberry.com formatuarekin) BlackBerry gailu zahar batean, kontu horretako mezuak BlackBerry 10 gailu berrian jasotzen jarraitzeko, mezua birbidaltzeko helbide bat konfiguratu eta ondoren helbide elektroniko bat gehitu beharko duzu gailuan.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu Posta elektronikoa, egutegia eta kontaktuak.
- 2. Idatzi helbide elektronikoa.
- 3. Kolpatu Hurrengoa.
- 4. Idatzi kontuaren pasahitza.
- 5. Kolpatu Hurrengoa.
- 6. Birbidali pantailan, idatzi mezua birbidaltzeko helbidea.
- 7. Kolpatu Hurrengoa.

Oharra: Baliteke 5 eta 15 minutu bitartean behar izatea mezua birbidaltzeko helbidera posta elektronikoa birbidaltzeko.

BlackBerry posta elektronikoa gailuan jasotzeko, ziurtatu posta elektronikoa birbidaltzeko kontua gailuan gehitu duzula.

#### IMAP edo POP posta-kontua gehitu

Ziurtatu posta elektronikoaren zerbitzu-hornitzailearen edo administratzailearen informazio hau ezagutzen duzula:

- Mezularitza zerbitzari mota (POP edo IMAP)
- Sarrerako eta irteerako mezularitza zerbitzariaren helbideak
- Sarrerako eta irteerako mezularitza zerbitzariaren ataka zenbakiak
- Sarrerako eta irteerako mezularitza zerbitzariaren SSL ezarpenak

**Oharra:** IMAP posta-kontuen aktibazio-abiadura areagotzeko, **IMAP bidearen aurrezenbakia** idaztea gomendatzen da. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan administratzailearekin.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 📰 > IMAP edo POP.
- 2. Sartu kontuaren informazioa.
  - BlackBerry gailuak mezu berriak zein maiztasunekin egiaztatzen dituen konfiguratzeko (push posta elektronikoa onartzen ez bada) **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendan, kolpatu aukera bat.
  - Hasieran zure gailuarekin sinkronizatuta dagoen mezu kopurua aldatzeko, hautatu aukera bat **Hasierako** berreskuratze kopurua goitibeherako zerrendan.
- 3. Kolpatu Eginda.

### CalDAV edo CardDAV kontu bat gehitu

Ziurtatu informazio hau ezagutzen duzula:

- Erabiltzaile-izena eta pasahitza
- Kontuarekin lotutako helbide elektronikoa
- Kontuaren zerbitzari-helbidea

CalDAV edo CardDAV kontu bat gehi dezakezu egutegiko gertaerak edo kontaktuak sinkronizatzeko, hurrenez hurren.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 📰 > CalDAV edo CardDAV.
- 2. Sartu kontuaren informazioa.
- 3. Kolpatu Eginda.

### Gailuak aldatu aurretik

BlackBerry gailu batetik edo hirugarren baten gailutik BlackBerry-ra aldatzeari buruzko informazio gehiagorako, zoaz www.blackberry.com/deviceswitchwebgunean.

#### Ikusi transferitzeko zein aukera dituzun

Transferitutako datu motak transferitzeko erabiltzen duzun metodoaren eta datu horiek transferitzen dituzun smartphone motaren araberakoak izango dira. Datuak transferitu ditzakezu, hala nola, ezarpenak, telefonoaren historia, argazkiak, musika, arakatzailearen laster-markak eta gehiago. Transferitu den datu moten zerrenda ikusteko, zoaz www.blackberry.com/deviceswitch webgunera.

- BlackBerry Device Software 5.0 edo berriagotik aldatzen? Ordenagailuan, BlackBerry Link erabil dezakezu gailuak aldatzeko. Ikasi gailuak aldatzen BlackBerry Link erabiliz.
- BlackBerry 7.0 edo BlackBerry 7.1-tik aldatzen? Memoria-txartel bat erabil dezakezu gailuz aldatzeko. Ikasi gailuak aldatzen memoria-txartela erabiliz.
- BlackBerry Protect instalatuta duen BlackBerry gailu batetik aldatzen? BlackBerry Protect erabil dezakezu onartutako datuak transferitzeko, adibidez kontaktuak zure uneko gailuko babeskopietatik gailu berrira transferitzeko. Ikasi gailuak aldatzen BlackBerry Protect erabiliz.
- iPhone edo Android gailutik aldatzen? Gailuz aldatzea aplikazioa deskarga dezakezu BlackBerry World-tik. Ikasi gailuak aldatzen gailuz aldatzea aplikazioa erabiliz.

**Aholkua:** BlackBerry gailutik aldatzen bazara, unean softwarearen zein bertsio duzun jakiteko, zure gailuko zaharreko Hasierako pantailan, burutu ekintza hauetako bat:

- Sakatu Aukerak > Honi buruz.
- Sakatu Aukerak > Gailua > Gailuaren bertsioei buruz.

#### Gogoratu zure erabiltzailearen izenak eta pasahitzak

BlackBerry gailuak aldatu aurretik, egiaztatu jarraian zehazten dena duzula:

- Erabiltzailearen izenak eta pasahitzak gorde badituzu Pasahitz-biltzailean, baliteke informazio hau apuntatu behar izatea gailu berrira kontuak gehitzeko orduan prest edukitzeko.
- BlackBerry Device Software 5.0 edo berriagoa onartzen duen gailua baduzu, baliteke zure gailuan eta BlackBerry World erakusleihoan saioa hasteko BlackBerry ID bat sortu izatea. Zure BlackBerry 10 gailuan saioa hasi baduzu zure BlackBerry ID-(e)arekin aurretik BlackBerry App World-(e)tik deskargatutako aplikazioak berriro instalatu eta zure BlackBerry ID erabiltzen dute BlackBerry produktuak eskuratu ahal izango dituzu, adibidez BBM eta BlackBerry Protect.

Oharra: BlackBerry App World, BlackBerry World izena du BlackBerry 10 gailuetan.

### EguneratuBBM

BlackBerry gailuz aldatzeko beharrezkoa ez den arren, BBM-(e)ren bertsio berriena eguneratzea eta zure BlackBerry IDrekin BBM -rekin bat egitea gomendatzen dizugu gailuz aldatu aurretik.

- 1. Gailu zaharrean BBM-(e)ren zein bertsio duzun ikusteko, bilatu **BlackBerry Messenger** instalatuta dituzun aplikazioen zerrendan.
- 2. Gailu zaharrean BBM 7.0 edo berriagoa deskargatzeko, zoaz BlackBerry World erakusleihora edo www.bbm.com webgunera.

Ezin baduzu BBMren bertsioa eguneratu, BBMn, sakatu **eta** tekla > **Aukerak** > **Babeskopia**. Hautatu babeskopiaaukera bat.

#### Zer gertatzen da mikro SIM txartelean kontaktuak baditut?

Zure BlackBerry 10 gailuak mikro-SIM txartela erabiltzen du. Zure gailuarentzako mikro-SIM txartela lortzeko jarri zerbitzuaren hornitzailearekin kontaktuan.

Kontaktuak mikro SIM txartel zaharrean gorde badituzu, kontaktu horiek ez dituzula galduko ziurtatzeko, kontaktu horiek zure gailu zaharrean kopiatu beharko zenituzke gailuaren babeskopia egin aurretik.

Aholkua: Mikro SIM txarteleko kontaktuak gailu zaharraren integratutako multimedia-biltegian kopiatzeko, sakatu gailu zaharreko zaharrek

# Piztea/itzaltzea eta kargatzea

### Gailua itzali

Eduki sakatuta BlackBerry gailuaren goialdeko Piztu-itzali/Blokeatu tekla.



### Gailua Egonean moduan ezarri

Zure BlackBerry gailua Egonean moduan ezartzen duzunean, gailuko pantailaren atzeko argia itzali eta pantaila blokeatuko da. Ez die hari gabeko konexioei eta erlojuaren alarmei eragiten.

Eduki sakatuta gailuaren goialdeko **Piztu-itzali/Blokeatu** tekla.

Gailua esnatzeko, irristatu hatza gailuaren pantailaren behealdetik gora.



#### Gailua berrabiarazi edo berrezarri

BlackBerry normalean baino polikiago badabil edo ez badu erantzuten, gailua itzaltzeak eta berriz pizteak arazoa konpontzen lagun dezake.

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Zure gailua berrabiarazteko, sakatu Piztu-itzali/Blokeatu tekla gailuaren goialdean. Kolpatu 🚺 .
- Gailua berrezartzeko, eduki ukituta Piztu-itzali/Blokeatu tekla hamar segundoz.

### Gailua kargatu

BlackBerry gailua erabiltzen hasi aurretik, gailuarekin zetorren bateria kargatu beharko duzu, bateria ez baitago guztiz kargatuta.

Kargatu gailua, hura zetorren kutxaren barruko BlackBerry kargagailuaz baliatuz. Ordenagailura konektatutako USB kable baten bidez kargatu dezakezu zure gailua, baina baliteke denbora asko behar izatea kargatzeko.

KONTUZ: Beste kargagailuren bat erabiltzen baduzu, baliteke energia nahikoa ez ematea eta gailua hondatzea.

BlackBerry logotipoa ( \_\_\_\_\_\_) gailuaren aurrealdera begira dagoela, konektatu kablea gailuaren USB atakan eta entxufatu kargagailua hormako entxufean.



#### Aholkuak: gailua kargatzea

BlackBerry gailuak litio-ioizko bateria du. Mota horretako bateriaren erabilera maximizatzeko, ahal denean, egin hau:

- Saihestu gailua kargatzen ari denean berori erabiltzea; horrela, azkarrago kargatuko da.
- Kargatu gailua sarri, baita bateria asko badu ere.
- Ahal dela ez kargatu, erabili edo utzi gailua oso toki hotz edo beroetan; adibidez, autoaren aginte-mahaian.
- Ahal dela ez utzi gailua denbora luzez itzalita bateria gutxirekin.
- Gailuaren bateria atera badaiteke eta, gailua egun batzuetan soilik erabili behar baduzu, ez kargatu bateria osorik. Bateria kendu eta toki lehor batean gorde dezakezu, gelako tenperaturan, bateria mantentzeko.

#### Gailua blokeatu edo desblokeatu

Aholkua: Piztu-itzali/Blokeatu tekla azkar kolpatuz gero, gailua lo moduan ezarriko da. Bateria gutxiago gastatzen lagunduko dizu.

#### Pantaila blokeatu

Pantaila blokeatzean, BlackBerry gailuak nahi gabe edo sakelean nahi gabe markatzea saihestuko du. Gailua blokeatzeak ez du eragotziko deiak edo mezuak jasotzean alertak entzutea.

Eduki sakatuta gailuaren goialdeko Piztu-itzali/Blokeatu tekla.



Pantaila desblokeatzeko, ukitu pantaila behetik gora.

#### Zure gailua sarea desblokeatzeko kode batekin desblokeatu

Zure BlackBerry gailuarentzako sarea desblokeatzeko kodeak lortzeko, jarri harremanetna zerbitzu-hornitzailearekin.

Baliteke zure gailuaren sarea blokeatuta egotea. Ondorioz, uneko zerbitzu-hornitzailearen bidez bakarrik onartzen da gailuaren sare mugikorrerako konexioa. Adibidez, SIM txartela beste zerbitzu-hornitzaile batekin erabili nahi baduzu, baliteke desblokeatzeko kodea idatzi behar izatea.

Aholkua: Zure gailuarekin lotuta dagoen uneko zerbitzu-hornitzailea ikusteko, hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik beherantz. Kolpatu 🙀 Ezarpenak > Honi buruz > SIM txartela.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > SIM txartela.
- 3. Telefono-sarearen blokeoa atalean kolpatu blokeatutako elementu bat.
- 4. Eskatzen zaizunean, idatzi desblokeatzeko kodea.

**KONTUZ:** Segurtasun-arrazoiak direla-eta, desblokeatzeko kode bakoitza 10 aldiz bakarrik idatzi ahal izango da gaizki. Desblokeatzeko kodea idazteko onartutako saiakeren kopurua gainditzen baduzu, mikro SIM txartelak larrialdi-deiak egiten soilik utziko dizu. Laguntza jasotzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

#### Lan-eremua blokeatu

Zure BlackBerry gailuak BlackBerry Balance teknologia erabiltzen badu zure laneko jarduerak eta jarduera pertsonalak banatzeko, zure lan-eremua blokea dezakezu zure gailutik fitxategi, aplikazio eta datu pertsonaletara sartzeko.

- 1. Lan-eremurako pasahitzik ez baduzu, bat sortzeko, irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera Kolpatu Balance > Ezarri pasahitza. Idatzi pasahitza.
- 2. Hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
  - Lan-eremua berehala blokeatzeko, kolpatu 💼 .
  - Zure lan-eremua automatikoki ixteko denbora jakin bat igaro eta gero, kolpatu **Balance** > **Blokeatu lan-eremua** gero.

Gogoratu zure lan-eremuko pasahitza ezin baita berrezarri edo berreskuratu. Baimendutako pasahitz-saiakera kopurua gainditzean zure lan-eremura sartzean, zure lan-eremua eta bertan dauden edukiak ezabatuko dira.

#### Blokeatu zure gailua pasahitzarekin

Zure BlackBerry gailuaren data babesteko eta zure gailua baimenik gabe erabiltzea saihesteko modu erraz baten bila? Pasahitz bat ezar dezakezu zure gailua blokeatzeko ikuspegi irekian dagoenean edo erabilgarri ez dagoenean.

Ez baduzu pasahitzik oraindik, hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera. Kolpatu 
 Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > Gailuaren pasahitza. Ezarri I Gailuaren pasahitza aukeran. Idatzi pasahitza.

- 2. Zure ordenagailua blokeatzeko, egin ekintza hauetako bat:
  - Eduki sakatuta gailuaren goialdeko Piztu-itzali/Blokeatu tekla. Kolpatu 👔 .

Zure gailua desblokeatzeko, sakatu **Piztu-itzali/Blokeatu** tekla gailuaren goialdean. Pantailaren beheko aldetik irristatu hatza gora. Eskatzen zaizunean, idatzi zure gailuaren pasahitza.

# Ukipen pantaila erabili

Hartu une bat, oinarrizko keinu hauek erabiliz BlackBerry gailuan nola nabigatu ikasteko.

### Elementu batetik bestera korritu eta mugitu

Irristatu hatza zerrenda batean mugitzeko, webgune batera joateko edo irudiak aldatzen joateko. Horrez gain, hasierako pantaila ikusteko ere irrista dezakezu hatza. Adibidez, BlackBerry Hub ikusten ari bazara, hatza ezkerrerantz irristatu, minimizatuta dauden aplikazioak erakusten dizkizun hasierako pantaila ikusteko. Irristatu azkar hatza ezkerrera berriro aplikazio guztiak ikusteko.

- Korritzeko, irristatu hatza gora eta behera.
- BlackBerry Hub eta hasierako pantailaren artean mugitzeko, irristatu hatza ezkerrera eta eskuinera.



### Graduatzailea erabili

Pantailan graduatzailea azaldu bada, fitxategi batean aurrera egiteko, abesti edo bideoren batean esaterako, edo orriak pasatzeko erabili dezakezu, eBook batean adibidez.

Graduatzailean, arrastatu graduatzailearen heldulekua.



### Hautatu elementuak

Egin hauetako bat:

- Elementu bat hautatzeko, kolpatu gainean. Ireki badaiteke, irekiko da. Ezin bada, markatuta geldituko da.
- Elementu bat ireki gabe nabarmenduta uzteko, ukitu eta eduki sakatuta.
- Hainbat elementu nabarmentzeko, partekatu nahi dituzun argazkiak edo abestiak esaterako, eduki ukituta elementu bat. Kolpatu 🔽 eta kolpatu elementu gehigarriak. Elementu bat garbitzeko, kolpatu berriro.


### Pantaila bat handiagotzeko edo txikiagotzeko

Irudi bateko xehetasun bat handiagotu nahi baduzu edo txikiegiak diren letrak irakurtzeko arazoak badituzu, zoomarekin handiagotu dezakezu pantaila. Pantailan gehiago ikusteko, txikiagotu.

Hatzak arrastatuz aldendu handiagotzeko, edo elkartu txikiagotzeko.



### Elementuak leku batetik bestera mugitu

- 1. Hasierako pantailan eduki ukituta mugitzea nahi duzun elementua.
- 2. Elementua keinuka hasten denean, hatza irrestatuz eraman elementua utzi nahi duzun lekura.



### Aplikazioak minimizatu eta Marko aktiboak erakutsi

Aplikazio bat minimizatzen duzunean, Marko aktibo gisa agertuko da hasierako pantailan. Zeregin asko burutzen dituzunerako oso erabilgarria da hori, arakatzailea erabili aurretik ez dituzulako, adibidez, dokumentuak gorde eta itxi behar edo posta elektronikoa begiratu ondoren ez duzulako berriro arakatzailea berrabiarazi behar.

Irristatu hatza pantailaren behealdetik gora.



Aholkua: Aplikazioa erabiltzen bukatzean, aplikazioaren behe-eskuineko ertzean dagoen 🗙 kolpatuta itxi dezakezu.

#### BlackBerry Hub ikusi

BlackBerry gailuko edozein tokitatik begiratu edo ireki ahal izango duzu BlackBerry Hub.

Pantailako beheko aldetik, irristatu zure hatza gora eta eskuinera.



Aholkua: Mantendu hatzak pantailan BlackBerry Hub begiratzen duzun bitartean. Egiten ari zinenera itzultzeko, irristatu hatza berriro behera.

### Menuak erakutsi

Eginbide gehigarriak, aukerak eta laguntza aurki ditzakezu menuak arakatuta.

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Aplikazio batean egin ditzakezun ekintza gehigarriak ikusteko, kolpatu 👔 edo 🧮 .
- Aplikazio batean elementu zehatz batentzako ekintza osagarriak ikusteko, abesti bat edo argazki bat adibidez, eduki elementua ukituta. Pantailaren eskuinean agertzen diren elementuen izenak ikusteko, irristatu hatza haien gainetik.
- Ezarpenak eta laguntza aurkitzeko, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera. Aplikazio batean, aplikazio jakin baten ezarpenak ikus ditzakezu. Aplikazio batean ez bazaude, gailuaren ezarpenak ikus ditzakezu.



### Teklatua erakutsi

Bi hatzekin, pantailaren beheko aldetik errestatu gorantz.



**Aholkua:** Teklatua ezkutatzeko, kolpatu pantaila testua idazteko eremu batekin kanpo. Teklatua ezkutatu nahi baduzu eta ezin baduzu inon kolpatu pantailan, irristatu bi hatzak teklatuaren goialdetik behera.

### Android aplikazio baten barrena nabigatzea

BlackBerry World erakusleihoan erabilgarri dauden zenbait aplikazio eta joko Android gailuan erabiltzeko bihurtutako BlackBerry aplikazioak dira. Aplikazio horietan, pantailaren behealdeko ekintza-barra erakutsi edo ezkuta dezakezu edo aurreko pantailara itzul zaitezke.

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Gauza ditzakezun ekintza gehiago ikusteko, irristatu pantailaren goialdetik behera, aplikazio batean.
- Aurreko pantailara itzultzeko, jarri hatza pantailaren erdialdetik behera. Irristatu hatza diagonalki gora eta ezkerrera.



### Gailua pertsonalizatzea

### Gailuaren ezarpenak pertsonalizatu

BlackBerry gailua pertsonalizazio eta kontrol eta kontrol zabala emateko diseinatu da. Kaxatik atera, erabiltzen hasi eta gailua zure beharretara egokitu eta optimiza dezakezu. Ezagutu aukera guztiak eta jakin gailuak egin dezakeen guztia.

- 1. Irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🌣 Ezarpenak.

Ezarpen jakin bati buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Laguntza.

### Ezarpen bizkorrak pertsonalizatu

Hasierako pantailan hatza behera irristatuta sartzen zaren menuko ezarpenak gehien erabiltzen dituzun ezarpenak erakusteko diseinatuta dago. Zuk aukeratzen duzu zein ezarpen agertzen diren, baita zein posiziotan ere, zuretzat garrantzitsuenak diren ezarpenak bizkor eskura izateko. Jarri bizkor BlackBerry gailua hegaldi moduan edo ohe moduan, desaktibatu alarma edo piztu alarma!

- 1. Irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Ezarpen bizkorrak.
  - Ezarpen bizkorretan elementuak azkar gehitu edo handik kentzeko, hautatu edo garbitu kontrol-laukiak.

• Ezarpen bizkorretan elementuen posizioa aldatzeko, kolpatu 👔 . Eduki ukituta mugitu nahi duzun elementua. Arrastatu elementua beste toki batera eta askatu hatza. Kolpatu **Gorde**.

Aholkua: Ezarpen bizkorretan elementu ugari badituzu, hatza eskuinera edo ezkerrera irrista dezakezu, guztiak ikusteko.

#### Aplikazioak, jokoak, musika eta bideoak deskargatu eta erosi

Erosten dituzun aplikazioak, jokoak eta musika nahi adina aldiz ezabatu eta deskarga daitezke BlackBerry gailu berean; baita beste lau gailutan ere, elementuengatik berriro ordaindu beharrik gabe.

- 1. BlackBerry World eraskusleihoan, kolpatu elementua.
- 2. Pantailaren goi-ezker ertzean, kolpatu prezioa duen botoia.
- 3. Elementu ordaindu baino lehen ordaintzeko metodoa aldatzeko, kolpatu ordainketa-metodoa **Fakturatu honen bidez:** goitibeherako zerrenda.
- 4. Kolpatu **Erosi**.

Aholkua: Aplikazioa, jokoa, albuma, abestia edo bideoa partekatzeko, kolpatu 🛐 . NFC teknologia erabiliz aplikazioa norbaitekin partekatzeko, gailuan partekatu nahi duzun aplikazioaren **Xehetasunak** pantaila duzula, lerratu gailuen atzealdeak.

### Android aplikazioak BlackBerry gailuan deskargatzea eta instalatzea

Orain Android telefonoetarako aplikazioak eta jokoak eskuratu eta BlackBerry gailuan instala ditzakezu!

Android aplikazioak eta jokoak aurki ditzakezu hainbat hirugarrenen webguneetatik eta mugikorretarako merkatuaplikazioetatik. Webguneek eta mugikorretarako merkatu-aplikazioek Android aplikazioa deskargatu ostean agertzen den instalazio botoia dute. Bestela, BlackBerry gailuko Fitxategi-kudeatzailea aplikazioan irekita instala dezakezu aplikaziofitxategia.

Ezin baduzu deskargatu duzun fitxategia aurkitu, Fitxategi-kudeatzailea aplikazioan bila dezakezu aplikazioaren izena. Android aplikazio gehienek .apk fitxategi-izenaren luzapena dute. Deskargatu dituzun Android aplikazio-fitxategi guztiak bilatzeko, saiatu **.apk** Fitxategi-kudeatzailea aplikazioan aurkitzen.

#### KONTUZ:

BlackBerry-k ez ditu BlackBerry World ez den iturburuetatik instalatu dituzun aplikazioak berrikusi. Baliteke aplikazio horiek gailua eta datu pertsonalak arriskuan jartzea. Iturburu fidagarrietako aplikazioak soilik instalatu behar zenituzke.

Android telefonoetarako diseinatutako aplikazio gehienak BlackBerry gailuetan instala badaitezke ere, baliteke zenbait aplikaziok BlackBerry 10 OSekin bateragarriak ez diren zerbitzuak erabiltzea. BlackBerry 10 OSek, bestalde, zerbitzu horiek beste zerbitzu batzuekin ordezka ditzake (hala nola esleipen-zerbitzuekin).

Balizko arrisku eta muga horiek onartu nahi ez badituzu, BlackBerry World-eko aplikazioak soilik instalatu.

### Mugitu aplikazio bat Hasiera pantailan zehar

Hasierako pantailako aplikazioen ikonoak beste toki batera mugi ditzakezu, zuk nahi dituzun tokian egon daitezen. Adibidez, eskuina bazara, maiz erabiltzen dituzun aplikazioak pantailaren eskuinaldean antola ditzakezu. Ondoren, BlackBerry gailua esku batekin erabiltzen duzunean, errazagoa da aplikazio horiek ikustea.

- 1. Hasierako pantailan eduki ukituta aplikazio baten ikonoa keinuka hasi arte.
- 2. Arrastatu ikonoa zure hasierako pantailako beste leku batera eta askatu hatza.

### Soinuak, jakinarazpenak edo dei-tonuak aldatu

Jakinarazpenen ezarpenetan alda ditzakezu soinuaren, jakinarazpenen eta dei-tonuen ezarpenak. Horrez gain, jakinarazpenen bolumena, bibrazio kopurua eta askoz gehiago ere ezar dezakezu.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Jakinarazpenak.
- 3. Jakinarazpenen ezarpen orokorrak aldatzeko, kolpatu **Modua** goitibeherako zerrendako ezarpen bat edo aldatu **Soinua**, **Bibratu**, **LEDa**, **Istanteko aurrebistak** edo **Bolumena** ezarpenak.

### Letraren tamaina aldatu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Pantaila.
- 3. Letraren tamaina goitibeherako zerrendan, kolpatu erabili nahi duzun letraren tamaina.

#### Argazkiak horma-paper gisa ezarri

- 1. Ireki argazki bat.
- 2. Kolpatu : > Norma-papera.

Aholkua: Argazkia handiagotu eta horma-paper gisa ezartzen baduzu, handitutako zatia agertuko da horma-paper gisa.

### Alarma ezarri

- 1. Kolpatu 💽.
- 2. Ezarri **Alarma I** aukeran.
- 3. Eduki ukituta erlojuaren kanpoaldeko markagailua.
- 4. Biratu markagailua erlojuaren inguruan nahi duzun ordua ezartzeko.

5. Alarmaren ordua gordetzeko, kolpatu edonon pantailan.

**Aholkua:** Markagailuak bost minutuka gehitzeko aukera ematen du. Alarmak minutu jakin batean jotzeko, kolpatu pantailaren behealdeko alarmaren ordua. Kolpatu **Alarmaren ordua** goitibeherako zerrenda eta korritu gora edo behera, alarma ezartzeko ordua doitzeko.

#### Gogokoen web-orrien laster-markak egin

Web-orrian, kolpatu 📄 > 📩 .

#### Gailuaren ezarpenen ikuspegi orokorra

Elementua	Deskribapena
X	Desaktibatu hari gabeko konexio guztiak.
Hegaldi modua	
(( <b>1</b> ))	<ul> <li>Sartu azkar hegaldi moduan, konexio guztiak desaktibatzeko.</li> </ul>
Sare-konexioak	<ul> <li>Hari gabeko zerbitzu-planaren eta modeloaren arabera, konfiguratu sare mugikor, Wi-Fi sare, Bluetooth-a gaitutako gailu, NFC eta Mobile Hotspot- erako konexioak eta konfiguratu Internet bidezko sare- ainguratzea.</li> </ul>
	Mututu BlackBerry teklatua soinuak.
Jakinarazpenak	<ul> <li>Aktibatu bibrazio modua.</li> <li>Desaktibatu Istanteko aurrebistak eta LED jakinarazpenak.</li> <li>Pertsonalizatu aplikazio jakin batzuen audioa eta ikusizko jakinarazpenak.</li> </ul>
	Doitu gailuaren bolumen orokorra.
Bolumen nagusia	<ul><li>Esleitu bolumen-teklak.</li><li>Aktibatu aurikularrekin erabiltzeko audioren baxuak.</li></ul>
@	Gehitu edo aldatu sare sozialetako kontuak eta posta- kontuak
Kontuak	<ul> <li>Konfigurazio aurreratuetan ere sar zaitezke, hala nola IMAP eta POP.</li> </ul>
×.	• Sartu maiz erabiltzen dituzun ezarpenetan.

Elementua	Deskribapena
Ezarpen bizkorrak	• Sartu ezarpen hauek edonoiz, pantailaren goialdetik behera hatza irristatuta.
<u>ن</u>	Hautatu horma-papera.
Pantaila	<ul> <li>Aldatu letra-tipoa.</li> <li>Doitu pantoilaron distira.</li> </ul>
	<ul><li>Pertsonalizatu pantailaren blokeoa.</li></ul>
<b>S</b>	<ul> <li>Aktibatu edo desaktibatu testu iragarlea, hitz- ordezkapena eta zuzentzaile ortografikoa.</li> </ul>
Hizkuntza eta idazketa	Aldatu hizkuntza, eskualdea, ezarpenak eta neurketa- sistema.
<b>Q</b>	Aktibatu ahots-diktaketa eta ezarri ahots-hautematearen eta oharren hobespenak.
Ahots-kontrola	
<b></b>	Sortu edo aldatu lan-eremuaren pasahitza. Ezabatu gailutik lan-eremua eta hango datuak soilik eta utzi datu parteanalak bara barratan
BlackBerry Balance (erabilgarri badago)	pertsonalak bere norretari.
	Konfiguratu ordenagailurako urruneko sarbidea, dokumentuak partekatu eta multimedia sinkronizatzeko
BlackBerry Link	
● ##	Ikusi uneko BlackBerry ID informazioa.
	Hasi saioa BlackBerry ID kontuan.
BlackBerry ID	Aldatu BlackBerry ID pasahitza.
•	Aktibatu BlackBerry Protect, seguru lagundu eta, gailua galdu edo lapurtuz gero, hura aurkitzeko.
BlackBerry Protect (erabilgarri badago)	
Δ	Sortu gailuaren pasahitza.
	Enkriptatu gailuko datuak.
Segurtasuna eta pribatutasuna	Ezabatu gailuko datuak.
	<ul> <li>Aldatu deskargatutako aplikazioetarako baimenak.</li> </ul>
	<ul> <li>Kudeatu ziurtagiriak.</li> <li>Sortu mikro SIM tyartalaran PINa</li> </ul>
<u>di</u>	<ul> <li>Aldatu fitxategi mota jakin bat irekitzeko erabiltzen der aplikazio lehenetsia.</li> </ul>

Elementua	Deskribapena
Aplikazio-kudeatzailea	<ul> <li>Kontrolatu gailuaren memoria erabiltzen duten aplikazioak.</li> </ul>
	Konektatu gailua multimedia-edukia hari gabe partekatzeko.
Multimedia partekatzea (erabilgarri badago)	
	Aldatu ordu-zona, ordua eta data.
Data eta ordua	
Software-eguneratzeak	<ul> <li>Ikusi une honetan gailuan exekutatzen ari den softwarearen bertsioa.</li> <li>Begiratu software-eguneratzerik baden. eta</li> </ul>
Q Bilatu	<ul> <li>Garbitu bilaketa-historia.</li> <li>Kendu edo eman lehentasuna bilatzen ari zaren aplikazioei.</li> <li>Hedatu gailuaren bilaketa, Interneteko bilaketa gehitzeko.</li> </ul>
ात Biltegiratzea eta sarbidea	Ikusi erabilgarri dagoen tokia eta konfiguratu gailuan gordetako gailuetarako sarbidea, USB konexioak, sare- identifikazioa, fitxategi-partekatzea, Wi-Fi partekatzea eta fitxategiak partekatzeko pasahitz-babesa.
$\mathbf{Q}$	Aukeratu aplikazioek kokapen-datuak erabil ditzaketen
Kokapen-zerbitzuak	Garbitu Mapak aplikazioan egindako azken bilaketak.
	Gehitu ordainketa-kontuak eta ezarri ordainketa-metodo hobetsiak.
Ordainketa-aukerak	
1	Aldatu lupa, audiofonoa eta TTY ezarpenak.
Erabilerraztasuna	
Honi buruz	<ul> <li>Bilatu gailuari buruzko informazio orokorra, hala nola hardware-informazioa, sare-xehetasunak eta biltegiratze-tokiaren edukiera.</li> </ul>

#### **Elementua**

#### Deskribapena

- Identifikatu gailuaren PINa, software-bertsioa eta modeloaren izena.
- Ikusi telefono-zenbakia eta hari gabeko zerbitzuhornitzailearen izena.
- Ikusi edo aldatu Bluetooth-a edo sare-konexio batean beste gailu batek detektatzen duenean gailuak erakusten duen izena.

### Non aurki dezaket bezeroaren laguntza teknikoa?

Eskuratu BlackBerry telefonoaren laguntza teknikoa esteka hauetako bat sakatuta.

Bisitatu blackberry.com/support helbidea autolaguntzarako baliabideak eskuratzeko, hala nola eskuliburuak eta ezagutza-baseko artikuluak. Ikusi bideoak, gailuko eginbideak konfiguratzen edo erabiltzen ikasteko. Aurkitu erantzunak eta argitaratu zure galderak komunitateko foroetan. Partekatu aholkuak eta irtenbideak sare sozialetan eta BlackBerry blogetan.

Bisitatu blackberry.com/contact helbidea, bermeinformazioari, fakturazioari, konponketei edo laguntza teknikoari buruzko informazioa nori galdetu jakiteko.

### Gailuaren hardwarea aztertzea

BlackBerry Virtual Expert aplikazioa erabiliz gailuaren hardwareak behar bezala funtzionatzen duen egiazta dezakezu. BlackBerry Virtual Expert aplikazioak hardwarearekin lotutako arazoak identifikatzen laguntzeko diseinatu diren azterketak egiten gidatuko zaitu. Deskargatu BlackBerry Virtual Expert aplikazioa BlackBerry World erakusleihotik orain.

Aplikazioa erabili aurretik, izan gailuarekin erabiltzen dituzun osagarriak, aurikularrak, esaterako, eskura, ebaluazio oso bat egiteko.

Gailuaren modeloaren arabera, gailuko osagai eta funtzio hauek egiazta ditzakezu:

- Ukipen-pantaila eta LCD
- Bolumen-teklak, Isilik tekla eta Itzali/Piztu/Blokeatu tekla
- Kamera

- Bozgorailuak, mikrofonoa eta entzungailuaren entxufea
- LED eta bibrazio-jakinarazpenak
- Bluetooth-a teknologia

Aholkua: Arazo jakin bati buruzko laguntza eskuratzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

### Gailua BlackBerry Virtual Expert aplikazioa erabiliz aztertu

- 1. BlackBerry Virtual Expert aplikazioan, egin ekintza hauetako bat:
  - Funtzionalitate mota bat aztertzeko, kolpatu Pantailaren azterketak, Audio-azterketak edo Botoien azterketak.
  - Azterketa jakin bat egiteko, kamera-arazo bat, esaterako, kolpatu 🌆 . Kolpatu egin nahi duzun azterketa.
- 2. Jarraitu pantailako argibideak.

### BlackBerry Virtual Expert azterketa bat ez da gainditu

BlackBerry Virtual Expert aplikazioak gailuak arazo bat duela adierazten badu, egin hau:

- Ahal bada, egin gailuko datuen babeskopia. BlackBerry Link erabil dezakezu, babeskopia ordenagailuan gordetzeko. ZureBlackBerry Link ordenagailutik deskargatzeko bisitatu www.blackberry.com/BlackBerryLink eta hautatu Windows edo Mac aukera.
- Apuntatu gailuaren bertsioa eta PIN zenbakia. Informazio hori lortzeko, hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera. Kolpatu Ezarpenak > Honi buruz. Kategoria goitibeherako zerrendan, kolpatu Sistema eragilea edo Hardwarea.
- Jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin edo tokiko konponketa-zentroarekin eta eman arazoaren berri.

### Tutoriala: BlackBerry 10 gailuan Laguntza aplikazioa bilatu

Tutorial honekin BlackBerry 10 gailu batean Laguntza aplikazioa nola bilatzen den ikusi eta praktika dezakezu.

Oharra: Tutoriala ingelesez bakarrik dago erabilgarri

Hasi tutoriala

http://docs.blackberry.com/tutorials/help/en

## Gailuz aldatzea

### Gailuak aldatu aurretik

BlackBerry gailu batetik edo hirugarren baten gailutik BlackBerry-ra aldatzeari buruzko informazio gehiagorako, zoaz www.blackberry.com/deviceswitchwebgunean.

#### Ikusi transferitzeko zein aukera dituzun

Transferitutako datu motak transferitzeko erabiltzen duzun metodoaren eta datu horiek transferitzen dituzun smartphone motaren araberakoak izango dira. Datuak transferitu ditzakezu, hala nola, ezarpenak, telefonoaren historia, argazkiak, musika, arakatzailearen laster-markak eta gehiago. Transferitu den datu moten zerrenda ikusteko, zoaz www.blackberry.com/deviceswitch webgunera.

- BlackBerry Device Software 5.0 edo berriagotik aldatzen? Ordenagailuan, BlackBerry Link erabil dezakezu gailuak aldatzeko. Ikasi gailuak aldatzen BlackBerry Link erabiliz.
- BlackBerry 7.0 edo BlackBerry 7.1-tik aldatzen? Memoria-txartel bat erabil dezakezu gailuz aldatzeko. Ikasi gailuak aldatzen memoria-txartela erabiliz.
- BlackBerry Protect instalatuta duen BlackBerry gailu batetik aldatzen? BlackBerry Protect erabil dezakezu onartutako datuak transferitzeko, adibidez kontaktuak zure uneko gailuko babeskopietatik gailu berrira transferitzeko. Ikasi gailuak aldatzen BlackBerry Protect erabiliz.
- iPhone edo Android gailutik aldatzen? Gailuz aldatzea aplikazioa deskarga dezakezu BlackBerry World-tik. Ikasi gailuak aldatzen gailuz aldatzea aplikazioa erabiliz.

**Aholkua:** BlackBerry gailutik aldatzen bazara, unean softwarearen zein bertsio duzun jakiteko, zure gailuko zaharreko Hasierako pantailan, burutu ekintza hauetako bat:

- Sakatu Aukerak > Honi buruz.
- Sakatu Aukerak > Gailua > Gailuaren bertsioei buruz.

#### Gogoratu zure erabiltzailearen izenak eta pasahitzak

BlackBerry gailuak aldatu aurretik, egiaztatu jarraian zehazten dena duzula:

- Erabiltzailearen izenak eta pasahitzak gorde badituzu Pasahitz-biltzailean, baliteke informazio hau apuntatu behar izatea gailu berrira kontuak gehitzeko orduan prest edukitzeko.
- BlackBerry Device Software 5.0 edo berriagoa onartzen duen gailua baduzu, baliteke zure gailuan eta BlackBerry World erakusleihoan saioa hasteko BlackBerry ID bat sortu izatea. Zure BlackBerry 10 gailuan saioa hasi baduzu zure BlackBerry ID-(e)arekin aurretik BlackBerry App World-(e)tik deskargatutako aplikazioak berriro instalatu eta zure BlackBerry ID erabiltzen dute BlackBerry produktuak eskuratu ahal izango dituzu, adibidez BBM eta BlackBerry Protect.

Oharra: BlackBerry App World, BlackBerry World izena du BlackBerry 10 gailuetan.

### EguneratuBBM

BlackBerry gailuz aldatzeko beharrezkoa ez den arren, BBM-(e)ren bertsio berriena eguneratzea eta zure BlackBerry IDrekin BBM -rekin bat egitea gomendatzen dizugu gailuz aldatu aurretik.

- 1. Gailu zaharrean BBM-(e)ren zein bertsio duzun ikusteko, bilatu **BlackBerry Messenger** instalatuta dituzun aplikazioen zerrendan.
- 2. Gailu zaharrean BBM 7.0 edo berriagoa deskargatzeko, zoaz BlackBerry World erakusleihora edo www.bbm.com webgunera.

Ezin baduzu BBMren bertsioa eguneratu, BBMn, sakatu **Ezin** tekla > **Aukerak** > **Babeskopia**. Hautatu babeskopiaaukera bat.

### Zer gertatzen da mikro SIM txartelean kontaktuak baditut?

Zure BlackBerry 10 gailuak mikro-SIM txartela erabiltzen du. Zure gailuarentzako mikro-SIM txartela lortzeko jarri zerbitzuaren hornitzailearekin kontaktuan.

Kontaktuak mikro SIM txartel zaharrean gorde badituzu, kontaktu horiek ez dituzula galduko ziurtatzeko, kontaktu horiek zure gailu zaharrean kopiatu beharko zenituzke gailuaren babeskopia egin aurretik.

Aholkua: Mikro SIM txarteleko kontaktuak gailu zaharraren integratutako multimedia-biltegian kopiatzeko, sakatu gailu zaharreko etaki tekla > Mikro SIMaren telefono-liburua. Sakatu etaki tekla > Kopiatu dena kontaktuetan.

### Gailuaren aldatzen eta hauen babes-kopiak egin.

# Transferitu datuak gailu berri batera ordenagailua eta BlackBerry Link erabiliz.

Zure uneko BlackBerry gailuak BlackBerry Device Software 5.0 edo berriagoa erabiltzen badu, BlackBerry Link erabil dezakezu onartutako datuak eta ezarpenak BlackBerry 10 gailu berrira transferitzeko, adibidez, gailuaren ezarpenak, telefonoaren historia, multimedia fitxategiak, arakatzailearen laster-markak. Eginbide hau datu pertsonalak mugitzeko diseinatuta dago, baina ez laneko datuak transferitzeko.

- 1. Ordenagailuan deskargatu eta instalatu BlackBerry Link, www.blackberry.com/BlackBerryLink webgunetik.
- 2. Ireki BlackBerry Link.
- 3. Konektatu zure uneko BlackBerry gailua ordenagailura USB kable bat erabiliz.
- 4. Jarraitu pantailako argibideei.
- 5. Eskatzen zaizunean, konektatu zure BlackBerry 10 bailu berria USB kablea erabiliz.
- 6. Jarraitu pantailako argibideei.

**Oharra:** Posta elektroniko kontuak eta onartzen ez diren aplikazioak ez dira zure gailu berrira transferituko. Zure posta elektroniko kontuak konfigura ditzakezu zure gailu berriko BlackBerry Hub-(e)an. Zure gailu berrira transferitu ez diren aplikazioak deskargatzeko, bisitatu BlackBerry World erakusleihoa.

### Transferitu datuak BlackBerry 7 gailutik memoria-txartela erabiliz.

Transferitzeko aukera hau BlackBerry 7 gailutik edo berriagotik aldatzen bazara bakarrik egongo da eskuragarri. Zein software bertsio erabiltzen duzun ikusteko, zure gailu zaharreko hasierako pantailan, sakatu **Aukerak** > **Honi buruz:** edo sakatu **Aukerak** > **Gailua** > **Gailuen bertsioei buruz**.

Konfigurazioa aplikazioko Gailuz aldatzea eginbidea erabiliz, BlackBerry gailu berri batera aldatzean, alarmaren ezarpenak, BBM kontaktuak, arakatzailearen laster-markak, testu-mezuak, telefonoaren historia eta hari gabeko konexioen profila mugi ditzakezu BlackBerry gailuen artean. Eginbide hau datu pertsonalak mugitzeko diseinatuta dago, baina ez laneko datuak transferitzeko.

- 1. Zure BlackBerry 7 gailuan, sakatu Konfiguratu > Gailuz aldatzea.
- 2. Sakatu Multimedia txartela erabiliz > Gorde datuak.
- 3. Jarraitu pantailako argibideei.
- 4. Babes-kopia egin denean, kendu zure memoria-txartela zure BlackBerry 7 gailutik eta txertatu BlackBerry 10 gailuan.
- 5. Zure BlackBerry 10 gailuko Hasierako pantailan, sakatu 🏭 > 泪 .
- 6. Jarraitu pantailako argibideei.

**Oharra:** Posta elektroniko kontuak eta onartzen ez diren aplikazioak ez dira zure gailu berrira transferituko. Zure posta elektroniko kontuak konfigura ditzakezu zure gailu berriko BlackBerry Hub-(e)an. Zure gailu berrira transferitu ez diren aplikazioak deskargatzeko, bisitatu BlackBerry World erakusleihoa.

### Transferitu datuak gailu berri bateraBlackBerry Protect erabiliz.

Eginbide hau erabiltzeko, BlackBerry Protect aplikazioa zure BlackBerry gailu zaharrean instalatuta egon behar da. Zure gailu zaharrak BlackBerry 7.1 edo zaharragoa onartu behar du.

BlackBerry Protect erabil dezakezu zure gailu zaharrak onartzen zituen datuak zure BlackBerry 10 gailu berrira transferitzeko.

- 1. Egin zure datuen babes-kopia zure gailu zaharrean edo BlackBerry Protect webgunea erabiliz.
- 2. Zure gailu berriko Hasierako pantailan, arrastatu hatza pantailaren goialdetik beherantz. Sakatu **Ezarpenak** > **BlackBerry Protect**.
- 3. Beharrezkoa bada, ezarri BlackBerry Protect I aukeran. Gauzatu konfigurazio-prozesua.
- 4. Sakatu Berrezarri. Hautatu gailu zaharra datuak berrezarri nahi dituzun gailu gisa.
- 5. Sakatu Berrezarri.

### Datuak iPhone edo Android gailutik transferitu

Gailu zaharrak eta BlackBerry gailuak Wi-Fi sare batera konektatuta egon behar dute.

Gailuz aldatzea aplikazioa erabil dezakezu kontaktuak, argazkiak eta bestelako datu pertsonalak iPhone-tik edo Android gailutik BlackBerry gailu berrira transferitzeko. Gailuz aldatzea aplikazioari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, bisitatu www.blackberry.com/deviceswitchapp helbidea.

- 1. BlackBerry 10 gailuan, bisitatu www.blackberry.com/deviceswitchapp webgunea eta deskargatu gailuz aldatzea aplikazioa.
- 2. Ireki gailuz aldatzea aplikazioa.
- 3. Jarraitu pantailako argibideei.

### Tutoriala: Multimedia-txartela erabilizBlackBerry 10 gailura aldatzea

Tutorial honekin, BlackBerry 7 gailu batetik beste BlackBerry 10 gailu batera, multimedia-txartela erabiliz nola aldatzen den ikusi eta praktika dezakezu.

Oharra: Tutoriala ingelesez bakarrik dago erabilgarri.

#### Hasi tutoriala

http://docs.blackberry.com/switchingdevices/help/en

### Gailuak aldatu ondoren

Gailu zaharra birziklatzeko BlackBerry-ri itzultzeari eta zaborretara botatzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, bisitatu www.blackberry.com/recycling webgunea. Birziklatze eta truke-programa zenbait gunetan bakarrik erabil daitezke.

#### BBM berrezartzea

BBM irekitzen duzun lehen aldian, zure BlackBerry ID eskatuko zaizu. BBM aurretik erabili baduzu, kontutan hartu jarraian zehazten dena:

- BlackBerry gailuz aldatzen baduzu, Gailuz aldatzea aukera erabil dezakezu zure ordenagailuko BlackBerry Linken edo BlackBerry 7 bertsioa edo berriagoa exekutatzen ordenagailuan, zure datuak gailu berrira transferitzeko BBM 6.2 edo zaharragotik, kontaktuak eta taldeak barne.
- Aurretik BBM zure BlackBerry IDkin lotu baduzu (adibidez, zure uneko gailuarekin), BlackBerry ID berarekin has dezakezu saioa BBM datuak hari gabeko sarean leheneratzeko.

Zure BBM datuen, hala nola, kontaktuen, babeskopia automatikoki egingo da BlackBerry ID aplikazioan oinarritutako hari gabeko sarearen bidez. Gailua galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo hondatzen bada, ideia ona da zure gailuarentzako babeskopiak egitea ordenagailuan BlackBerry Link erabiliz.

### Pasahitza pasahitz-biltzailera transferitu

BlackBerry gailu zaharrean gordetako pasahitzen datuak BlackBerry 10 gailura transferi ditzakezu. Pasahitzak transferitzeko, pasahitz-datuen babeskopia eginda izan behar duzu babeskopia-fitxategian, gailua aldatzeko prozesuan edo uneko pasahitzen babeskopia sortuta izan behar duzu BlackBerry 10 gailuan. Pasahitz-datuak multimedia-txartelean gorde badituzu, gailuak automatikoki detektatuko ditu datuak multimedia-txartelean. Babeskopiaren datuak ez badituzu multimedia-txartelean gorde, BlackBerry Link edo BlackBerry Protect erabil dezakezu babeskopia egindako pasahitzen datuak transferitzeko.

- 1. Zure BlackBerry 10 gailuan deskargatu Pasahitz-biltzailea aplikazioa BlackBerry World erakusleihotik.
- 2. Hasierako pantailan, sakatu **Pasahitz-biltzailea**.
- 3. Idatzi pasahitz-biltzailearen pasahitz.
- 4. Irristatu hatza pantailaren goialdetik.
- 5. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Inportatu pasahitzak.
- 6. Idatzi aurreko pasahitz-biltzailearen edo BlackBerry Wallet-en pasahitza, pasahitzak gailu zaharretik Pasahitzbiltzailea aplikaziora transferitzeko.

**Oharra:** BlackBerry Wallet aplikazioaren eta Pasahitz-biltzailea aplikazioaren artean bateragarriak diren kredentzialak soilik inportatuko dira. Kreditu-txartelaren kredentzialak ez dira inportatuko.

Pasahitz-biltzailea datuak inportatu ostean, babeskopia-fitxategitik kenduko dira; baina bestelako datu pertsonalak babeskopia-fitxategian mantenduko dira.

### Aholkuak gailuz aldatu ondoren

BlackBerry gailuz aldatutakoak, hau egin dezakezu:

- Memoria txartel bat baduzu, aldatu zure gailu zaharretik berrira.
- Zure mezu eta jakinarazpen guztiak jasotzeko, gehitu posta-kontu elektronikoak eta sare sozialetako kontuak gailu berrian.
- Garbitu gailu zaharra zure datua guztiak ezabatzeko. Zure gailuko datu guztiak ezabatzeko, beharrezkoa bada zehaztu gailuaren pasahitza eta ondoren idatzi pasahitza oker hamar aldiz.
- Deskargatu aplikazioak BlackBerry World erakusleihotik.
- Arakatu zure gailuko Laguntza aplikazioa eta aholkuak eta trikimailuak ikasiko dituzu.

### Posta elektronikoa eta beste kontu mota batzuk gailuan konfiguratu

Posta-kontuak, sare sozialetako kontuak (Facebook, Twitter edoLinkedIn, adibidez) edo Evernote kontuak gehi ditzakezu gailuan.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🏟 Ezarpenak > Kontuak.
- 3. Dagoeneko kontu bat gehitu baduzu zure gailuan, beste kontu bat gehitzeko, kolpatu 👰 .

#### Posta-kontu pertsonala gehitu

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu Posta elektronikoa, egutegia eta kontaktuak.
- 2. Idatzi helbide elektronikoa.
- 3. Kolpatu Hurrengoa.
- 4. Idatzi kontuaren pasahitza.
- 5. Kolpatu Hurrengoa.
- 6. Aldatu ezarpen gehigarriak (adibidez, zure gailuarekin sinkronizatzeko eduki motak).
- 7. Kolpatu **Eginda**.

#### Sare sozial bat edo Evernote kontu bat gehitu

Facebook, Twitter, LinkedIn edo Evernote kontuak gehi ditzakezu gailuan. Zure gailuan Evernote kontu bat gehitzen duzunean, Evernote koadernoak erabilgarri egongo diraBlackBerry Remember-en.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu Facebook, Twitter, LinkedIn edo Evernote.
- 2. Idatzi kontuaren informazioa.
  - Beharrezkoa bada, aldatu sinkronizatutako ezarpen aukerak.
  - Facebook kontu bat gehitu baduzu, lagunen urtebetetzeen jakinarazpenak noiz jasoko dituzun aldatzeko, kolpatu gogorarazle aukera bat, **Urteurrenaren gogorarazleak** goitibeherako zerrendatik.
- 3. Kolpatu Eginda. Beharrezkoa bada, kolpatu Baimendu.

### BlackBerry Enterprise Service 10 -k onartutako laneko kontu bat gehitu

Erakundeak BlackBerry Enterprise Service 10 erabiltzen badu, laneko kontua gehi dezakezu gailuan eta BlackBerry Balance eginbidea bezalako abantailak izango dituzu. Erakundeak ez badu BlackBerry Enterprise Service 10 bertsio berriena eta BlackBerry Enterprise Server 5 edo zaharragoa exekutatzen badu, laneko kontua gehi dezakezu Microsoft Exchange ActiveSync erabil dezan. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan administratzailearekin.

Ziurtatu administratzailearen informazio hau ezagutzen duzula:

- Erabiltzaile-izena
- Enpresaren aktibazio-pasahitza
- Zerbitzariaren izena
- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 🗮 > Laneko kontua.
- 2. Idatzi zure kontuaren erabiltzaile-izena, aktibazio-pasahitza eta zerbitzari-helbidea

#### 3. Kolpatu **Eginda**.

Laneko kontu bat gehitu eta gero, lan-eremuko pasahitz bat ezartzeko abisuak jarraitu BlackBerry Balance-rekin erabiltzeko eta zure laneko sareko pasahitza idazteko.

#### Gehitu Microsoft Exchange ActiveSync -k onartzen duen posta-kontu bat

Ziurtatu administratzailearen edo posta elektronikoaren zerbitzu-hornitzailearen informazio hau ezagutzen duzula:

- Erabiltzaile-izena eta laneko sarearen pasahitza
- Zerbitzariaren helbidea

Microsoft Exchange ActiveSync-ek onartzen duen helbide elektroniko bat gehitzen duzunean, kontuarekin lotutako mezuak, egutegiko gertaerak, kontaktuak, zereginak eta oharrak BlackBerry gailuarekin sinkronizatuko dira.

1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 📰 > Microsoft Exchange ActiveSync.

- 2. Idatzi zure kontuarentzako helbide elektronikoa, pasahitza eta zerbitzariaren helbidea.
  - Push posta elektronikoa desaktibatzeko, hautatu **O Push** aukeran. Zure gailuak mezu berriak zein maiztasunekin egiaztatzen dituen konfiguratzeko, **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendan, kolpatu aukera bat.
  - Zure erakundearen VPN erabiltzeko, hautatu I VPN aukeran.
  - Zure gailuak mezuak zenbatean behin sinkronizatzen dituen aldatzeko, hautatu aukera bat **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendan.
- 3. Kolpatu Hurrengoa.

### IBM Notes Traveler posta-kontu bat gehitu

Ziurtatu administratzailearen edo posta elektronikoaren zerbitzu-hornitzailearen informazio hau ezagutzen duzula:

- Zure erabiltzailearen izena eta laneko sarearen pasahitza
- Zerbitzariaren helbidea

IBM Notes Traveler helbide elektroniko bat gehitzen duzunean, kontuarekin lotutako mezuak, egutegiko gertaerak, kontaktuak, zereginak eta oharrak BlackBerry gailuarekin sinkronizatuko dira.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 😄 > IBM Notes Traveler.
- 2. Idatzi zure kontuaren helbide elektronikoa, pasahitza eta zerbitzariaren helbidea.
  - Push posta elektronikoa desaktibatzeko, hautatu **O Push** etengailuan. Gailuak mezu berriak zein maiztasunekin egiaztatzen dituen konfiguratzeko, kolpatu **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendako aukera bat.
  - Zure erakundearen VPN erabiltzeko, hautatu I VPN etengailuan.
  - Zure gailuak mezuak noiztik sinkronizatzen dituen aldatzeko, hautatu aukera bat **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendan.
- 3. Kolpatu Hurrengoa.

### BlackBerry kontu elektroniko bat gehitu

BlackBerry kontu elektroniko bat konfiguratzen baduzu (normalean erabiltzailea@<zerbitzu-hornitzailea>.blackberry.com formatuarekin) BlackBerry gailu zahar batean, kontu horretako mezuak BlackBerry 10 gailu berrian jasotzen jarraitzeko, mezua birbidaltzeko helbide bat konfiguratu eta ondoren helbide elektroniko bat gehitu beharko duzu gailuan.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu Posta elektronikoa, egutegia eta kontaktuak.
- 2. Idatzi helbide elektronikoa.
- 3. Kolpatu Hurrengoa.
- 4. Idatzi kontuaren pasahitza.
- 5. Kolpatu Hurrengoa.
- 6. Birbidali pantailan, idatzi mezua birbidaltzeko helbidea.
- 7. Kolpatu Hurrengoa.

**Oharra:** Baliteke 5 eta 15 minutu bitartean behar izatea mezua birbidaltzeko helbidera posta elektronikoa birbidaltzeko.

BlackBerry posta elektronikoa gailuan jasotzeko, ziurtatu posta elektronikoa birbidaltzeko kontua gailuan gehitu duzula.

### IMAP edo POP posta-kontua gehitu

Ziurtatu posta elektronikoaren zerbitzu-hornitzailearen edo administratzailearen informazio hau ezagutzen duzula:

- Mezularitza zerbitzari mota (POP edo IMAP)
- Sarrerako eta irteerako mezularitza zerbitzariaren helbideak
- Sarrerako eta irteerako mezularitza zerbitzariaren ataka zenbakiak
- Sarrerako eta irteerako mezularitza zerbitzariaren SSL ezarpenak

**Oharra:** IMAP posta-kontuen aktibazio-abiadura areagotzeko, **IMAP bidearen aurrezenbakia** idaztea gomendatzen da. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan administratzailearekin.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 📰 > IMAP edo POP.
- 2. Sartu kontuaren informazioa.
  - BlackBerry gailuak mezu berriak zein maiztasunekin egiaztatzen dituen konfiguratzeko (push posta elektronikoa onartzen ez bada) **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendan, kolpatu aukera bat.
  - Hasieran zure gailuarekin sinkronizatuta dagoen mezu kopurua aldatzeko, hautatu aukera bat **Hasierako** berreskuratze kopurua goitibeherako zerrendan.
- 3. Kolpatu **Eginda**.

### CalDAV edo CardDAV kontu bat gehitu

Ziurtatu informazio hau ezagutzen duzula:

- Erabiltzaile-izena eta pasahitza
- Kontuarekin lotutako helbide elektronikoa
- Kontuaren zerbitzari-helbidea

CalDAV edo CardDAV kontu bat gehi dezakezu egutegiko gertaerak edo kontaktuak sinkronizatzeko, hurrenez hurren.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 😅 > CalDAV edo CardDAV.
- 2. Sartu kontuaren informazioa.
- 3. Kolpatu **Eginda**.

### Arazoak: Gailuz aldatzea

### Ezin dut nire SIM txartela BlackBerry 10 gailura aldatu.

BlackBerry 10 gailuak mikro-SIM txartela erabiltzen du. Zure gailu berriarentzako mikro-SIM txartela lortzeko jarri zerbitzuaren hornitzailearekin kontaktuan.

# Nola berrezar dezaket galdutako edo ahaztutako BlackBerry ID pasahitza?

BlackBerry ID erabiltzaile-izen gisa erabiltzen duzun helbide elektronikora bidal diezazkizukegu BlackBerry ID pasahitza berrezartzeko argibideak. Segurtasun arrazoiak direla eta ezin da zure BlackBerry ID pasahitza berrezarri.

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Pasahitza ordenagailuan berrezartzeko, sar zaitez www.blackberry.com/blackberryid helbidean. Sakatu **Berrezarri** pasahitza. Jarraitu pantailako argibideei.
- BlackBerry ID-rekin sinatzea eskatzen zaizunean zure BlackBerry gailuan pasahitza berrezartzeko sakatu **Pasahitza** ahaztu duzu?. Erantzun segurtasun-galderari eta jarraitu pantailako argibideei.

Goiko pausoak jarraitu ondoren pasahitza berrezartzeko posta elektronikoa jasoko duzu. Ordenagailu batean pasahitza berrezartzeko pausoak jarraitzen badituzu, pasahitza berrezartzeko posta elektronikoa ordenagailuan soilik ikus daiteke eta ez da zure gailura bidaliko. Gailuan pasahitza berrezartzeko pausoak jarraitzen badituzu, pasahitza berrezartzeko posta elektronikoa zure gailura bidaliko da. Jarraitu posta elektronikoan zehazten diren pausoak zure BlackBerry ID pasahitza berrezartzeko.

### Gailu zaharrean nituen zenbait datu ez dira nire gailu berrian aurkitzen.

Gailu berrira aldatzean, datuak transferituko dituzun gailuak eta zure gailu zaharraren softwarearen bertsioak zehaztuko du zein datu transferituko diren zure gailu berrira. Transferitu den datu moten zerrenda ikusteko, zoaz www.blackberry.com/ deviceswitch webgunera.

Saiatu hauetako bat egiten:

- Egiaztatu zure posta-kontu pertsonalak konfiguratu direla. Posta-kontu elektronikoak ez dira transferituko eta BlackBerry Hub gailuan konfiguratu beharko dira.
- Egiaztatu zure laneko posta-kontu elektronikoak konfiguratu direla. BlackBerry Enterprise Server-(e)ko Microsoft Exchange ActiveSync posta-kontu elektroniko baterako, jarri zure administratzailearekin kontaktuan, kontua aktibatzeko behar duzun informazioa lortzeko.
- Bilatu memorandumak eta egitekoakBlackBerry Remember aplikazioan.
- Transferitu aplikazioak, hauek BlackBerry World erakusleihotik deskargatuz.

### Ezin dut elementurik transferitu nire memoria-txartela erabiliz.

Saiatu hauetako bat egiten:

- Leheneratu elementuak zure memoria-txarteletik beste iturburu batera, adibidez zure BlackBerry gailuko barneratutako multimedia-biltegira edo ordenagailura. Formateatu zure memoria-txartela edo erosi memoria txartel berria. Gorde memoria-txartelean leheneratutako elementuak eta ondoren saiatu elementu horiek berriro transferitzen.
- Erabili BlackBerry Link zure informazioa gailu batetik bestera transferitzeko.ZureBlackBerry Link ordenagailutik deskargatzeko bisitatu www.blackberry.com/BlackBerryLink eta hautatu Windows edo Mac aukera.

# Arazoak konpontzeko laguntzailea: arazoak ditut nire BlackBerry 10 gailura aldatzean

Arazoak konpontzeko laguntzaileak zure arazoa konpontzeko bideratuta dauden galderak eta eginbideak proposatuko dizkizu.

Abiarazi arazoak konpontzeko laguntzailea.

http://docs.blackberry.com/troubleshooting/blackberryID/en

Oharra: Arazoak konpontzeko laguntzaile hau ingelesez bakarrik dago eskuragarri.

## Pantaila

### Atzealdeko argia aldatu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goitik behera.
- 2. Sakatu 🔯 Ezarpenak > Pantaila.
- 3. Distira doitzeko, mugitu graduatzailea atzera eta aurrera.

Aholkua: Pantailaren goialdetik behera hatza irristatu ostean, ezarpen bizkorretan 🔯 ikusten baduzu, 🔯 kolpa dezakezu graduatzailea bistaratzeko, Pantaila pantailara joan beharrik gabe.

### Letraren tamaina aldatu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Pantaila.
- 3. Letraren tamaina goitibeherako zerrendan, kolpatu erabili nahi duzun letraren tamaina.

### Argazkiak horma-paper gisa ezarri

- 1. Ireki argazki bat.
- 2. Kolpatu : > Norma-papera.

Aholkua: Argazkia handiagotu eta horma-paper gisa ezartzen baduzu, handitutako zatia agertuko da horma-paper gisa.

### Pantailako hizkuntza aldatu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Hizkuntza eta idazketa.
- 3. Hizkuntza menuko goitibeherako zerrendan, sakatu erabili nahi duzun hizkuntza.

### Aldatu zure gailuaren eskualdeko ezarpenak

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Hizkuntza eta idazketa.
- 3. **Eskualdea** goitibeherako zerrendan, sakatu zure gailuko data formatua, lehenetsitako moneta eta zenbaki formatua zehazteko erabiltzea nahi duzun eskualdea.

### Pantaila blokeatu

Pantaila blokeatzean, BlackBerry gailuak nahi gabe edo sakelean nahi gabe markatzea saihestuko du. Gailua blokeatzeak ez du eragotziko deiak edo mezuak jasotzean alertak entzutea.

Eduki sakatuta gailuaren goialdeko Piztu-itzali/Blokeatu tekla.



Pantaila desblokeatzeko, ukitu pantaila behetik gora.

### Blokeatu zure gailua pasahitzarekin

Zure BlackBerry gailuaren data babesteko eta zure gailua baimenik gabe erabiltzea saihesteko modu erraz baten bila? Pasahitz bat ezar dezakezu zure gailua blokeatzeko ikuspegi irekian dagoenean edo erabilgarri ez dagoenean.

- Ez baduzu pasahitzik oraindik, hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera. Kolpatu 
   Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > Gailuaren pasahitza. Ezarri I Gailuaren pasahitza aukeran. Idatzi pasahitza.
- 2. Zure ordenagailua blokeatzeko, egin ekintza hauetako bat:
  - Eduki sakatuta gailuaren goialdeko Piztu-itzali/Blokeatu tekla. Kolpatu 🛐 .
  - Zure gailua automatikoki blokeatzeko denbora jakin bat igarotzen denean, hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik. Kolpatu Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > Gailuaren pasahitza > Blokeatu gailua pantaila blokeatu ondoren.

Zure gailua desblokeatzeko, sakatu **Piztu-itzali/Blokeatu** tekla gailuaren goialdean. Pantailaren beheko aldetik irristatu hatza gora. Eskatzen zaizunean, idatzi zure gailuaren pasahitza.

#### Lan-eremua blokeatu

Zure BlackBerry gailuak BlackBerry Balance teknologia erabiltzen badu zure laneko jarduerak eta jarduera pertsonalak banatzeko, zure lan-eremua blokea dezakezu zure gailutik fitxategi, aplikazio eta datu pertsonaletara sartzeko.

- 1. Lan-eremurako pasahitzik ez baduzu, bat sortzeko, irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera Kolpatu **Balance** > **Ezarri pasahitza**. Idatzi pasahitza.
- 2. Hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
  - Lan-eremua berehala blokeatzeko, kolpatu 📋.
  - Zure lan-eremua automatikoki ixteko denbora jakin bat igaro eta gero, kolpatu **Balance** > **Blokeatu lan-eremua** gero.

Gogoratu zure lan-eremuko pasahitza ezin baita berrezarri edo berreskuratu. Baimendutako pasahitz-saiakera kopurua gainditzean zure lan-eremura sartzean, zure lan-eremua eta bertan dauden edukiak ezabatuko dira.

### Biratze-blokeoa aktibatu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🕞 .

### Gailua HDMI pantaila batera konektatu

- 1. Konektatu zureBlackBerry gailua HDMI pantaila batera, HDMI kablea erabiliz.
- Zure gailuak automatikoki hautemango du zure gailua konektatuta dagoen HDMI pantailaren bereizmena. Hala ere, bereizmena aldatu nahi baduzu, irristatu hatza hasierako pantailatik beherantz. Kolpatu i Ezarpenak > Pantaila. HDMI bistaratze-modua menuko goitibeherako zerrendan, kolpatu erabili nahi duzun pantaila-modua.



### Atera zure gailuaren pantailaren argazkia

BlackBerry gailuaren pantaila-argazkia ateratzeko, sakatu Igo bolumena tekla eta Jaitsi bolumena tekla aldi berean.

**Oharra:** BlackBerry Balance gailuan instalatuta baduzu eta lan-eremua blokeatu gabe badago, pantaila-argazkiak laneremuan gordeko dira.

## Bilaketa

## Zure gailua bilatu

Bilaketa hasierako pantailatikBlackBerry gailua bilatzen duzunean, emaitzak fitxategi eta aplikazio motaren arabera sailkatuko dira. Aplikazio baten barruan bilatzen baduzu, aplikazio haren barruko elementuetara mugatuko da bilaketa.

- 1. Sakatu Q.
- 2. Sartu zure bilaketa-terminoak.
- 3. Kategoria bateko emaitza guztiak bilatzeko, kategoria taldeko behe eskuinaldeko, sakatu 🏒 .

Aholkua: Idatzi beharrean, hitz eginez bilatu dezakezu zure gailuan Ahots-kontrola aplikazioa erabiliz.

### Bilaketa-emaitzak iragazi

Bilatzen ari zaren fitxategi mota zein den badakizu, bilaketa-iragazkia erabil dezakezu emaitzak murrizteko. Ez du axola bilaketa-iragazkia bilaketa egin aurretik edo ondoren aktibatzen duzun. Iragazia garbitu egingo da bilaketa hitzak idazten dituzun hurrengo aldian.

- 1. Bilatu aplikazioan, sakatu testua idazteko eremuaren ondoan agertzen den ikonoa.
- 2. Kolpatu zein kategoriatan aurkitu nahi dituzun emaitzak.

Aholkua: Pertsona jakin batek bidalitako posta elektroniko bat aurkitu nahi baduzu, bilaketa hasierako pantailatik eta Posta elektronikoa iragazkia erabiliz egin beharrean, saiatu BlackBerry Hub aplikaziotik aurkitzen eta hautatu Nork: kategoria.

### Bilaketa-ezarpenak aldatu

BlackBerry gailuak bilaketa-historia biltegiratuko duen ala ez, zein kategoria sartuko dituzun bilaketetan eta zein bilaketa motor erabil ditzakezun bilaketak Internetera hedatzeko erabaki dezakezu. Era berean, bilaketa-historia garbitu dezakezu pantaila honetatik.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Bilaketa.
- 3. Kolpatu aldatu nahi dituzun ezarpenak.
- 4. Zure bilaketa-ezarpenak aldatu

### Bilaketaren emaitzei etekin handiagoa atera

Ekintza anitz gauza ditzakezu elementuekin bilaketaren emaitzetan, bilaketaren emaitzak pantailan. Ekintza desberdinak izango dituzu erabilgarri elementuaren arabera. Adibidez, bilaketa emaitzetako bat posta elektronikoa bada, erantzun, birbidali, markatu eta gehiago egin ditzakezu posta elektronikoa ireki gabe.

- 1. Eduki ukituta bilaketa emaitza bat.
- 2. Sakatu ekintza bat.

**Aholkua:** Gauzatu ditzakezun ekintzak ikono moduan agertzen dira zure pantailak eskuin aldean. Ikonoen izenak ikusteko, irristatu hatza haien gainetik.

# Telefonoa

## Telefonoa

### Telefonoa begiratu batean



Dei batean zaudela, bozgorailuaren, entzungailuaren eta telefonoaren artean aldatzeko; mututu dei bat; edo hasi konferentzia-dei bat beste dei bat eginda. Markagailua ere ireki dezakezu, oharrak hartu deian zaudela eta deia BBM Video-ra.

### Deiak egiten eta jasotzen

### Deitu

- 1. Telefonoa aplikazioan, kolpatu 🏢 .
- 2. Zenbaki bat markatu.
- 3. Sakatu **Deitu**.

### Duela gutxiko zenbaki bati edo markatze bizkorreko kontaktu bati deitu

- 1. Telefonoa aplikazioan, kolpatu 🔯 .
- 2. Sakatu izen bat, edo markatze bizkorreko kontaktu bat.

Aholkua: Duela gutxi erabilitako zenbaki batera deitzeko telefono-linea edo aplikazioa aukeratzeko, eduki ukituta duela gutxiko zenbaki bat. Kolpatu 🗽 .

### Kontaktuen zerrendako norbaiti deitu

- 1. Telefonoa aplikazioan, kolpatu 👤 .
- 2. Sakatu kontaktu bat.
- 3. Kontaktu batek telefono-zenbaki bat baino gehiago baditu, sakatu deitu nahi duzun telefono-zenbakia. Adibidez, sakatu **Deitu etxera** edo **Deitu mugikorrera**.

### Deia erantzun edo baztertu

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Deia erantzuteko, eduki ukituta pantailaren behealdeko zirkulua eta irristatu hatza ezkerrera. Askatu hatza zirkuluak
   estaltzen duenean.
- Deia baztertzeko, eduki ukituta pantailaren behealdeko zirkulua eta irristatu hatza eskuinera. Askatu hatza zirkuluak
   estaltzen duenean.

### Dei-egileari mezua bidaltzeko Erantzun orain erabili

Bilera edo elkarrizketa batean zaudela, ez duzu barkamenik eskatu beharko telefonoa erantzuteko. Erantzun orain eginbidearekin, mezu labur bat bidal diezaiokezu sarrerako deia erantzun beharrean. Besterik adierazi ezean, dei-egilea BBM kontaktu bat bada, Erantzun orain mezua BBM mezu gisa bidaliko da. Dei-egilea BBM kontaktu bat bada, Erantzun orain mezua mezu gisa bidaliko da. Erantzun orain mezuaren hartzailearen arabera, baliteke testu-mezularitzaren kostu gehigarriak aplika daitezke.

- 1. Sarrerako dei at jasotzen duzunean, kolpatu 戻 edo 📖 .
- 2. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Erantzun orain mezu lehenetsietako bat bidaltzeko, kolpatu mezua.
  - Mezu berria idazteko, kolpatu Pertsonalizatu mezua. Idatzi mezua eta kolpatu Bidali.

#### Dei-tonua isildu deia jasotzen duzunean

Soinu-jakinarazpenak aktibatuta daudela deia jasotzeko, azkar-azkar isil dezakezu dei-tonua. Dei-tonua isiltzen duzunean, deia erantzun edo baztertu behar duzu.

Sarrerako deia jasotzen duzunean, kolpatu 🗾 .

#### Deiak zain utzi

Dei batean zaudela, eduki ukituta pantailan 📕 , Deia zain agertu arte.

### Apunteak hartu dei batean zehar

Dei batean zaudenean, BlackBerry Remember-(e)n sarrera moduan gordetzen diren oharrak apunta ditzakezu.

Aholkua: Oharrak idatzi aurretik bozgorailua aktiba dezakezu, eskuak libre izan ditzazun teklatua erabiltzeko.

- 1. Dei batean zaudenean, sakatu 📝 .
- 2. Idatzi zure oharrak eta sartu informazio gehigarria, adibidez izenburua, epemuga eta etiketak.
- 3. Sakatu Gorde.

### Konferentzia-dei bat hasi

- 1. Dei batean zaudenean, egin edo erantzun beste dei bat.
- 2. Deiak bateratzeko, sakatu +4.

#### Erantzun bigarren dei bat dagoeneko dei batean zaudenean

- 1. Deia itxaroten eginbidea erabiltzen baduzu dagoeneko dei batean zaudenean, dei bat jasotzen baduzu, ekintza hauetako bat burutu dezakezu:
  - Lehenengo deia itxaron moduan jartzeko eta bigarren deiari erantzuteko, sakatu Erantzun.
  - Lehenengo deia amaitzeko eta bigarrenari erantzuteko, eduki ukituta **Erantzun**. Sakatu **Jaregin**.
- 2. Bi deiak bateratzeko eta konferentzia-dei bat hasteko, sakatu 🖂 .

Konferentzia-deira jende gehiago gehitzeko, errepikatu 1-2 pausoak.

### Egin beste dei bat dei bat dagoeneko dei batean zaudenean.

Dagoeneko dei batean zaudenean beste dei bat egitean, zure lehen deia Itxaron moduan jarriko da automatikoki.

- 1. Dei batean zaudenean, sakatu **Gehitu deia**.
- 2. Egin hauetako bat:
  - Sakatu telefono zenbakia, izena edo markatze bizkorra kontaktu bati deitzeko.
  - Sakatu 👤 . Sakatu kontaktu bat.
  - Sakatu 🛄 . Zenbaki bat markatu.
- 3. Bi deiak bateratzeko eta konferentzia-dei bat hasteko, sakatu 🖂 .

Konferentzia-deira jende gehiago gehitzeko, errepikatu 1-3 pausoak.

### Ezabatu jendea konferentzia-dei batetik.

- 1. Konferentzia-dei batean zaudenean, konferentzia-deiko parte hartzaileak ikusteko, sakatu 📃 .
- 2. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Konferentzia-dei batetik pertsona bat ezabatzeko eta eskegiteko, sakatu 👝 .
  - Konferentzia-dei batetik pertsona bat ezabatzeko eta beste dei batean mantentzeko, sakatu 📲 .

### Deiak automatikoki erantzun

Aurikularra konektatuta duzunean edo gordetzen duzun zorrotik ateratzen duzunean, deiak automatikoki erantzun ditzan konfigura dezakezu BlackBerry gailua.

### Deia automatikoki erantzun edo amaitu zorroa erabiltzean

- 1. Telefonoko aplikazioetan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🌣 > Zorroa.
- 3. Egin hauetako bat:
  - Konfiguratu Erantzun dei bat gailua zorrotik ateratzean I aukeran.
  - Konfiguratu Amaitu deia gailua berriro zorroan sartuta I aukeran.

### Automatikoki erantzun dei bat aurikularra konektatuta dagoenean.

- 1. Telefonoko aplikazioetan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🏠 > Bluetooth.
- 3. Konfiguratu Deiak automatikoki erantzun aurikularra konektatuta dagoenean laukeran.

Ezaugarri hau aktibatzean eta zure BlackBerry gailuan aurikular bat konektatuta duzunean, deiak automatikoki erantzungo dira 5 segundo igarotzen direnean.

### Eraman dei bat zure aurikularretik gailura

Aurikularra konektatuta duzunean zureBlackBerry gailuan, sarrerako deiak automatikoki jasoko dira zure aurikularrean. Deia gailura eraman dezakezu eskuz.

Deia zure gailura eramateko eskuz, dei batean zaudenean, sakatu () > Aurikularra.

Dei bat berriz ere aurikularrera eramateko, sakatu 📣 . Sakatu zure aurikularraren izena.

### Eraman dei bat BBV Video

Ikusi norekin ari zaren hizketan deia BBM Video-(e)ra eramanez. Telefono dei bat BBM Video-(e)ra mugitzeko, hizketan ari zaren pertsonak ere BBM Video-(e)ra sarbidea izan behar du. BBM kontaktua ez den norbaitekin BBM Video berriketa bat hasi nahi baduzu, pertsona hori BBM-(e)ra gehitzeko eskatuko zaizu BBM Video berriketa hasi aurretik.

Dei batean zaudenean, sakatu 🗖 .

# Kontaktu edo zenbaki bat markatze bizkorreko zerrendan gehitu

Kontaktuak eta zenbakiak gehitzeko markatze bizkorreko bi zerrenda daude. Guztira bederatzi kontaktu edo zenbaki gehi ditzakezu Deiak pantailaren goialdeko markatze bizkorreko zerrendan. Horrez gain, teklatuaren markatze bizkorreko zerrendan ere gehi ditzakezu kontaktuak edo zenbakiak. Horrela, teklatutako tekla bakarra sakatuta mantenduta zenbaki bat marka dezakezu. Besterik adierazi ezean, ahots-postan sartzeko zenbakia markatze bizkorreko zerrendan dago.

- 1. Telefonoa aplikazioan, kolpatu 隆 edo 👤 .
- 2. Eduki ukituta kontaktuaren telefono zenbakia.
- 3. Kolpatu ★ .

### Kontaktu bat markatze bizkorreko zerrendako teklatuan gehitu

- 1. Telefonoa aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🔅 > Sakatu markatze bizkorra.
- 3. Sakatu kontaktuarekin lotu nahi duzun tekla teklatuan.
- 4. Kolpatu teklatuko teklarekin lotu nahi duzun kontaktua.

Kontaktu bati markatze bizkorreko zerrendako teklatutik deitzeko, Telefonoa aplikazioan, kolpatu 🏢. Eduki sakatuta kontaktuari lotutako tekla.

#### Kontaktu edo zenbaki bat markatze bizkorreko zerrendatik kendu

- 1. Telefonoa aplikazioan, kolpatu 隆 .
- 2. Markatze bizkorreko zerrendan, gehitu kontaktu edo zenbaki bat.
- 3. Kolpatu 💼 .

#### Kontaktu bat markatze bizkorreko zerrendako teklatutik ezabatu

- 1. Telefonoa aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🐼 > Sakatu markatze bizkorra.
- 3. Eduki ukituta kontaktu bat edo zenbaki bat.
- 4. Kolpatu 💼 .

### BlackBerry gailuko ahots-postari buruz

Zerbitzu-hornitzailearen arabera, BlackBerry gailuan erabilgarri dauden bi ahots-posta desberdin daude: ohiko ahotsposta eta ikusizko ahots-postaren zerbitzua.

Ohiko ahots-postarekin, ahots-postan sartzeko zenbakia eta pasahitza konfigura ditzakezu; horrela, azkar-azkar sar zaitezke ahots-postako zerbitzuan Deiak pantailatik edo Telefonoa aplikaziotik.

Ikusizko ahots-postaren zerbitzura harpidetzen bazara, ahots-postako mezuen zerrenda ikusi, ahots-postako mezuak erreproduzitu eta hainbat ahots-posta ezarpen alda ditzakezu BlackBerry gailutik, ahots-postako zerbitzura deitu beharrik gabe. Zerbitzu-hornitzaileak onartzen dituen eginbideen arabera, ahots-postako mezuak automatikoki deskarga daitezke gailua eta ahots-postako mezua entzun ahala pausatu, azkar aurreratu edo atzera dezakezu. Ahots-mezuak birbidali, ahots-mezu bat utzi dizun pertsona bati erantzun edo ahots-mezuak ezaba ditzakezu Telefonoa aplikazioan edo BlackBerry Hub-etik.

Epe jakin bat igaro eta gero, baliteke zerbitzu-hornitzaileak mezuak automatikoki ezabatzea. Beraz, ez baduzu mezu bat automatikoki ezabatzea nahi, gailuan gorde dezakezu.

Herrialdearen edo eskualdearen arabera, baliteke ikusizko ahots-postaren zerbitzua erabilgarri ez egotea. Eginbideetan sartzeko, ikusizko ahots-postaren zerbitzura harpidetu behar duzu. Harpidetzeko, jarri harremanetan zerbitzuhornitzailearekin.

### Ahots-posta konfiguratu

Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori bateragarria ez izatea.

- 1. Telefonoko aplikazioetan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🔅 > Ahots-posta.
- 3. Idatzi ahots-postan sartzeko zenbakia eta pasahitza

Ahots-posta konfiguratzean, Deiak pantailatik edo Telefonoa aplikaziotik dei dezakezu ahots-postaren zerbitzura.

### Ikusizko ahots-postaren zerbitzua erabiltzea

#### Ikusizko ahots-postako mezua entzun

- 1. BlackBerry Hub-en edo Telefonoa aplikazioan, kolpatu ahots-postako mezua.
- 2. Sakatu 🕨 .

### Ikusizko ahots-postako mezua birbidali

- 1. BlackBerry Hub-en edo Telefonoa aplikazioan, eduki ukituta ahots-postako mezua.
- 2. Sakatu 😵 .

#### Ikusizko ahots-postako mezua gorde

Epe jakin bat igaro eta gero, baliteke ahots-posta sistemaren zerbitzu-hornitzaileak mezuak automatikoki ezabatzea. Beraz, ez baduzu nahi mezu bat automatikoki ezabatzea, gailuan gorde dezakezu.

- 1. BlackBerry Hub-en edo telefonoaren aplikazioan, eduki ukituta ahots-postako mezua.
- 2. Sakatu Gorde.

#### Ikusizko ahots-postaren agurra aldatu

Ahots-postaren agurra, deitzen duen pertsonak, ahots-posta mezu bat utzi aurretik entzuten duen mezua da. Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori bateragarria ez izatea.

- 1. Telefonoa aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🔅 .
- 3. Kolpatu **oo** > **Aldatu ahots-postaren agurra**.
- 4. Agurreko goitibeherako zerrendan gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Telefono-zenbakia ahots-postaren agur gisa erreproduzitzeko, kolpatu Telefono-zenbakia.
  - Izena ahots-postaren agur gisa erreproduzitzeko, kolpatu Izena.
  - Ahots-postaren agur pertsonalizatu bat grabatzeko kolpatu Mezu pertsonala.

#### Ikusizko ahots-postaren pasahitza aldatu

Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori bateragarria ez izatea.

- 1. Telefonoa aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🌣 > 🐽.
- 3. Sakatu **Pasahitza aldatu**.

#### Ibiltaritzan zaudela ikusizko ahots-mezuak deskargatzea ekidin

Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori bateragarria ez izatea.

- 1. Telefonoa aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🌣 > 🐽.
- 3. Garbitu nazioarteko ibiltaritza koadro-laukia.

#### Gailuan ikusizko ahots-posta desaktibatu

BlackBerry gailuan ikusizko ahots-posta zerbitzua desaktibatzen baduzu, hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin jarri behar duzu harremanetan, berriro aktibatzeko. Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori bateragarria ez izatea.

- 1. Telefonoko aplikazioetan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🌣 .
- 3. Sakatu oo > Desaktibatu.

### Deia zain, dei-desbideratzea eta deia blokeatzen.

#### Itxaron deia aktibatu edo desaktibatu

Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori bateragarria ez izatea.

- 1. Telefonoko aplikazioetan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🔯 > Itxaron deia.
- 3. Sakatu **Itxaron deia** ikonoa.

### Konfiguratu dei-transferentzia

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori erabilgarri ez izatea.

- 1. Telefonoko aplikazioetan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🌣 > Deiak desbideratzea.
- 3. Ezarri edozein ikonol aukeran.
- 4. Zure deiak transferitzen diren zenbakia aldatzeko, sakatu goitibeherako zerrenda baten azpiko tekla eta idatzi zenbaki bat.

### Deiak blokeatu

Deiak blokeatzen dituzunean, sarrerako edo irteerako dei guztiak blokea ditzakezu, baita ibiltaritzan zaudeneko sarrerako eta irteerako dei guztiak ere. Telefono-zenbaki jakin batzuk blokeatzeko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin. Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori bateragarria ez izatea.

- 1. Telefonoko aplikazioetan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🌣 > Deiak blokeatu.
- 3. Ezarri edozein ikonol aukeran.

Deiak lehenengoz blokeatzen dituzunean, pasahitz bat sortzeko eskatuko zaizu, deiak blokeatzeko ezarpenak blokeatu ahal izateko. Blokeatze-pasahitza aldatzeko, jarraitu 1 eta 2 pausoak eta sakatu 🔤 .
# Telefonoaren aukerak

#### Erakutsi edo ezkutatu zure zenbakia irteerako deietan

Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori bateragarria ez izatea.

- 1. Telefonoko aplikazioetan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🔅 > Erakutsi nire zenbakia.
- 3. Hautatu I Onartu nire zenbakia agertzea deitzen dudanean etengailuan.

#### Doitu zure deietako baxuak eta altuak

- 1. Telefonoko aplikazioetan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🔅 > Deiaren audioa.

#### Konfiguratu markatze adimendua

Markatze adimendua erabil dezakezu lehenetsitako area kodea eta herrialde kodea ezartzeko deitzen duzun telefono zenbakietan. Modu honetan ez duzu herrialdeko edo eskualde ko kodea markatu beharko zure herrialdetik dei bat egiten duzunean.

Markatze adimenduak erakunde batera edo enpresa batera deitzea ere errazten du. Enpresa batentzako luzapen zenbaki bat ezartzen duzunean, luzapen hori Kontaktuak aplikazioan dituzun enpresa horren kontaktuei bakarrik gehitu beharko diezu eta enpresaren telefono zenbakia eta luzapena automatikoki markatuko dira kontaktu horri dei bat egitean.

- 1. Telefonoko aplikazioetan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- Sakatu 🔅 > Markatze adimendua.
  - Lehenetsitako estatu-kodea edo area-kodea aldatzeko, sakatu Estatu-kodea edo Area-kodea.
  - Enpresa baten luzapen zenbakia ezartzeko, ezarri Ezarri zure luzapen zenbakia.

Sakatu goitibeherako edozein zerrenda bestelako markatze adimendu aukerak aldatzeko.

#### Lehentasunezko deia aktibatu

Telefono linea bat baino gehiago badituzu, nahi duzun telefono linearekin dei dezakezu, Lehentasunezko deia eginbidea erabiliz. Lehentasunezko deia eginbidearekin, deitzeko erabili nahi duzun telefono-linea edo aplikazioa eslei dezakezu.

- 1. Telefonoa aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🔅 > Lehentasunezko deia.

3. Hautatu Aktibatuta Erabili lehentasunezko deia aukeran.

Deitzeko telefono-linea aukeratzeko, kolpatu Deiak pantailako **Hautatu linea** goitibeherako zerrenda. Telefono-linea jakin bat erabiltzeko, kolpatu telefono-linea. Sare mugikorrera konektatuta zaudenean linea mugikorra automatikoki erabiltzeko, kolpatu **Erabili lehentasunezko linea**.

#### Erantzun orain mezu lehenetsia aldatu

Hiru Erantzun orain mezuetako bat hauta dezakezu, dei-egileari sarrerako deia erantzun beharrean mezu bat bidaltzeko. Mezu lehenetsiak aldatu edo Erantzun orain mezu berria idatz dezakezu.

- 1. Telefonoko aplikazioetan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 > Erantzun orain.
- 3. Kolpatu aldatu nahi duzun mezua.
- 4. Idatzi Erantzun orain mezu berria.

Sarrerako deia jasotzen duzunean Erantzun orain ikonoa agertzea ekiditeko, hautatu **O Erantzun orain** etengailuan.

#### Konfiguratu markatze finkoaren zenbakiak

Markatze finkoa konfiguratu eta erabiltzen duzunean, markatze finkoko zenbakien zerrendan gehitutako telefonozenbakietara soilik deitu eta bidal ditzakezu testu-mezuak. Adibidez, BlackBerry gailua zure seme-alabari ematen badiozu, hark dei ditzakeen telefono-zenbakiak muga ditzakezu. Markatze finkoko zenbakiak erabiltzeko, zerbitzu-hornitzaileak eginbide horretarako konfiguratu behar du mikro SIM txartela. Hari gabeko zerbitzu hornitzailearen arabera, baliteke eginbide hori bateragarria ez izatea.

- 1. Telefonoko aplikazioetan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🔯 > Markatze finkoaren zenbakiak.
- 3. Ezarri Markatze finkoaren zenbakiak I aukeran.
- 4. Idatzi zerbitzuaren hornitzaileak emandako SIM segurtasun kodea.
- 5. Sakatu Ados.
- 6. Kolpatu Editatu zerrenda.
- 7. Idatzi izen bat eta telefono-zenbaki bat.

#### Ikusi zure deien laburpena

Zure hari gabeko ahots erabilerak kezkatzen bazaitu, telefono dei batean egiten duzun denboraren jarraipena egin dezakezu, Deien laburpena pantailan.

- 1. Telefonoko aplikazioetan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🏟 > Deien laburpena.

Deien denbora berrezartzeko, Deien laburpena pantailan, sakatu 🔼 .

# **BBM** Video

### BBM Video begiratu batean

BlackBerry **Natural Sound** 



#### miniatura mugitzeko, eduki ukituta miniatura eta arrastatu izkina batera

### BBM Video berriketa hasi

BBM Video berriketa has dezakezu berriketa egiteko edozein BBM tokitatik edo zure telefonotik edo zure BlackBerry gailuko Kontaktuak aplikaziotik. BBM kontaktua ez den norbaitekin BBM Video berriketa bat hasi nahi baduzu telefonotik edo Kontaktuak aplikaziotik, pertsona hori BBM-(e)ra gehitzeko eskatuko zaizu BBM Video berriketa hasi aurretik.

BBM berriketan, Telefonoa aplikazioan edo kontaktuak aplikazioan, sakatu 🔲 .

#### Onartu edo ezeztatu BBM Video berriketa edo BBM Voice berriketa

BBM Video berriketa edo BBM Voice berriketa bat jasotzen duzunean, pertsonaren izena eta berriketa mota agertuko da pantailan. Erantzun baino lehen dei-tonua isil dezakezu. Horretarako, kolpatu 🜠 .

- 1. Eduki ukituta pantailaren behealdeko zirkulua.
- 2. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Berriketa onartzeko, irristatu hatza ezkerra. Askatu hatza zirkuluak 🔲 edo 🔽 estaltzen duenean.
  - Berriketa baztertzeko, irristatu hatza eskuinera. Askatu hatza zirkuluak 🔤 estaltzen duenean.

Aholkua: Erantzun orain eginbidearekin, pertsonari BBM mezu bat bidaltzeko, kolpatu 👜 .

#### BlackBerry Natural Sound -i buruz

BlackBerry Natural Sound ikonoa, 💮, BBM Video berriketaren edo BBM Voice berriketaren pantailan agertzen da, sareko baldintzak egokiak badira.

BlackBerry Natural Sound teknologia esperientziak tokian bertan bazeunden bezala partekatzeko diseinatu da. Adibidez, beste pertsonaren tonuan gertatzen diren ñabardurak eta aldaerak entzun ditzakezu, atzealdean erreproduzitzen ari den musika bezalako giroko soinuak eta soinu estereoaz goza dezakezu.

# Aldatu kamerak edo partekatu zure pantaila

Zure BBM Video berriketetan aurrealdeko kamera erabiliko da modu lehenetsian. Pantaila partekatzen ari zaren bitartean, multimedia-fitxategiak erreproduzi ditzakezu, bideoak eta musika, esaterako, gailuan eta zure elkarrizketarekin jarrai dezakezu aldi berean.

BBM Video berriketa batean, egin hauetako bat:

- Atzeko kamerara aldatzeko, sakatu 🚑 .
- Zure pantaila partekatzeko, sakatu 🔯 .

# Mututu zure mikrofonoa BBM Video berriketetan

BBM Video Berriketan, sakatu 髮 .

# Mugitu zure bideoaren miniatura pantailan zehar

1. Ukitu bideoaren miniatura.

2. Arrastatu miniatura pantailaren beste ertz batetara.

# BBM Video berriketa kanpoko pantaila batera mugitu

Behar izanez gero, HDMI kable bat erabiliz ere konekta dezakezu gailua kanpoko pantaila batetara. BBM Video berriketa kanpoko pantaila batera mugi dezakezu, adibidez, telebista batera, handiago ikusteko.

- 1. Bideo-berriketan, kolpatu 🗊 .
- 2. Hautatu aukera bat.

# BBM Video aukerak

#### Utzi BBM Video

BBM Video sare mugikorrera ez duzunean konektatzen, BBM Video sare batean erabil dezakezu Wi-Fi.

- 1. BBM-(e)an, irristatu hatza pantailaren goialdetik.
- 2. Sakatu 🌣 .
- 3. Hautatu Desaktibatu Onartu BBM bideo-berriketak sare mugikorretan aukeran.

# Soinuak, jakinarazpenak eta dei-tonuak

# Soinuei, jakinarazpenei eta dei-tonuei buruz

BlackBerry gailuaren jakinarazpen orokorren ezarpenek etengailu nagusi gisa funtzionatzen dute eta unean aplikazioei eta kontaktuei ezarritako jakinarazpen pertsonalizatuak aktibatzen edo desaktibatzen ditu. Kontaktuen jakinarazpen pertsonalizatuak gainidazten dituzte. Adibidez, Telefonoa aplikazioaren soinua desaktibatuta badago, baina kontaktuaren jakinarazpen pertsonalizatuetan aktibatueta badago, kontaktuak deitzen dizunean telefonoak joko du.

BlackBerry Priority Hub-en lehentasunezko mezuak nola jaso pertsonalizatu nahi baduzu, arau bat sor dezakezu kontu jakin batzuetatik bidalitako mezuak, gai jakin bat dutenak edo beste irizpideren bat betetzen duten mezuak BlackBerry Priority Hub-era bidaltzeko. Mezu jakin batzuetarako 1. mailako mezuak ere aktiba ditzakezu; horrela, mezu horien jakinarazpen pertsonalizatua jasoko duzu.

Oharra: 1. mailako alertek lehendik dauden jakinarazpen-ezarpenak gainidazten dituzte.

# Soinuak, jakinarazpenak edo dei-tonuak aldatu

Jakinarazpenen ezarpenetan alda ditzakezu soinuaren, jakinarazpenen eta dei-tonuen ezarpenak. Horrez gain, jakinarazpenen bolumena, bibrazio kopurua eta askoz gehiago ere ezar dezakezu.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Jakinarazpenak.
- 3. Jakinarazpenen ezarpen orokorrak aldatzeko, kolpatu **Modua** goitibeherako zerrendako ezarpen bat edo aldatu **Soinua**, **Bibratu**, **LEDa**, **Istanteko aurrebistak** edo **Bolumena** ezarpenak.

# Soinu eta dei-tonu guztiak desaktibatu, deienak izan ezik

- 1. Hasierako pantailan, ukitu pantailatik beherantz.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Jakinarazpenak.
- 3. Modua goitibeherako zerrendan, kolpatu Telefono-deiak soilik.

Aholkua: BlackBerry gailua ohe-moduan dagoela deien dei-tonua aktibatzeko, irristatu hatza Erlojua aplikazioko pantailaren goialdetik behera. Kolpatu 🙀 . Hautatu **I Telefono-deiak ohe-moduan** etengailuan.

# Kontaktuaren jakinarazpenak pertsonalizatu

Kontaktuentzat pertsonalizatutako jakinarazpenek zehaztutako aplikazioei ezarritako jakinarazpenak gainidatziko dituzte. Adibidez, kontaktu baten telefono-jakinarazpenak soinua aktibatuta badu, baina telefonoaren soinua desaktibatzen bada, telefonoak jotzen jarraituko du kontaktuak deitzen badizu.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Jakinarazpenak.
- 3. Kolpatu Jakinarazpenak pantailaren behealdeko Kontaktuak aukera.
- 4. Kolpatu 👤.
- 5. Kolpatu kontaktu bat.
- 6. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Kolpatu Telefono-deiak.
  - Kolpatu Mezu elektronikoak.
  - Kolpatu **BBM**.
  - Kolpatu Testu-mezuak.

- Kolpatu Bestelako mezularitza. Bertan, Facebook, Twitter edo LinkedIn gisako aplikazioak aurki daitezke.
- 7. Aldatu Tonua, Bibrazioa, LEDa edo Istanteko aurrebistak ezarpenak.
- 8. Kolpatu 【 Kontaktuen jakinarazpenak pantaila agertu arte.

Jakinarazpen pertsonalizatuak ezarri dizkiezun kontaktuak Kontaktuen jakinarazpenak pantailan zerrendatzen dira.

# Aplikazioaren jakinarazpenak pertsonalizatu

- 1. Irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Jakinarazpenak.
- 3. Kolpatu **Jakinarazpenak** pantailaren behealdeko **Aplikazioak** aukera.
- 4. Kolpatu aplikazio bat.
- 5. Aldatu Soinua, Tonua, Bibrazioa, LEDa edo Istanteko aurrebistak ezarpenak.
- 6. Kolpatu 🔀 Jakinarazpenak pantaila agertu arte.

### Soinu, jakinarazpen eta dei-tonu guztiak desaktibatu

- 1. Hasierako pantailan, ukitu pantailatik beherantz.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Jakinarazpenak.
- 3. Modua goitibeherako zerrendan, kolpatu Alerta guztiak desaktibatuta.

# 1. mailako alerten jakinarazpen-ezarpenak aldatu

1. mailako alerten jakinarazpen-ezarpenak aldatzeko, lehenik araua sortu behar duzu BlackBerry Priority Hub-en ezarpenetan eta **Gaitu 1. mailako alertak** kontrol-laukia hautatu **Gehitu araua** pantailan.

- 1. Irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Jakinarazpenak > 1. mailako alerta.
- 3. Aldatu Soinua, Tonua, Bibrazioa, LEDa edo Istanteko aurrebistak ezarpenak.

# Istanteko aurrebistak ikusi eta hari erantzun

Istanteko aurrebistak eginbidea erabil dezakezu sarrerako mezu elektronikoen, BBM mezuen, testu-mezuen eta gainerako aurrebistak ikusteko, BlackBerry gailuko edozein aplikaziotatik.

Pantailaren goialdean aurrebista ikusten denean, gauzatu ekintza hauetako bat:

- BlackBerry Hub-en mezuak ikusteko, kolpatu aurrebista.
- Aurrebista ixteko, kolpatu x.
- Aurrebista ez ikusteko, itxaron segundo batzuk desagertu arte.
- Une horretan zauden aplikaziotik irten gabe BBM mezu edo testu-mezu bati erantzuteko, kolpatu 💽 .

### Istanteko aurrebistak desaktibatu

Besterik adierazi ezean, Istanteko aurrebistak eginbidea aktibatuta dago.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Jakinarazpenak.
- 3. Hautatu Desaktibatuta Istanteko aurrebistak aukeran.

**Aholkua:** Zenbait aplikaziotan, jakinarazpen-ezarpenak alda ditzakezu lehentasunezko mezuak soilik bistaratzeko Istanteko aurrebistak gisako aplikazioetan. Kolpatu jakinarazpen-ezarpenen pantailako aplikazio bat. **Istanteko aurrebistak** goitibeherako zerrendan, kolpatu **Lehentasunezkoa soilik**.

### Istanteko aurrebistak -era zuzenean erantzun

Istanteko aurrebistak eginbidea erabil dezakezu, unean zauden aplikaziotik irten gabe BBM eta testu-mezuei erantzuteko.

Aurrebistari erantzuten diozun bitartean, uneko elkarrizketatik kanpoko sarrerako mezuak ez dira Istanteko aurrebistak jakinarazpen gisa bistaratuko.

- 1. Istanteko aurrebistakri erantzuteko, kolpatu 🤘 .
- 2. Sakatu teklatuko edozein tekla. Ukipen-pantailako teklatua duen BlackBerry gailuko teklatua erakusteko, irristatu bi hatz pantailaren behealdetik gora.
- 3. Idatzi mezua.
- 4. Kolpatu **Bidali** edo sakatu 🗾 .

# Blokeatutako pantailaren jakinarazpenak -i buruz

Blokeatutako pantailaren jakinarazpenak eginbidea erabil dezakezu azken mezu elektroniko, BBM mezu, testu-mezu eta antzekoen lehen lerroak BlackBerry gailuan ikusteko, gailua desblokeatu beharrik gabe.

# Blokeatutako pantailaren jakinarazpenak desaktibatu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > Blokeo pantaila.
- 3. Hautatu Desaktibatuta Blokeo-pantailaren jakinarazpenak aukeran.

# Blokeatutako pantailaren jakinarazpenak ikusi

- 1. BlackBerry gailua desblokeatzeko, irristatu hatza pantailaren behealdetik erdialderaino.
- 2. Blokeatutako pantailaren jakinarazpenak ikusteko, kolpatu jakinarazpen-ikonoa.

Aholkua: Jakinarazpen-ikonoak soilik ikus daitezen Blokeatutako pantailaren jakinarazpenak ikuspegia tolesteko, irristatu hatza ezkerrera eta kolpatu ikono bat.

# Arazoak: Dei-tonuak, soinuak eta alertak

# Gailuak ez du jotzen edo bibratzen deiak edo mezuak jasotzen ditudanean

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera. Egiaztatu Isilik modua ez dagoela aktibatuta.
- Kontaktuarentzako alerta pertsonalizatuak sortu badituzu, kolpatu Kontaktuak aplikazioko kontaktu bat. Egiaztatu **Bolumena** ezarpena ez dagoela **Isilik** gisa ezarrita eta **Bibrazioa** ezarpena ez dagoela **Desaktibatuta** gisa ezarrita.

# Nire gailuak ez du Istanteko aurrebistak erakusten

BlackBerry Balance BlackBerry gailuan konfiguratuta badago, laneko kontuarekin lotutako kontuetara bidalitako mezuak ez dira Istanteko aurrebistak gisa bistaratuko.

# Nire gailuak ez du Blokeatutako pantailaren jakinarazpenak erakusten

BlackBerry Balance BlackBerry gailuan konfiguratuta badago, laneko kontuarekin lotutako kontuetara bidalitako mezuak ez dira Blokeatutako pantailaren jakinarazpenak gisa bistaratuko, lan-eremua blokeatuta dagoenean.

# Mezuak

# BlackBerry Hub

# BlackBerry Hub -ekin konektatuta egotea

BlackBerry Hub-ek hainbat kontutatik jasotzen dituzun mezuak eta jakinarazpenak kokapen egoki batean biltzen ditu. BlackBerry Hub-en, mezu elektronikoak edo BBM berriketak jaso edo haiei erantzun diezaiekezu guztia toki berean. Gainera, sare sozialetako kontuetako zuzeneko mezuak eta jakinarazpenak ikusi eta haiei erantzun diezaiekezu, datozen gertaerak begirada batean ikusi eta beste hamaika ekintza egin ditzakezu.

#### Posta elektronikoa

Lehendik dagoen edozein posta elektroniko kontu gehi dezakezu gailuan, lanekoak zein webgunean oinarritutakoak.

#### Testu-mezuak (SMS/MMS)

Testu-mezularitza hari gabeko zerbitzu-planaren zati bat bada, testu-mezu guztiak BlackBerry Hub-en aurkitu eta erantzun ahal izango dituzu.

#### Sare sozialak

Gailuan Facebook kontu bat gehitzen baduzu, jakinarazpenei erantzun, zure egoera aldatu eta Facebook mezuak bidali ahal izango dituzu BlackBerry Hub-etik. Twitter kontu bat gehitzen baduzu, tweet-ak idatzi, zure aipuak eguneratuta mantendu eta mezu zuzenak bidal ditzakezu. Eta LinkedIn kontu bat gehitzen baduzu, laneko kontaktuekin konektatzeko gonbidapenak jaso, zure kontaktuei mezuak bidali eta zure LinkedIn egoera eguneratu ahal izango duzu.

#### BBM berehalako mezularitza

Berehalako mezularitza aplikazioak zure gailura gehitu eta gero, BlackBerry Hub bateratuaren bidez sar zaitezke berriketetara.

#### Deiak eta ahots-posta

Zuzeneko deiak egin ditzakezu BlackBerry Hub-etik. BlackBerry Hub-ek egin eta jaso dituzun deiak erakusten dizkizu, dei galduak eta ahots-postako mezuak barne.

#### Datozen gertaerak

BlackBerry Hub utzi gabe, datozen hitzorduak eta gertaerak ikus ditzakezu eta zure Facebook kontura gehitu badituzu, lagunen urtebetetzeak ere.

#### Jakinarazpenak

BlackBerry Hub-ek PIN mezu berriei, ordu-zona aldaketei, software-eguneratzeei, hirugarrenen aplikazioei eta gehiagori buruzko jakinarazpenak ere biltzen ditu. Zerbitzu-hornitzaileak BlackBerry Hub-en agertzen diren SIM Tresna zerbitzuaren jakinarazpenak bidaliko dizkizu. Jakinarazpen hauetan sakatzean SIM Tresna zerbitzua abiaraziko da.

# BlackBerry Hub begiratu batean



### Kontuak konfiguratzea eta kudeatzea

#### Tutoriala: BlackBerry 10 gailuan posta-kontua konfiguratu

Tutorial honekin, BlackBerry 10 gailuan posta-kontuak nola konfiguratzen diren ikasi eta praktika dezakezu.

Oharra: Tutoriala ingelesez bakarrik dago erabilgarri.

Hasi tutoriala

http://docs.blackberry.com/tutorials/email/en

#### Tutoriala: Facebook gailuan BlackBerry 10 kontua konfiguratu

Tutorial honekin, BlackBerry 10 gailuan Facebook kontuak nola konfiguratzen diren ikasi eta praktika dezakezu.

Oharra: Tutoriala ingelesez bakarrik dago erabilgarri.

#### Hasi tutoriala

http://docs.blackberry.com/tutorials/facebook/en

#### Tutoriala: Twitter gailuan BlackBerry 10 kontua konfiguratu

Tutorial honekin, BlackBerry 10 gailuan Twitter kontuak nola konfiguratzen diren ikasi eta praktika dezakezu.

Oharra: Tutoriala ingelesez bakarrik dago erabilgarri.

Hasi tutoriala

http://docs.blackberry.com/tutorials/twitter/en

#### Tutoriala: LinkedIn gailuan BlackBerry 10 kontua konfiguratu

Tutorial honekin, BlackBerry 10 gailuan LinkedIn kontuak nola konfiguratzen diren ikasi eta praktika dezakezu.

Oharra: Tutoriala ingelesez bakarrik dago erabilgarri.

Hasi tutoriala

http://docs.blackberry.com/tutorials/linkedin/en

#### Tutoriala: BlackBerry 10 gailuan Evernote posta-kontua konfiguratu

Tutorial honekin, BlackBerry 10 gailuan Evernote kontuak nola konfiguratzen diren ikasi eta praktika dezakezu.

Oharra: Tutoriala ingelesez bakarrik dago erabilgarri.

Hasi tutoriala

http://docs.blackberry.com/tutorials/evernote/en

#### Posta elektronikoa eta beste kontu mota batzuk gailuan konfiguratu

Posta-kontuak, sare sozialetako kontuak (Facebook, Twitter edoLinkedIn, adibidez) edo Evernote kontuak gehi ditzakezu gailuan.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Kontuak.
- 3. Dagoeneko kontu bat gehitu baduzu zure gailuan, beste kontu bat gehitzeko, kolpatu 👰 .

#### Posta-kontu pertsonala gehitu

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu Posta elektronikoa, egutegia eta kontaktuak.
- 2. Idatzi helbide elektronikoa.

- 3. Kolpatu Hurrengoa.
- 4. Idatzi kontuaren pasahitza.
- 5. Kolpatu Hurrengoa.
- 6. Aldatu ezarpen gehigarriak (adibidez, zure gailuarekin sinkronizatzeko eduki motak).
- 7. Kolpatu **Eginda**.

#### Sare sozial bat edo Evernote kontu bat gehitu

Facebook, Twitter, LinkedIn edo Evernote kontuak gehi ditzakezu gailuan. Zure gailuan Evernote kontu bat gehitzen duzunean, Evernote koadernoak erabilgarri egongo diraBlackBerry Remember-en.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu Facebook, Twitter, LinkedIn edo Evernote.
- 2. Idatzi kontuaren informazioa.
  - Beharrezkoa bada, aldatu sinkronizatutako ezarpen aukerak.
  - Facebook kontu bat gehitu baduzu, lagunen urtebetetzeen jakinarazpenak noiz jasoko dituzun aldatzeko, kolpatu gogorarazle aukera bat, **Urteurrenaren gogorarazleak** goitibeherako zerrendatik.
- 3. Kolpatu Eginda. Beharrezkoa bada, kolpatu Baimendu.

#### BlackBerry Enterprise Service 10 -k onartutako laneko kontu bat gehitu

Erakundeak BlackBerry Enterprise Service 10 erabiltzen badu, laneko kontua gehi dezakezu gailuan eta BlackBerry Balance eginbidea bezalako abantailak izango dituzu. Erakundeak ez badu BlackBerry Enterprise Service 10 bertsio berriena eta BlackBerry Enterprise Server 5 edo zaharragoa exekutatzen badu, laneko kontua gehi dezakezu Microsoft Exchange ActiveSync erabil dezan. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan administratzailearekin.

Ziurtatu administratzailearen informazio hau ezagutzen duzula:

- Erabiltzaile-izena
- Enpresaren aktibazio-pasahitza
- Zerbitzariaren izena
- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 🗮 > Laneko kontua.
- 2. Idatzi zure kontuaren erabiltzaile-izena, aktibazio-pasahitza eta zerbitzari-helbidea
- 3. Kolpatu Eginda.

Laneko kontu bat gehitu eta gero, lan-eremuko pasahitz bat ezartzeko abisuak jarraitu BlackBerry Balance-rekin erabiltzeko eta zure laneko sareko pasahitza idazteko.

#### Gehitu Microsoft Exchange ActiveSync -k onartzen duen posta-kontu bat

Ziurtatu administratzailearen edo posta elektronikoaren zerbitzu-hornitzailearen informazio hau ezagutzen duzula:

- Erabiltzaile-izena eta laneko sarearen pasahitza
- Zerbitzariaren helbidea

Microsoft Exchange ActiveSync-ek onartzen duen helbide elektroniko bat gehitzen duzunean, kontuarekin lotutako mezuak, egutegiko gertaerak, kontaktuak, zereginak eta oharrak BlackBerry gailuarekin sinkronizatuko dira.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 😅 > Microsoft Exchange ActiveSync.
- 2. Idatzi zure kontuarentzako helbide elektronikoa, pasahitza eta zerbitzariaren helbidea.
  - Push posta elektronikoa desaktibatzeko, hautatu **O Push** aukeran. Zure gailuak mezu berriak zein maiztasunekin egiaztatzen dituen konfiguratzeko, **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendan, kolpatu aukera bat.
  - Zure erakundearen VPN erabiltzeko, hautatu I VPN aukeran.
  - Zure gailuak mezuak zenbatean behin sinkronizatzen dituen aldatzeko, hautatu aukera bat **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendan.
- 3. Kolpatu Hurrengoa.

#### IBM Notes Traveler posta-kontu bat gehitu

Ziurtatu administratzailearen edo posta elektronikoaren zerbitzu-hornitzailearen informazio hau ezagutzen duzula:

- Zure erabiltzailearen izena eta laneko sarearen pasahitza
- Zerbitzariaren helbidea

IBM Notes Traveler helbide elektroniko bat gehitzen duzunean, kontuarekin lotutako mezuak, egutegiko gertaerak, kontaktuak, zereginak eta oharrak BlackBerry gailuarekin sinkronizatuko dira.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 📰 > IBM Notes Traveler.
- 2. Idatzi zure kontuaren helbide elektronikoa, pasahitza eta zerbitzariaren helbidea.
  - Push posta elektronikoa desaktibatzeko, hautatu **O Push** etengailuan. Gailuak mezu berriak zein maiztasunekin egiaztatzen dituen konfiguratzeko, kolpatu **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendako aukera bat.
  - Zure erakundearen VPN erabiltzeko, hautatu I VPN etengailuan.
  - Zure gailuak mezuak noiztik sinkronizatzen dituen aldatzeko, hautatu aukera bat **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendan.
- 3. Kolpatu Hurrengoa.

#### BlackBerry kontu elektroniko bat gehitu

BlackBerry kontu elektroniko bat konfiguratzen baduzu (normalean erabiltzailea@<zerbitzu-hornitzailea>.blackberry.com formatuarekin) BlackBerry gailu zahar batean, kontu horretako mezuak BlackBerry 10 gailu berrian jasotzen jarraitzeko, mezua birbidaltzeko helbide bat konfiguratu eta ondoren helbide elektroniko bat gehitu beharko duzu gailuan.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu Posta elektronikoa, egutegia eta kontaktuak.
- 2. Idatzi helbide elektronikoa.
- 3. Kolpatu Hurrengoa.
- 4. Idatzi kontuaren pasahitza.
- 5. Kolpatu Hurrengoa.
- 6. Birbidali pantailan, idatzi mezua birbidaltzeko helbidea.

#### 7. Kolpatu Hurrengoa.

**Oharra:** Baliteke 5 eta 15 minutu bitartean behar izatea mezua birbidaltzeko helbidera posta elektronikoa birbidaltzeko. BlackBerry posta elektronikoa gailuan jasotzeko, ziurtatu posta elektronikoa birbidaltzeko kontua gailuan gehitu duzula.

#### IMAP edo POP posta-kontua gehitu

Ziurtatu posta elektronikoaren zerbitzu-hornitzailearen edo administratzailearen informazio hau ezagutzen duzula:

- Mezularitza zerbitzari mota (POP edo IMAP)
- Sarrerako eta irteerako mezularitza zerbitzariaren helbideak
- Sarrerako eta irteerako mezularitza zerbitzariaren ataka zenbakiak
- Sarrerako eta irteerako mezularitza zerbitzariaren SSL ezarpenak

**Oharra:** IMAP posta-kontuen aktibazio-abiadura areagotzeko, **IMAP bidearen aurrezenbakia** idaztea gomendatzen da. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan administratzailearekin.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 📰 > IMAP edo POP.
- 2. Sartu kontuaren informazioa.
  - BlackBerry gailuak mezu berriak zein maiztasunekin egiaztatzen dituen konfiguratzeko (push posta elektronikoa onartzen ez bada) **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendan, kolpatu aukera bat.
  - Hasieran zure gailuarekin sinkronizatuta dagoen mezu kopurua aldatzeko, hautatu aukera bat **Hasierako** berreskuratze kopurua goitibeherako zerrendan.
- 3. Kolpatu **Eginda**.

#### CalDAV edo CardDAV kontu bat gehitu

Ziurtatu informazio hau ezagutzen duzula:

- Erabiltzaile-izena eta pasahitza
- Kontuarekin lotutako helbide elektronikoa
- Kontuaren zerbitzari-helbidea

CalDAV edo CardDAV kontu bat gehi dezakezu egutegiko gertaerak edo kontaktuak sinkronizatzeko, hurrenez hurren.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 🚆 > CalDAV edo CardDAV.
- 2. Sartu kontuaren informazioa.
- 3. Kolpatu Eginda.

#### Kontuaren ezarpenak aldatu

Kontuaren pasahitza aldatu baduzu, kontua pantailako izena aldatu nahi baduzu edo sinkronizazio-ezarpen desberdinak erabili nahi badituzu, baliteke kontu horren ezarpenak editatu nahi izatea.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Kontuak.
- 3. Kolpatu kontua.
- 4. Egin aldaketak.
- 5. Kolpatu Gorde.

#### Kontu bat gailutik ezabatu

Kontu bateko mezuak eta jakinarazpenak ez badituzu jaso nahi eta kontaktu horren egutegia eta informazioa sinkronizatzeari uzteko, ezabatu kontu hori BlackBerry gailutik.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Kontuak.
- 3. Kolpatu kontua.
- 4. Kolpatu 📺 .

#### Arazoak: kontuak konfiguratzea

#### Ezin dut kontu elektronikorik gehitu

Probatu:

- Egiaztatu helbide elektronikoa eta pasahitza behar bezala idatzi dituzula.
- Egiaztatu gailua sare mugikor batera edo Wi-Fi batera konektatuta dagoela.
- Gehitu posta-kontu bat konfigurazio aurreratua erabiliz. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera. Kolpatu izi Ezarpenak > Kontuak > izi - Kolpatu gehitu nahi duzun kontu mota. Baliteke zure administratzaileak edo posta elektronikoaren zerbitzu-hornitzaileak kontuari buruzko informazio gehiago eman behar izatea.
- BlackBerry Enterprise Service 10ek onartzen duen laneko kontu bat gehitu nahi baduzu, ziurtatu administratzaileak emandako aktibazio-pasahitza duzula.
- Microsoft Exchange ActiveSync-ek onartzen duen kontu elektroniko bat gehitu nahi baduzu, jarri harremanetan administratzailearekin edo posta elektronikoaren zerbitzu-hornitzailearekin, kontuko ezarpenak aldatu behar ote dituzun jakiteko.

#### Ezin dut sare sozialetako bigarren kontu bat gehitu

Facebook kontu bakarra, Twitter kontu bakarra eta LinkedIn kontu bakarra gehi dezakezu zure BlackBerry gailuan.

# BlackBerry Hub-eko mezu-zerrendako ikonoak

Ikonoa	Deskribapena
	Irakurri gabeko posta elektronikoa
	Irakurri posta elektronikoa
<u>&amp;</u>	Hitzordurako edo gertaera baterako gonbidapena
	Facebook jakinarazpena berria
٤	Posta elektronikoa eranskinekin bidaltzea
₽ E	Zirriborro-mezua
	Mezu elektronikoak gaiaren arabera taldekatuta daude elkarrizketa-harietan
P	Irakurri gabeko testu-mezua (SMS)
P	Irakurritako testu-mezua
<b>þ</b>	Eranskinak dituzten testu-mezuak (MMS mezuak)
₩.	Testu-mezuaren zirriborroa
<b>.</b>	Sistema berriaren jakinarazpena
(·	Mezua ez da bidali oraindik
3)	Mezua bidaltzen ari da
~	Mezua bidali da
•	Ezin izan da mezua bidali

### Mezuak ikustea eta bilatzea

#### Non daude nire posta elektronikoa eta bestelako mezuak?

Zure posta elektroniko, testu mezuak, sare sozialetako jakinarazpenak, dei galduak eta ahots-posta mezuak BlackBerry Hub-en aurkituko dituzu. BlackBerry Hub ez da BlackBerry gailuko gainerako aplikazioak bezalakoa. BlackBerry 10 esperientziaren erdian dago eta etengabe abian da konektatuta egon zaitezen, zure gailuan edozer gauza egiten ari zaren bitartean.

BlackBerry Hub-en sartzeko, hasierako pantailan, irristatu hatza eskuinera.

BlackBerry Hub-en begiratu edo gailuko edozein aplikaziotatik ireki dezakezu keinu erraz batekin:



#### Zure mezuen eta jakinarazpenen zerrendan nabigatu

BlackBerry Hub-en, eduki ukituta data-barra.

- Hurrengo eguneko mezuetara eta jakinarazpenetara joateko, kolpatu 🔊 .
- Aurreko eguneko mezuetara eta jakinarazpenetara joateko, kolpatu 🔀 .
- Mezuen eta jakinarazpenen zerrendaren hasierara joateko, kolpatu 🔀 .
- Mezuen eta jakinarazpenen zerrendaren amaierara joateko, kolpatu 🔽 .

#### Kontuaren edo mezu motaren arabera mezuak ikusi

Mezu eta jakinarazpen guztiak BlackBerry Hub-eko Hub ikuspegian agertuko dira. Kontu jakin bateko mezuak soilik ikusi nahi badituzu (adibidez, zure posta elektronikoko kontu pertsonalekoak) edo motatan sailkatuta ikusi nahi badituzu (adibidez, testu-mezuak), iragazki itzazu.

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 🕎 .
- 2. Kolpatu ikusi nahi duzun mezu mota.

Mezu guztiak berriro ikusteko, kolpatu 📔 > Hub.

#### Artxibatutako posta elektronikoa ikusi

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu pantailaren goialdean dagoen goitibeherako zerrenda.
- 2. Kolpatu karpeta bat.

#### Mezuak bilatu

- 1. BlackBerry Hub ikuspegian, kolpatu Q.
- 2. Idatzi bilatzeko termino bat.

Bilaketaren emaitzak bidaltzailearen, dataren, gaiaren eta gehiagoren arabera iragazteko, kolpatu 🚞 .

# Irakurri gabeko mezuak, markatutako mezuak edo eranskindun mezuak ikusi

- 1. BlackBerry Hub ikuspegian, kolpatu Q.
- 2. Utzi Bilaketa eremua hutsik eta, kolpatu 📃 .
- 3. Kolpatu Irakurri gabe, Markatuta edo Eranskinak.
- 4. Kolpatu 📃 berriro.

Mezu guztiak berriro ikusteko, kolpatu **Utzi** pantailaren goialdean.

**Aholkua:** Markatutako mezuak BlackBerry Remember-en ere aurkitu ahal izango dituzu, Markatutako Mezuak karpetan (laneko kontuetarako) edo Artxibatu gabe karpetan (kontu pertsonaletarako).

#### BlackBerry Priority Hub -ekin mezu garrantzitsuak ikustea

BlackBerry Priority Hub eginbidearekin, mezu garrantzitsuak nabarmendu egingo dira, BlackBerry Hub-en azkar aurkitu ahal izateko.

Mezuen lehentasuna identifikatzeko, BlackBerry gailuak mezua garrantzitsu gisa markatuta dagoen, bidaltzailea ohiko kontaktua den edo beste irizpide batzuei erreparatzen die.

Gailuari mezu garrantzitsuak zein mezu diren ikasten lagun diezaiokezu, mezuen lehentasuna aldatuta. Adibidez, mezu bat zuretzat garrantzitsua bada baina BlackBerry Priority Hub-en gehitu gabe badago, gehitu egin dezakezu.

#### Lehentasunezko mezuak soilik ikusi

BlackBerry Hub-en gauzatu ekintza hauetako bat:

- Kolpatu 🕎 > Lehentasunezko Huba.
- Lehentasunezko mezuak handiagotzeko, irristatu hatzak elkarrengana.

Aholkua: Ezarpenak alda ditzakezu, handiagotzeak irakurri gabeko edo markatutako mezuak erakutsiko dituela zehazteko. BlackBerry Hub-en, kolpatu 📰 > 🔯 > Pantaila eta ekintzak. Atximurkatze-iragazkiaren irizpidea goitibeherako zerrendan, hautatu Irakurri gabeko mezuak edo Markatutako mezuak.

#### BlackBerry Priority Hub -en mezu bat gehitu eta handik mezu bat kendu

BlackBerry Priority Hub-en mezuak gehitu edo handik mezuak kentzen badituzu, BlackBerry gailuak lehentasunezko mezuak zein diren eta etorkizunean zein nabarmendu behar dituen ikasiko du.

- 1. BlackBerry Hub-en, eduki ukituta mezua.
  - BlackBerry Priority Hub-en mezua gehitzeko, kolpatu 1.
  - BlackBerry Priority Hub-etik mezu bat kentzeko, kolpatu 1.
- 2. Elkarrizketa-koadroan, aukeratu mezua zergatik den ala zergatik ez den garrantzitsua.
- 3. Kolpatu Ados.

#### Lehentasunezko gisa markatutako mezu motak aldatu

Besterik adierazi ezean, mezuaren bidaltzaileak zure abizen bera badu edo mezua garrantzi handiko gisa markatuta badago, mezu horiek BlackBerry Priority Hub-en gehituko dira. Ezarpen horiek guztiak desaktiba ditzakezu.

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 🚺 > 🔯 > Priority Hub.
- 2. Hautatu Desaktibatuta Bidaltzaileak nire abizen bera du edo Mezua garrantzi handikoa da.

#### Lehentasun-araua sortu

Arau bat sor dezakezu eta, horrela, kontu jakin batzuetara bidalitako mezuak, edo gai jakin bat dutenak, edo beste irizpide jakin bat arabera, BlackBerry Priority Hub-era bidaliko dira. Gainera, mezu jakin batzuei 1. mailako alertak ezar diezazkiekezu, mezu pertsonalizatua jasotzeko halako mezuak bidaltzen zaizkizunean.

- 1. Kolpatu 🔅 > 🏟 > Lehentasunezko Huba.
- 2. Kolpatu 👤.
- 3. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Arauari izena jartzeko, idatzi izen bat Iragazkiaren izena eremuan.
  - Helbide elektroniko jakin bateko mezuak lehentasunezko gisa markatzeko, idatzi helbide elektronikoa **Nondik** eremuan.

- Gai jakin bateko mezuak lehentasunezko gisa markatzeko, idatzi gaia Gaia eremuan.
- Zuzenean edo cc gisa bidalitako mezuak lehentasunezko gisa markatzeko, hautatu **Zuzenean bidalitakoak** edo **Cc: gisa bidalitakoak** kontrol-laukia.
- Arauari 1. mailako alertak ezartzeko, hautatu Gaitu 1. mailako alerta kontrol-laukia.
- 4. Kolpatu Gorde.

**Oharra:** 1. mailako alertek lehendik dauden jakinarazpen-ezarpenak gainidazten dituzte. 1. mailako alertak ezartzen dituzunean, 1. mailako mezu gisa jakinaraziko zaizu, dei-tonu pertsonalizatu baten bidez. BlackBerry Hub-ek 1. mailako mezuak gorriz bistaratzen ditu. 1. mailako alerten jakinarazpenen ezarpenak aldatzeko, kolpatu **1. mailako alerten jakinarazpen-ezarpenak**.

#### BlackBerry Priority Hub desaktibatu

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 🚺 > 🔯 > Priority Hub.
- 2. Hautatu Desaktibatuta Priority Hub etengailuan.

#### Zuri bidalitako eranskinak ikusi

Zure bidalitako eranskinak azkar aurki ditzakezu, mezuen artean bilatzen ari gabe.

BlackBerry Hub-en gauzatu ekintza hauetako bat:

- Eranskin gisa jasotako fitxategi guztiak ikusteko, kolpatu 👔 .
- Elkarrizketa bateko eranskin guztiak ikusteko, kolpatu elkarrizketa. Kolpatu 👔 .

Aholkua: Nahi izanez gero, kontu jakin bateko eranskinak iragazi ditzakezu. BlackBerry Hub-en, kolpatu behealdeko ezker-ertzeko 🕎 . Kolpatu kontua. Kolpatu 👔 .

#### Eranskinak ordenatu

Eranskinak dataren, bidaltzailearen, izenaren, motaren (adibidez, argazkien eta dokumentuen arabera) edo kontuaren arabera ordena ditzakezu.

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 👩.
- 2. Kolpatu : > ↓≣.
- 3. Ordenatu goitibeherako zerrendan, kolpatu ordenatzeko aukera bat.

#### Eranskinak partekatu edo gorde

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 👩.
- 2. Eduki ukituta eranskin bat.
- 3. Kolpatu 🕑 .

- 4. Deskargatzean, eduki ukituta eranskina.
  - Eranskina partekatzeko, kolpatu 🛐 .
  - Eranskina gordetzeko, kolpatu 🔂 .

Aholkua: Hainbat eranskin partekatu edo gordetzeko, kolpatu 📑 > 🏹 . Hautatu eranskin batzuk. Kolpatu 😵 edo 🔄 .

# BlackBerry Hub -eko mezu elektroniko eta mezu guztiak bidali

BlackBerry Hub-etik mezu elektronikoak, testu-mezuak, Facebook mezuak, Twitter mezu zuzenak, LinkedIn mezuak, BBM mezuak edo bestelako berriketa-mezuak bidal ditzakezu, hari gabeko zerbitzu-planaren arabera eta BlackBerry gailuan gehitu dituzun kontuen arabera.

- 1. BlackBerry Hub ikuspegian, kolpatu 📝 .
- 2. Kolpatu mezu mota.
- 3. Gehitu edo aukeratu hartzaile bat zure mezuarentzako:
  - Mezu elektroniko bat idatzeko, idatzi kontaktu baten izena edo helbide elektroniko bat **Nori** eremuan. **Nori** eremuaren azpian iradokita agertzen zaizkizun kontaktuak saka ditzakezu horiek mezu batean gehitzeko.
  - Facebook, Twitter, edo LinkedIn mezuetan, idatzi kontaktu baten izena Nori eremuan.
  - Testu-mezuentan, idatzi kontaktu baten izena edo telefono zenbaki bat.
  - BBM eta beste berriketa mezu batzuetan hautatu zerrendako kontaktu bat.
- 4. Idatzi mezua.
- 5. Kolpatu **Bidali** edo **Sartu** tekla.

#### Posta elektroniko bati erantzun edo birbidali

Posta elektroniko batean, gauzatu ekintza hauetako bat:

- Posta elektronikoari erantzuteko, kolpatu 💽 .
- Posta elektronikoaren hartzaile guztiei erantzuteko, kolpatu 🔣 .
- Posta elektronikoa birbidaltzeko, kolpatu 🛃 .

#### Mezu elektronikoetan fitxategiak edo testu-mezuak erantsi

Zure hari gabeko zerbitzu planak MMS mezuak onartzen baditu dokumentuak erants ditzakezu testu-mezuetan.

1. Posta elektronikoa edo testu-mezua idazten zaudela, kolpatu 👔 .

- 2. Fitxategia bilatu.
- 3. Kolpatu Fitxategia.

Aholkua: Argazki-eranskina duen mezu elektroniko bat jasotzen duzunean, mezuaren tamaina murriztu dezakezu. Horretarako, argazki-eranskinen tamaina murriztuta. Irudiaren tamaina pantailan, kolpatu tamaina bat. Kolpatu Bidali.

#### Mezu elektronikoetan BCC hartzaileak gehitu

- 1. Mezu bat idazten zaudela, kolpatu 🚺 > 🌉 .
- 2. Idatzi kontaktu baten izena edo helbide elektroniko bat.

#### Testu arrunteko formatuan mezu elektronikoa idatzi

Mezu elektronikoen edo mezuen harien tamaina murritz dezakezu, HTML formatutik testu arrunteko formatura aldatuta.

- 1. Posta elektronikoan, kolpatu 🔅 .
- 2. Kolpatu a.

#### Mezu elektronikoen formatua aldatu

Loditu, etzan edo azpimarratu testua; sortu ordenatutako eta buletdun zerrendak; eta aldatu letra-tipoaren tamaina eta koloreak.

- 1. Mezu bat idazten zaudela, kolpatu 🔊 . Baliteke teklatua ezkutatu behar izatea ikonoa ikusi ahal izateko.
- 2. Erabili formatu tresna-barra zure testuari formatua emateko.

#### Ortografia-iradokizunak onartu

Zuzentzaile ortografikoa aktibatuta badago, akats ortografikoak gorriz azpimarratuta agertuko dira idatzi ahala.

Kolpatu azpimarratutako hitza.

- Iradokizun ortografikoa onartzeko, kolpatu iradokitako hitza.
- Hitz berri bat hiztegi pertsonalizatura gehitzeko, kolpatu Gehitu hiztegian.

#### Testu mezu bat birbidali

- 1. BlackBerry Hub-en, eduki ukituta testu-mezua.
- 2. Kolpatu ₽.

# Mezuak kudeatzea

#### Mezuak ezabatu

BlackBerry Hub-en, gauzatu ekintza hauetako bat:

- Mezu bat ezabatzeko, eduki ukituta mezua.Kolpatu 📺 .
- Mezu bat baino gehiago ezabatzeko, eduki ukituta mezua. Kolpatu 🔽 . Kolpatu ezabatu nahi dituzun beste mezuak.
  Kolpatu 📷 .
- Irakurritako mezu guztiak data jakin bat baino lehen ezabatzeko, eduki ukituta data-barra. Data hori baino lehen bidali edo jasotako mezuak nabarmendu egingo dira. Kolpatu initiako eduki ukituta data-barra.
- Mezuak gailutik bakarrik ezabatzeko, baina mezularitza-zerbitzarian mantentzeko, kolpatu :> > Pantaila eta ekintzak. Ezabatu hemen goitibeherako zerrendan, hautatu Hub soilik.

#### Posta elektronikoa artxibatu

Mezu elektronikoa dagoen kontu motaren arabera, baliteke mezu elektroniko bat artxibatzeko edo posta elektronikoan karpetak sortzeko gai ez izatea.

#### Posta elektronikoa fitxategian gorde

- 1. BlackBerry Hub-en, eduki ukituta posta elektroniko bat.
- 2. Kolpatu 🛅 .
- 3. Kolpatu karpeta bat.

#### Posta karpetan gehitu, berrizendatu edo ezabatu

BlackBerry Hub-en, kolpatu pantailaren goialdean dagoen goitibeherako zerrenda.

- Karpeta bat gehitzeko, eduki ukituta erroko karpeta moduan erabili nahi duzun karpeta. Kolpatu 🚉 . Idatzi karpetaren izen bat. Kolpatu Ados.
- Karpeta bat ezabatzeko, eduki ukituta karpeta. Kolpatu 🔤 . Idatzi karpetaren izen berri bat. Kolpatu Ados.
- Karpeta bat ezabatzeko, eduki ukituta karpeta.Kolpatu 💼

#### Karpeta bateko posta elektroniko guztiak zure gailuan gorde

Microsoft Outlook bezalako idazmahaiko aplikazioa erabiltzen baduzu posta elektronikoak karpetetan biltegiratzeko, zure BlackBerry gailuak ez du posta elektroniko horien kopiarik deskargatuko automatikoki. Posta elektronikoak zure gailuan irakurtzeko presti izango dituzu posta elektronikoen karpeta sinkronizatuz.

- 1. Pantailaren goialdean dagoen iragarki-bandan, kolpatu BlackBerry Hub.
- 2. Eduki ukituta karpeta.
- 3. Kolpatu 🌄 .

#### Mezuak markatu

Mezuak markatzen dituzunean BlackBerry Remember aplikazioan agertzen dira, epemugak, etiketak, ahots bidezko oharrak eta beste fitxategi batzuk gehi ditzazun.

- 1. BlackBerry Hub-en, eduki ukituta mezua.
- 2. Kolpatu 🕨.

#### Mezuak irakurritako edo irakurri gabeko gisa markatu

BlackBerry Hub-en gauzatu ekintza hauetako bat:

- Mezu bat irakurrita moduan markatzeko, eduki ukituta mezua. Kolpatu 📷 .
- 🔹 Mezu bat irakurri gabe moduan markatzeko, eduki ukituta mezua. Kolpatu 🔄 .
- Mezu bat irakurri gabe moduan markatzeko data jakin bat baino lehen, eduki ukituta data-barra. Kolpatu 🕼 .
- 🔹 Mezu bat irakurrita moduan markatzeko data jakin bat baino lehen, eduki ukituta data-barra. Kolpatu 🔝 .

#### Posta elektronikoko argazkia deskargatu edo partekatu

Mezu batean, eduki ukituta kapsulatutako argazkia.

- Argazkia gordetzeko, kolpatu 🔁.
- Argazkia partekatzeko, kolpatu 😵 .
- Argazkia BBM profileko argazki, kontaktuaren argazki edo horma-paper gisa ezartzeko, kolpatu 🛐 .

#### Zirriborro mezua gorde

- 1. Mezu elektronikoa idazten ari zarela, kolpatu Utzi.
- 2. Elkarrizketa-koadroan, kolpatu Gorde.

# Zure posta elektronikoa seguratzen

Mezuak digitalki sinatu edo enkripta ditzakezu S/MIME bidez babestutako mezuak onartzen dituen laneko kontu elektronikoa baduzu edo IBM Notes posta enkriptatzen baduzu zure BlackBerry gailuan. Mezuak digitalki sinatzeak edo enkriptatzeak beste segurtasun maila bat ematen die zure gailutik bidaltzen dituzun mezu elektronikoei.

Hartzaileei zuk bidalitako mezuen egiazkotasuna eta segurtasuna egiaztatzen laguntzeko diseinatuta daude sinadura digitalak. S/MIME bidez babestutako mezuekin, gako pribatua erabiliz mezu bat digitalki sinatzen duzunean, hartzaileak gako publikoa erabiltzen du mezua zuk bidalitakoa dela eta aldaketarik jasan ez duela egiaztatzeko.

Enkriptatzea mezuen pribatutasuna babesteko diseinatuta dago. S/MIME bidez babestutako mezuekin, mezu bat enkriptatzen duzunean, gailuak hartzailearen gako publikoa erabiltzen du mezua enkriptatzeko. Hartzaileek euren gako pribatua erabiltzen dute mezua desenkriptatzeko.

Zure BlackBerry gailuak teklak eta ziurtagiriak onartzen ditu jarraian zehazten diren fitxategi formatuetan eta fitxategi izenen luzapenetan:

- PEM (.pem, .cer)
- DER (.der, .cer)
- PFX (.pfx, .p12)

#### S/MIME bidez konfiguratutako mezularitza konfiguratu

Gako pribatu bat eta ziurtagiri bat gorde behar dituzu BlackBerry gailuan, S/MIME bidez babestutako mezularitza erabiliz sinatutako edo enkriptatutako posta-mezuak bidaltzeko. Laneko mezu elektroniko batetik fitxategiak inportatuta gorde ditzakezu gakoa eta ziurtagiria.

- 1. Ireki laneko posta elektronikoa ziurtagiri-eranskinarekin.
- 2. Eduki ukituta 🧕 .
- 3. Kolpatu 👰 .
- 4. Beharrezkoa bada, idatzi pasahitza.
- 5. Kolpatu 🗸 .
- 6. Kolpatu 🔅 > 🗱 > Posta segurua.
- 7. Beharrezkoa bada, kolpatu **S/MIME** fitxa.
- 8. Hautatu I S/MIME aukeran.
- 9. Sinadura-ziurtagiria aukeraren azpiko goitibeherako zerrendan, kolpatu inportatu duzun ziurtagiria.
- 10. Enkriptatze-ziurtagiria aukeraren azpiko goitibeherako zerrendan, kolpatu inportatu duzun ziurtagiria.

#### Gailuan IBM Notes posta enkriptatzea aktibatu

Zeregin hau gauzatzeko, IBM Notes posta enkriptatzea onartzen duen laneko kontua gehituta izan behar duzu gailuan.

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 🚺 > 🔯 > Posta segurua.
- 2. Beharrezkoa bada, kolpatu NNE fitxa.
- 3. Hautatu Aktibatuta NNE aukeran.

#### Mezu bat sinatu edo enkriptatu

S/MIME mezu babestuak edo IBM Notes posta-enkriptatzea onartzen dituen laneko posta-kontua erabili behar duzu sinatutako edo enkriptatutako mezu bat bidaltzeko.

- 1. Mezu bat idazten duzunean irristatu hatza pantailan behera.
- 2. Goitibeherako zerrendan, kolpatu sinatzeko edo enkriptatzeko aukera.

Aholkua: Bidaltzen dituzun mezuen posta-segurtasun lehenetsia alda dezakezu. Adibidez, mezuak babesteko S/MIME erabiltzen baduzu, edozein posta-aplikaziok irekitzeko moduko sinadura garbiko mezuak bidal ditzakezu edo enkriptatzea onartzen duten posta-aplikazioek irekitzeko moduko sinadura opakuko mezuak bidal ditzakezu. BlackBerry Hub-en, kolpatu 🔃 > 🐼 > Posta segurua. Beharrezkoa bada, kolpatu S/MIME edo NNE. Aldatu posta-segurtasunaren ezarpenak.

Mezu segurua ikonoak

Ikonoa	Deskribapena
	Mezu elektronikoak digitalki sinatuta daude.
<b>~</b>	Mezu elektroniko hau enkriptatuta dago.
<b>9</b>	Sinadura behar bezala egiaztatu da.
<u>e</u> ?	Ez dago sinadura digitala egiaztatzeko adina informazio.
<b>0</b>	Sinadura egiaztatzeak huts egin du.
Q	Sinadura digitala erantsi da mezuan.
2	Ziurtagiri-katea fidagarria da edo ziurtagiri-egoera ona da.
	Errore bat gertatu da ziurtagiri-katearekin edo ziurtagiri-egoerarekin.
	Ziurtagiri-egoera zehazten ari da.
<b>9</b>	Ziurtagiri-katea atzera bota da.

# Aholkuak: BlackBerry Hub

#### Mezuak BlackBerry Huben edozein lekutatik ikusi

Hasierako pantailan bazaude edo aplikazio bat erabiltzen ari bazara, gailuko edozein tokitatik begiratu edo ireki ahal izango duzu BlackBerry Hub.

- 1. Pantailako beheko aldetik, irristatu zure hatza apur bat besterik ez. Zure uneko ikuspegia txikitu egiten da jakinarazpenak erakusteko.
- 2. Irristatu zure hatza eskuinera BlackBerry Hub ikusteko.
  - BlackBerry Hub guztiz irekitzeko, jarraitu zure hatza eskuinera irristatzen.
  - Egiten ari zinen atazara itzultzeko, irristatu hatza ezkerrera eta behera berriro.



# Mezua idazten edo ikusten ari zaren bitartean, mezuen eta jakinarazpenen zerrenda begiratu

Mezu batean, irristatu hatza mezuaren ezkerraldetik eskuinaldera. Jarraitu irristatzen mezuak eta jakinarazpenak bistaratzeko.



#### Mugitu hurrengo edo aurreko mezura

- 1. Mezuan, irristatu hatza poliki mezuaren ezker-ertzetik eskuinera, mezuen zerrendan sartu-irtena egiteko.
- 2. Mezua irekita duzula, irristatu hatza gora edo behera zerrendako aurreko edo hurrengo mezua nabarmentzeko.
- 3. Nabarmendutako mezua irekitzeko, askatu hatza.

#### BlackBerry Hub -eko datozen gertaerak begiratu

BlackBerry Egutegia aplikazioko agenda begiratu dezakezu, baina BlackBerry Hub-en bazaude dagoeneko, gelditu zauden tokian.

Mezuen eta jakinarazpenen zerrendaren goialdean, gaurko data agertzen den tokian, arrastatu behera poliki. Datozen gertaerak agertzen hasiko dira. Zenbat eta gehiago arrastatu, orduan eta gehiago ikusiko dituzu.



#### Posta elektronikotik bilerak sortu

Posta elektronikotik bilera edo gertaera bat sortzen duzunean, BlackBerry gailuak bileraren gonbidapena gaiaren lerroarekin betetzen du posta elektronikotik eta mezuaren hartzaileak, orduan, bilerako edo gertaerako gonbidatu bihurtzen dira.

- 1. Mezu elektroniko batean, kolpatu 🚺 > 🛐 .
- 2. Gehitu bileraren informazio osagarria.
- 3. Kolpatu Gorde.

#### Kontaktu bat gehitu BlackBerry Hub -etik

- 1. BlackBerry Hub-en, eduki ukituta mezua.
- 2. Kolpatu **D**.
  - Kontaktua dagoeneko badagoen kontaktu-sarrera bati gehitzeko (adibidez, kontaktu bati helbide elektroniko bat gehitzeko), kolpatu zerrendako kontaktu bat.
  - Kontaktua kontaktu berri gisa gehitzeko, kolpatu 👤.
- 3. Kolpatu Gorde.

#### Freskatu zure mezuen zerrenda

Push mezularitza-zerbitzuak onartzen ez dituen posta-kontua gehitu baduzu, BlackBerry Hub freska dezakezu, mezu berriak egiaztatzeko.

BlackBerry Hubn, kolpatu  $> \circ$ .



# BlackBerry Hub ezarpenak

#### Bulegotik kanpo zaudeneko erantzuna bidali

Baliteke zenbait posta-kontuk bulegotik kanpo zaudeneko erantzunik ez onartzea.

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 🚺 > 🐼 > Posta-kontuak.
- 2. Kolpatu posta elektroniko kontu bat.
- 3. Ezarri I Bulegotik kanpo erantzutea aukeran.
- 4. Idatzi mezua eremuan.

#### Sinadura gehitu posta elektroniko kontuan

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 📑 > 🐼 > Posta-kontuak.
- 2. Kolpatu posta elektroniko kontu bat.
- 3. Hautatu Aktibatuta Auto Sinadura aukeran.
- 4. Idatzi zure sinadura eremuan.

#### Helbide elektroniko eta egutegi lehenetsia aldatu

Zerbait partekatzen duzunean (argazki bat edo webgune bat adibidez) posta elektroniko bidez edo posta elektroniko berri bat idazten duzunean, zure BlackBerry gailuak posta elektroniko bat bidaliko du zure helbide elektroniko lehenetsitik. Gertaera bat egutegira gehitzean edo hitzordu baterako gonbidapena bidaltzean, zure gailuak automatikoki gehituko du gertaera hori lehenetsitako egutegira.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🏟 Ezarpenak > Kontuak.
- 3. Kolpatu 🛃 .
  - Posta elektronikoak bidaltzeko erabiltzen duzun kontu lehenetsia aldatzeko **Helbide elektronikoa** goitibeherako zerrendan, kolpatu kontu bat.
  - Gertaerak gehitzeko eta gonbidapenak bidaltzeko erabiltzen duzun egutegi lehenetsia aldatzeko, kolpatu egutegi bat **Egutegia** ataleko goitibeherako zerrenda.

#### Sarrerako ontzian mezuak bistaratzeko modua aldatu BlackBerry Hub en

Aldatu data mezuen eta jakinarazpenen zerrendaren goialdean agertuko den edo ez, bidaltzaileen izenak nola bistaratuko diren, argazkiak automatikoki deskargatuko diren eta beste hainbat gauza.

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 🔅 > 🔅 Ezarpenak > Pantaila eta ekintzak.
- 2. Aldatu ezarpenak.

#### Elkarrizketa-hariak ikusi mezu soilak beharrean

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 🔅 > 🗱 Ezarpenak > Pantaila eta ekintzak.
- 2. Bistaratzeko estiloa goitibeherako zerrendan, kolpatu Elkarrizketak.

#### Biltegiratutako edo bidalitako mezuak erakusteari utzi BlackBerry Hub en

BlackBerry Hub-en, kolpatu 🚦 > 🔯 Ezarpenak > Pantaila eta ekintzak.

- Artxibatutako mezuak erakusteari uzteko, ezarri Desaktibatuta Erakutsi artxibatutako mezuak aukeran.
- Bidalitako mezuak erakusteari uzteko ezarri **Desaktibatuta Erakutsi bidalitako mezuak** aukeran.

#### Kontuak kolore bidez kodetu

BlackBerry Hub-eko kontu mota bakoitza bereizten laguntzeko, kontu bakoitzerako kolore bat aukera dezakezu. Kolorea mezuen zerrendako ezkerraldean agertuko da.

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 🚺 > 🐼 Ezarpenak > Hub kudeaketa.
- 2. Kolpatu kontua.
- 3. Kontuaren kolorea goitibeherako zerrendan, kolpatu kolorea.

#### Kontuen ordena aldatu BlackBerry Hub -en

Kontuak fitxan alda dezakezu BlackBerry Hub-ek kontuak bistaratzeko duen ordena. Adibidez, gogoko kontuak edo gehien erabiltzen dituzun kontuak zerrendaren goiko aldera mugi ditzakezu.

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 🔅 > 🗱 > Hub kudeaketa.
- 2. Kolpatu 🚛 .
- 3. Eduki ukituta kontu bat, irristatu hatza gora edo behera kontua Kontuak fitxako kontuen zerrendan agertzea nahi duzun tokira.

4. Aldaketak gordetzeko, kolpatu 🗸 .

#### BlackBerry Hub -en agertuko diren mezuak aldatu

Kontu batzuetako mezuak ezkutatzea aukera dezakezu, BlackBerry Hub-eko Hub fitxan ez agertzeko. Ezarpen hauek ez dute inongo eraginik izango egutegiaren eta kontaktuen sinkronizazioan.

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 📄 > 🗱 Ezarpenak > Hub kudeaketa.
- 2. Kolpatu kontua.
- 3. Erakutsi hemen zerrendan, kolpatu Erakutsi Hub-en soilik, Erakutsi beste kontu batean soilik edo Erakutsi bietan.

#### Testu-mezuen aukerak aldatu

BlackBerry Hub-en, kolpatu 📑 > 🐼 Ezarpenak > Testu-mezuak.

- Bidali dituzun mezuen banatu edo irakurri izanaren jakinarazpenak jasotzeko, kolpatu SMS fitxa edo MMS fitxa. Hautatu I Berretsi banaketa edo Berretsi irakurketa etengailuan.
- Beste gailu batzuetan eranskina duen mezu bat jaso edo irakurri duzun ikustea baimentzeko, kolpatu **MMS** fitxa. Hautatu **I Baimendu banaketa-berrespena** edo **Baimendu irakurtze-berrespena** etengailuan.
- Nahi ez dituzun MMS mezuak blokeatzeko, kolpatu **MMS** fitxa. Hautatu I Ezetsi mezu anonimoak edo Ezetsi iragarkiak etengailuan.
- Ibiltaritzan MMS mezuak ez jasotzeko, kolpatu MMS fitxa. Automatikoki berreskuratzeko modua goitibeherako zerrendan, kolpatu Etxekoa soilik.
- Testu-mezuen elkarrizketak aldatzeko, kolpatu SMS fitxa. Hautatu I edo O Atzeko plano iluna etengailuan.

#### Ezarpen aurreratuak aldatu testu-mezuetarako

Testu-mezuentzako ezarpen aurreratuekin, karaktere bereziak baimendu, zure sare-bideratze gogokoa aldatu eta gehiago egin ahal izango duzu.

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu : > ✿ Ezarpenak > Testu-mezuak > .
- 2. Egin aldaketak.
- 3. Kolpatu Gorde.

#### Irrati-difusio bidezko mezuak desaktibatu

Baliteke zerbitzu-hornitzaileak irrati-difusio bidezko mezuak bidaltzea zure BlackBerry gailua kokaleku geografiko jakinetan erabiltzen duzunean (adibidez, kokaleku horretako eguraldia, esaterako). Ez dago mezu hauekin lotutako kargarik, baina desaktiba ditzakezu ez badituzu ikusi nahi.

BlackBerry Hub-en, kolpatu 🚺 > 🗱 > Irrati-difusioa.

- Irrati-difusio bidezko mezu guztiak desaktibatzeko, hautatu Desaktibatuta Gaitu Irrati-difusioa aukeran.
- Kate jakin batetako mezuak desaktibatzeko, kolpatu katearen alboko Ezabatu.

# Eguneratu Facebook, Twitter edo LinkedIn egoera BlackBerry Hub -etik eguneratu

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 📔 .
- 2. Kolpatu Facebook, Twitter edo LinkedIn.
- 3. Kolpatu 🕞 .
- 4. Idatzi zure egoera.
- 5. Kolpatu Argitaratu, Tweeteatu edo Bidali.

# Abisu-mezu publikoei buruz

Abisu publikoen sistemak gaitutako gailuak dituzten erabiltzaileei alerta mezuak bidaltzeko erabiltzen dira. Abisu-mezu publikoak beren esparruko segurtasuna kolokan jar dezaketen mehatxu posibleei buruzko alertak emateko erabiltzen dira. Mezu hauetan eguraldi latzen abisuak, galdutako haurren alertak edo larrialdi nazionalak ager daitezke.

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, abisu-mezu publikoek ez dute daturik erabiltzen hari gabeko zerbitzuplanean. Eskualdearen, zerbitzu-hornitzailearen eta hari gabeko sarearen arabera, baliteke eginbidea ez onartzea. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin edo administratzailearekin.

#### Abisu-mezu publikoetatik harpidetza kendu

Eskualdearen edo hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, baliteke abisu-mezu publikoetako mezuen harpidetza ezin kentzea.

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 🔅 > 🐼 > Larrialdi-alertak.
- 2. Ezarri Desaktibatuta abisu publikoaren alboko etengailua.

# Arazoak:BlackBerry Hub

#### Arazoak konpontzeko laguntzailea: Arazoak ditu posta elektronikoarekin

Arazoak konpontzeko laguntzaileak zure arazoa konpontzeko bideratuta dauden galderak eta eginbideak proposatuko dizkizu.

Abiarazi arazoak konpontzeko laguntzailea.

#### http://docs.blackberry.com/troubleshooting/email/en

Oharra: Arazoak konpontzeko laguntzaile hau ingelesez bakarrik dago eskuragarri.

#### Ez dut mezurik jasotzen

Probatu:

- Duela gutxi aldatu baduzu kontuaren pasahitza, ziurtatu BlackBerry gailuko Kontuak ezarpenetan ere pasahitza eguneratu duzula. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.Kolpatu Ezarpenak > Kontuak. Kolpatu kontua. Egin aldaketak. Kolpatu Gorde.
- Egiaztatu sare-konexioen ezarpenak gailua Wi-Fi batera edo sare mugikor batera konektatuta dagoela ziurtatzeko. Hari gabeko sareen estalduratik kanpo bazaude, hari gabeko sareen estaldura eremura itzulitakoan jasoko dituzu mezuak.
- Sare mugikor batera konektatuta bazaude, egiaztatu datu zerbitzuak aktibatuta daudela. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera. Kolpatu 🔅 Ezarpenak > Sare-konexioak > Sare mugikorra. Egiaztatu I hautatu dela Datu-zerbitzuak etengailuan.

#### Azken 30 egunetako posta elektronikoak soilik ikus ditzaket

Zenbait kontu elektroniko motatarako, zure BlackBerry gailuak hasieran sinkronizatutako denbora-tartea 30 egunekoa da. Ezarpena aldatzeko, hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera. Kolpatu 🔯 Ezarpenak > Kontuak. Kolpatu kontu elektronikoa. Sinkr. tartea goitibeherako zerrendan, kolpatu aukera bat. Kolpatu Gorde.

#### Ezin dut nire laneko posta elektronikoa aurkitu hemen: BlackBerry Hub

BlackBerry gailuan laneko kontu bat gehitu baduzu, baliteke administratzaileak BlackBerry Hub laneko ikuspegia eta ikuspegi pertsonala bereizten dituen politika bat aktibatu izana. Lehen ikuspegiak laneko kontuko mezuak eta jakinarazpenak soilik izango ditu eta bigarrenak, berriz, kontu pertsonaletako mezuak eta jakinarazpenak soilik izango ditu.

Laneko ikuspegia ikusteko, BlackBerry Hub atalean, kolpatu 🕎 > Aldatu lanera.

#### Ezin ditu mezuaren hartzaileak ikusi

Mezuko gainerako hartzaileak eta mezua jaso duzun kontua ikusteko, kolpatu mezuaren goi-eskuin ertzean dagoen gezia.

#### Ezin dut testu-mezurik bidali edo birbidali

Baliteke testu-mezu bat ezin bidaltzea mezuak babestutako copyrighta duen informazioa badu.

BlackBerry Enterprise Server-k onartzen duen laneko kontu bat erabiltzen baduzu, baliteke zure administratzaileak testumezurik bidaltzen ez uztea, baina baliteke oraindik testu-mezuak jasotzeko gai izatea.
### Ezin ditut eranskinak testu-mezuetan gehitu

Baliteke fitxategia oso handia izatea edo zure hari gabeko zerbitzu planak testu-mezuetan fitxategiak eransteko beharrezkoa den MMS mezularitza ez onartzea. Jarri harremanetan zure zerbitzu hornitzailearekin gehiago jakiteko.

# BlackBerry 10gailuetarako joyn

### joyn -i buruz

Baduzu BlackBerry 10 gailua erabiltzen ez duen lagunik edo kontakturik? Hala bada, joyn erabiliz jardun dezakezu berrietan, dei diezaiekezu, argazkiak bidal diezazkiekezu edo parte ditzakezu bideoak kontaktu horiekin. Hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak joyn onartzen badu, Kontaktuak aplikazioan edo Telefonoa aplikazioan, ikonoa agertuko da joyn erabiltzen duten kontaktuen alboan. Horrela, erraz aurkituko dituzu beste erabiltzailea batzuk.

Hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, baliteke BlackBerry 10 gailurako joyn erabilgarri ez egotea zure gailuan.

Aplikazioa erabiltzeagatik aplika daitezkeen tarifei eta baldintzei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

### joyn berriketa hasi

- 1. Kontaktuak aplikazioan edo kontaktuen xehetasunen ikuspegian, kolpatu kontaktuaren izenaren alboko 🥚 .
- 2. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Idatzi mezua.
  - Kolpatu aurpegiera bat.
- 3. Kolpatu **Bidali**.

Aholkua: Bestela, BlackBerry Hub atalean ere bilatu, hasi eta erantzun ditzakezu joyn berriketak.

### Beste joyn kontaktu batzuk berriketara gonbidatu

Taldean eztabaidatu beharreko zerbait al duzu? Pertsona batekin baino gehiagorekin berriketan jardun dezakezu, azkarrago erabaki eta denak jakinaren gainean mantentzeko.

- 1. Kolpatu joyn berriketaren behealdeko 📑 > Sortu taldea.
- 2. Kolpatu + bete kontaktu bat gehitzeko. Errepikatu urrats hori, gehitu nahi duzun kontaktu bakoitzarekin.
- 3. Behar izanez gero, idatzi berriketaren gaia.

- 4. Idatzi mezua.
- 5. Kolpatu **Bidali**.

#### joyn berriketa ezabatu

Berriketa-pantailan, kolpatu 🔅 > 📺 .

### joyn kontaktu bati deitu

- 1. Telefonoa aplikazioan, kolpatu 👤 .
- 2. Kolpatu deitu nahi duzun kontaktuaren alboan dagoen 🥚 .
- 3. joyn kontaktu baten telefono-zenbaki bat baino gehiago badituzu, kolpatu deitu nahi duzun zenbakia.

Aholkua: Deia abian dela, kolpatu 🥚 berriketan hasi edo bideoa partekatzeko edo fitxategia partekatzeko.

### joyn bideoa partekatzen hasi

Bideo partekatu edo bideo bidez berriketan hasi baino lehen, joyn kontaktu bati deitu behar diozu. Kontaktu horrek bideoa onartzen duen gailua izan behar du.

Deia abian dela, kolpatu Telefonoa aplikazioko 🥚 .

Aholkua: Bideoa partekatzen ari zarela, kolpatu 🧼 berriketan hasi edo fitxategia partekatzeko.

### joyn kontaktuari fitxategia bidali

Fitxategi mota desberdinak bidal diezazkiekezu joyn kontaktuei (argazkiak, bideoak eta dokumentuak, esaterako).

- 1. Aurrez aurreko joyn berriketa edo telefono-deian, kolpatu 👔 eta hautatu argazki edo fitxategi bat.
- 2. Kolpatu Bidali.

### joyn kontaktu bat blokeatu

joyn kontaktu bat blokeatzen baduzu, ez duzu kontaktu haren mezurik jasoko eta fitxategi-transferentziak automatikoki baztertuko dira. Mezuak Blokeatutako mezuak karpetara iragazkiko dira joyn aplikazioan eta irakurketa-jakinarazpenak desaktibatu egingo dira.

1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 🔅 > 🗱 .

- 2. Kolpatu joyn.
- 3. Kolpatu Blokeatutako erabiltzaileak.
- 4. Idatzi blokeatu nahi duzun joyn kontaktuaren telefono-zenbakia edo izena.

Kontaktu bat desblokeatzeko, kolpatu kontaktuaren izenaren alboko **Desblokeatu** aukera.

### Ibiltaritzan joyn aktibatu

Hitz egin hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin aplika daitezkeen tarifei edo kostuei buruzko informazio eskuratzeko.

Bidaiatzen ari bazara, joyn erabiltzen jarrai dezakezu ibiltaritzan.

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 🔅 > 🗱 .
- 2. Kolpatu joyn.
- 3. Hautatu I Gaitu joyn ibiltaritzan etengailuan.

# Pasahitzak eta segurtasuna

# Segurtasuna

### Pasahitzak eta blokeatzea

BlackBerry gailua babesten lagunduko dizuten blokeo, PIN eta pasahitz ugari daude.

Zure gailua lanerako erabiltzen baduzu, baliteke zure erakundeak segurtasun ezarpenak zehaztuta edukitzea dagoeneko, hala nola, eskatzen den pasahitza gailua desblokeatzeko.

#### BlackBerry ID

BlackBerry ID BlackBerry webguneetara, aplikazioetara eta zerbitzuetara modu egokian sartzen uzten dizun helbide elektronikoa eta pasahitza da. BlackBerry gailua aldatzen baduzu, BlackBerry ID batek lagunduko dizu zure datuak gailu berrira transferitzen. Ziurtatu BlackBerry ID bera erabiltzen duzula BlackBerry gailu guztietan.

Hasi saioa zure BlackBerry IDarekin jarraian zehazten dena eta askoz ere gehiago egiteko:

- Jarraitu erositako aplikazioen eta ordainketa aukeren egoera BlackBerry World erakusleihotik.
- Atera ahalik eta etekin handiena BBM eginbideei, adibidez babeskopiak egitea eta BBM kontaktuak BlackBerry gailura eramatea.
- Hasi eta gelditu BlackBerry Protect.

#### Pasahitza Blokeatzen eta Pantaila Blokeatzen

Zure gailua blokeatuta dagoen bitartean ere jakinarazpenak eta posta elektronikoak jaso, larrialdien telefono deiak egin, bateriaren karga ikusi, alarma ezarri eta argazkiak atera ditzakezu.

Bateriak denbora gehiago irauteko eta teklak nahi jabe sakatzea saihesteko, blokeatu pantaila. Gailua baimenik gabe erabil ez dezaten saihesten laguntzeko, gailuaren pasahitza ezarri behar duzu.

Pantaila eta segurtasun ezarpenetan, zure gailua automatikoki blokeatzeko aukera duzu, denbora jakin batez aktibitaterik izan ez badu. Pertsonalizatutako mezu bat ere idatz dezakezu blokeatutako pantailan ager dadin.

Pasahitza ahazten baduzu, ezin da berreskuratu. BlackBerry-ek tarteka datuen babeskopia egitea gomendatzen dizu. Segurtasunagatik, zure gailuko datuak ezabatuko dira modu lehenetsian pasahitz okerra hamar alditan idazten denean.

#### BlackBerry Balance eta lan-guneko pasahitza

Zure gailua zure enpresako sarearekin konektatzen baduzu, zure administratzaileak BlackBerry Balance teknologia aktibatuko du. BlackBerry Balance zure gailuko guneak banatzeko eta babesteko diseinatuta dago, hala nola, lana bakarrik edo pertsonala bakarrik.

Administratzaileak lan-guneko pasahitza idaztea eska diezazuke zure erakundearekin lotutako fitxategiak, aplikazioak eta datuak babesteko, hala nola, zure laneko helbide elektronikoaren kontua. Pasahitz berdina erabil dezakezu zure langunerako eta gailurako.

Zure lan-guneko pasahitza gaizki idazten baduzu baimenduta dagoena baino gehiagotan, zure lan-gunea eta bertako edukiak ezabatuko dira. Pasahitza idazteko saiakera kopurua murriztu edo handitu dezakezu zure Balance ezarpenetan.

**Oharra:** Baliteke administratzaileak lan-eremuko zenbait pasahitz blokeatzeko aukera aldatzen ez uztea, hala nola pasahitzaren baldintzak edo denbora-mugaren iraupena.

#### Sarea blokeatu eta kodea desblokeatu

Beste zerbitzu-hornitzaile baten mikro SIM txartela erabiltzeko, adibidez, bidaiatzen ari bazara eta hango zerbitzuhornitzailearen sarea erabili nahi baduzu, desblokeatzeko kodeak (MEP kodeak) eska diezazkiokezu uneko zerbitzuhornitzaileari. Ondoren, aldatu mikro SIM txarteleko Telefonoaren sarea blokeatzea ezarpena.

Desblokeatzeko kodea idazteko onartutako saiakeren kopurua gainditzen baduzu, mikro SIM txartelak larrialdi-deiak egiten soilik utziko dizu. Laguntza jasotzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

### Mikro SIM txartelaren PINak

Telefonoko mikro SIM txartelari bi PIN ezar diezazkiokezu. Mikro SIM txarteleko PIN kodea erabil dezakezu mikro SIM txartela beste gailu batean baimenik gabe erabiltzea saihesten laguntzeko. Adibidez, mikro SIM txartela galtzen baduzu eta norbait beste gailu batean erabiltzen saiatzen bada, mikro SIM txartela ezingo da erabili PIN zuzena sartzen ez bada. Mikro SIM txartelaren PIN kodea idazteko gehienezko saiakera kopurua gainditu baduzu, mikro SIM txartelak funtzionatzeari utziko dio. Mikro SIM txartela desblokeatzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin PUK kodea lortzeko.

Mikro SIM txartelaren PIN2 kodea telefonoaren zenbait eginbide gaitzeko diseinatuta dago, adibidez, markatze finkoa.

Mikro SIM txartelaren PIN kodea lortzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin eta aktibatu mikro SIM txartelaren segurtasuna segurtasun-ezarpenetan.

### Gailua blokeatu edo desblokeatu

Aholkua: Piztu-itzali/Blokeatu tekla azkar kolpatuz gero, gailua lo moduan ezarriko da. Bateria gutxiago gastatzen lagunduko dizu.

#### Pantaila blokeatu

Pantaila blokeatzean, BlackBerry gailuak nahi gabe edo sakelean nahi gabe markatzea saihestuko du. Gailua blokeatzeak ez du eragotziko deiak edo mezuak jasotzean alertak entzutea.

Eduki sakatuta gailuaren goialdeko **Piztu-itzali/Blokeatu** tekla.



Pantaila desblokeatzeko, ukitu pantaila behetik gora.

#### Blokeatu zure gailua pasahitzarekin

Zure BlackBerry gailuaren data babesteko eta zure gailua baimenik gabe erabiltzea saihesteko modu erraz baten bila? Pasahitz bat ezar dezakezu zure gailua blokeatzeko ikuspegi irekian dagoenean edo erabilgarri ez dagoenean.

- Ez baduzu pasahitzik oraindik, hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera. Kolpatu 
   Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > Gailuaren pasahitza. Ezarri I Gailuaren pasahitza aukeran. Idatzi pasahitza.
- 2. Zure ordenagailua blokeatzeko, egin ekintza hauetako bat:
  - Eduki sakatuta gailuaren goialdeko Piztu-itzali/Blokeatu tekla. Kolpatu 🔒 .
  - Zure gailua automatikoki blokeatzeko denbora jakin bat igarotzen denean, hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik. Kolpatu Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > Gailuaren pasahitza > Blokeatu gailua pantaila blokeatu ondoren.

Zure gailua desblokeatzeko, sakatu **Piztu-itzali/Blokeatu** tekla gailuaren goialdean. Pantailaren beheko aldetik irristatu hatza gora. Eskatzen zaizunean, idatzi zure gailuaren pasahitza.

### Argazki bidezko pasahitza sortu

Argazki bidezko pasahitza aktibatzeko, gailuari pasahitza ezarri behar diozu lehenik. Gailuaren pasahitza ere behar baita argazki bidezko pasahitza ahazten bazaizu edo pasahitza idatzi behar baduzu ordenagailu batetik BlackBerry gailuan sartzeko.

Gailuak BlackBerry Balance teknologia erabiltzen badu, **Balance** ezarpenetan, ziurtatu **Erabili nire gailua pasahitz gisa** aukera desaktibatu duzula.

Gailua desblokeatzeko pasahitza idatzi beharrean, argazki eta zenbaki bidezko ezkutuko keinua erabili eta gailua esku batekin desblokea dezakezu. Aukeratu argazkia, zenbakia eta konfiguratu konbinazioa. Konbinazio kopurua amaiezina da!

- 1. Irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > Gailuaren pasahitza.
- 3. Ezarri **I Argazki bidezko pasahitza** etengailuan.
- 4. Idatzi gailuaren pasahitza.
- 5. Jarraitu pantailako argibideei.

**Aholkua:** Argazki bidezko pasahitza sortu edo gailua desblokeatzen duzunean, hatza pantailako edozein puntutara arrasta dezakezu, zenbakia eramaten denaren tokiaren ikuspegi garbia delako.

#### Lan-eremua blokeatu

Zure BlackBerry gailuak BlackBerry Balance teknologia erabiltzen badu zure laneko jarduerak eta jarduera pertsonalak banatzeko, zure lan-eremua blokea dezakezu zure gailutik fitxategi, aplikazio eta datu pertsonaletara sartzeko.

- 1. Lan-eremurako pasahitzik ez baduzu, bat sortzeko, irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera Kolpatu **Balance** > **Ezarri pasahitza**. Idatzi pasahitza.
- 2. Hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
  - Lan-eremua berehala blokeatzeko, kolpatu 📋 .
  - Zure lan-eremua automatikoki ixteko denbora jakin bat igaro eta gero, kolpatu **Balance** > **Blokeatu lan-eremua** gero.

Gogoratu zure lan-eremuko pasahitza ezin baita berrezarri edo berreskuratu. Baimendutako pasahitz-saiakera kopurua gainditzean zure lan-eremura sartzean, zure lan-eremua eta bertan dauden edukiak ezabatuko dira.

#### Zure gailua sarea desblokeatzeko kode batekin desblokeatu

Zure BlackBerry gailuarentzako sarea desblokeatzeko kodeak lortzeko, jarri harremanetna zerbitzu-hornitzailearekin.

Baliteke zure gailuaren sarea blokeatuta egotea. Ondorioz, uneko zerbitzu-hornitzailearen bidez bakarrik onartzen da gailuaren sare mugikorrerako konexioa. Adibidez, SIM txartela beste zerbitzu-hornitzaile batekin erabili nahi baduzu, baliteke desblokeatzeko kodea idatzi behar izatea.

Aholkua: Zure gailuarekin lotuta dagoen uneko zerbitzu-hornitzailea ikusteko, hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik beherantz. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Honi buruz > SIM txartela.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > SIM txartela.
- 3. Telefono-sarearen blokeoa atalean kolpatu blokeatutako elementu bat.
- 4. Eskatzen zaizunean, idatzi desblokeatzeko kodea.

**KONTUZ:** Segurtasun-arrazoiak direla-eta, desblokeatzeko kode bakoitza 10 aldiz bakarrik idatzi ahal izango da gaizki. Desblokeatzeko kodea idazteko onartutako saiakeren kopurua gainditzen baduzu, mikro SIM txartelak larrialdi-deiak egiten soilik utziko dizu. Laguntza jasotzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

#### Gailuko pasahitza aldatu edo kendu

#### KONTUZ:

Ez baduzu pasahitza gogoratzen, pasahitza aldatzeko edo BlackBerry gailuan sartzeko baimena berreskuratzeko modu bakarra datu guztiak ezabatzea da segurtasunezko ezabatzea gauzatuta.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > Gailuaren pasahitza > Aldatu pasahitza.

Pasahitz erabiltzeari uzteko, hautatu O Gailuaren pasahitza etengailuan.

#### Aldatu zure lan-guneko pasahitza

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu Balance > Aldatu pasahitza.
- 3. Zure lan-eremua eta BlackBerry gailua pasahitz bera erabiliz desblokeatzeko, hautatu **I Erabili nire gailuaren** pasahitz gisa etengailuan.

Gogoratu zure lan-eremuko pasahitza ezin baita berrezarri edo berreskuratu. Lan-eremuan sartzeko baimendutako pasahitz-saiakera kopurua gainditzean, lan-eremua eta bertan dauden edukiak ezabatuko dira.

#### Mikro SIM txartela PIN kodearekin babestu

Mikro SIM txarteleko PIN kodea erabil dezakezu mikro SIM txartela beste gailu batean baimenik gabe erabiltzea saihesteko. Adibidez, mikro SIM txartela galtzen baduzu eta norbait beste gailu batean erabiltzen saiatzen bada, mikro SIM txartela ezingo da erabili PIN zuzena sartzen ez bada.

Zerbitzu-hornitzaileari eska diezaiokezu mikro SIM txartelaren PINa.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > SIM txartela.
- 3. Hautatu I Mikro SIM txartelak PINa blokeatzea etengailuan.
- 4. Idatzi zerbitzu-hornitzaileak emandako SIM txartelaren PIN kodea.

**KONTUZ:** Mikro SIM txartelaren PIN kodea idazteko gehienezko saiakera kopurua gainditu baduzu, mikro SIM txartelak funtzionatzeari utziko dio. Mikro SIM txartela desblokeatzeko, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

#### Aldatu mikro SIM txartelaren PIN kodea

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > SIM txartela.
  - Mikro SIM txartela babesten duen PIN kodea aldatzeko, kolpatu Aldatu PIN 1.
  - Markatze finkoa bezalako eginbideetara sarbidea kontrolatzen duen PIN kodea aldatzeko, sakatu Aldatu PIN 2.

### Galdutako gailua aurkitzea eta babestea

BlackBerry Protect ailua bilatzeko eta gailuko datuak babesten laguntzeko diseinatuta dauden eginbideak ditu BlackBerry Protect-(e)k, gailua galtzen baduzu edo lapurtzen badizute. Gehienez, zazpi gailu kudea ditzakezu BlackBerry Protect kontutik.

Zure gailuan BlackBerry Protect aktibatu ondoren, bisitatu http://protect.blackberry.com webgunea eta hasi saioa zureBlackBerry ID-(a)rekin. BlackBerry Protect webgunean, gailuaren uneko kokapena ikus dezakezu mapan, gailua joarazi (Isilik moduan egon arren) edo blokeatutako gailuan mezu pertsonalizatu bat bistaratu, zurekin harremanetan jartzeko argibideak eskainiz. Gailua lapurtuz gero, urrunetik blokeatu, pasahitza aldatu edo bertako datu guztiak ezaba ditzakezu.

Laneko helbide elektronikoa gehitzen badiozu zure mugikorrari, baliteke zure administratzaileak zure gailuaren pasahitza urrunetik aldatzeko edo gailua bilatzeko BlackBerry Protect gaitasuna desgaitzea.

#### BlackBerry Protect gailuan konfiguratu

BlackBerry Protect erabiltzeko, BlackBerry gailuak hari gabeko sarera konektatuta egon behar du.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🙀 Ezarpenak > BlackBerry Protect.
- 3. Hautatu I BlackBerry Protect etengailuan.
- 4. Gailuaren uneko kokapena mapa batean ikusi ahal izateko, kolpatu **Kokapen-ezarpenak**. Hautatu **I Kokapen**zerbitzuak etengailuan.

Aholkua: BlackBerry Protect ezaugarriak erabiltzeko, zoaz http://protect.blackberry.com webgunera eta hasi saioa BlackBerry IDarekin.

#### Tutoriala: BlackBerry 10 gailuan BlackBerry Protect konfiguratu

Tutorial honekin, BlackBerry 10 gailu batean BlackBerry Protect nola konfiguratzen den ikusi eta praktika dezakezu.

Oharra: Tutoriala ingelesez bakarrik dago erabilgarri.

Hasi tutoriala

http://docs.blackberry.com/tutorials/blackberryprotect/en

### Aplikazioentzako segurtasun-baimenak zehazten

Aplikazio batek zure BlackBerry gailuan erabil dezakeen informazioa eta eginbideak kontrolatzeko diseinatuta dauden baimenak ditu BlackBerry 10 OS-(e)k. Adibidez, aplikazio batek zure posta elektronikora, kontaktuetara, argazkietara eta gailuaren kokalekura sarbidea izango duen edo ez kontrolatu ahal izango duzu. Gogoratu zenbait aplikaziok baimen zehatzak behar dituztela funtzionatzeko. Zure gailua babesten ere lagun dezakezu aplikazioak BlackBerry World erakusleihoa bezalako toki fidagarrietatik deskargatuz soilik.

Aplikazio bat lehenengoz irekitzen duzunean, aplikazioak behar dituen fitxategien eta ezaugarrien zerrenda agerraraz ditzake zure gailuan. Zerbait ez baduzu atsegin, aplikazioaren eskaera uka dezakezu elementua atzitzeko. Adibidez, zure mezuetara sarbidea eskatzen duen joko bat deskarga dezakezu. Honek zentzua izango luke jokoak, zure jokoaren puntuazioa partekatzeko ezaugarriren bat izango balu. Hala ere, ez bazara eroso sentitzen, jokoak zure posta elektroniko mezuak ikus ditzakeelako, mezuetara sarbidea desaktibatu edo aplikazioa ezabatu dezakezu. Aplikazio gehienen baimenak ikus edo alda ditzakezu zure gailuko ezarpenetan.

Zenbait aplikaziotan, aplikazioa instalatzean eskatutako baimenak onartu edo ezeztatu beharko dituzu. Ezeztatzen badituzu, berriz ere agertuko zaizu eskaera hori aplikazioa irekitzean. Aplikazioaren baimenak ezingo dituzu beranduago aldatu aplikazioa ezabatzen edo berrinstalatzen ezean.

### Aplikazioaren baimenak aldatu edo ikusi

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > Aplikazioaren baimenak.
  - Aplikazio jakin baten baimenak ikusteko, sakatu aplikazioan.
  - Baimen jakin bat zein aplikaziok erabiltzen duten ikusteko, kolpatu **Baimen guztiak**. Kolpatu nahi duzun baimena.
- 3. Baimenak aktibatu edo desaktibatzeko, kolpatu etengailua.

Aholkua: Aplikazioak ez badu espero bezala funtzionatzen, probatu aplikazioak eskatutako baimen guztien ezarpena Aktibatuta jarrita.

### Zure posta elektronikoa seguratzen

Mezuak digitalki sinatu edo enkripta ditzakezu S/MIME bidez babestutako mezuak onartzen dituen laneko kontu elektronikoa baduzu edo IBM Notes posta enkriptatzen baduzu zure BlackBerry gailuan. Mezuak digitalki sinatzeak edo enkriptatzeak beste segurtasun maila bat ematen die zure gailutik bidaltzen dituzun mezu elektronikoei.

Hartzaileei zuk bidalitako mezuen egiazkotasuna eta segurtasuna egiaztatzen laguntzeko diseinatuta daude sinadura digitalak. S/MIME bidez babestutako mezuekin, gako pribatua erabiliz mezu bat digitalki sinatzen duzunean, hartzaileak gako publikoa erabiltzen du mezua zuk bidalitakoa dela eta aldaketarik jasan ez duela egiaztatzeko.

Enkriptatzea mezuen pribatutasuna babesteko diseinatuta dago. S/MIME bidez babestutako mezuekin, mezu bat enkriptatzen duzunean, gailuak hartzailearen gako publikoa erabiltzen du mezua enkriptatzeko. Hartzaileek euren gako pribatua erabiltzen dute mezua desenkriptatzeko.

Zure BlackBerry gailuak teklak eta ziurtagiriak onartzen ditu jarraian zehazten diren fitxategi formatuetan eta fitxategi izenen luzapenetan:

- PEM (.pem, .cer)
- DER (.der, .cer)
- PFX (.pfx, .p12)

#### S/MIME bidez konfiguratutako mezularitza konfiguratu

Gako pribatu bat eta ziurtagiri bat gorde behar dituzu BlackBerry gailuan, S/MIME bidez babestutako mezularitza erabiliz sinatutako edo enkriptatutako posta-mezuak bidaltzeko. Laneko mezu elektroniko batetik fitxategiak inportatuta gorde ditzakezu gakoa eta ziurtagiria.

- 1. Ireki laneko posta elektronikoa ziurtagiri-eranskinarekin.
- 2. Eduki ukituta 👰 .
- 3. Kolpatu 🧕.
- 4. Beharrezkoa bada, idatzi pasahitza.
- 5. Kolpatu 🗸 .
- 6. Kolpatu 🔅 > 🗱 > Posta segurua.
- 7. Beharrezkoa bada, kolpatu **S/MIME** fitxa.
- 8. Hautatu I S/MIME aukeran.
- 9. Sinadura-ziurtagiria aukeraren azpiko goitibeherako zerrendan, kolpatu inportatu duzun ziurtagiria.
- 10. Enkriptatze-ziurtagiria aukeraren azpiko goitibeherako zerrendan, kolpatu inportatu duzun ziurtagiria.

#### Gailuan IBM Notes posta enkriptatzea aktibatu

Zeregin hau gauzatzeko, IBM Notes posta enkriptatzea onartzen duen laneko kontua gehituta izan behar duzu gailuan.

- 1. BlackBerry Hub-en, kolpatu 🚺 > 🔯 > Posta segurua.
- 2. Beharrezkoa bada, kolpatu **NNE** fitxa.
- 3. Hautatu **Aktibatuta NNE** aukeran.

#### Mezu bat sinatu edo enkriptatu

S/MIME mezu babestuak edo IBM Notes posta-enkriptatzea onartzen dituen laneko posta-kontua erabili behar duzu sinatutako edo enkriptatutako mezu bat bidaltzeko.

- 1. Mezu bat idazten duzunean irristatu hatza pantailan behera.
- 2. Goitibeherako zerrendan, kolpatu sinatzeko edo enkriptatzeko aukera.

Aholkua: Bidaltzen dituzun mezuen posta-segurtasun lehenetsia alda dezakezu. Adibidez, mezuak babesteko S/MIME erabiltzen baduzu, edozein posta-aplikaziok irekitzeko moduko sinadura garbiko mezuak bidal ditzakezu edo enkriptatzea onartzen duten posta-aplikazioek irekitzeko moduko sinadura opakuko mezuak bidal ditzakezu. BlackBerry Hub-en, kolpatu 📰 > 🀼 > Posta segurua. Beharrezkoa bada, kolpatu S/MIME edo NNE. Aldatu posta-segurtasunaren ezarpenak.

#### Mezu segurua ikonoak

Ikonoa	Deskribapena
	Mezu elektronikoak digitalki sinatuta daude.
<b>~</b>	Mezu elektroniko hau enkriptatuta dago.
<u>e</u>	Sinadura behar bezala egiaztatu da.
<u>.</u> ?	Ez dago sinadura digitala egiaztatzeko adina informazio.
<u>ှ</u>	Sinadura egiaztatzeak huts egin du.
<b>Q</b>	Sinadura digitala erantsi da mezuan.
2	Ziurtagiri-katea fidagarria da edo ziurtagiri-egoera ona da.
	Errore bat gertatu da ziurtagiri-katearekin edo ziurtagiri-egoerarekin.
	Ziurtagiri-egoera zehazten ari da.
	Ziurtagiri-katea atzera bota da.

### Garbitu gailua zure datuak ezabatzeko

Pentsatu zure BlackBerry gailua garbitu aurretik, datuak ordenagailu batera pasatu ditzakezu. Segurtasun-ezabatzea diseinatuta dago zure datuak behin betiko ezabatu eta berreskuratzeko aukerarik ez edukitzeko. Posta elektroniko kontuak, deskargatutako aplikazioak, multimedia fitxategiak, dokumentuak, arakatzailearen laster-markak eta ezarpenak barne.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🗱 Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > Segurtasun-ezabatzea.
- 3. Idatzi blackberry.
- 4. Sakatu **Ezabatu datuak**.

Segurtasun-ezabatzea aukera osatzen denean, zure gailua automatikoki itzaliko da. Zure gailua pizteko, sakatu **Piztu/Blokeatu**tekla gailuaren goialdean.

Aholkua: Gailua beste norbaiti utzi edo birziklatzeko asmoa baduzu, gogoratu mikro SIM txartela eta multimedia-txartela kentzea.

#### Ezabatu zure lan-gunea

Gailua erakundearen sarearekin lotuta egoteari utzi nahi badiozu, lan-eremua soilik ken dezakezu. Eremu pertsonaleko aplikazioak eta fitxategiak bere horretan geratuko dira.

**KONTUZ:** Lan-eremua ezabatuz gero, bertan gordetako eduki eta fitxategi guztiak behin betiko ezabatuko dira, hala nola fitxategiak, mezuak, argazkiak eta bideoak. Zure laneko kontua berriro gailuan gehitzeko, administratzailearekin jarri beharko duzu harremanetan.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu **Balance** > **Ezabatu**.

### BlackBerry Balance-(e)ri buruz

BlackBerry Balance teknologiak enpresa-segurtasunari buruzko kezkak bidaltzen laguntzen du zure BlackBerry gailuaren erabilera pertsonala mugatu gabe. Zure administratzaileak BlackBerry Balance pizten badu, gailuaren data, aplikazioak eta sareko sarbidea banandu egingo dira lan-gunea eta gune pertsonala izan ditzazun. Gune bananduak edukitzeak istripuz, laneko datuak aplikazio pertsonalean kopiatzea edo BBM Video berriketa batean laneko isilpeko datuak bistaratzea saihesten lagunduko dizu.

Zure gailuak gune pertsonala izango du lehenetsita. Argazkiak ateratzeko, bideoak deskargatzeko, linean jokoetan jolasteko, fitxategiak memoria-txartel batean gorde eta sare sozialetan argitaratzeko erabil dezakezu.

Zure lan-gunean, laneko posta elektronikoa, kontaktuak, egutegia ikusi, laneko dokumentuak sortu eta enpresako intraneteko guneak arakatu ahal izango dituzu. Lan-guneak deskarga ditzakezun eta lanean erabil ditzakezun aplikazioak dituen BlackBerry World-(e)ren bertsio banandua du. Zure lan-gunea pasahitzarekin babestuta badago, lan-gunea desblokeatu beharko duzu zure laneko datuen xehetasunak bistaratzeko.

Datu pertsonaletan eta laneko datuetan sartzeko aukera izango duzu zenbait tokitatik, adibidez, Bilatu eremutik.

### Eremu pertsonalaren eta lan-eremuaren artean aldatu

BlackBerry Balance teknologia aktibatuta dagoenean, aldatu BlackBerry gailuan eremu pertsonaletik lan-eremura.

Aholkua: Lan-eremua eta eremu pertsonala bereizteko, horma-paper desberdin bat jar diezaiokezu eremu pertsonalari.

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Eremu batetik bestera aldatzeko, irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera. Ezarpen bizkorretan, kolpatu Aldatu pertsonalera edo Aldatu lanekora.
- Argazkiak, Adobe Reader, Documents To Go, edo Fitxategi-kudeatzailea aplikazioaren barnean, eremu batetik bestera aldatzeko, kolpatu = . Kolpatu Pertsonala edo Lana.

### Guraso-kontrolak erabiltzen

Guraso-kontrolak BlackBerry gailua nola erabili eta kontaktatu jakiteko kontrol gehiago emateko diseinatuta daude. Zenbait aplikazio, ezaugarri eta edukitara sarbidea desaktiba dezakezu. Telefonora egiten diren deiak eta pertsonentzako mezularitza mugatu ditzakezu Kontaktuak aplikazioan.

Guraso-kontrolak ezarpenak pasahitzarekin babestuta daude eta zaila da hauek aktibatzea zuk jakin gabe. Zure gailua Guraso-kontrolen pasahitza eskatzeko ezar dezakezu posta elektronikoa edo sare sozialen kontu bat gehitu baino lehenago edo aplikazio bat BlackBerry World erakusleihoan erosi aurretik.

Oharra: BlackBerry Balance teknologia aktibatuta badago, Guraso-kontrolak ezaugarria ez dago erabilgarri.

#### Sarbide mugatua ezaugarrietara eta edukietara

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > Guraso-kontrolak.
- 3. Ziurtatu I hautatu dela Guraso-kontrolak etengailuan.
- 4. Idatzi Guraso-kontrolen pasahitza.
- 5. Sakatu aukerak aldatzeko.

### Enkriptatzea aktibatu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🔯 Ezarpenak > Segurtasuna eta Pribatutasuna: > Enkriptatzea.
- 3. Egin hauetako bat:
  - Ezarri Gailuaren enkriptatzea I aukeran.
  - Ezarri SD txartela enkriptatzea I aukeran.

**KONTUZ:** Saiatu zure memoria-txartelean dituzun multimedia datuak desenkriptatzen edo hauen babes-kopia egiten segurtasun-ezabatzea gauzatu aurretik, zure BlackBerry gailuko datuak ezabatzeko diseinatuta baitago, baita enkriptatze-gakoa ere. Ezingo dituzu zure memoria-txarteleko multimedia datu enkriptatuetara sartu enkriptatze-gako hau ez baduzu.

### Ziurtagiri bat ordenagailutik inportatu

- 1. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Ziurtagiria USB konexioa erabiliz inportatzeko, konektatu zure BlackBerry gailua ordenagailura USB kable bat erabiliz. Beharrezkoa bada, idatzi gailuaren pasahitza zure ordenagailuan.

- Ziurtagiria Wi-Fi konexio bat erabiliz inportatzeko, sakatu **Biltegiratzea eta sarbidea**. Ezarri **Sartu Wi-Fi erabiliz I** aukeran Idatzi biltegiratzera sartzeko pasahitza. Sakatu **Sareko identifikazioa** eta gogoratu **Erabiltzaile izena**.
- 2. Zure gailuko Hasierako pantailan, arrastatu hatza pantailaren goialdetik beherantz.
- 3. Sakatu 🏟 Ezarpenak > Honi buruz.
- 4. Goitibeherako zerrendan, sakatu **Sareak**.
- 5. Wi-Fi edo USB atalean, gogoratu IPv4 helbidea.
- 6. Ordenagailuan, nabigatu eta kopiatu ziurtagiria duen fitxategia.
  - Ordenagailuak Windows sistema eragilea erabiltzen badu, Abiarazi komandoan, idatzi IP helbidea formatu honetan: \\xx.xxx.xxx.
  - Zure ordenagailuak Mac sistema eragilea erabiltzen badu, hautatu Joan > Konektatu zerbitzarira. Idatzi IP helbidea formatu honetan: smb://xx.xxx.xxx.
- 7. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Ordenagailuak Windows sistema eragilea erabiltzen badu, ireki **multimedia\deskargak** karpeta. Beharrezkoa bada, idatzi erabiltzaile-izena eta biltegira sartzeko pasahitza.
  - Ordenagailuak Mac sistema eragilea erabiltzen badu, ireki **multimedia/deskargak** karpeta. Beharrezkoa bada, idatzi erabiltzaile-izena eta biltegira sartzeko pasahitza.
- 8. Itsatsi ziurtagiria multimedia\deskargak edo multimedia/deskargak karpetan.
- 9. Zure gailuan, sakatu 🔀 > Segurtasuna eta pribatutasuna > Ziurtagiriak > Inportatu.
- 10. Jarraitu pantailako argibideak.

### VPN profilak kudeatu

VPN profilak saioa hasteko behar duzun informazioa dauka zure enpresaren sarea VPN edo Wi-Fi konexioan erabiliz. Zure enpresaren arabera, VPN profil bat baino gehiago izan ditzakezu zure BlackBerry gailuan.

VPN profilei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri zure administratzailearekin harremanetan.

#### Gehitu VPN profil bat

Wi-Fi edo VPN konexioa behar duzu VPN profil berria gehitu aurretik.

Baliteke VPN profil bat edo gehiago edukitzea zure BlackBerry gailuan, zure administratzaileak zuretzat ezarritako aukeren arabera.

BlackBerry Enterprise Service 10-ek onartzen duen laneko kontua erabiltzen baduzu, baliteke zenbait VPN profil automatikoki gehitze eta VPN profilak eskuz gehitu behar ez izatea. Ez baduzu VPN profil bat gehitzeko aukerarik ikusten, zure administratzaileak konexio mota hori desaktibatu duela esan nahi du.

- 1. Hasierako pantailan, ukitu pantailatik beherantz.
- 2. Sakatu 🇱 Ezarpenak >Sare-konexioak > VPN > Gehitu.
- 3. Bete eremuak. Ez baduzu eskatzen den informazioa, jarri zure administratzailearekin kontaktuan.

#### 4. Sakatu Gorde.

### Txartel-adimenduei buruz

Txartel adimenduna eta BlackBerry gailuko pasahitza erabil dezakezu gailua desblokeatzeko. Txartel adimendunen ziurtagiriak erabil ditzakezu S/MIME bidez babestutako mezuak bidaltzeko.

Txartel adimendunetan ziurtagiriak eta gako pribatuak gordetzen dira. Ziurtagiriak inporta ditzakezu txartel adimendu batetatik zure gailura BlackBerry Smart Card Reader edo mikroSD txartel adimendua erabiliz. Gako pribatuen eragiketak egiteko, hala nola, sinatzeko eta desenkriptatzeko, txartel adimenduna erabiltzen da. Gako publikoen eragiketak egiteko, esaterako, egiaztatzeko eta enkriptatzeko, telefonoko ziurtagiri publikoak erabiltzen dira.

### Zure gailuarekin txartel adimenduna erabiltzen.

#### Erabili bi bideko autentifikazioa

Txartel adimendua eta zure BlackBerry gailuko pasahitza erabil dezakezu gailua desblokeatzeko.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu **Ezarpenak Segurtasuna eta pribatutasuna Gailuaren pasahitza Autentifikatzailearen** ezarpenak.
- 3. Ezarri **Txartela adimendunaren erabiltzaile-autentifikatzailea I** aukeran.
  - Zure gailuak pasahitza eremuan idatzi duzun pasahitzen formatua gogoratzeko (zenbakizkoa edo alfazenbakizkoa), ezarri **Pasahitz adimendunaren sarrera l** aukeran.
  - Zure gailua txartel adimendua gailutik edo BlackBerry Smart Card Reader-tik kentzean blokeatzeko ezarri **Blokeatu txartela kentzerakoan I** aukeran.
  - Zure gailua, gailua desblokeatzeko edo zure lan-gunea erabiltzeko konfiguratzeko, **Erabili autentifikatzailea** honetarako goitibeherako zerrendan, sakatu **Gailua** edo Lana.

#### Txartel adimendunetik ziurtagiriak inportatu

Ziurtagiriak inporta ditzakezu BlackBerry gailuan txertatutako microSD txartel adimendu batetatik edo zure gailuarekin parekatuta dagoen BlackBerry Smart Card Reader batetatik, Bluetooth-a teknologia erabiliz.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Segurtasuna eta Pribatutasuna > Txartel adimenduna > Inportatu ziurtagiriak.
- 3. Jarraitu pantailako argibideak.

#### Txartel adimenduaren pasahitza gailuan gorde

BlackBerry gailuak aldi baterako txartel adimendunaren pasahitza biltegira dezan konfigura dezakezu. Horrela, ez duzu hainbestetan idazteko beharko. Cachea garbitzeko, blokeatu zure gailua.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Segurtasuna eta Pribatutasuna > Txartel adimenduna.
- 3. Hautatu I PINa cachetzea etengailuan.

#### Txartel adimenduneko LED jakinarazpenak desaktibatu

LED argi gorriak dirdira egingo du BlackBerry gailua txartel adimenduneko datuetan sartzean. Adierazle hau desaktiba dezakezu.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Segurtasuna eta Pribatutasuna > Txartel adimenduna.
- 3. Hautatu O LED jardueraren adierazlea etengailuan.

### Ohiko galderak: Segurtasuna

#### Nola berrezar dezaket nire gailuaren pasahitza, ahaztu egiten badut?

Zure BlackBerry gailuaren pasahitza ezin da berreskuratu edo aldatu ez baduzu zure uneko pasahitza zuzen idazten. Segurtasun arrazoiengatik, uneko pasahitza jakin gabe pasahitza berrezartzeko modu bakarra gailuko datu guztiak ezabatzea da. Gailuaren pasahitz okerra askotan idatziz egin dezakezu hau.

Aldizka babeskopiak egitea eta ordenagailuan gordetzea gomendatzen dizu BlackBerry-k

#### Zer eduki dago lan-eremuan eta zer eremu pertsonalean?

Zure administratzaileak BlackBerry Balance teknologia aktibatzen badu, gailuaren datuak, aplikazioak eta sareko sarbidea banandu egingo dira lan-eremua eta eremu pertsonala izan ditzazun.

Ireki hasierako pantailan 📋 ikonoa daramaten laneko aplikazioak.

Administratzaileak ezarritako arauen arabera, eginbide batzuk lan-eremuan, eremu pertsonalean edo bi eremuetan egon daitezke erabilgarri. Taula honetan aplikazio gehienen portaera lehenetsia deskribatzen da.

Deskribapena	Aplikazioak
Aplikazio hauek lan-eremuan soilik daude erabilgarri eta	BlackBerry Work Drives
laneko datuak dituzte.	BlackBerry World lanerako.
Aplikazio hauek eremu pertsonalean soilik daude erabilgarri eta datu pertsonalak dituzte. Administratzaileak ezarritako datuen arabera, baliteke Telefonoa, BBM eta testu-mezularitzako laneko kontaktuetarako sarbidea izatea.	<ul> <li>BBM</li> <li>BlackBerry Protect</li> <li>BlackBerry Story Maker</li> <li>BlackBerry World</li> <li>Kalkulagailua</li> <li>Kamera</li> <li>Erlojua</li> <li>Iparrorratza</li> <li>Facebook</li> <li>Multimedia txartelaren</li> <li>Telefonoa</li> <li>Mikro SIM txartela</li> <li>Etiketa adimendunak</li> <li>Testu-mezularitza</li> <li>Twitter</li> </ul>
	<ul> <li>Bideokamera</li> <li>Ahots bidezko markatzea</li> <li>Eguraldia</li> <li>YouTube</li> </ul>
Aplikazio hauek lan-eremuan eta eremu pertsonalean daude erabilgarri. Laneko datuak eta datu pertsonalak batera bistaratzen dira.	<ul> <li>BlackBerry Bridge</li> <li>BlackBerry Hub</li> <li>BlackBerry Remember</li> <li>Bluetooth-a</li> <li>Egutegia</li> <li>Kontaktuak</li> <li>NFC</li> <li>Bilatu</li> </ul>
Aplikazio hauek lan-eremuan eta eremu pertsonalean daude erabilgarri. Aplikazioa irekitzen duen eremuaren arabera, laneko datuetara edo datu pertsonaletara sartuko zara. Aplikazio hauek bi aldiz ireki ditzakezu aldi berean.	<ul> <li>BlackBerry Maps</li> <li>Box</li> <li>Arakatzailea</li> <li>Documents To Go</li> </ul>

# Deskribapena Aplikazioak Fitxategi-kudeatzailea Musika

- Pasahitz-biltzailea
- Argazkiak
- Bideoak
- Ahots-kontrola (ikonoa gune pertsonalean bakarrik agertzen da)

#### Erabil al ditzaket aplikazio pertsonalak nire laneko sarean?

Zure administratzaileak BlackBerry Balance teknologia pizten badu, zuk edo zure administratzaileak bakarrik izango du laneko aplikazioek zure enpresakoWi-Fi edo VPN sarera sartzeko baimena emateko eskubidea.

Zure aplikazio pertsonalek erabil ditzaketen sareak konfiguratzeko edo ikusteko, Hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik beherantz. Sakatu **Balance**. Ikusi **Aplikazio-konexio pertsonalak** atala.

Aplikazio pertsonalek ez badute zure enpresako sareak erabiltzeko baimenduta eta sare pertsonala eskuragarri ez badago, baliteke Internetera konexioa behar duten aplikazioek ez funtzionatzea.

#### Non dago atera berri dudan argazkia?

Zure BlackBerry gailuak BlackBerry Balance teknologia erabiltzen badu, mezu elektronikoetatik gordetako eranskinak zure lan-gunetik bakarrik izango dituzu eskuragarri. Gailuko kamera erabiliz ateratako argazki guztiak, Kamera aplikazioa lan-gunetik edo gune pertsonaletik irekita, zure gune pertsonalean biltegiratuko dira. Multimedia txartelaren fitxategi guztiak ere zure gune pertsonalean biltegiratuko dira.

Adibidez, BBM aplikazio pertsonala denez, profileko irudia sortzeko, zure kamerarekin ateratako argazki bat erabil dezakezu, baina ezingo duzu zure laneko kontura bidalitako mezu elektroniko batetatik deskargatutako irudia erabili.

#### Zer gertatuko da nire gailuko datuekin enpresa uzten badut?

Zure administratzaileak BlackBerry gailuko datu guztiak ezaba ditzake, baita datu pertsonalak ere. Datu hauek zure gailuaren segurtasuna bermatzen laguntzen dute gailua galtzen baduzu edo lapurtzen badizute.

Zure administratzaileak BlackBerry Balance teknologia pizten badu, administratzaileak laneko datuak ezaba ditzake gailutik, eta zure datu pertsonalak eta aplikazioetako datuak ukitu gabe utziko ditu. Baliteke gailuko zenbait datu pertsonal, ordea, ezabatzea laneko datuekin bat badatoz (adibidez, zure enpresan lan egiten duen kontaktu pertsonalak).

Nahiago baduzu zure datu pertsonalak dauden bezala uztea eta gailutik laneko datuak bakarrik ezabatzea, jarri zure administratzailearekin harremanetan.

## Lan-eremua eta BlackBerry Balance

### BlackBerry Balance-(e)ri buruz

BlackBerry Balance teknologiak enpresa-segurtasunari buruzko kezkak bidaltzen laguntzen du zure BlackBerry gailuaren erabilera pertsonala mugatu gabe. Zure administratzaileak BlackBerry Balance pizten badu, gailuaren data, aplikazioak eta sareko sarbidea banandu egingo dira lan-gunea eta gune pertsonala izan ditzazun. Gune bananduak edukitzeak istripuz, laneko datuak aplikazio pertsonalean kopiatzea edo BBM Video berriketa batean laneko isilpeko datuak bistaratzea saihesten lagunduko dizu.

Zure gailuak gune pertsonala izango du lehenetsita. Argazkiak ateratzeko, bideoak deskargatzeko, linean jokoetan jolasteko, fitxategiak memoria-txartel batean gorde eta sare sozialetan argitaratzeko erabil dezakezu.

Zure lan-gunean, laneko posta elektronikoa, kontaktuak, egutegia ikusi, laneko dokumentuak sortu eta enpresako intraneteko guneak arakatu ahal izango dituzu. Lan-guneak deskarga ditzakezun eta lanean erabil ditzakezun aplikazioak dituen BlackBerry World-(e)ren bertsio banandua du. Zure lan-gunea pasahitzarekin babestuta badago, lan-gunea desblokeatu beharko duzu zure laneko datuen xehetasunak bistaratzeko.

Datu pertsonaletan eta laneko datuetan sartzeko aukera izango duzu zenbait tokitatik, adibidez, Bilatu eremutik.

### Eremu pertsonalaren eta lan-eremuaren artean aldatu

BlackBerry Balance teknologia aktibatuta dagoenean, aldatu BlackBerry gailuan eremu pertsonaletik lan-eremura.

Aholkua: Lan-eremua eta eremu pertsonala bereizteko, horma-paper desberdin bat jar diezaiokezu eremu pertsonalari.

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Eremu batetik bestera aldatzeko, irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera. Ezarpen bizkorretan, kolpatu Aldatu pertsonalera edo Aldatu lanekora.
- Argazkiak, Adobe Reader, Documents To Go, edo Fitxategi-kudeatzailea aplikazioaren barnean, eremu batetik bestera aldatzeko, kolpatu = . Kolpatu Pertsonala edo Lana.

### Lan-eremua blokeatu

Zure BlackBerry gailuak BlackBerry Balance teknologia erabiltzen badu zure laneko jarduerak eta jarduera pertsonalak banatzeko, zure lan-eremua blokea dezakezu zure gailutik fitxategi, aplikazio eta datu pertsonaletara sartzeko.

- 1. Lan-eremurako pasahitzik ez baduzu, bat sortzeko, irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera Kolpatu Balance > Ezarri pasahitza. Idatzi pasahitza.
- 2. Hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
  - Lan-eremua berehala blokeatzeko, kolpatu 📋 .

• Zure lan-eremua automatikoki ixteko denbora jakin bat igaro eta gero, kolpatu **Balance** > **Blokeatu lan-eremua** gero.

Gogoratu zure lan-eremuko pasahitza ezin baita berrezarri edo berreskuratu. Baimendutako pasahitz-saiakera kopurua gainditzean zure lan-eremura sartzean, zure lan-eremua eta bertan dauden edukiak ezabatuko dira.

### Aldatu zure lan-guneko pasahitza

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu Balance > Aldatu pasahitza.
- 3. Zure lan-eremua eta BlackBerry gailua pasahitz bera erabiliz desblokeatzeko, hautatu **I Erabili nire gailuaren** pasahitz gisa etengailuan.

Gogoratu zure lan-eremuko pasahitza ezin baita berrezarri edo berreskuratu. Lan-eremuan sartzeko baimendutako pasahitz-saiakera kopurua gainditzean, lan-eremua eta bertan dauden edukiak ezabatuko dira.

### Ezabatu zure lan-gunea

Gailua erakundearen sarearekin lotuta egoteari utzi nahi badiozu, lan-eremua soilik ken dezakezu. Eremu pertsonaleko aplikazioak eta fitxategiak bere horretan geratuko dira.

**KONTUZ:** Lan-eremua ezabatuz gero, bertan gordetako eduki eta fitxategi guztiak behin betiko ezabatuko dira, hala nola fitxategiak, mezuak, argazkiak eta bideoak. Zure laneko kontua berriro gailuan gehitzeko, administratzailearekin jarri beharko duzu harremanetan.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu **Balance** > **Ezabatu**.

### Ohiko galderak: Ian-eremua eta BlackBerry Balance

#### Nire gailuak BlackBerry Balance badu?

BlackBerry Balance BlackBerry Enterprise Server batekin lotutako BlackBerry gailuetan soilik dago erabilgarri.

Gailuak BlackBerry Balance erabiltzen duela berresteko, gauzatu ekintza hauetako bat:

- Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera. Kolpatu Ezarpenak > Honi buruz. Kategoria goitibeherako zerrendan, irristatu eta bilatu Lan-eremua. Ez baduzu ikusten edo Lan-eremua soilik ikusten baduzu, gailua ez da BlackBerry Balance erabiltzeko konfiguratu.
- Hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera. Sakatu Ezarpenak > Balance.

### Nola konfiguratzen da BlackBerry Balance?

BlackBerry Balance administratzaileak konfiguratu behar du eta laneko kontua BlackBerry Enterprise Server batekin lotuta izan behar duzu horretarako. BlackBerry Balance konfiguratu ostean, laneko kontua automatikoki gehituko da BlackBerry gailuan eta aktibatzen amaitzeko eskatuko zaizu.

#### Zer eduki dago lan-eremuan eta zer eremu pertsonalean?

Zure administratzaileak BlackBerry Balance teknologia aktibatzen badu, gailuaren datuak, aplikazioak eta sareko sarbidea banandu egingo dira lan-eremua eta eremu pertsonala izan ditzazun.

Ireki hasierako pantailan 📋 ikonoa daramaten laneko aplikazioak.

Administratzaileak ezarritako arauen arabera, eginbide batzuk lan-eremuan, eremu pertsonalean edo bi eremuetan egon daitezke erabilgarri. Taula honetan aplikazio gehienen portaera lehenetsia deskribatzen da.

Deskribapena	Aplikazioak
Aplikazio hauek lan-eremuan soilik daude erabilgarri eta laneko datuak dituzte.	<ul><li>BlackBerry Work Drives</li><li>BlackBerry World lanerako.</li></ul>
Aplikazio hauek eremu pertsonalean soilik daude erabilgarri eta datu pertsonalak dituzte. Administratzaileak ezarritako datuen arabera, baliteke Telefonoa, BBM eta testu-mezularitzako laneko kontaktuetarako sarbidea izatea.	<ul> <li>BBM</li> <li>BlackBerry Protect</li> <li>BlackBerry Story Maker</li> <li>BlackBerry World</li> <li>Kalkulagailua</li> <li>Kamera</li> <li>Erlojua</li> <li>Iparrorratza</li> <li>Facebook</li> <li>Multimedia txartelaren</li> <li>Telefonoa</li> <li>Mikro SIM txartela</li> <li>Etiketa adimendunak</li> <li>Testu-mezularitza</li> <li>Twitter</li> <li>Bideokamera</li> <li>Ahots bidezko markatzea</li> <li>Eguraldia</li> <li>YouTube</li> </ul>

Deskribapena	Aplikazioak
Aplikazio hauek lan-eremuan eta eremu pertsonalean daude erabilgarri. Laneko datuak eta datu pertsonalak batera bistaratzen dira.	<ul> <li>BlackBerry Bridge</li> <li>BlackBerry Hub</li> <li>BlackBerry Remember</li> <li>Bluetooth-a</li> <li>Egutegia</li> <li>Kontaktuak</li> <li>NFC</li> <li>Bilatu</li> </ul>
Aplikazio hauek lan-eremuan eta eremu pertsonalean daude erabilgarri. Aplikazioa irekitzen duen eremuaren arabera, laneko datuetara edo datu pertsonaletara sartuko zara. Aplikazio hauek bi aldiz ireki ditzakezu aldi berean.	<ul> <li>BlackBerry Maps</li> <li>Box</li> <li>Arakatzailea</li> <li>Documents To Go</li> <li>Fitxategi-kudeatzailea</li> <li>Musika</li> <li>Pasahitz-biltzailea</li> <li>Argazkiak</li> <li>Bideoak</li> <li>Ahots-kontrola (ikonoa gune pertsonalean bakarrik</li> </ul>

 Ahots-kontrola (ikonoa gune pertsonalean bakarrik agertzen da)

#### Erabil al ditzaket aplikazio pertsonalak nire laneko sarean?

Zure administratzaileak BlackBerry Balance teknologia pizten badu, zuk edo zure administratzaileak bakarrik izango du laneko aplikazioek zure enpresakoWi-Fi edo VPN sarera sartzeko baimena emateko eskubidea.

Zure aplikazio pertsonalek erabil ditzaketen sareak konfiguratzeko edo ikusteko, Hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik beherantz. Sakatu **Balance**. Ikusi **Aplikazio-konexio pertsonalak** atala.

Aplikazio pertsonalek ez badute zure enpresako sareak erabiltzeko baimenduta eta sare pertsonala eskuragarri ez badago, baliteke Internetera konexioa behar duten aplikazioek ez funtzionatzea.

#### Non dago atera berri dudan argazkia?

Zure BlackBerry gailuak BlackBerry Balance teknologia erabiltzen badu, mezu elektronikoetatik gordetako eranskinak zure lan-gunetik bakarrik izango dituzu eskuragarri. Gailuko kamera erabiliz ateratako argazki guztiak, Kamera aplikazioa lan-gunetik edo gune pertsonaletik irekita, zure gune pertsonalean biltegiratuko dira. Multimedia txartelaren fitxategi guztiak ere zure gune pertsonalean biltegiratuko dira.

Adibidez, BBM aplikazio pertsonala denez, profileko irudia sortzeko, zure kamerarekin ateratako argazki bat erabil dezakezu, baina ezingo duzu zure laneko kontura bidalitako mezu elektroniko batetatik deskargatutako irudia erabili.

#### Zer gertatuko da nire gailuko datuekin enpresa uzten badut?

Zure administratzaileak BlackBerry gailuko datu guztiak ezaba ditzake, baita datu pertsonalak ere. Datu hauek zure gailuaren segurtasuna bermatzen laguntzen dute gailua galtzen baduzu edo lapurtzen badizute.

Zure administratzaileak BlackBerry Balance teknologia pizten badu, administratzaileak laneko datuak ezaba ditzake gailutik, eta zure datu pertsonalak eta aplikazioetako datuak ukitu gabe utziko ditu. Baliteke gailuko zenbait datu pertsonal, ordea, ezabatzea laneko datuekin bat badatoz (adibidez, zure enpresan lan egiten duen kontaktu pertsonalak).

Nahiago baduzu zure datu pertsonalak dauden bezala uztea eta gailutik laneko datuak bakarrik ezabatzea, jarri zure administratzailearekin harremanetan.

### Arazoak: Ian-eremua eta BlackBerry Balance

#### Nire gailua berrogeialdian dago

Baliteke BlackBerry gailua berrogeialdian egotea, BlackBerry Enterprise Server batekin lotuta dagoen laneko kontu batekin lan egiten baduzu eta mikro SIM txartelak zerbitzuak behar bezala aktibatu gabe baditu.

Gailua berrogeialdian badago, baliteke administratzaileak gailuko datuak ezabatzea, gailua desblokeatzeko sarrera ukatzea edo gailua erakundearen saretik kentzea.

Berrogeialdia uzteko, saiatu beste mikro SIM txartel bat erabiltzen edo zerbitzu-plana aldatzen. Laguntza gehiago jasotzeko, jarri harremanetan administratzailearekin.

# BlackBerry IDa

### BlackBerry ID-(e)ri buruz

BlackBerry ID-(r)i esker, hainbat BlackBerry produktu eta zerbitzutara sar zaitezke. BlackBerry ID sortutakoan, zure helbide elektronikoa eta pasahitza erabil ditzakezu BlackBerry ID onartzen duen edozein BlackBerry produktutan saioa hasteko. BlackBerry ID-arekin, BlackBerry World erakusleihotik deskargatutako aplikazioak kudeatu eta telefonoz aldatzen duzunean aplikazio horiek deskarga ditzakezu. BlackBerry ID berarekin sinatu beharko zenuke BlackBerry gailu guztietan.

Aldez aurretik BlackBerry ID sortuta baduzu, gailu berria konfiguratzerakoan erabili behar duzu (BlackBerry ID berri bat sortu beharrean). BlackBerry ID erabiliz has dezakezu saioa tabletean eta telefonoan.

### Konfiguratu BlackBerry ID berria

Aholkua: Garrantzitsua da gogora dezakezun pasahitz bat aukeratzea. Zure BlackBerry ID erabiltzailearen izenarentzako, egiaztatu maiz erabiltzen duzun helbide elektroniko bat erabiltzen duzula ziurtatu. Berreskuratzeko xehetasunak BlackBerry ID erabiltzaile-izen gisa erabiltzen du helbide elektronikora bidal daiteke, zure BlackBerry IDpasahitza ahazten baduzu. BlackBerry ID erabiltzaile-izen gisa erabiltzen duzun helbide elektronikora bidal daiteke, zure BlackBerry gailuarekin lotuta egon behar.

- 1. BlackBerry ID berria sortzeko, zure BlackBerry gailua konfiguratzean, BlackBerry IDa pantailan, sakatu Sortu berria.
- 2. Jarraitu pantailako argibideei.

### Aldatu zureBlackBerry ID pasahitza

- 1. Hasierako pantailan, ukitu pantailatik beherantz.
- 2. Sakatu 🗱 Ezarpenak > BlackBerry ID.
- 3. Sakatu **Pasahitza aldatu**.

### Aldatu zure BlackBerry ID informazioa

Zure erabiltzaile izena, pantailako izena, izena edo abizena alda ditzakezu.

- 1. Hasierako pantailan, ukitu pantailatik beherantz.
- 2. Sakatu 🌣 Ezarpenak > BlackBerry IDa.
- 3. Sakatu 📝 .

### Tutoriala: BlackBerry 10 gailuan BlackBerry ID sortu

Tutorial honekin, BlackBerry 10 gailu batean BlackBerry ID bat nola sortzen den ikusi eta praktika dezakezu.

Oharra: Tutoriala ingelesez bakarrik dago erabilgarri.

Hasi tutoriala

http://docs.blackberry.com/tutorials/blackberryID/en

# Tutoriala: BlackBerry ID-(e)kinBlackBerry 10 gailuan saioa hasi

Tutorial honekin, BlackBerry 10 gailu batean BlackBerry ID saioa nola hasten den ikusi eta praktika dezakezu.

Oharra: Tutoriala ingelesez bakarrik dago erabilgarri.

#### Hasi tutoriala

http://docs.blackberry.com/tutorials/bbid\_signin/en

### Zure BlackBerry ID erabiltzen gailuz aldatzeko

#### BlackBerry ID gailu berrian erabili

BlackBerry gailua aldatzen duzunean, konfiguratzerakoan, zure BlackBerry ID erabiltzailearen izena eta pasahitza sartzeko eskatuko zaizu. Garrantzitsua da aurreko gailuan BlackBerry ID berdina erabiltzea, zure aplikazio eta ezarpen ugari zure BlackBerry ID -(a)rekin lotuta egon daitezkeelako.

Adibidez,BlackBerry ID gailu berrian erabiltzean, gailu zaharrean deskargatu zenituen aplikazioak instala ditzakezu berriro BlackBerry World erakusleihotik aplikazio horren bertsio zaharragoa badago gailu berrian.

#### Aurkitu BlackBerry ID, gailu zaharrean

Aurretik BlackBerry ID sortu baduzu eta BlackBerry gailu berria baduzu, garrantzitsua da zure BlackBerry ID-(e)rekin saioa hastea zure aplikazio eta konfigurazio ugari horrekin lotuta baitaude.

- 1. Zure gailu zaharreko Hasierako pantailan, sakatu Aukerak.
- 2. Zure gailuaren arabera, gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Sakatu Hirugarrenen aplikazioak > BlackBerry IDa.
  - Sakatu Gailua > BlackBerry IDa.
  - Sakatu BlackBerry IDa.

### FAQ: BlackBerry ID

# Nola berrezar dezaket galdutako edo ahaztutako BlackBerry ID pasahitza?

BlackBerry ID erabiltzaile-izen gisa erabiltzen duzun helbide elektronikora bidal diezazkizukegu BlackBerry ID pasahitza berrezartzeko argibideak. Segurtasun arrazoiak direla eta ezin da zure BlackBerry ID pasahitza berrezarri.

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Pasahitza ordenagailuan berrezartzeko, sar zaitez www.blackberry.com/blackberryid helbidean. Sakatu **Berrezarri** pasahitza. Jarraitu pantailako argibideei.
- BlackBerry ID-rekin sinatzea eskatzen zaizunean zure BlackBerry gailuan pasahitza berrezartzeko sakatu **Pasahitza ahaztu duzu?**. Erantzun segurtasun-galderari eta jarraitu pantailako argibideei.

Goiko pausoak jarraitu ondoren pasahitza berrezartzeko posta elektronikoa jasoko duzu. Ordenagailu batean pasahitza berrezartzeko pausoak jarraitzen badituzu, pasahitza berrezartzeko posta elektronikoa ordenagailuan soilik ikus daiteke eta ez da zure gailura bidaliko. Gailuan pasahitza berrezartzeko pausoak jarraitzen badituzu, pasahitza berrezartzeko pausoak jarraitzen badituzu, pasahitza berrezartzeko posta elektronikoa zure gailura bidaliko da. Jarraitu posta elektronikoan zehazten diren pausoak zure BlackBerry ID pasahitza berrezartzeko.

# Zein da BlackBerry ID erabiltzaile-aren zenaren eta pantaila-izenaren arteko desberdintasuna?

Zure BlackBerry ID erabiltzailearen izena zure BlackBerry ID gailua erabiltzean saioa hasteko erabiltzen duzun helbide elektronikoa da. BlackBerry ID pantaila-izena BlackBerry World erakusleihoan aplikazioen iruzkinak bidaltzen dituzunean agertzen den izena da.

#### Zergatik berridatzi behar dut nire BlackBerry ID pasahitza saioa hasteko?

Denbora tarte bat pasatakoan, BlackBerry ID onartzen duen aplikazioa edo zerbitzua ez bazara aktiboki erabiltzen ari, baliteke saioa hasteko pasahitza berriro idaztea eskatzea. Adibidez, baliteke zure BlackBerry ID pasahitza berriro idazteko eskatzea, aplikazioak BlackBerry World erakusleihotik deskargatu aurretik.

Halaber, baliteke zure BlackBerry ID berriro sartzeko eskatzea, BlackBerry ID informazioa aldatzen baduzu, zure BlackBerry gailuko datu guztiak ezabatzen badituzu edo softwarea eguneratzen baduzu.

# BlackBerry ID saioa amaitu eta berriro has dezaket beste BlackBerry ID batekin?

BlackBerry ID bakarrarekin has dezakezu saioa zure BlackBerry gailuan. Saioa amaitu eta BlackBerry ID desberdina erabiliz saioa hasi nahi baduzu, zure gailuko datu guztiak ezabatu behar dituzu.

### Arazoak konpontzeko laguntzailea: Laguntza behar dut BlackBerry ID-(e)arekin

Arazoak konpontzeko laguntzaileak zure BlackBerry ID arazoa konpontzeko bideratuta dauden galderak eta eginbideak proposatuko dizkizu.

Abiarazi arazoak konpontzeko laguntzailea.

http://docs.blackberry.com/troubleshooting/blackberryID/en

Oharra: Arazoak konpontzeko laguntzaile hau ingelesez bakarrik dago eskuragarri.

# Pasahitz-biltzailea

### Pasahitz-biltzaileari buruz

Pasahitz-biltzailea aplikazioa erabil dezakezu pasahitz guztiak zure BlackBerry gailuko leku bakarrean gordetzeko. Asmatzeko zaila den pasahitz bat sortu nahi baduzu zenbakiak, letrak eta sinboloak dituzten ausazko pasahitzak sortzeko ere erabili dezakezu Pasahitz-biltzailea.

Pasahitz-biltzailea zure pasahitzak enkriptatzeko eta babesteko diseinatuta dago. Zure pasahitza idazten duzunean Pasahitz-biltzailean, Pasahitz-biltzaileak zure pasahitzek desenkriptatuko ditu ikusteko gai izan zaitezen.

### Pasahitza pasahitz-biltzailera transferitu

BlackBerry gailu zaharrean gordetako pasahitzen datuak BlackBerry 10 gailura transferi ditzakezu. Pasahitzak transferitzeko, pasahitz-datuen babeskopia eginda izan behar duzu babeskopia-fitxategian, gailua aldatzeko prozesuan edo uneko pasahitzen babeskopia sortuta izan behar duzu BlackBerry 10 gailuan. Pasahitz-datuak multimedia-txartelean gorde badituzu, gailuak automatikoki detektatuko ditu datuak multimedia-txartelean. Babeskopiaren datuak ez badituzu multimedia-txartelean gorde, BlackBerry Link edo BlackBerry Protect erabil dezakezu babeskopia egindako pasahitzen datuak transferitzeko.

1. Zure BlackBerry 10 gailuan deskargatu Pasahitz-biltzailea aplikazioa BlackBerry World erakusleihotik.

- 2. Hasierako pantailan, sakatu **Pasahitz-biltzailea**.
- 3. Idatzi pasahitz-biltzailearen pasahitz.
- 4. Irristatu hatza pantailaren goialdetik.
- 5. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Inportatu pasahitzak.
- 6. Idatzi aurreko pasahitz-biltzailearen edo BlackBerry Wallet-en pasahitza, pasahitzak gailu zaharretik Pasahitzbiltzailea aplikaziora transferitzeko.

**Oharra:** BlackBerry Wallet aplikazioaren eta Pasahitz-biltzailea aplikazioaren artean bateragarriak diren kredentzialak soilik inportatuko dira. Kreditu-txartelaren kredentzialak ez dira inportatuko.

Pasahitz-biltzailea datuak inportatu ostean, babeskopia-fitxategitik kenduko dira; baina bestelako datu pertsonalak babeskopia-fitxategian mantenduko dira.

### Kudeatu pasahitzak Pasahitz-biltzailean

Pasahitz-biltzailean pasahitzarekin lotuta grabatutako informazioa gehitu, aldatu edo ezabatu dezakezu.

Zure grabaketak kudeatzeko burutu ekintza hauetariko bat:

- Grabaketa bat gehitzeko, sakatu 🕂 . Idatzi eskatzen zaizun informazioa eta sakatu Gorde.
- Grabaketa bat editatzeko, hautatu grabaketa eta sakatu 📝 . Editatu informazioa eta sakatu Gorde.
- Grabaketa bat ezabatzeko, eduki ukituta grabaketa eta kolpatu 📺 .

Aholkua: Ezabatzeko grabaketa ugari hauta ditzakezu, 🏹 kolpatuta.

### Pasahitz-biltzailearen pasahitza aldatu

- 1. Pasahitz-biltzailea aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik beherantz.
- 2. Kolpatu 🗱 > Aldatu pasahitz-biltegiaren pasahitza.
- 3. Idatzi zure uneko pasahitza Pasahitz-biltzailearentzako.
- 4. Sakatu Hurrengoa.
- 5. Idatzi pasahitz berri bat
- 6. Berresteko, idatzi pasahitz berria berriro.
- 7. Sakatu Gorde.

### Erabili Pasahitz-biltzailea pasahitza edo erabiltzailearen izena

Pasahitza edo erabiltzailearen izena kopiatu eta itsats dezakezu webgune batetan saioa hasteko duzun informazioan.

- 1. Pasahitz-biltzailean hautatu kopiatzeko pasahitza eta erabiltzailearen izena.
- 2. Sakatu **Kopiatu pasahitza** edo **Kopiatu erabiltzaile-izena**. "Erabiltzaile-izena/Pasahitza ondo kopiatu da arbelean." mezua agertuko da.
- 3. Pasahitza edo erabiltzailearen izena itsasteko, burutu ekintza hauetako bat webgune egokian:
  - Sakatu testu-eremua> 🚺 > Itsatsi.
  - Eduki ukituta testu-eremua. Sakatu Itsatsi.

#### Saihestu pasahitza eta erabiltzailearen izena kopiatzea

Pasahitza eta erabiltzailearen izena kopiatzeko eginbidea aktibatu edo desaktibatu dezakezu nahi duzunean.

- 1. Pasahitz-biltzailea aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik beherantz. Sakatu 🔯 .
- 2. Garbitu Baimendu arbelean kopiatu kontrol-laukia.

Kopiatu pasahitza eta Kopiatu erabiltzaile-izena aukerak ez daude erabilgarri. Ezin dituzu zure pasahitzak edo erabiltzailearen izenak kopiatu eta itsatsi. Eskuz idatzi beharko dituzu.

### Pasahitz-biltzailea pasahitzak ezkutatu edo erakutsi

Pasahitz-biltzailea aplikazioan pasahitza ezkutatzeko edo bistaratzeko, burutu ekintza hauetako bat:

- Pasahitz-biltzailean, irristatu hatza pantailaren goialdetik. Sakatu 🔯 . Markatu edo garbitu **Erakutsi pasahitza** kontrollaukia.
- Pasahitzaren eremuan pasahitza idatzi ondoren, sakatu on .

### Ausazko pasahitza sortu

Ausazko pasahitzak sortzeko irizpidea alda dezakezu Pasahitz-biltzailea aplikazioan:

- 1. Sakatu 🔅 eta burutu ekintza hauetako bat:
  - Aldatu Luzera eremua.
  - Hautatu edo garbitu Gehitu letrak, Gehitu zenbakiakedo Gehitu sinboloak kontrol-laukiak.

- 2. Pasahitz-biltzailea aplikazioaren Hasierako pantailan, sakatu 🕂 .
- 3. Idatzi webgunea eta erabiltzailearen izenaren informazioa.
- 4. Sakatu **Sortu pasahitza**.

**Oharra:** Pasahitza kopiatzeko aukera desaktibatuta badago, sortutako pasahitza idatzi beharko duzu (letrak, zenbakiak eta ikurrak) erabiltzea nahi duzunean.

### Bilatu Pasahitz-biltzailean

- 1. Pasahitz-biltzailea aplikazioaren, sakatu Q.
- 2. Idatzi bilatu nahi dituzun izenburua, erabiltzailearen izena, webgunearen izena edo oharrak.
- 3. Hautatu sarbide egokia.

Bilaketan zehar ez bada emaitzarik aurkitu, pasahitz berria graba dezakezu Gehitu pasahitz-biltzailean sakatuz.

### Pasahitz-biltzailea blokeatu

Pasahitz-biltzailea blokeatzeko bi modu daude. Pasahitz-bilatzailea eskuz edo automatikoki blokeatzeko aukera zehaztu dezakezu aplikazioa minimizatzean edo pantaila blokeatzean.

Pasahitz-biltzailea aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik beherantz eta burutu hurrengo ekintzetako bat:

- Eskuz blokeatzeko, sakatu 🔒.
- Automatikoki blokeatzeko, sakatu 🙀 . Hautatu edo garbitu kontrol-lauki egokia.

### Sortu segurtasun galderak eta erantzunak Pasahitzbiltzailean

Pertsonalizatutako segurtasun galderak eta erantzunak sor ditzakezu Pasahitz-bilatzailean gordetzeko zure pasahitzak asmatzeko zailak izan daitezen.

- 1. Gehitu grabaketa berria edo hautatu Pasahitz-bilatzailean dagoen grabaketa bat eta sakatu 📝 .
- 2. Gehitu edo editatu pantailan, sakatu 🕂 .
- 3. Hautatu segurtasun galdera orokor bat zerrendatik edo sortu galdera pertsonalizatua 🕂 sakatuz.
- 4. Idatzi zure segurtasun erantzuna edo sakatu Sortu erantzuna.
- 5. Sakatu Gorde.

### Bikoiztu pasahitzaren grabaketa

Pasahitz-biltzailea aplikazioan gordetako informazioan oinarritutako grabaketa berria sortzeko, jarraitu pauso hauek:

- 1. Pasahitz-biltzailean, eduki ukituta grabaketa bat.
- 2. Sakatu 🛐 .
- 3. Aldatu edo kendu dagoen informazioa eta sakatu Gorde.

### Pasahitz grabaketa gogokoetan gehitu

Grabaketa bat gogoko moduan zerrenda dezakezu. Gogokoak Pasahitz-biltzailean dituzun grabaketen zerrendaren goialdean agertuko dira.

- 1. Pasahitz-biltzailean, eduki ukituta grabaketa bat.
- 2. Sakatu 📩 .

### Partekatu testuak eta webgunean Pasahitzbiltzailearekin

Webguneak edo testua gehitzeko zure Pasahitz-biltzaileko grabaketetan, gauzatu hauek guztiak:

- 1. Ireki edozein aplikazio edo arakatu web orri bat eta hautatu Pasahitz-biltzailearekin partekatu nahi duzun informazioa.
- 2. Sakatu 🗄 > 😵 .
- 3. Sakatu **Pasahitz-biltzailea**.
- 4. Gehitu informazio gehigarria zure grabaketa berrira.
- 5. Sakatu Gorde.

# Multimedia

## Kamera

### Kamera aplikazioa begiratu batean

Ezarpenak aldatzeko, irristatu hatza behera

Zerbaitetan fokatzeko, arrastatu laukia eta ondoren sakatu pantaila argazkia ateratzeko

> Aurreko argazkia



Sakatu Time Shift modua, bideo kamera eta kamera moduen artean aldatzeko.

Handiagotzeko, urrundu bi hatz bata bestearengandik.

Sakatu aukera desberdinak hautatzeko (flash eta esposizio modua eta aldatu aurreko eta atzeko kameren artean)

### Argazkiak ateratzea eta bideoak grabatzea

Aholkua: Kamera aplikazioan argazki bat bizkor ateratzeko edo bideo bat grabatzeko, sakatu **Igo bolumena** tekla edo **Jaitsi bolumena** tekla. Kolpatu bi tekletako edozein grabaketa gelditzeko.

### Argazkiak atera

**Aholkua:** Zure argazkiak zeurea ez den BlackBerry gailuetan ahalik eta kalitate onenarekin ikusteko, adibidez ordenagailuko pantailan, kamera ikuspegi horizontalean duzula ziurtatu argazkia atera aurretik.

- 1. Egiaztatu 💽 hautatuta dagoela.
  - Kamerak fokatzen duena aldatzeko, arrastatu fokatze-koadroa pantailako edozein puntutara.
  - Handiagotu edo txikiagotzeko, irristatu hatzak pantailan elkarrengandik urrunduz edo hurbilduz. Zoomak Arrunta eta Egonkortzea grabaketa-moduetan bakarrik funtzionatzen du.
- 2. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Argazki bat ateratzeko, kolpatu pantailako edozein tokitan.
  - Korronte modua erabiliz argazki ugari ateratzeko, eduki ukituta hatzarekin pantaila. Kamerak argazkiak ateratzeari utziko dio hatza pantailatik kentzen duzunean.

Aholkua: Saretaren lerroak aktibatzeko, irristatu Kamera aplikazioko pantailaren goialdetik behera. Kolpatu 🔯 . Hautatu Aktibatuta Erakutsi saretaren lerroak aukeran.

### Bideoa grabatu

**Aholkua:** Grabatutako bideoa zeurea ez den BlackBerry gailuetan ahalik eta kalitate onenarekin erreproduzitzeko, adibidez ordenagailuko pantailan, kamera ikuspegi horizontalean duzula ziurtatu bideoa grabatu aurretik.

- 1. Egiaztatu 📑 hautatuta dagoela.
- 2. Bideokamerak fokatzen duena aldatzeko, arrastatu fokatze-koadroa pantailako edozein puntutara.
- 3. Handiagotzeko edo txikiagotzeko, irristatu hatzak elkarrengana hurbilduz edo elkarrengandik aldenduz, hurrenez hurren.
- 4. Grabatzen hasteko, kolpatu pantailako edozein puntutan.

Grabatzeari uzteko, kolpatu pantaila berriro.

#### Fokatze automatikoaren blokeoa aktibatu

Fokatze automatikoaren blokeoa erabil dezakezu BlackBerry gailuan, argazki edo bideo batetik bestera fokatzen itxaron gabe, hainbat argazki atera eta bideoak grabatzeko.

Fokatze-koadroa berde jartzen denean, eduki ukituta fokatze-koadroaren barnea.



agertzen da fokatze-koadroan, fokatze automatikoa ezarri dagoenean.

Fokatze automatikoa desaktibatzeko, arrastatu fokatze-koadroa pantailako edozein puntutan edo kolpatu fokatzekoadroaren barneko 🕒 ikonoa.

#### Bideoa estereoan grabatu

Bideoak estereoan grabatzeko, biratu BlackBerry gailua modu horizontalera.

Aholkua: Gailuan entzungailu estereoak konektatzen dituzunean, edozein posiziotan dago erabilgarri estereoan grabatzeko aukera.

#### Kameraren, bideokameraren eta Time Shift moduaren artean aldatu

Kamera aplikazioan, argazkiak atera eta bideoak graba ditzakezu, kamera, bideo-kamera eta Time Shift kaptura-moduak erabiliz.

- 1. Kolpatu uneko kaptura-modua: 📷 , 🖬 edo 💽 .
- 2. Kolpatu erabili nahi duzun argazki-modua.

#### Blokeatutako pantailatik Kamera aplikaziora sartu

Blokeo pantailan, eduki ukituta 💽 .

#### Ikusi ateratako azken argazkia edo bideoa

Ateratako azken argazkia edo grabatutako azken bideoa begira ditzakezu, nahi zenuena atera ote den ikusteko.

- 1. Pantailaren behealdean, eduki ukituta miniatura.
- 2. Arrastatu zure hatza gora miniatura handiagotzeko.
  - Kamera aplikaziora itzultzeko, altxa hatza pantailatik.
  - Argazkia edo bideoa ezabatzeko, irristatu hatza eskuinerantz, 📺 dagoen tokira.
  - Argazkia edo bideoa partekatzeko, irristatu hatza eskuinerantz, 😵 dagoen tokira.

### Time Shift modua erabiltzea

Time Shift moduak aldi bakar batean argazki sorta ateratzen uzten dizu, multzoko onena har dezazun. Norbaitek keinu egiten du argazki guztietan edo eztula egiten du une desegokienean? Edozein partaideren aurpegiera desberdinak aldatuta konpondu dezakezu, argazkiko kide guztiak perfektu agertu arte.

### Ahalik eta argazki onenak atera Time Shift modua erabiliz

- 1. Ziurtatu 💽 hautatuta dagoela.
- 2. Atera argazkia eta mantendu kamera geldi, argazkia agertu arte.
- 3. Mugitu pantailaren behealdeko graduatzailea aurrera eta atzera, argazki onena bilatu arte.
- 4. Kolpatu 🗸 .

#### Time Shift modua erabiliz pertsonaren aurpegiera ordeztu

- 1. Ziurtatu 🔘 hautatuta dagoela.
- 2. Argazkiak atera
- 3. Arrastatu pantailaren behealdeko graduatzailea aurrera eta atzera, argazki onena bilatu arte.
- 4. Kolpatu ezagututako aurpegi bat.
- 5. Erabili markagailua erabilgarri dauden aurpegierak arakatzeko.
- 6. Kolpatu pantailako edozein puntutan.
- 7. Kolpatu 🗸 .

### Kaptura-ezarpenak aldatu

Eszena modua edo argazkia ateratzeko modua aldatu, zure flasha erabili ala ez aukeratu, aurreko eta atzeko kamera aldatu eta abar egin dezakezu.

- 1. Kolpatu :
- 2. Kolpatu aldatu nahi duzun ezarpena.

Normala modura itzultzeko, kolpatu kameraren pantailaren goi-ezker ertzean dagoen moduaren ikonoa.

#### Argazkiak ateratzeko moduak

Argazkiak ateratzeko moduek kamerak argazkiak ateratzeko eta bideoak grabatzeko moduak aldatzen dituzte. Adibidez, Korrontea modua erabil dezakezu argazki anitzak bizkor ateratzeko.

Oharra: Argazki moduek ez dute Time Shift moduarekin zerikusirik.

Ikonoa	Deskribapena	
	Arrunta	
	Modu hau kamerarentzat eta bideo-kamerarentzat erabilgarri dago. Modu arruntak kamera edo bideo-kamera normal baten moduan funtzionatzen du eta aldi bakoitzean argazki bat atera edo bideo bat grabatzen du.	
(د الله الله الله الله الله الله الله الل	Egonkortzea	
	Modu hau kamerarentzat eta bideo-kamerarentzat erabilgarri dago. Egonkortze-moduak argazkiak ateratzeko edo bideoak grabatzeko orduan kamerak sortzen duen lausotasuna murrizten du.	
Ikonoa	Deskribapena	
--------	--	--
	Korrontea	
	Modu hau kamerarentzat erabilgarri dago. Korrontea moduak argazki anitzak bizkor ateratzea ahalbidetzen du. Hau argazkia ateratzeko modu egokia da mugimendu bizkorra duten eszenei edo irudiei argazkiak ateratzeko.	
	HDR	
	Barruti Dinamiko Handia modua bezala ezagutzen den modu hau kamerarentzat erabilgarri dago. HDR moduak argazki anitz nahasten ditu eta eszena batetako eremu argien eta ilunen arteko kontrastea nabarmentzen du.	

#### Eszena moduak

Eszena moduak ezarpenak aldatu argazkiaren edo bideoaren kalitatea hobetzeko diseinatuta daude, hala nola kontrastea, distira eta abar.

Ikonoa	Deskribapena
Α	Automatikoa
	Hau da modu ohikoena. Kamerarentzat, bideokamerarentzat eta Time Shift moduarentzat erabilgarri dago. Erabili modu hau eguneroko eszena desberdin ugari kapturatzeko.
1	Ekintza
	Modu hau kamerarentzat eta Time Shift moduarentzako eskuragarri dago. Modu honekin bizkor mugitzen diren objektuen argazkiak atera ditzakezu. Probatu modu honekin kirolarekin edo haurrekin lotutako argazkiak ateratzeko.
	Arbela
	Modu hau kamerarentzat eta Time Shift moduarentzako eskuragarri dago. Modu honekin bizkor arbelen argazkiak atera ditzakezu, arbelaren eta arbelean idatzita dagoenaren arteko kontrastea hobetuz.
(i-	Gaua
	Modu hau kamerarentzat, bideo-kamerarentzat eta Time Shift moduarentzat erabilgarri dago. Modu hau oso erabilgarria da argi gutxi duten tokiei argazkiak atera eta bideoak grabatzeko.
P**	Hondartza edo elurra
	Modu hau kamerarentzat, bideo-kamerarentzat eta Time Shift moduarentzat erabilgarri dago. Modu honek harearen eta elurraren argitasun maila orekatzen laguntzen du argazkian edo bideoan.

## Kameraren ezarpenak aldatu

Kameraren ezarpenak alda ditzakezu, besteak beste, saretaren lerroak aktibatzea, argazkia eta bideoak non gordetzea nahi duzun eta argazkiak geoetiketatzea nahi duzun.

- 1. Kamera aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🌣 .

## Arazoak: Kamera

### Ezin dut flasha aktibatu edo bideoaren argia erabili

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Baliteke flasha edo bideoaren argia erabiltzeko adina bateria ez izatea. Kargatu BlackBerry gailua eta saiatu berriro.
- Baliteke flasha kargatzen aritzea. Itxaron une bat eta saiatu berriro.
- Ziurtatu atzealdeko kamera erabiltzen ari zarela.
- Ziurtatu ez zarela Time Shift, Irudi egonkortzailea edo Eztanda moduak erabiltzen ari. Modu horiek ez dute flashik erabiltzen.

### Ezin dut argazki bat atera edo bideo bat grabatu

#### Probatu:

- Ezabatu fitxategi mutlimedia zaharrak biltegiratze-tokia egiteko eta saiatu berriro.
- Ziurtatu beste aplikazio bat ez dela kamera edo bideoa erabiltzen ari. Itxi kamerak erabil ditzakeen edozein aplikazio eta saiatu berriro.

### Ezin dut argazkirik edo bideorik gorde nire multimedia-txartelean

Saiatu hauetako bat egiten:

- Ezabatu fitxategi mutlimedia zaharrak biltegiratze-tokia egiteko eta saiatu berriro.
- Txertatu memoria-txartel desberdina.
- Fitxategi-kudeatzailea aplikazioan, arakatu zure multimedia-txartelean. Kamera karpeta badagoela eta erabilgarri dagoela egiaztatu. Beharrezkoa bada, sortu **Camera** izena duen karpeta berria.
- Fitxategi-kudeatzailea aplikazioan, arakatu zure multimedia-txartelean. Egiaztatu Kamera izena duen beste fitxategirik dagoen. Ezabatu edo mugitu **Camera** izena duten gainontzeko fitxategiak beste karpeta batera.

## Argazkiak

## Argazkiak aplikazioa begirada batean

Handiagotzeko, urrundu bi hatz bata bestearengandik.

Handiagotutako edo txikiagotutako argazki baten pano -ramika ateratzeko, irristatu hatza pantailan.

Argazkiak korritzeko, irristatu hatza ezkerrera edo eskuinera

> Sakatu aurreko pantailara itzultzeko



Sakatu aukera desberdinak hautatzeko, argazkia horma-paper moduan edo kontaktu bati ezartzeko adibidez.

### Azken pantaila



Zauden aplikazioaren arabera, ikusi duela gutxi zure BlackBerry gailuan ikusi, entzun, bistaratu edo gehitu dituzun multimedia fitxategiak.

### Albumen pantaila



Ikusi BlackBerry gailuarekin ateratako edo grabatutako eta deskargatutako edo kargatutako argazki eta bideo guztiak. Argazkiak eta bideoak karpeta eta albumetan antolatuko dira. Aurrekargatutako argazkiak ere bertan aurkituko dituzu.

### Dataren pantaila



Ikusi BlackBerry gailuan grabatutako edo ateratako eta deskargatutako eta kargatutako bideo eta argazki guztiak, atera edo grabatutako dataren arabera antolatuta. Bideoak eta argazkia atera, grabatu edo gehitutako berrienetik bideo eta argazki zaharrenera antolatuko dira.

## Argazkiak ikustea

### Argazkiak handiagotu edo txikiagotu

Pantailan argazki bat irekita duzula, burutu ekintza hauetako bat:

- Sakatu bi aldiz zooma handiagotu nahi duzun tokian.
- Irristatu hatzak elkarrengana hurbilduz edo elkarrengandik aldenduz, eskuz handiagotzeko edo txikiagotzeko.

### Argazkien panoramikak egin

- 1. Handiagotu argazkia.
- 2. Arrastatu hatza pantailan zehar.

## Multimedia-fitxategiak erreproduzitu edo ikusi DLNAk ziurtatua gailu batean

DLNAk ziurtatua gailuak Multimedia-errendatzaile digitala izan behar du.

BlackBerry gailuan eta onartzen diren DLNAk ziurtatua gailuetan gordetako multimedia-fitxategiak hari gabe erreproduzitu edo ikus ditzakezu. Besteak beste, ordenagailuetan, telebistetan edo etxeko aisialdirako ekipoetan. Argazkiak eta bideoak HDMI onartzen duten pantailetan eta Wi-Fi CERTIFIED Miracast gailuetan ere ikus daitezke.

**Aholkua:** Multimedia-fitxategia erreproduzitu edo ikusi nahi duzun gailua DLNAk ziurtatua den jakiteko edo DLNAk ziurtatua gailuei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, bisitatu www.dlna.org webgunea.

- 1. Ireki multimedia-fitxategiak.
- 2. Kolpatu :
- 3. Kolpatu 🗊 .
- 4. Hautatu multimedia-fitxategia erreproduzitzeko edo ikusteko gailua.

DLNAk ziurtatua gailura konektatuta zaudela beste multimedia-fitxategi batzuk erreproduzitu edo ikusteko, kolpatu <br/>
eta hautatu multimedia-fitxategia.

DLNAk ziurtatua gailuan multimedia-fitxategia erreproduzitzeari uzteko, kolpatu 🔼 .

#### Eremu pertsonalaren eta lan-eremuaren artean aldatu

BlackBerry Balance teknologia BlackBerry gailuan konfiguratuta dagoenean eta gailuan, gutxienez, multimedia-fitxategi bat gordeta duzunean, azkar alda zaitezke eremu pertsonaletik lan-eremura.

- 1. Argazkiak aplikazioan, Data, Azkena edo Albumak pantailan, irristatu hatza pantailaren erdialdetik behera.
- 2. Kolpatu Pertsonala edo Lana.

### Argazkiekin eta argazki-albumekin gehiago egitea

Askoz gehiago egin dezakezu argazkiekin eta argazki-albumekin, hala nola diapositiba-aurkezpenean ikusi, ezabatu, lagunei bidali edo haiekin partekatu, eta abar. Argazkien eta argazki-albumen propietateak ere ikus ditzakezu, tamaina, izena eta ateratako data barne. Erabilgarri dauden aukerak ikus ditzakezu

kolpatuz.

### Argazkiak horma-paper gisa ezarri

- 1. Ireki argazki bat.
- 2. Kolpatu > Norma-papera.

Aholkua: Argazkia handiagotu eta horma-paper gisa ezartzen baduzu, handitutako zatia agertuko da horma-paper gisa.

## Editatu argazkia

Argazki-editoreak tresna sorta bat eskaintzen dizu argazkiak editatzeko eta hobetzeko.

- 1. Ireki editatu nahi duzun argazkia.
- 2. Kolpatu 📝 .
- 3. Amaitutakoan, kolpatu Gorde.

**Aholkua:** Pantailan agertzen direnak baino edizio aukera gehiago egon daitezke. BlackBerry gailua modu bertikalean badago, saiatu ezkerrera edo eskuinera irristatzen ikusgai dauden edizio aukeretan. Gailua ikuspegi horizontalean baduzu, saiatu gora edo behera irristatzen.

## Argazkia partekatu

Lagunekin, senideekin, bilerako partaideekin, Twitter-en eta abar parteka ditzakezu argazkiak, une berezi horiek guztien zurekin bizi dituztela ziurtatzeko.

- 1. Ireki partekatu nahi duzun argazkia.
- 2. Bidali aurretik argazkia editatzeko, kolpatu 📝 .
- 3. Editatu argazkia.
- 4. Kolpatu Gorde.
- 5. Kolpatu 😵 .

### Atera zure gailuaren pantailaren argazkia

BlackBerry gailuaren pantaila-argazkia ateratzeko, sakatu Igo bolumena tekla eta Jaitsi bolumena tekla aldi berean.

**Oharra:** BlackBerry Balance gailuan instalatuta baduzu eta lan-eremua blokeatu gabe badago, pantaila-argazkiak laneremuan gordeko dira.

## Argazkiak eta albumak antolatu

Argazkiak albumetan antola ditzakezuFitxategi-kudeatzailea-(e)ko karpeten egitura erabiliz.

### Sortu albuma

Albumekin zure argazkiak antola ditzakezu gertaeren, pertsonen, daten edo aukera dezakezun beste edozein kategoriaren arabera.

- 1. Hasierako pantailan, sakatu Fitxategi-kudeatzailea ikonoa.
- 2. Kolpatu albuma sortu nahi duzun karpeta.
- 3. Kolpatu : > □,
- 4. Idatzi zure albumerako izen bat.

Oharra: Argazki bat eraman behar duzu album berrira albuma Argazkiak aplikazioan agertu aurretik.

Aholkua: Albuma beste karpeta batera mugitzeko, eduki ukituta mugitu nahi duzun albuma. Sakatu 💽 > 【 . Kolpatu karpeta mugitu nahi duzun karpeta. Kolpatu Mugitu.

### Argazkiak beste album batera mugitu

- 1. Hasierako pantailan, sakatu Fitxategi-kudeatzailea ikonoa.
- 2. Eduki ukituta mugitu nahi duzun elementua.
- 3. Kolpatu 💽 .
- 4. Kolpatu 🗸 .
- 5. Kolpatu argazkia mugitu nahi duzun albuma.

#### 6. Kolpatu **Mugitu**.

Aholkua: Argazkia beste karpeta batera mugitzeko, eduki ukituta mugitu nahi zenuen argazkia. Kolpatu Mugitu > 🔀 . Kolpatu argazkia mugitu nahi duzun karpeta. Kolpatu Mugitu.

### Onartutako argazki-fitxategien luzapenak

Zure BlackBerry gailua argazki-formatu hauek onartzeko diseinatua izan da.

- BMP
- JPG
- GIF
- PNG
- TIF
- WBMP

Multimedia-fitxategien luzapenei eta telefonoko kodekei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, bisitatu www.blackberry.com/docs/smartphones helbidea eta sakatu **Telefonoak > BlackBerry telefonoak > Onartutako multimedia**.

### Arazoak: Argazkiak

### Ezin dut multimedia-fitxategirik ireki

Ziurtatu fitxategia BlackBerry gailuak onartzen duen formatuan dagoela.

### Ezin dut multimedia-fitxategirik gorde

Baliteke BlackBerry gailuak edo memoria txartelak multimedia-fitxategiak gordetzeko behar adina memoria erabilgarri ez izatea.

Saiatu ekintza hauek burutzen:

- Multimedia-fitxategi bat gailuan gordetzen saiatzen ari bazara, ezabatu gailuko datu edo mezu zaharrak.
- Multimedia-fitxategi bat memoria-txartelean gordetzen saiatzen ari bazara, ezabatu multimedia-fitxategi zaharrak zure memoria-txarteletik.
- Kamera aplikazioan, aldatu argazkiaren aspektu-erlazioa edo bideoa tamaina txikiago batera. Argazki eta bideo handiek txikiek baino biltegiratze leku gehiago behar dute.

## Musika

## Musika erreproduzitzea

### Abestia erreproduzitu, eten edo saltatu

- 1. Musika aplikazioan, kolpatu entzuteko abestia edo albuma.
- 2. Kolpatu : > ►.
- 3. Kolpatu 👖 , 📢 edo ▶ .

### Musika nahastu

Kolpatu 🔀 hautatutako musika ausaz erreproduzitzeko.

Musika ausaz nahasten gelditzeko, kolpatu 🔀 berriro.

Aholkua: Musika ausaz nahastu ondoren, hurrena zer erreproduzituko den ikusteko, kolpatu 📑 > 💽 . Kolpatu azala.

### Musika-zerrendako abestiak errepikatu

Uneko musika-zerrenda errepikatzeko, kolpatu 📋 > 🖸 > 🔂 . Kolpatu 👩 berriro unean erreproduzitzen ari zaren abestia errepikatzeko.

## Multimedia-fitxategiak erreproduzitu edo ikusi DLNAk ziurtatua gailu batean

DLNAk ziurtatua gailuak Multimedia-errendatzaile digitala izan behar du.

BlackBerry gailuan eta onartzen diren DLNAk ziurtatua gailuetan gordetako multimedia-fitxategiak hari gabe erreproduzitu edo ikus ditzakezu. Besteak beste, ordenagailuetan, telebistetan edo etxeko aisialdirako ekipoetan. Argazkiak eta bideoak HDMI onartzen duten pantailetan eta Wi-Fi CERTIFIED Miracast gailuetan ere ikus daitezke.

**Aholkua:** Multimedia-fitxategia erreproduzitu edo ikusi nahi duzun gailua DLNAk ziurtatua den jakiteko edo DLNAk ziurtatua gailuei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, bisitatu www.dlna.org webgunea.

- 1. Ireki multimedia-fitxategiak.
- 2. Kolpatu :

- 3. Kolpatu 🗊 .
- 4. Hautatu multimedia-fitxategia erreproduzitzeko edo ikusteko gailua.

DLNAk ziurtatua gailura konektatuta zaudela beste multimedia-fitxategi batzuk erreproduzitu edo ikusteko, kolpatu 🤾 eta hautatu multimedia-fitxategia.

DLNAk ziurtatua gailuan multimedia-fitxategia erreproduzitzeari uzteko, kolpatu 🔼 .

### Musikarekin gehiago egitea

Askoz gehiago egin dezakezu musikarekin, hala nola abestiak bilatu, lagunei bidali edo haiekin partekatu, abestiak eta albumak ezabatu, musikaren propietateak ikusi eta abar. Erabilgarri dauden aukerak ikus ditzakezu 📰 kolpatuz, edo abesti, artista, album, mota edo erreprodukzio-zerrenda bat ukituta eduki eta 📰 kolpatuz.

# Erreprodukzio-zerrendak sortzea eta musika antolatzea

Erreprodukzio-zerrendak pantailan, zure erreprodukzio-zerrenda propioa sortu edo zure BlackBerry gailuak zuretzat bildu dituen abesti-bildumak erreproduzi ditzakezu. Erreprodukzio-zerrenda eta bilduma bakoitzaren barruan, zein artista eta album dauden ikusteko gai izango zara.

### Erreprodukzio-zerrenda sortu

- 1. Musika aplikazioan, kolpatu 🔀 > Sortu.
  - Abestiak erreprodukzio-zerrendan bakarka gehitzeko, kolpatu gehitu nahi duzun abestien alboan dagoen 🔒
  - Artista baten abesti guztiak gehitzeko, kolpatu Artistak. Kolpatu gehitu nahi duzun artistaren alboan dagoen 😛 .
  - Erreprodukzio-zerrendan albumak gehitzeko, kolpatu **Albumak**. Kolpatu gehitu nahi dituzun albumen alboan dagoen
- 2. Erreprodukzio-zerrendari izena jartzeko, kolpatu pantailaren goialdean dagoen testu-eremua eta idatzi izena.
- 3. Sakatu 🗸 .

## Unean erreproduzitzen ari den musika erreprodukzio-zerrenda batean gehitu

Abesti edo album bat erreproduzitzen ari denean, egin ekintza hauetako bat:

• Abesti bat erreprodukzio-zerrendan gehitzeko, kolpatu 📰 > 🧮 .

• Albuma erreprodukzio-zerrendan gehitzeko, eduki ukituta albumaren izena. Kolpatu 🛒 .

### Erreprodukzio-zerrendak editatu edo haien izena aldatu

- 1. Sakatu erreprodukzio-zerrendako 📝 .
  - Erreprodukzio-zerrenden izena aldatzeko, idatzi izena pantailaren goialdean dagoen testu-eremuan.
  - Erreprodukzio-zerrendan musika gehitzeko, kolpatu 🔼 . Kolpatu gehitu nahi dituzun abestien, artisten eta albumen alboan dagoen 🕂
  - Erreprodukzio-zerrendatik abesti bat kentzeko, kolpatu kendu nahi duzun abestiaren alboan dagoen 🦲 .
  - Erreprodukzio-zerrendan abestien ordena aldatzeko, arrastatu abestia erreprodukzio-zerrendan jarri nahi duzun tokira.
- 2. Sakatu 🗸 .

### Orain erreproduzitzen pantailan musika antolatuta

Musika antolatzeko, ez duzu erreprodukzio-zerrendarik sortu behar. Bat-batean abesti gogokoa entzun nahi duzu hurrena? Aprobetxatu Erreproduzitu orain pantailako musika gehitu eta musikaren ordena aldatzeko gaitasuna.

### Orain erreproduzitzen pantailan musika gehitu

Beste abesti bat erreproduzitzen ari dela, eduki ukituta abesti, album edo erreprodukzio-zerrenda bat.

- Uneko abestia erreproduzitu ostean hautatutako elementua erreproduzitzeko, kolpatu 🚍 .
- Uneko musika-zerrenda erreproduzitu ostean hautatutako elementua erreproduzitzeko, kolpatu 📃 .

Aholkua: Kolpatu 🏹 abesti, album eta erreprodukzio-zerrenda ugari hautatzeko.

### Orain erreproduzitzen pantailako abestiak kendu eta ordenatu

- 1. Abesti edo album bat erreproduzitzen ari dela, kolpatu 🚺 > Editatu ordena.
  - Orain erreproduzitzen pantailatik abesti bat kentzeko, kolpatu kendu nahi duzun abestiaren alboko minus ikonoa.
Cisco WebEx Meetings aplikazioa deskargatzen duzunean, WebEx bilerak programatzea onartzen duen baliozko kontu bat baduzu, WebEx xehetasunak gehi ditzakezu gutxienez partaide bat duen eta zuk antolatu duzun egutegiko gertaeran.

**Oharra:** Egutegiko gertaera laneko posta-kontu batekin lotuta badago, Cisco WebEx Meetings aplikazioa BlackBerry gailuko lan-eremuan instalatuta egon behar du. Egutegiko gertaera posta-kontu pertsonal batekin lotuta badago, Cisco WebEx Meetings aplikazioa gailuko eremu pertsonalean instalatuta egon behar du.

- 1. Egutegiko gertaera bat sortzen duzunean, kolpatu pantailaren goialdeko edozein ikono.
- 2. Hautatu I Gehitu WebEx etengailuan.
- 3. Kolpatu Gorde.
- 4. Sortu WebEx pantailan, idatzi WebEx kontuaren informazioa.
- 5. Kolpatu Sortu.

WebEx xehetasunak gertaeraren oharrak atalean gehituko dira.

#### Lehendik dagoen gertaera batean WebEx xehetasunak gehitu

Programatutako egutegiko gertaeraren antolatzailea bazara, eta Cisco WebEx Meetings aplikazioan saioa hasita bazaude BlackBerry gailuan, WebEx xehetasunak gehi ditzakezu lehendik dagoen gertaeran.

**Oharra:** Egutegiko gertaera laneko posta-kontu batekin lotuta badago, Cisco WebEx Meetings aplikazioa gailuko laneremuan instalatuta egon behar du. Egutegiko gertaera posta-kontu pertsonal batekin lotuta badago, Cisco WebEx Meetings aplikazioa gailuko eremu pertsonalean instalatuta egon behar du.

- 1. Gertaera bat aldatzen duzunean, kolpatu 🚺 .
- 2. Kolpatu 🚺.
- 3. Sortu WebEx pantailan, idatzi WebEx kontuaren informazioa.
- 4. Kolpatu Sortu.

Lehendik dagoen gertaera batean WebEx xehetasunak gehitzen dituzunean, eguneratze bat bidaliko zaie xehetasunekin gertaerako partaideei.

#### Lehendik dagoen gertaera bati WebEx xehetasunak editatu

Programatutako egutegiko gertaeraren antolatzailea bazara, eta Cisco WebEx Meetings aplikazioan saioa hasita bazaude BlackBerry gailuan, WebEx xehetasunak edita ditzakezu lehendik dagoen gertaeran.

**Oharra:** Egutegiko gertaera laneko posta-kontu batekin lotuta badago, Cisco WebEx Meetings aplikazioa gailuko laneremuan instalatuta egon behar du. Egutegiko gertaera posta-kontu pertsonal batekin lotuta badago, Cisco WebEx Meetings aplikazioa gailuko eremu pertsonalean instalatuta egon behar du.

- 1. Gertaera aldatzen duzunean, idatzi eguneratutako informazioa, hala nola gertaeraren ordua edo partaideak, eta kolpatu **Gorde**.
- 2. Editatu WebEx pantailan, aldatu xehetasunak gertaeran eguneratutako informazioarekin bat egiteko.
- 3. Kolpatu Gorde.

Lehendik dagoen gertaera baten WebEx xehetasunak editatzen dituzunean, eguneratze bat bidaliko zaie xehetasunekin gertaerako partaideei.

#### WebEx gertaera batekin bat egin

Gertaera batekin bat egiteko, Cisco WebEx Meetings aplikazioa BlackBerry gailuan instalatuta egon behar du.

**Oharra:** Egutegiko gertaera laneko posta-kontu batekin lotuta badago, Cisco WebEx Meetings aplikazioa gailuko laneremuan instalatuta egon behar du. Egutegiko gertaera posta-kontu pertsonal batekin lotuta badago, Cisco WebEx Meetings aplikazioa gailuko eremu pertsonalean instalatuta egon behar du.

WebEx xehetasunak dituen egutegiko gertaera batekin bat egiteko, gauzatu aukera hauetako bat:

- Egutegiaren gogorarazlean, kolpatu Hasi WebEx.
- Egutegiaren gertaerako gertaeraren pantailan kolpatu Hasi WebEx edo kolpatu 📑 > 🌅 .

### "Berandu iritsiko naiz" mezua bidali

Mezu edo gertaera batera berandu iritsiko bazara, mezu bat bidal diezaiekezu, gainerako partaideek jakin dezaten.

- 1. Ireki gertaera, BlackBerry Egutegia aplikaziotik edo gertaera-gogorarazletik.
- 2. Kolpatu : > 🕒.
- 3. Elkarrizketa-koadroan, mugitu graduatzailea zenbat atzeratuko zaren adierazteko.
- 4. Kolpatu Bidali mezu elektronikoa guztiei edo Bidali mezu elektronikoa antolatzaileari.

### Bilerako partaideekin fitxategi bat partekatu

Posta elektronikoa erabil dezakezu BlackBerry gailuko fitxategiak bilerako gainerako partaideekin partekatzeko.

- 1. Eduki ukituta fitxategi bat.
- 2. Kolpatu **V** > **Bilerako partaideak**.
- 3. Kolpatu bilera bat.
- 4. Idatzi pantailan, idatzi mezu bat.
- 5. Kolpatu **Bidali**.

### Egutegia aplikazioaren ezarpenak

#### Helbide elektroniko eta egutegi lehenetsia aldatu

Zerbait partekatzen duzunean (argazki bat edo webgune bat adibidez) posta elektroniko bidez edo posta elektroniko berri bat idazten duzunean, zure BlackBerry gailuak posta elektroniko bat bidaliko du zure helbide elektroniko lehenetsitik. Gertaera bat egutegira gehitzean edo hitzordu baterako gonbidapena bidaltzean, zure gailuak automatikoki gehituko du gertaera hori lehenetsitako egutegira.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🌣 Ezarpenak > Kontuak.
- 3. Kolpatu 🛃 .
  - Posta elektronikoak bidaltzeko erabiltzen duzun kontu lehenetsia aldatzeko **Helbide elektronikoa** goitibeherako zerrendan, kolpatu kontu bat.
  - Gertaerak gehitzeko eta gonbidapenak bidaltzeko erabiltzen duzun egutegi lehenetsia aldatzeko, kolpatu egutegi bat **Egutegia** ataleko goitibeherako zerrenda.

#### Egutegi bakoitzarekin erabiltzeko helbide elektronikoa aldatu

BlackBerry gailuan egutegi bat baino gehiago badituzu, helbide elektroniko desberdina ezar diezaiokezu bakoitzari. Egutegi jakin batean gertaera bat sortzen duzunean, egutegi horri esleitutako helbide elektronikoaren erabiliz bidaliko dira gonbidapenak.

Erabiltzen duzun helbide elektronikoa zure gailuan konfiguratuta egon beharko da aurretik. Zenbait kontuk ez dizute helbide elektronikoa aldatzen utziko (adibidez, laneko kontua).

- 1. Egutegia aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🔯 > Bilera-gonbidapenaren ezarpenak.
- 3. Egutegiaren azpian, goitibeherako zerrendan, kolpatu helbide elektroniko bat.

### Egutegiaren kolorea aldatu

Zure gailura gehitzen duzun egutegi bakoitzari kolore bat esleituko zaio gertaerak desberdintzeko. Egutegiko koloreak pertsonaliza ditzakezu gehien gustatzen zaizun moduan.

- 1. Egutegia aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🔅 > Egutegiko koloreak.
- 3. Kolpatu egutegi bat.
- 4. Kolpatu kolore bat.

#### Gertaeren ezarpen lehenetsiak aldatu

Aldatu luzera, gogorarazlearen orduak eta errepikapen-tarte lehenetsiak gertaerei edo bilerei.

- 1. Egutegia aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Orokorra.
  - Bilerak zenbat denborarako programatu diren aldatzeko hautatu iraupen berria **Bileraren iraupena** goitibeherako zerrendan.
  - Gertaeren gogorarazle lehenetsia aldatzeko, kolpatu **Hitzordu Gogorarazlea** edo **Egun osoko bileraren** gogorarazlea goitibeherako zerrendan eta hautatu denbora berri bat.
  - Errepikapen-tarteak aldatzeko, kolpatu **Errepikatze-tartea** goitibeherako zerrendan eta hautatu errepikapendenbora berria.

#### Egutegia bistaratzeko modua aldatu

- 1. Egutegia aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🔯 Ezarpenak > Orokorra.

- Egutegia irekitzen duzunean ikusten duzun ikuspegia aldatzeko (eguna, astea edo hilabetea), kolpatu ikuspegi bat **Egutegiaren ikuspegi lehenetsia** goitibeherako zerrendan.
- Astearen hasiera-eguna aldatzeko, kolpatu aukera bat Asteko lehen eguna goitibeherako zerrendan.
- Lanorduak aldatzeko, Lanorduak ataleko Hasiera eta Amaiera goitibeherako zerrendan kolpatu aukera bat.
- Egun bateko negozioak adierazteko goranzko zenbakiak erabiltzeko, ezarri **Aktibatuta Goranzko zenbakiak** aukeran.

## Arazoak: Egutegia aplikazioa

### Ezin dut nire egutegia sinkronizatu

Probatu:

- Egutegia zure kontuetako batekin lotuta badago (adibidez, Gmail egutegiarekin), begiratu egutegiaren sinkronizazioa aktibatuta dagoela. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera. Kolpatu 🐼 > Kontuak. Kolpatu kontua. Egiaztatu I hautatu dela Sinkronizatu egutegia etengailuan.
- Egutegia ordenagailuan gordeta badago Microsoft Outlook edo Apple iCal aplikazioan, saiatu BlackBerry Link erabiltzen, ordenagailuko egutegiko informazioa BlackBerry gailuarekin sinkronizatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Link laguntza.
- Hala ere egutegia sinkronizatzen ez bada, saiatu egutegia lotuta duen kontua kendu eta berriro gehitzen.

#### Ezin diet bilera-gonbidapenei erantzun edo halakoak bidali

Egiaztatu egutegi integratua duen posta-kontu bat gehitu duzula. Baliteke zenbait kontuk egutegi-eginbiderik ez izatea.

#### Gertaera berriak edo eguneratuak ez dira nire egutegian agertzen

Baliteke egutegiak freskatu behar izatea. Egutegia aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera. Kolpatu 👩 .

# Kontaktuak

### Kontaktuak aplikazioari buruz

Zure BlackBerry gailura kontaktuak gehitzean, hauekin konektatzea errazagoa da. Kontaktuak aplikazioa BlackBerry Hubekin, BlackBerry Egutegia aplikazioarekin eta beste aplikazio batzuekin integratuta dago, kontaktuak dagokien mezuei eta gertaerei azkar gehitzeko edo argazkiak eta bideoak partekatzeko. Posta elektroniko kontu bat edo sare sozialen kontua gehitu baduzu telefonoan, kontu horien kontaktuak kontaktuen zerrendan ager daitezke. Erraza da konektatu nahi duzun jendea aurkitzea, gailuak automatikoki bateratzen baititu izenabizenak, helbide elektronikoak edo telefono mugikorren zenbakiak.

### Kontaktuak begiratu batean



### Kontaktuak gehitzea

#### Posta elektronikoa eta beste kontu mota batzuk gailuan konfiguratu

Posta-kontuak, sare sozialetako kontuak (Facebook, Twitter edoLinkedIn, adibidez) edo Evernote kontuak gehi ditzakezu gailuan.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Kontuak.
- 3. Dagoeneko kontu bat gehitu baduzu zure gailuan, beste kontu bat gehitzeko, kolpatu 👰 .

#### Posta-kontu pertsonala gehitu

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu Posta elektronikoa, egutegia eta kontaktuak.
- 2. Idatzi helbide elektronikoa.
- 3. Kolpatu Hurrengoa.
- 4. Idatzi kontuaren pasahitza.
- 5. Kolpatu Hurrengoa.
- 6. Aldatu ezarpen gehigarriak (adibidez, zure gailuarekin sinkronizatzeko eduki motak).
- 7. Kolpatu Eginda.

#### Sare sozial bat edo Evernote kontu bat gehitu

Facebook, Twitter, LinkedIn edo Evernote kontuak gehi ditzakezu gailuan. Zure gailuan Evernote kontu bat gehitzen duzunean, Evernote koadernoak erabilgarri egongo diraBlackBerry Remember-en.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu Facebook, Twitter, LinkedIn edo Evernote.
- 2. Idatzi kontuaren informazioa.
  - Beharrezkoa bada, aldatu sinkronizatutako ezarpen aukerak.
  - Facebook kontu bat gehitu baduzu, lagunen urtebetetzeen jakinarazpenak noiz jasoko dituzun aldatzeko, kolpatu gogorarazle aukera bat, **Urteurrenaren gogorarazleak** goitibeherako zerrendatik.
- 3. Kolpatu Eginda. Beharrezkoa bada, kolpatu Baimendu.

#### BlackBerry Enterprise Service 10 -k onartutako laneko kontu bat gehitu

Erakundeak BlackBerry Enterprise Service 10 erabiltzen badu, Ianeko kontua gehi dezakezu gailuan eta BlackBerry Balance eginbidea bezalako abantailak izango dituzu. Erakundeak ez badu BlackBerry Enterprise Service 10 bertsio berriena eta BlackBerry Enterprise Server 5 edo zaharragoa exekutatzen badu, Ianeko kontua gehi dezakezu Microsoft Exchange ActiveSync erabil dezan. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan administratzailearekin.

Ziurtatu administratzailearen informazio hau ezagutzen duzula:

- Erabiltzaile-izena
- Enpresaren aktibazio-pasahitza
- Zerbitzariaren izena
- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 🗮 > Laneko kontua.
- 2. Idatzi zure kontuaren erabiltzaile-izena, aktibazio-pasahitza eta zerbitzari-helbidea
- 3. Kolpatu Eginda.

Laneko kontu bat gehitu eta gero, lan-eremuko pasahitz bat ezartzeko abisuak jarraitu BlackBerry Balance-rekin erabiltzeko eta zure laneko sareko pasahitza idazteko.

#### Gehitu Microsoft Exchange ActiveSync -k onartzen duen posta-kontu bat

Ziurtatu administratzailearen edo posta elektronikoaren zerbitzu-hornitzailearen informazio hau ezagutzen duzula:

- Erabiltzaile-izena eta laneko sarearen pasahitza
- Zerbitzariaren helbidea

Microsoft Exchange ActiveSync-ek onartzen duen helbide elektroniko bat gehitzen duzunean, kontuarekin lotutako mezuak, egutegiko gertaerak, kontaktuak, zereginak eta oharrak BlackBerry gailuarekin sinkronizatuko dira.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 🚎 > Microsoft Exchange ActiveSync.
- 2. Idatzi zure kontuarentzako helbide elektronikoa, pasahitza eta zerbitzariaren helbidea.
  - Push posta elektronikoa desaktibatzeko, hautatu **O Push** aukeran. Zure gailuak mezu berriak zein maiztasunekin egiaztatzen dituen konfiguratzeko, **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendan, kolpatu aukera bat.
  - Zure erakundearen VPN erabiltzeko, hautatu I VPN aukeran.
  - Zure gailuak mezuak zenbatean behin sinkronizatzen dituen aldatzeko, hautatu aukera bat **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendan.
- 3. Kolpatu Hurrengoa.

#### IBM Notes Traveler posta-kontu bat gehitu

Ziurtatu administratzailearen edo posta elektronikoaren zerbitzu-hornitzailearen informazio hau ezagutzen duzula:

- Zure erabiltzailearen izena eta laneko sarearen pasahitza
- Zerbitzariaren helbidea

IBM Notes Traveler helbide elektroniko bat gehitzen duzunean, kontuarekin lotutako mezuak, egutegiko gertaerak, kontaktuak, zereginak eta oharrak BlackBerry gailuarekin sinkronizatuko dira.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 😄 > IBM Notes Traveler.
- 2. Idatzi zure kontuaren helbide elektronikoa, pasahitza eta zerbitzariaren helbidea.
  - Push posta elektronikoa desaktibatzeko, hautatu **O Push** etengailuan. Gailuak mezu berriak zein maiztasunekin egiaztatzen dituen konfiguratzeko, kolpatu **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendako aukera bat.
  - Zure erakundearen VPN erabiltzeko, hautatu I VPN etengailuan.
  - Zure gailuak mezuak noiztik sinkronizatzen dituen aldatzeko, hautatu aukera bat **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendan.
- 3. Kolpatu Hurrengoa.

#### BlackBerry kontu elektroniko bat gehitu

BlackBerry kontu elektroniko bat konfiguratzen baduzu (normalean erabiltzailea@<zerbitzu-hornitzailea>.blackberry.com formatuarekin) BlackBerry gailu zahar batean, kontu horretako mezuak BlackBerry 10 gailu berrian jasotzen jarraitzeko, mezua birbidaltzeko helbide bat konfiguratu eta ondoren helbide elektroniko bat gehitu beharko duzu gailuan.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu Posta elektronikoa, egutegia eta kontaktuak.
- 2. Idatzi helbide elektronikoa.
- 3. Kolpatu Hurrengoa.
- 4. Idatzi kontuaren pasahitza.
- 5. Kolpatu Hurrengoa.
- 6. Birbidali pantailan, idatzi mezua birbidaltzeko helbidea.
- 7. Kolpatu Hurrengoa.

**Oharra:** Baliteke 5 eta 15 minutu bitartean behar izatea mezua birbidaltzeko helbidera posta elektronikoa birbidaltzeko.

BlackBerry posta elektronikoa gailuan jasotzeko, ziurtatu posta elektronikoa birbidaltzeko kontua gailuan gehitu duzula.

#### IMAP edo POP posta-kontua gehitu

Ziurtatu posta elektronikoaren zerbitzu-hornitzailearen edo administratzailearen informazio hau ezagutzen duzula:

- Mezularitza zerbitzari mota (POP edo IMAP)
- Sarrerako eta irteerako mezularitza zerbitzariaren helbideak
- Sarrerako eta irteerako mezularitza zerbitzariaren ataka zenbakiak
- Sarrerako eta irteerako mezularitza zerbitzariaren SSL ezarpenak

**Oharra:** IMAP posta-kontuen aktibazio-abiadura areagotzeko, **IMAP bidearen aurrezenbakia** idaztea gomendatzen da. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan administratzailearekin.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 😅 > IMAP edo POP.
- 2. Sartu kontuaren informazioa.
  - BlackBerry gailuak mezu berriak zein maiztasunekin egiaztatzen dituen konfiguratzeko (push posta elektronikoa onartzen ez bada) **Sinkr. tartea** goitibeherako zerrendan, kolpatu aukera bat.
  - Hasieran zure gailuarekin sinkronizatuta dagoen mezu kopurua aldatzeko, hautatu aukera bat **Hasierako** berreskuratze kopurua goitibeherako zerrendan.
- 3. Kolpatu Eginda.

#### CalDAV edo CardDAV kontu bat gehitu

Ziurtatu informazio hau ezagutzen duzula:

- Erabiltzaile-izena eta pasahitza
- Kontuarekin lotutako helbide elektronikoa
- Kontuaren zerbitzari-helbidea

CalDAV edo CardDAV kontu bat gehi dezakezu egutegiko gertaerak edo kontaktuak sinkronizatzeko, hurrenez hurren.

- 1. Gehitu kontua pantailan, kolpatu 📰 > CalDAV edo CardDAV.
- 2. Sartu kontuaren informazioa.

#### 3. Kolpatu **Eginda**.

#### Kontaktuak aplikazioan kontaktu bat gehitu

- 1. Kolpatu Kontaktuak aplikazioko 🖳 .
- 2. Idatzi kontaktuaren informazioa. Eremu gehigarriak eskuratzeko, kolpatu 📺 .
- 3. Laneko kontu bat eta BlackBerry Balance konfiguratuta badituzu zure BlackBerry gailuan, kontaktu bat lan-eremuan gordetzeko, kolpatu pantailaren goialdeko **Lana**. Kontaktuen informazioa gehitzen hasten zarenean, kontaktua eremu pertsonalean gorde dezakezu.
- 4. Kolpatu Gorde.

Aholkua: Kontaktuarentzako kontua edo biltegia aukeratzeko, kolpatu pantailaren goialdean dagoen Gorde hemen botoia. Hautatu kontu edo biltegiratze-toki baten alboko kontrol-laukia.

#### Mikro SIM txartelean eta txarteletik kontaktuak kopiatu

Mikro SIM txartelak kontaktuen izenak eta telefono-zenbakiak gorde. Mikro SIM txartelean eta txarteletik kontaktuak kopiatzean, erraz transferi ditzakezu kontaktuak gailu batetik bestera. Mikro SIM txartela zure BlackBerry gailuan txertatzean, mikro SIM txarteleko kontaktuen zerrendan biltegiratuta dauden kontaktuak ikusi ahal izango dituzu. Mikro SIM txarteleko kontaktuak zure gailuaren memorian kopia ditzakezu, mikro SIM txartela kentzean ere kontaktuak eskuragarri izan ditzazun.

Horrez gain, BlackBerry Link erabil dezakezu, kontaktuen babeskopia egiteko ordenagailuan.

**Oharra:** Gailuan laneko kontua gehitu baduzu eta administratzaileak BlackBerry Balance aktibatu badu, ezin dituzu laneko kontaktuak mikro SIM txartelean kopiatu.

- 1. Kontaktuak aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🔅 .
  - Zure SIM txarteleko kontaktu guztiak zure gailuaren memorian kopiatzeko, kolpatu **Inportatu kontaktuak SIM** txarteletik.
  - Zure gailuko memoriako kontaktu guztiak SIM txartelera kopiatzeko, kolpatu Kopiatu gailuko kontaktuak SIM txartelean.
  - Zure SIM txarteleko kontaktuak ikusi eta zure gailuan zeintzuk kopiatu nahi dituzun erabakitzeko, Kudeatu SIM txarteleko kontaktuak.

#### Kontaktu bat gehitu BlackBerry Hub -etik

- 1. BlackBerry Hub-en, eduki ukituta mezua.
- 2. Kolpatu 🔄.

- Kontaktua dagoeneko badagoen kontaktu-sarrera bati gehitzeko (adibidez, kontaktu bati helbide elektroniko bat gehitzeko), kolpatu zerrendako kontaktu bat.
- Kontaktua kontaktu berri gisa gehitzeko, kolpatu 👤 .
- 3. Kolpatu Gorde.

#### Kontaktu bat gehitu Deiak pantailatik

- 1. Telefonoa aplikazioan, kolpatu 隆 .
- 2. Eduki ukituta telefono-zenbakia.
- 3. Kolpatu 👤.
  - Dagoeneko badagoen kontaktu bati telefono bat gehitzeko, kolpatu zerrendako kontaktu bat.
  - Kontaktua kontaktu berri gisa gehitzeko, kolpatu 👤 .
- 4. Kolpatu Gorde.

#### Kontaktu-txartelaren informazioa kontaktu-zerrendara inportatu

Norbaitek kontaktu-txartel bat (VCard edo .vcf fitxategi gisa ere ezagutzen da) zurekin partekatzen badu, kontaktuinformazio hori BlackBerry gailuko kontaktu-zerrendan gehi dezakezu.

- 1. Kolpatu kontaktu-txartela.
- 2. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Kontaktu-txartelak kontaktu bakarra soilik badu, kolpatu 👤.
  - Kontaktu-txartelak kontaktu ugari baditu, kolpatu Inportatu.

### Kontaktuen ikuspegiak

Kontaktu bat kolpatzen duzunean, zure BlackBerry gailuak kontaktuari buruzko informazio pila erakusten dizu. Zenbait informazioa, hala nola kontaktu baten urtebetetzea, pertsonak lan egiten duen enpresa eta pertsonaren argazkia, zure gailura gehitu dituzun sare sozialetako kontuetatik lortzen da, Twitter edo LinkedIn esate baterako. Bestelako informazioa ere gehitu dezakezu. Hiru fitxa edo ikuspegi daude hori burutzeko.

#### Xehetasunak

Kontaktuen xehetasunen ikuspegi orokorra erakusten du: nola jarri eurekin harremanetan, non lan egiten duten, euren urtebetetzea eta abar. Telefono-zenbakietan edo helbide elektronikoetan kolpa dezakezu kontaktu horiekin harremanetan jartzeko.

#### Eguneratzeak

Ikuspegi honetan kontaktuek Twitter eta Facebook gisako sare sozialetan egin dituzten azken eguneratzeak erakusten dira. Kontaktuen konpainiako izenaren informazioa gehitu baduzu, Eguneratze ikuspegian konpainiari buruzko berriak ere ikusiko dituzu. Eguneratze bat kolpatu sare sozialen aplikazioan edo arakatzailean ikusteko.

#### Ekintza

Ikuspegi honek zure kontaktuekin izandako elkarrekintzak eta etorkizunean izango dituzunak adierazten ditu. Kolpatu ekintza batean zuzenean gertaera horretan sartzeko zure gailuarekin.

### Kontaktuak aldatzea

#### Kontaktuaren argazkia gehitu edo aldatu

- - Gehitu duzun sare sozial batetako kontuko argazki bat gehitzeko, kolpatu erabilgarri dauden argazkietako batean pantailaren goialdean.
  - Argazki-liburutegian gordetako argazki bat erabiltzeko, kolpatu argazkiaren eremuko 💹 . Arakatu argazkia.
  - Argazkia kamerarekin ateratzeko, kolpatu argazkiaren eremuko 🔔 . Kolpatu 📷 . Argazkiak atera Beharrezkoa bada, moztu edo editatu argazkia. Kolpatu **Eginda**.
- 2. Kolpatu Gorde.

#### Kontaktuaren informazioa aldatu

- 1. Kontaktuak aplikazioan, kolpatu kontaktua > 🗾 .
- 2. Egin aldaketak. Eremu gehigarrientzako, kolpatu 📺 .
- 3. Kolpatu Gorde.

#### Kontaktuak ezabatu

- 1. Eduki ukituta kontaktu bat.
- 2. Kolpatu 📺 .

#### Kontaktu bat beste kontu edo biltegiratze-toki batean kopiatu

BlackBerry gailuan kontu bat baino gehiago badituzu, baliteke kontaktu bat kontu hauetako batean edo mikro SIM txartel batan kopiatu ahal izatea.

1. Kontaktuak aplikazioan, eduki ukituta kontaktu bat.

#### 2. Kolpatu 🕥 .

- 3. Hautatu kontu edo biltegiratze-toki baten alboko kontrol-laukia.
- 4. Kolpatu **Eginda**.

### Kontaktu-taldea sortu

Kontaktuak batera taldeka ditzakezu; horrela errazagoa izango da taldeko guztiei mezuak bidaltzea, bilerak konfiguratzea eta fitxategiak partekatzea. Taldeak kontaktu-zerrendan bilatu edo kontaktu-zerrenda iragaz dezakezu, kontaktu-taldeak erakusteko.

- 1. Kontaktuak aplikazioan, kolpatu 🖳 .
- 2. Taldearen izena eremuan, idatzi kontaktu-taldearen izena.
- 3. Kolpatu 👤.
- 4. Hautatu taldean gehitzeko kontaktuak.
- 5. Kolpatu **Eginda**.
- 6. Kolpatu Gorde.

#### Kontaktua kontaktu-taldean gehitu

- 1. Kolpatu Kontaktuak aplikazioko kontaktu-talde bat.
- 2. Kolpatu 🖌 > 🖳.
- 3. Hautatu taldean gehitzeko kontaktuak.
- 4. Kolpatu **Eginda**.
- 5. Kolpatu Gorde.

#### Kontaktu-taldetik kontaktua kendu

- 1. Kolpatu Kontaktuak aplikazioko kontaktu-talde bat.
- 2. Kolpatu 📝 .
- 3. Kolpatu kontaktuaren izenaren alboko 🔀 .
- 4. Kolpatu Gorde.

#### Kontaktu-taldeari izena aldatu

- 1. Kolpatu Kontaktuak aplikazioko kontaktu-talde bat.
- 2. Kolpatu 📝 .
- 3. Taldearen izena eremuan, idatzi taldearen izen berria.

4. Kolpatu Gorde.

### Kontaktuak gogokoetan gehitu

Gogokoetan kontaktu bat gehitzen duzunean, euren argazkia kontaktuen zerrendaren goialdean agertuko da, eurekin azkar konekta zaitezen.

- 1. Kontaktuak aplikazioan, eduki kolpatuta kontaktu bat.
- 2. Kolpatu 🛧 .

### Norbaitekin harremanetan jarri

- 1. Eduki ukituta kontaktu bat.
- 2. Kolpatu kontaktuarekin harremanetan jartzeko modua.

### Kontaktuaren jakinarazpenak pertsonalizatu

Kontaktuentzat pertsonalizatutako jakinarazpenek zehaztutako aplikazioei ezarritako jakinarazpenak gainidatziko dituzte. Adibidez, kontaktu baten telefono-jakinarazpenak soinua aktibatuta badu, baina telefonoaren soinua desaktibatzen bada, telefonoak jotzen jarraituko du kontaktuak deitzen badizu.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🕵 Ezarpenak > Jakinarazpenak.
- 3. Kolpatu Jakinarazpenak pantailaren behealdeko Kontaktuak aukera.
- 4. Kolpatu 👤.
- 5. Kolpatu kontaktu bat.
- 6. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Kolpatu Telefono-deiak.
  - Kolpatu Mezu elektronikoak.
  - Kolpatu **BBM**.
  - Kolpatu Testu-mezuak.
  - Kolpatu Bestelako mezularitza. Bertan, Facebook, Twitter edo LinkedIn gisako aplikazioak aurki daitezke.
- 7. Aldatu Tonua, Bibrazioa, LEDa edo Istanteko aurrebistak ezarpenak.
- 8. Kolpatu 【 Kontaktuen jakinarazpenak pantaila agertu arte.

Jakinarazpen pertsonalizatuak ezarri dizkiezun kontaktuak Kontaktuen jakinarazpenak pantailan zerrendatzen dira.

### Kontaktuan dei-tonu pertsonalizatuak zehaztu

- 1. Kolpatu Kontaktuak aplikazioko kontaktu bat.
- 2. Kolpatu 📝 .
- 3. Kolpatu Editatu kontaktua pantailaren behealdeko Dei-tonua eta jakinarazpenak.
- 4. Kolpatu jakinarazpen mota eta egin aldaketak.
- 5. Kolpatu Atzera.
- 6. Kolpatu Gorde.

### Kontaktuak bilatu

BlackBerry gailuko beste aplikazio batzuk bezala, Kontaktuak aplikazioak bila zabiltzan kontaktua aurkitzen lagun diezazukeen bilaketa-eginbidea du.

Kolpatu Kontaktuak aplikazioko 🔍 .

- Kontaktu-zerrendako kontaktuak bilatzeko, hasi bere izena idazten. Kontaktua agertzen denean, kolpatu kontaktua.
- Kontaktuak urruneko helbide-liburuan aurkitzeko (adibidez, enpresako helbide-liburuan), idatzi kontaktuaren izena. Kolpatu **Urruneko bilaketa**.

### Kontaktuak iragaztea

Kontaktuen zerrendan zein kontaktu ikusten diren aldatzeko modu ugari daude.

#### Kontaktuak kontuaren edo motaren arabera ikusi

Kontaktuen zerrenda azkar iragaz dezakezu kontaktu jakin batzuk ikusteko (adibidez, BBM edo kontaktu-taldeak).

- 1. Kolpatu Kontaktuak aplikazioko 🔲 .
- 2. Kolpatu ikusi nahi duzun kontaktu mota.

#### Kontaktu sorta ezkutatu

Erabat ken dezakezu kontu mota kontaktuen zerrendatik. Adibidez, Twitter-en, batez ere pertsonaia ezagunak jarraitzen badituzu, baliteke kontaktuen zerrendan ez ikusi nahi izatea.

- 1. Kontaktuak aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🔅 .

3. Erakutsi kontua kontaktuen zerrendan atalean, Desaktibatu kontuaren ondoan agertzen den eremua.

### Kontaktuak antolatu

Besterik adierazi ezean, kontaktuak izenaren arabera antolatzen dira, baina abizenaren edo enpresaren arabera ere antola ditzakezu.

- 1. Kontaktuak aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🔅 .
- 3. Ordenatu kontaktuak honela goitibeherako zerrendan, kolpatu ordenatzeko aukera bat.

### Kontaktuak partekatu

Kontaktuaren xehetasunak besteekin partekatzeko, .vcf formatua erabil dezakezu. Bisita-txartela ematearen antzeko zerbait da, baina digitalki.

- 1. Kontaktuak aplikazioan, eduki kolpatuta kontaktu bat.
- 2. Kolpatu 🔍.

### Arazoak: Kontaktuak

#### Nire kontaktuak ez dira automatikoki bateratu

BlackBerry gailuak automatikoki bateratzen ditu kontaktuak, kontaktu horiek pertsona bera dela argi dagoenean (adibidez, izen eta abizen bera, telefono mugikorraren zenbaki bera, BlackBerry ID ID bera eta abar dituztenean). Halere, sarrera bikoiztuak ikusten badituzu kontaktuen zerrendan, kontaktu horiek sarrera bakarrera batera ditzakezu.

- 1. Kontaktuak aplikazioan, eduki kolpatuta kontaktu bat.
- 2. Kolpatu 🔽.
- 3. Kolpatu bateratu nahi dituzun kontaktuak.
- 4. Kolpatu 🛄.

#### Batzuetan nire kontaktuen argazkiak aldatu egiten dira

Sare sozial baten kontua gehitu baduzu zureBlackBerry gailuan eta profileko argazki bat erabiltzen baduzu kontaktu baten argazki moduan, zure kontaktuaren argazkia aldatu egingo da kontaktu horrek bere profileko argazkia aldatzen duenean.

# Erlojua

### Erlojua begiratu batean



Erlojua aplikazioak lau pantaila ditu. Alarmaren pantailan, alarmak aktibatu edo desaktiba ditzakezu, alarmaren ordua ezarri eta hainbat alarma gehi ditzakezu. Munduko erlojua pantailan, munduko beste toki batzuetako ordua ikus dezakezu. Kronometroa erabili eta tenporizadorea ere ezar dezakezu Erlojua aplikazioan.

## Erlojuaren itxura aldatu

- 1. Erlojua aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🌣 .
- 3. Sakatu **Erlojuaren itxura** goitibeherako zerrenda.
- 4. Kolpatu erloju-esferaren itxura.

### Alarma ezartzea

#### Alarma ezarri

- 1. Kolpatu 💟.
- 2. Ezarri Alarma I aukeran.
- 3. Eduki ukituta erlojuaren kanpoaldeko markagailua.
- 4. Biratu markagailua erlojuaren inguruan nahi duzun ordua ezartzeko.
- 5. Alarmaren ordua gordetzeko, kolpatu edonon pantailan.

Aholkua: Markagailuak bost minutuka gehitzeko aukera ematen du. Alarmak minutu jakin batean jotzeko, kolpatu pantailaren behealdeko alarmaren ordua. Kolpatu Alarmaren ordua goitibeherako zerrenda eta korritu gora edo behera, alarma ezartzeko ordua doitzeko.

#### Alarma osagarriak ezarri

Egun berean jotzeko hainbat alarma ezar ditzakezu edo egun desberdinetan eta ordu desberdinetan jotzeko alarma osagarriak ezar ditzakezu. Ezarri dituzun alarmen jarraipena egiteko izena jar diezaiekezu eta alarma-tonu, errepikapen eta atzeratze-iraupen desberdina ere ezar diezaiokezu alarma bakoitzari.

- 1. Kolpatu 💟.
- 2. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Alarma bakarra ezarrita baduzu, kolpatu 🔯 .
  - Dagoeneko bi alarma edo gehiago ezarrita badituzu, kolpatu 🔄 > 🔯 .
- 3. Idatzi alarmaren izena.
- 4. Ezarri alarmaren ordua, tonua eta atzeratzeko iraupena.
- 5. Kolpatu Gorde.

**Aholkua:** Alarma ugari ezarri dituzunean, alarmen orduak azkar doi ditzakezu erlojuaren esferaren kanpoko orratzetako edozein ukituta mantenduta eta erlojuaren esferan nahi duzun ordura irristatuta.

### Alarma osagarriak kudeatu

- 1. Kolpatu 💽 > 🖭 .
- 2. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Alarma aktibatu edo desaktibatzeko, hautatu Aktibatuta edo Desaktibatuta.

- Alarmaren izena, ordua, tonua, errepikapena edo atzerapen-iraupena aldatzeko, kolpatu alarma.
- Alarma ezabatzeko, eduki ukituta alarma. Kolpatu 📺 .

#### Alarmaren tonua aldatu

- 1. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Alarma bat ezarrita baduzu, kolpatu 🛜 .
  - Alarma ugari badituzu ezarrita, kolpatu 🔛 .
- 2. Kolpatu alarma bat.
- 3. Sakatu Alarmaren tonua.
- 4. Hautatu alarma-tonuen aukeretako bat.

Aholkua: BlackBerrygailuan gehitu edo hara deskargatu duzun musika erabiltzeko, kolpatu 🕂 .

#### Ezarri alarma hainbat egunetarako

- 1. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Alarma bat ezarrita baduzu, kolpatu 💽 .
  - Alarma ugari badituzu ezarrita, kolpatu 🔛 .
- 2. Kolpatu alarma bat.
- 3. Sakatu Errepikapena.
  - Eguneroko alarma ezartzeko, hautatu Aktibatuta Egunero etengailuan.
  - Egun zehatzetarako alarma bat konfiguratzeko, hautatu egun bat edo gehiago aukeratzeko kontrol-laukia.

#### Errepikapena konfiguratu

- 1. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Alarma bat ezarrita baduzu, kolpatu 💟.
  - Alarma ugari badituzu ezarrita, kolpatu 📴 .
- 2. Kolpatu alarma bat.
- 3. Sakatu Errepikatu.
- 4. Denbora luzera hautatu.

### Kronometroa

- 1. Sakatu ⊘ .
- 2. Sakatu **Hasi**.
- 3. Itzuli berri bat hasteko, sakatu Itzulia.

# Tenporizadorea

#### Tenporizadorea konfiguratu

- 1. Sakatu 🖉 .
- 2. Eduki ukituta erlojuaren kanpoaldeko markagailua.
- 3. Biratu markagailua erlojuaren inguruan nahi duzun ordua ezartzeko.
- 4. Sakatu **Hasi**.

**Aholkua:** Markagailuak tenporizadorea minutuka gehitzeko aukera ematen du. Tenporizadorea minutu eta segundo zehatz batean ezartzeko, kolpatu erlojuaren esferaren erdian agertzen den denbora. Gora eta behera mugitu tenporizadorearen orduak, minutuak eta segundoak konfiguratzeko.

### Aldatu tenporizadorearen tonua

- 1. Sakatu 🖉 .
- 2. Erlojuaren erdian, sakatu denbora.
- 3. Sakatu Kontagailuaren tonua.
- 4. Sakatu kontagailuaren tonua.

Aholkua: Zure BlackBerrygailuan gehitu edo deskargatu duzun musika erabiltzeko, sakatu Gehitu musika.

# Munduko erlojua

Maiztasunez bidaiatzen baduzu eta lagunak eta senitartekoak badituzu munduko leku desberdinetan, hiriak gehi ditzakezu zure munduko erlojuaren pantailan, munduko hiri desberdinetan zein ordu den ikusteko.

### Hiriak gehitu munduko erlojuaren pantailan

1. Sakatu 🕥.

- 2. Sakatu Gehitu.
- 3. Idatzi kokapena.
- 4. Sakatu hiri bat.

Aholkua: Munduko erlojuaren pantailan hiri bat gehitu ostean, kolpatu hiriaren izena, bertako eguraldia ikusteko.

#### Hiri bat munduko erlojuaren pantailatik ezabatu

- 1. Kolpatu 🕥.
- 2. Eduki ukituta hiria.
- 3. Kolpatu hiriaren alboko 📺 .

### Ohe modua aktibatu

Ohe-modua aktibatuta dagoenean, ez zaizu jakinaraziko edo ez zaizu mezu berrien berri emango, baina ezarri dituzun alarmak joko dute eta BlackBerry gailuak denbora bistaratuko du, ahul piztuta. Horrez gain, ohe-moduan dagoenean, telefono-deiak soilik entzuteko aukera ezar dezakezu.

- 1. Erlojua aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🛃 .

**Aholkua:** Ohe moduan alarmako jotzen duenean, pantailako edozein tokitan sakatu dezakezu alarma errepikatzeko. Ohe moduko alarma desaktibatzeko, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.



#### Ohe moduko ezarpenak aldatu

Besterik adierazi ezean, jakinarazpen guztiak isildu egingo dira ohe moduan eta hari gabeko konexioak aktibatuta mantenduko dira. Ohe moduan zaudenean, telefono-deiak soilik entzutea aukeratu edo hari gabeko konexio guztiak desaktibatzea aukera dezakezu.

- 1. Erlojua aplikazioan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🔅 .
- 3. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Ohe moduan telefonoa soilik aktibatzeko, hautatu I Telefono deiak ohe moduan etengailuan.
  - Ohe moduan hari gabeko konexio guztiak desaktibatzeko, hautatu **O Hari gabeko konexioak ohe moduan** etengailuan.

# Kalkulagailua

### Kalkulagailua begiratu batean



### Kalkulagailua erabiltzen

### Aldatu kalkulagailu zientifikora edo estandarrera

Erabiltzen duzun kalkulagailu mota alda dezakezu zure BlackBerry gailuan hatza ezkerrera eta eskuinera irristatuz.

Kalkulagailua pantailan, irristatu hatza eskuinera edo ezkerrera teklatuan.

### Bihurtu neurri-unitate bat

Zure BlackBerry gailuko kalkulagailua erabil dezakezu neurri-unitate bat beste bate bihurtzeko. Kalkulagailuak neurriunitate eta mota desberdin ugari ditu unearen arabera izan ditzakezun beharrak betetzeko, beraz, ez diozu egiten ari zarenari utzi beharrik izango neurriak bihurtzeko.

#### 1. Sakatu Bihurgailua.

- 2. Hautatu neurri mota bat, bihurtu nahi den unitatea eta zein unitatetara bihurtu nahi den.
- 3. Idatzi bihurtu nahi duzun balioa.

#### Kalkulatu eskupekoa

Jatetxe batean bazaude eskupekoen kalkulagailua erabil dezakezu, zenbateko eskupekoa utzi behar den kalkulatzeko. Zure kalkuluak pertsonaliza ditzakezu kontua ordainduko duen pertsona kopurua eta kontuaren zenbateko portzentajeko eskupekoa utziko duzun zehazteko. Eskupekoen kalkulagailuan pertsona bakoitzak zenbat ordainduko duen kalkula dezake, kontua mahaian zaudeten pertsonen artean modu errazean banatzeko.

- 1. Sakatu Eskupekoa.
- 2. **Faktura** eremuan idatzi kontuaren zenbatekoa guztira.
- 3. Beharrezkoa bada, aldatu eskupeko edozein aukera gehigarri.

#### Ikusi zure aurreko kalkuluak

Aurretik egindako kalkuluak ikusteko, irristatu hatza beherantz emaitza eremuan.

Zure aurreko kalkulu guztiak garbitzeko, sakatu m .

# Arakatzailea

### Internet arakatzea

#### Arakatzailea begiratu batean

Handiagotzeko, urrundu hatzak bata bestearengandik edo sakatu bi aldiz

Handiagotutako edo txikiagotutako orrialdearen panoramika ateratzeko, irristatu hatza pantailan.



Sakatu ezarpenak eta aukerak bistaratzeko (Irakurketa modua aktibatu web orriak errazago ikusteko, orria aurkitu, orria markatu edo orria posta elektroniko, BBM eta gehiagoren bidez partekatzeko)

#### Webguneetara joan

Ireki

laster-markak, historia eta fitxak

- 1. Idatzi web-helbidea edo bilatzeko terminoa Arakatzailearen behealdeko helbide-barran.
- 2. Sakatu **Joan**.

#### Uneko bilatzailea aldatu

Bilatzailea aldatu ostean, BlackBerry arakatzailea-(e)k bilatzaile berria erabiltzen jarraituko du, berriro aldatzen duzun arte.

- 1. Arakatzailea-(e)an bilaketa-termino bat idazten ari zaren bitartean, kolpatu bilatzailearen ikonoa pantailaren goiezkerreko ertzean.
- 2. Kolpatu erabili nahi duzun bilatzailea.

#### Arakatzailea fitxak erabiltzen

Ordenagailuko arakatzailean bezala, fitxetan hainbat webguneetan ireki eta fitxa batetik bestera azkar alda zaitezke.

#### Fitxa berriak ireki

- 1. Arakatzailea ikuspegian, kolpatu 🗇 .
- 2. Sakatu 🗖 .

Aholkua: Itxi fitxa amaitzen duzunean Arakatzailearen errendimendua hobetzeko.

#### Fitxa batetik bestera aldatu

- 1. Arakatzailea ikuspegian, kolpatu 📋 .
- 2. Sakatu fitxa bat.

#### Fitxak itxi

- 1. Arakatzailea ikuspegian, kolpatu 📋 .
- 2. Itxi nahi duzun fitxaren alboan, kolpatu 🗙 .



### Estekak fitxa berrietan ireki

- 1. Arakatzailean, eduki ukituta mezua.
- 2. Sakatu 🧾 .

### Estekak edo argazkiak partekatu

Webguneko elementuak posta elektroniko, testu-mezu, Facebook, Twitter, BBM eta hainbat aplikazioren bidez parteka ditzakezu..

BlackBerry arakatzailea-n gauzatu ekintza hauetako bat:

- Begiratzen ari zaren web-orria partekatzeko, sakatu 🚺 > 💱 .
- Esteka edo argazki bat partekatzeko, eduki ukituta esteka edo argazkia. Kolpatu 💱 .

#### Bilatu testua web-orri batean

Web-orrian, sakatu 📄 > 📿 .

#### Web-orriak erraz irakurtzeko formatuan ikusi

Artikuluak edo web orrian irakurtzen laguntzeko eta arreta galarazten duten iragarki gisako anabasak kentzeko, erabili irakurgailu modua.

Web-orrian, kolpatu 🔅 > 📳 .

#### Irakurgailu moduko testuaren tamaina aldatu

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Testuaren tamaina handitzeko, sakatu A.
- Testuaren tamaina txikitzeko, sakatu 💦 ikonoa.

#### Irakurgailu modu atzealdeko kolorea aldatu

Kolpatu : > 🗚 .

#### Deskargatu dituzun fitxategiak aurkitu

BlackBerry arakatzailea-(e)tik fitxategi bat deskargatutakoan, deskargen kudeatzailera joan zaitezke berriro bilatu, ireki edo partekatzeko.

Arakatzailea-(e)an, sakatu 🚺 > 💾 .

#### Deskargatutako fitxategien zerrenda garbitu



#### Gogokoen web-orrien laster-markak egin

Web-orrian, kolpatu 👔 > 📩 .

### Hasierako pantailan webguneak gehitu

Webgune baterako lasterbidea hasierako pantailan, arakatzailea ireki beharrik gabe, zuzenean webgunera joateko sortu dezakezu.

Web-orrian, sakatu 🚦 > 🏠 .

#### Web-orria gorde

Web-orria HTML formatuak gorde dezakezu; horrela, lineaz kanpo zaudenean web-orrian sar zaitezke edo eranskin gisa bidal dezakezu.

- 1. Web-orrian, kolpatu : > 🕒 .
- 2. Aukeratu web-orria nahi duzun toki.

#### Arakatzailea ezarpenak aldatzea

#### Arakatzailearen hasierako pantaila pertsonalizatu

BlackBerry arakatzailea lehenengo aldiz irekitzen duzunean ikusten duzuna alda dezakezu. Hasierako orri jakin bat ezarri, duela gutxi edo maiz bisitatzen dituzun web-orrien miniaturak erakutsi edo aurreko Arakatzailearen saioan irekita zeuden web-orriak ireki ditzakezu.

- 1. Arakatzailean, kolpatu 🔅 > 🗱 > Pantaila eta ekintzak.
- 2. Kolpatu Abiaraztean erakutsi goitibeherako zerrenda.
  - Hasierako orri jakin bat ezartzeko, kolpatu Nire hasierako orria. Idatzi web-helbide bat.
  - Duela gutxi edo maiz bisitatzen dituzun web-orrien miniaturak erakusteko, kolpatu Fitxa-orri berria.
  - Arakatzailearen aurreko saioko web-orriak irekitzeko, kolpatu Azkeneko nire fitxak.

#### Aktibatu Adobe Flash laguntza

- 1. Arakatzailean, kolpatu 🔅 > 🔅 > Pantaila eta ekintzak.
- 2. Ezarri Adobe Flash I aukeran.

### Laster-markak eta historia

#### Gogokoen web-orrien laster-markak egin

Web-orrian, kolpatu 🚺 > 🙀 .

#### Arakatzailearen laster-markak ikusi

BlackBerry arakatzailean, kolpatu 📋 > ★ .

#### Laster-markak etiketen arabera edo zerrendan ikusi

- 1. Arakatzailean, kolpatu 🗇 >  $\bigstar$ .
- 2. Kolpatu 🗨 edo 📰 .

#### Laster-markak antolatzea

Ideia ona da zure laster-markak antolatuta edukitzea aurkitu nahi dituzun webguneak errazago bila ditzazun.

#### Laster-markak aldatu

Laster-markaren izena edo web-helbidea alda dezakezu.

- 1. Arakatzailean, kolpatu 🗇 >  $\bigstar$  .
- 2. Eduki sakatuta laster-marka bat.
- 3. Sakatu ★ .
- 4. Idatzi izen berria edo webgunearen helbidea.

#### Laster-marka etiketa gehitu, berrizendatu edo ezabatu.

Laster-markek sailkatzeko etiketak sailkatzen laguntzen dizute, errazago aurkitu ahal izateko. Adibidez, albisteekin lotutako laster-marka guztiak "Albisteak" gisa etiketatu nahiko duzu edo gogoko blog guztiak "Blogak" gisa.

#### Arakatzailean, kolpatu 🗇 > ★ .

- Etiketa bat gehitzeko, eduki ukituta laster-marka. Kolpatu 🐆 . Gehitu etiketak eremuan, idatzi etiketaren izena.
- Etiketa baten izena aldatzeko, kolpatu 🤕 . Eduki ukituta etiketa. Kolpatu 👰 . Idatzi etiketaren izen berri bat.
- Laster-marka batetik etiketa bat ezabatzeko, eduki sakatuta laster-marka bat. Sakatu 😾 . Sakatu etiketa bat.
• Etiketa baten instantzia guztiak aldatzeko, kolpatu 🤕 . Eduki ukituta etiketa. Kolpatu 🍿 .

### Laster-markak ezabatu

- 1. Arakatzailean, kolpatu 🗇 > ★ .
- 2. Eduki ukituta laster-marka bat.
- 3. Sakatu 💼 .

### Arakatze-historia ikusi

- 1. Arakatzailea-n, web-orri batean, kolpatu 📋 .
- 2. Kolpatu 🕒 .

Arakatze-historia ixteko, kolpatu 🔀 .

Aholkua: Historiako web-orri bat ikusteko, eduki ukituta web-orriko 🔀 , historia agertu arte.

### Arakatze-historia ezabatu

- 1. Arakatzailea ikuspegian, kolpatu 📋 .
- 2. Kolpatu 🕑 .
  - Arakatze-historia osoa ezabatzeko, kolpatu 📺 .
  - Arakatze-historiako web-orri jakin bat ezabatzeko, eduki ukituta web-orriaren miniatura. Kolpatu 📺 .

## Segurtasunez arakatzea

### Webguneko ziurtagiriei buruz

Webgunea legezkoa den egiaztatzeko, ziurtagiriak erabiltzen dira. Segurtasun gehiago behar duten webguneek (adibidez, banku-guneak) ziurtagiriak erabiltzen dituzte autentifikazioa frogatzeko. Webguneak ziurtagiri bat badu, ziurtagiri-ikonoak web-helbidearen barraren alboan agertzen dira.

### Webguneko ziurtagiri-ikonoak

Ikonoa	Deskribapena
	Webgunearen identitatea egiaztatu du aginpide ziurtagiri emaile baten ziurtagiria egiaztatuz.

Ikonoa	Deskribapena
	Webgunearen identitatea autoritate ziurtagiri-emaile baten domeinu-egiaztatze ziurtagiri baten bidez.
	Webgunearen zenbait zati seguruak dira, beste batzuk ordea ez.
0	Baliteke webgunea ziurra ez izatea ziurtagiria ezezaguna delako.

### Arakatzailean segurtasun-ezarpenak aldatu

Arakatzailea-(e)an, kolpatu 🔅 > 🔯 > Pribatutasuna eta segurtasuna.

### Segurtasun-ezarpenak

### Kendu historiako elementuak

Zehaztu BlackBerry gailuak zenbatean behin ezabatzen duen BlackBerry arakatzailea aplikazioaren historiako informazioa.

### Arakatze pribatua

Mantendu zure arakatze-informazioa (historia, cachedun fitxategiak, cookie-ak...) arakatze-saioa irekita dagoen bitartean soilik. Arakatzailea itxitakoan, informazioa automatikoki ezabatuko da.

### Popup-ak blokeatu

Aukeratu arakatze-saioan popup leihoak onartuko ote diren.

### Onartu cookieak

Utzi webguneei cookie-ak erabiltzen, webgunearen eta Arakatzailea aplikazioaren artean informazioa bidali eta jasotzeko. Cookie-ak lagungarriak izan daitezke, zure lehentasunei eta erabiltzaile-informazioari buruzko informazioa gogoratu baitezakete, baina cookie-ek, segurtasuna arriskuan jar dezakete ere.

### Garbitu cookieak eta bestelako datuak

Gordetako Arakatzailea informazio guztiak garbitu

### Garbitu historia

Garbitu Arakatzailearen historia.

### Aldatu baimenak webgune zehatzetarako

Internet arakatzen duzun bitartean, baliteke baimenak eman behar izatea webguneek zure informazioa izan dezaten, adibidez zure kokalekuarena. Baimen horiek edozein unetan ezaba ditzakezu.

- 1. Arakatzailean, kolpatu 🔅 > 🐼 > Gunearen baimenak.
- 2. Sakatu webgunea. Sakatu Editatu.
- 3. Sakatu 🗙 ezabatu nahi dituzun baimenen alboan.

4. Sakatu Eginda.

## Arazoak:Arakatzailea

## Ezin du bideorik linean ikusi

BlackBerry gailuan webguneko bideo ugari zuzenean erreproduzi baditzakezu ere, zenbait bideo-formatu ez dira onartzen eta zenbait webgunek edukia blokeatzen dute gailu mugikorrean ez ikusteko. Onartutako bideo formatuei buruzko informazio gehiagorako, joan Laguntza eremura.

# Etiketa adimendunak

## Etiketa adimendunak aplikazioaren azalpena

Etiketa adimendunak aplikazioak informazio zatiak hartu eta informazio hori etiketa adimenduetan bihurtzen du. Informazioan testuak, webguneak eta bestelako URIak, telefono-zenbakiak, helbide elektronikoak eta konexio-informazioa egon daitezke. Etiketa adimendun bat NFC etiketa batean kopia dezakezu, QR Code gisa bistara dezakezu edo etiketa adimenduna zuzenean beste BlackBerry gailu batera pasa dezakezu. Etiketa adimendunak aplikazioak aukera ematen dizu jasotzen dituzun etiketa adimendunak gorde eta erabiltzeko edo gerorako uzteko.

Enpresa-txartelak banatu beharrean, zergatik ez duzu zeure txartel adimenduna sortzen, telefono-zenbakiarekin eta helbide elektronikoarekin. Horrela, hartzaileek klik bakar batekin deitu, testu-mezu bat idatzi edo mezu elektroniko bat bidaltzeko aukera izango dute. Gertaera bat duzu laster? Saiatu gertaeraren informazioa biltzen duen etiketa adimenduna egiten eta, ondoren, kopiatu etiketa adimenduna idatzi daitekeen NFC etiketa batera eta erantsi etiketa hori gonbidatuentzako opari txiki bati.

Baliteke BlackBerry gailu modeloan NFC eginbidea erabilgarri ez egotea zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen edo zure administratzailearen ezarpenen arabera.

# QR Code, barra-kode edo NFC etiketa bat eskaneatu

Baliteke BlackBerry gailu modeloan NFC eginbidea erabilgarri ez egotea zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen edo zure administratzailearen ezarpenen arabera.

Etiketa adimendunak aplikazioa erabiliz, QR Code edo barra-kode bat eskaneatzen duzunean, gailuak etiketa adimendun gisa gordeko du informazio hori.

NFC etiketa bat eskaneatzen duzunean, gailuak dagokion aplikazio motan irekitzen du informazioa. Informazioa etiketa adimendun gisa gorde dezakezu. Horretarako, ireki Etiketa adimendunak aplikazioa, NFC etiketa eskaneatu baino lehen.

Egin hauetako bat:

- QR Code edo barra-kode bat eskaneatzeko, ireki Etiketa adimendunak aplikazioa. Kolpatu 🎆 . Kolpatu 🎆 edo 🎹 . Mantendu gailua, QR Code edo barra-kodearen lau izkinak pantailan agertzeko.
- NFC etiketa bat eskaneatzeko, sakatu gailuaren atzealdea NFC etiketaren kontra.



### Gailutik etiketa adimendunak ezabatu

- 1. Etiketa adimendunak aplikazioan, nabarmendu ezabatu nahi duzun etiketa bat edo gehiago.
- 2. Sakatu 📺 .

# Sortu zure etiketa adimendua

Baliteke BlackBerry gailu modeloan NFC eginbidea erabilgarri ez egotea zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen edo zure administratzailearen ezarpenen arabera.

Zeure etiketa adimendunak sor ditzakezu beste gailu batzuekin partekatzeko, NFC etiketa batean gordetzeko edo QR Code gisa bistaratzeko.

- 1. Etiketa adimendunak aplikazioan, sakatu 🕀 .
- 2. Sakatu etiketa mota bat.
- 3. Pantailan agertzen diren eremuetan, idatzi beharrezko informazioa.

**Aholkua:** Etiketa ugari batera taldeka ditzakezu. Eduki sakatuta lehendik dagoen etiketa bat. Kolpatu **Gehitu**. Errepikatu etiketa sortzeko 2. eta 3. urratsa.

## Etiketa adimendu motak

### Webgunea

Irekitzean, erabili webgune batera eramango zaituen etiketa adimendu bat sortzeko.

### Disparadore adimendunak

Erabili NFC etiketa batean idatzi eta kolpatzen denean, BlackBerry gailuko hainbat ezarpen dispara ditzakeen etiketa adimenduna sortzeko.

### Wi-Fi

Erabili NFC etiketa batean idatzi eta kolpatzen denean, Wi-Fi sareko jakin batera konektatzen duen etiketa adimenduna sortzeko.

### Bluetooth-a

Erabili NFC etiketa batean idatzi eta kolpatzen denean, Bluetooth-a gaitutako gailu jakin batera parekatzen duen etiketa adimenduna sortzeko.

### Kontaktua

Erabili, irekitzen denean, kontaktuaren informazioa Kontaktuak aplikazioan gehitzen duen etiketa adimenduna sortzeko.

### Gertaera

Erabili, irekitzen denean, Egutegia aplikazioan hitzordu bat sortzen duen etiketa adimenduna sortzeko.

### Geokokapena

Erabili, irekitzen denean, Mapak aplikazioan argibideak bilatzen dituen etiketa adimenduna sortzeko.

### Telefonoa

Irekitzean, erabili telefono zenbakira deitzeko etiketa adimendu bat sortzeko.

### Posta elektronikoa

Irekitzean, erabili posta elektroniko bat idatziko duen etiketa adimendu bat sortzeko. Etiketa sortzen duzunean Gaia eta Mezua eremuak bete ditzakezu etiketa irekitzean eremuak beteta egon daitezen edo nahi izanez gero bete gabe utz ditzakezu.

### Testu-mezua

Irekitzean, erabili testu mezu bat idatziko duen etiketa adimendu bat sortzeko. Etiketa sortzen duzunean Mezua eremua bete dezakezu etiketa irekitzean eremua beteta egon dadin edo nahi izanez gero bete gabe utz dezakezu.

### Testua

Erabili mezua bistaratuko duen etiketa adimendu bat sortzeko.

### Beste bat

Erabili URI-aren (Uniform Resource Identifier) bidez identifikatzeko gai den etiketa adimendu bat sortzeko. Adibidez,BlackBerry gailuarentzako aplikazio propioa sortu baduzu, etiketa mota hau erabil dezakezu zure aplikaziorako etiketa adimendua sortzeko.

# Ezarri etiketa adimendua gogoko moduan

Etiketa adimenduak errazago aurkituko dituzu gogoko bihurtzen badituzu.

- 1. Etiketa adimendunak aplikazioan, aurkitu eta nabarmendu gogoko egin nahi duzun etiketa.
- 2. Sakatu 📩 .

### Etiketa adimendu gogokoak ikusi

Etiketa adimendunak aplikazioan, kolpatu 🏢 > ★ .

# Etiketa adimenduna partekatu

Baliteke BlackBerry gailu modeloan NFC eginbidea erabilgarri ez egotea zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen edo zure administratzailearen ezarpenen arabera.

Etiketa adimendunak aplikazioan, nabarmendu etiketa.

- Etiketa adimenduna beste gailu batek eskanea dezan, QR Code gisa bistaratzeko, kolpatu 🔛 .
- Etiketa adimendua mezu baten bidez partekatzeko, posta elektronikoa edo testu-mezua esate baterako edo etiketa adimendua aplikazio baten bidez partekatzeko, BlackBerry Remember adibidez, sakatu 💱 . Sakatu mezu mota edo aplikazioa.
- Etiketa adimendua NFC gaituta duen beste BlackBerry gailu batera bidaltzeko, sakatu V > NFC. Parekatu gailuen atzeko aldeak.
- Etiketa adimendua NFC etiketa adimendu batera kopiatzeko, sakatu 🔊 . Jarri zure gailua NFC etiketaren kontra.

**Aholkua:** NFC etiketak pegatina moduan saltzen dira askotan. Zure etiketa adimendua NFC pegatina etiketa batean kopiatzeko zure etiketa adimenduak ia edozein tokitan itsatsi ahal izango dituzu.

### Etiketa adimendua blokeatu

Baliteke BlackBerry gailu modeloan NFC eginbidea erabilgarri ez egotea zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen edo zure administratzailearen ezarpenen arabera.

Etiketa adimendu bat espazio publiko batean jarri eta NFC etiketa aldagarri batera kopiatu nahi baduzu, zur NFC etiketa blokeatu beharko zenuke faltsutzea saihesteko. NFC etiketa blokeatuta dagoenean ezin da desblokeatu, aldatu edo ezabatu.

- 1. Etiketa adimendunak Aplikazioan, sakatu 🚺 > 🔃 .
- 2. Lerrokatu zure BlackBerry gailuaren atzealdea etiketarekin.

# Etiketa adimendunaren titulua aldatu

- 1. Etiketa adimendunak aplikazioan, eduki sakatuta etiketa adimenduna.
- 2. Kolpatu 📝 .
- 3. Idatzi titulua.
- 4. Kolpatu Gorde

# Ezabatu etiketa adimendu baten informazioa NFC etiketa batetatik

Baliteke BlackBerry gailu modeloan NFC eginbidea erabilgarri ez egotea zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen edo zure administratzailearen ezarpenen arabera.

NFC etiketa ez badago blokeatuta, biltegiratu duen etiketa adimenduaren informazioa ezaba dezakezu bertatik.

- 1. Etiketa adimendunak Aplikazioan, sakatu 🚺 > 🔃 .
- 2. Lerrokatu zure BlackBerry gailuaren atzealdea NFC etiketarekin.

# Ahots-kontrola

# BlackBerry ahots-kontrola aplikazioa erabiliz

Ahots-kontrola aplikazioak, egiteko anitzak erraztu ditzake ekintza eta egiteko ugari zure ahotsaren bidez egitea ahalbidetuz. Aplikazio jakin batetik nabigatu beharrean, irekin Ahots-kontrola aplikazioa eta eman argibideak. Ahots-kontrola aplikazioa erabil dezakezu, ekintza hauek egiteko:

- Deitu.
- Bidali posta elektroniko bat, testu-mezu bat edo BBM mezu bat.
- Bilatu Interneten zure BlackBerry gailutik.
- Erreserbatu bilerak eta hitzorduak.
- Gogorarazleak konfiguratu.
- Aldatu zureFacebook egoera edo tweet bat argitaratu.
- Gorde oharrak eta memorandumak BlackBerry Remember-(e)an.
- Alarma ezarri.
- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko, egin ekintza hauetariko bat:

- Hasierako pantailan, sakatu Ahots-kontrola ikonoa
- Eduki sakatuta gailuaren eskuinaldeko Mututu tekla.
- 2. Bip soinuaren ondoren, esan argibidea.

## Telefono deia egin Ahots-kontrola aplikazioarekin

Ahots-kontrola aplikazioa erabiliz, telefono deiak egin ditzakezu telefono zenbakia esanez, edo zure Kontaktuak aplikazioan norbaiten izena esanez.

### Zenbaki bat markatu

- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko sakatuta eduki **Mututu** tekla zure BlackBerry gailuko eskuin aldean.
- 2. Soinua entzutean, esan "markatu" eta ondoren esan deitu nahi duzun zenbakia.

### Deitu kontaktu bati

- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko sakatuta eduki Mututu tekla zure BlackBerry gailuko eskuin aldean.
- 2. Bip soinuaren ondoren, esan argibidea. Adibidez "deitu Maite Beitia-ri". Kontaktu batek telefono-zenbaki bat baino gehiago baditu, zein telefono-zenbakira deitu nahi duzun zehaztu dezakezu. Adibidez, esan "Deitu Mikel-i lanera".

### Ahots-kontrola aplikazioaren bidez bilatzen.

Bilaketa baldintzak zehazten dituzunean, Ahots-kontrola aplikazioak automatikoki bilatuko du BlackBerrygailuan zure eskaera lehenengo. Interneten bilatzeko aurretik zure gailuan bilatu gabe, zehaztu zure bilaketa Interneten egin nahi duzula bilaketa baldintzak zehazten dituzunean. Adibidez "Bilatu auto elektrikoak Interneten"

Zure bilaketa-emaitzak hobetzeko, zehaztu ahalik eta gehien zure bilaketak. Adibidez, honako hauek esan: "Bilatu Maite Beitia-ren kontaktuak", "bilatu losu-ren mezuak" edo "bilatu txakurrak hitza duten oharrak".

### Ahots-kontrola aplikazioaren bidez bilatzen.

- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko sakatuta eduki **Mututu** tekla zure BlackBerry gailuko eskuin aldean.
- 2. Soinua entzun ondoren, esan bilatu beharreko terminoa. Adibidez, esan: "Bilatu Maite Beitia-ren kontaktuak".

### Bilatu Interneten Ahots-kontrola aplikazioaren bidez.

- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko sakatuta eduki **Mututu** tekla zure BlackBerry gailuko eskuin aldean.
- 2. Soinua entzun ondoren, esan bilatu beharreko terminoa eta zehaztu Interneten bilatu nahi duzula. Adibidez, "Bilatu autoak Interneten".

## Ahots-kontrola aplikazioa erabiliz galdetu

Galdera ugari egin ditzakezu Ahots-kontrola aplikazioa erabiliz. Galdera erantzun ezin bada, galderaren erantzuna Interneten bilatzeko aukera izango duzu.

- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko, eduki sakatuta BlackBerry gailuaren eskuinaldean dagoen **Mututu** tekla.
- 2. Bip entzun ostean, galdetu. Adibidez, esan dezakezu "Zenbat jende bizi da Kanadan?" "Zein da 36ren erro karratua?" edo "Zergatik da zerua urdina?"

## Bidali mezuak Ahots-kontrola aplikazioa erabiliz.

Ahots-kontrola aplikazioa erabiliz, testu-mezuak, posta elektronikoa edo BBM mezuak bidal ditzakezu hitz bakar bat idatzi gabe. Zehaztu zein mezu mota bidali nahi duzun eta nori bidali nahi diozun, ondoren sortu zure mezua, hau ozen esanez.

- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko sakatuta eduki **Mututu** tekla zure BlackBerry gailuko eskuin aldean.
- Bip soinua entzuten duzunean, esan bilatu beharreko terminoa. Adibidez, "bidali mezu elektronikoa Naiara Otegiri" edo "Bidali "Banoa" testu-mezua Eneko Goikoetxeari".

## Zehaztu bilera bat edo hitzordu bat Ahots-kontrola aplikazioarekin.

- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko sakatuta eduki Mututu tekla zure BlackBerry gailuko eskuin aldean.
- 2. Soinua entzun ondoren, esan bileraren edo hitzorduaren data, ordua, gaia eta kokalekua. Adibidez "sendagilearekin hitzordua programatu bihar ordu 2etan".

**Aholkua:** Hitzordu batera kontaktuak gehitzeko, idatzi beren izenak hitzordua antolatzen duzunean. Adibidez, "Zehaztu taldeko hitzordua Edurne Zabalarekin ostiralean 11etan".

## Ezarri gogorarazlea Ahots-kontrola aplikazioarekin

- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko sakatuta eduki **Mututu** tekla zure BlackBerry gailuko eskuin aldean.
- 2. Soinua entzun ondoren, esan zeri buruz noiz nahi duzun gogorarazlea jasotzea. Adibidez, "Gogorarazi bihar esnea erosi behar dudala".

## Ahots bidezko diktaketa idatzi

Ahots bidezko diktaketa erabil dezakezu esku gabe idazteko teklatua erabili beharrean.

- 1. Ahots bidezko diktaketa aktibatzeko, irristatu hatza pantailatik beherantz.
- 2. Sakatu 🗱 Ezarpenak > Ahots-kontrola.
- 3. Sakatu **Diktaketa gaitu**.

Ahots diktaketa gaitu eta gero, Teklatua agertzen denean, sakatu 💽 tekla ahots-diktaketa hasteko.

## Alarma ezarri Ahots-kontrola aplikazioa erabiliz.

- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko sakatuta eduki **Mututu** tekla zure BlackBerry gailuko eskuin aldean.
- Soinua entzun ondoren esan, "ezarri alarma" eta alarmak zein ordutan jotzea nahi duzun. Adibidez, "ezarri alarma 6:00etan" edo "ezarri alarma hemendik ordu batera."

## Ahots-kontrola aplikazioa erabiliz argibideak eskuratu

Ahots-kontrola aplikazioa erabiliz argibideak eskuratzen dituzunean, argibideak Mapak aplikazioan agertuko dira.

- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko, eduki sakatuta BlackBerry gailuaren eskuinaldean dagoen Mututu tekla.
- Bip entzun ostean, esan "Eskuratu hona joateko argibideak" edo "Joan hona" eta esan helbidea, hiria edo interesgunea. Adibidez, zera esan dezakezu: "Eskuratu hona joateko argibideak: 175 Columbia St. West, Waterloo, Ontario" edo "Joan hona: New York hiria." Helbidea, hiria edo interesgunea Mapak aplikazioan irekiko da. Helbide. hiri edo interesgune bat baino gehiago aurkitzen badira, kolpatu III. Kolpatu helmuga.

## Aldatu zure Facebook egoera Ahots-kontrola aplikazioa erabiliz.

- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko eduki sakatuta **Mututu** tekla zure BlackBerry gailuko eskuin aldean.
- 2. Soinua entzun eta gero, esan "eguneratu nire Facebook egoera," eta esan zure egoera zein den. Adibidez, "Eguneratu nire egoera Facebook "Zinemara joango naiz gaur gauean" egoerara.

## Idatzi tweet bat Ahots-kontrola aplikazioa erabiliz.

- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko sakatuta eduki **Mututu** tekla zure BlackBerry gailuko eskuin aldean.
- 2. Soinua entzun eta gero, esan "Tweet" eta esan zure tweet-a. Adibidez tweet-eatu "automobil azokara joango naiz gaur'"

## Argitaratu LinkedIn eguneratze bat Ahots-kontrola aplikazioa erabiliz.

- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko, eduki sakatuta BlackBerry gailuaren eskuinaldean dagoen **Mututu** tekla.
- 2. Bip soinuaren ondoren, esan "LinkedIn" eta zure eguneratzea. Adibidez, "LinkedIn bilera-gelara bidean".

### Gorde oharrak eta memorandumak Ahots-kontrola aplikazioa erabiliz.

Ahots-kontrola aplikazioarekin sortzen dituzun oharrak eta memorandumak sarrera moduan gordeko dira BlackBerry Gogoratu aplikazioan.

- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko sakatuta eduki **Mututu** tekla zure BlackBerry gailuko eskuin aldean.
- 2. Soinua entzun eta gero esan, "ohar bat sortu" eta zehaztu zure oharraren edukia. Adibidez, "sortu amari deitzeko ohar bat."

# Ahots-kontrola aplikazioa erabiliz hari gabeko estalduraren egoera begiratu

- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko, eduki sakatuta BlackBerry gailuaren eskuinaldean dagoen Mututu tekla.
- 2. Bip entzun ostean, gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Sare mugikorraren estaldura egiaztatzeko, esan "Zenbat barra ditut?"
  - Wi-Fi konexioaren egoera egiaztatzeko, esan "Zein da nire Wi-Fi egoera?"
  - Sare mugikorraren estaldura eta Wi-Fi konexioaren egoera egiaztatzeko, esan "Zein da nire seinalearen indarra?"

## Ahots-kontrola aplikazioa erabiliz zenbat bateria gelditzen den begiratu

- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko, eduki sakatuta BlackBerry gailuaren eskuinaldean dagoen **Mututu** tekla.
- 2. Bip entzun ostean, esan "Zeinbat bateria gelditzen da?"

### Azken irakurri gabeko mezuak entzun

Azken irakurri gabeko mezu elektronikoak eta testu-mezuak entzun ditzakezu.

- 1. Ahots-kontrola aplikazioa irekitzeko, eduki sakatuta BlackBerry gailuaren eskuinaldean dagoen **Mututu** tekla.
- 2. Bip entzun ostean, esan "Irakurri azken mezu elektronikoa" edo "Irakurri azken testu-mezua".

# Ahots-kontrolaren ezarpenak

### Aldatu ahots-kontrolerako hizkuntza

- 1. Hasierako pantailan, ukitu pantailatik beherantz.
- 2. Sakatu 🏟 Ezarpenak > Ahots-kontrola.
- 3. **Hizkuntza** goitibeherako zerrendan, sakatu hizkuntza bat.

### Aldatu ahots-ezagutze modua

Ahots-kontrola aplikazioak ahotsa antzemateko bi modu ditu. **Ahots-markatzea soilik**, aukeratzen duzunean, Ahotskontrola aplikazioa hizkuntza gehiagotan erabil dezakezu, baina ezingo beste eginbide asko erabili, hala nola, Internet bidezko bilaketa, zure BlackBerry gailuko bilaketa eta mezuak bidaltzea. Ahots ezagutze modua aukeratzean Ahotskontrola aplikazioak onartzen dituen ezaugarriak erabil ditzakezu.

- 1. Hasierako pantailan, ukitu pantailatik beherantz.
- 2. Sakatu 🙀 Ezarpenak > Ahots-kontrola.
- 3. Ahots-hautematea modua goitibeherako zerrendan, sakatu Ahots-markatzea soilik edo Ahots-hautematea.

### Aldatu zure ahots-erantzunen ezarpenak

Ezaugarriak zehaztean, Ahots-kontrola aplikazioa zure argibidea baieztatzeko edo hurrengo argibidea eskatzeko konfigura dezakezu.

- 1. Hasierako pantailan, ukitu pantailatik beherantz.
- 2. Sakatu 🔀 Ezarpenak > Ahots-kontrola.
- 3. Egin hauetako bat:
  - Ahots bidezko erantzunak aktibatzeko edo desaktibatzeko sakatu Beti edo Inoiz ere ez Entzun ahotsezko iruzkinak goitibeherako zerrendatik.
  - Ahots-erantzunak aurikularra erabiltzen duzunean bakarrik entzuteko sakatu Telefonoa soilik Entzun ahotsezko iruzkinak goitibeherako zerrendatik.

# Jokoak

# Jokoak profila aldatu

Profil bat sortzen duzunean, Jokoak aplikazioak eskatutako informazioa betetzen du BBM profileko informazioarekin. Jokoak aplikazioan profileko informazioa aldatzeak ez du inongo eraginik izango BBM profilean.

Jokoak aplikazioan, kolpatu 🚺 > 🔘 .



- ٠ Profileko argazkia aldatzeko, kolpatu Aukeratu argazkia. Korritu BlackBerry gailuko argazkiak eta kolpatu erabili nahi duzuna.
- Dagoeneko BBM profilarekin lotutako argazkia erabiltzeko, kolpatu Erabili BBM argazkia.
- Aplikazioaren izena aldatzeko, kolpatu Pantaila-izena alboko testu-eremua. •
- Kontuarekin lotutako helbide elektronikoa aldatzeko, kolpatu Helbide elektronikoa alboko testu-eremua.
- Hautatu Aktibatuta edo Desaktibatuta Publikoa profilean. •

# Lagunak Jokoak aplikaziora gonbidatu

Jokoak aplikazioan lagunak gehi ditzakezu, jolasten ari diren jokoak ikusteko, puntuazioak konparatzeko eta jokoak gomendatzeko.

**Oharra:** Jolasten ari zaren jokoak eta irabazten dituzun sariak zure joko-lagunek soilik ikus ditzakete Jokoak aplikazioaren kronologian. Ez dira beste inon agertzen.

Egin hauetako bat:

- Kronologian, kolpatu jokalari bat.
- Lagunak beste bide batzuk erabiliz (posta elektroniko bidez, erabiltzaile-izena aurkituta edo uneko lagunen lagunak gonbidatuta) Jokoak aplikaziora gonbidatzeko, kolpatu [X] > [].

Aholkua: Jokoak aplikaziotik lagun bat kentzeko, nabigatu lagunaren profilera. Kolpatu 🔙 .

# Jokoak gehitu

Erabili Jokoak aplikazioa erosi edo doan deskarga dezakezun hurrengo joko gogokoa aurkitzeko.

- 1. Egin hauetako bat:
  - Kronologian, kolpatu interesatzen zaizun joko bat.
  - Kolpatu 🔤 eta arakatu joko berriak, joko ezagunak eta zure lagunak jolasten ari diren jokoak.
- 2. Kolpatu 🛞 > Deskargatu.

# Jokoa gogokoetan gehitu

Asko gustatzen zaizun jokoa aurkitzen duzunean, markatu gogoko gisa azkar sartzeko.

- 1. Jokoak aplikazioan, hasierako pantailan, sakatu 📋 > 📝 .
- 2. Kolpatu jokoaren alboko 🔛

Joko bat zure gogokoetatik kentzeko, kolpatu 🗶 berriro.

# Jokoak gomendatu

Jokoak lagunei atsegin dituzun jokoak gomenda diezazkiekezu. Gomendioak mezu pribatu gisa bidaliko zaizkie eta hautatu dituzun lagunek soilik ikusiko dute bidaltzen diezun gomendioa.

- 1. Kolpatu joko bat.
- 2. Kolpatu 🖬 .
- 3. Kolpatu lagun bat.

# Jokoak lagunak BBM ra

Zure BBM kontaktu-zerrendan ez dagoen Jokoak aplikazioko lagun bat baduzu, BBMra gonbida Jokoak aplikaziotik irten gabe.

- 1. Jokoak aplikazioan, egin ekintza hauetako bat:
  - Kronologian, kolpatu lagun bat.
  - Hasierako pantailan, kolpatu 🙇 . Kolpatu lagunaren izena.
- 2. Sakatu 🖳 .

## BBM berriketa bat hasi Jokoak lagunarekin

BBM berriketa bat has dezakezu Jokoak aplikaziotik irten gabe (adibidez, jokoari buruzko zerbait komentatu nahi baduzu bizkor).

- 1. Kronologian edo 👧 pantailan, kolpatu lagun bat.
- 2. Sakatu 賱 .

# Arazoak:Jokoak

### Nire lagunek soilik ikus dezakete nire profila

Besterik adierazi ezean, profil publikoak desaktibatuta daude eta zure lagunek soilik ikus dezakete zure profila. Ezarpen hori alda dezakezu zure profila edonork ikusteko.

- 1. Profila editatzeko, kolpatu pantaila-argazkian.
- 2. Hautatu Aktibatuta Profil publikoa aukeran.

# Aplikazioak antolatzea

# Aplikazioa utzi edo itxi

Aplikazioa erabiltzen amaitu duzunean aplikazioa itxi beharrean, egiteko anitzak burutu ditzakezu aplikazioa minimizatuz. Irekita dauden aplikazioak Marko Aktibo moduan ikusiko dituzu lerrokatuta Hasierako pantailan eta Marko Aktiboan sakatu dezakezu aplikazioa pantaila osoa moduan berriro ikusteko. Behin aplikazioa minimizatzea, Hasierako pantailatik itxi dezakezu.

- 1. Aplikazioa minimizatzeko, arrastatu pantailaren behealdetik gorantz. Aplikazioa Hasierako pantailako Marko Aktibo batean lerrokatuko da.
- 2. Minimizatu ondoren aplikazio bat ixteko, Hasierako pantailako Marko Aktiboan, sakatu 🗙 .

# Mugitu aplikazio bat Hasiera pantailan zehar

Hasierako pantailako aplikazioen ikonoak beste toki batera mugi ditzakezu, zuk nahi dituzun tokian egon daitezen. Adibidez, eskuina bazara, maiz erabiltzen dituzun aplikazioak pantailaren eskuinaldean antola ditzakezu. Ondoren, BlackBerry gailua esku batekin erabiltzen duzunean, errazagoa da aplikazio horiek ikustea.

- 1. Hasierako pantailan eduki ukituta aplikazio baten ikonoa keinuka hasi arte.
- 2. Arrastatu ikonoa zure hasierako pantailako beste leku batera eta askatu hatza.

# Gehitu karpetak Hasierako pantailan

Zure aplikazioak antola ditzakezu Hasierako pantailan karpetak gehituz. Adibidez, karpeta bat gehitu dezakezu deskargatu dituzun joko guztiak gordetzeko eta beste karpeta bat zure negozioarekin eta errendimenduarekin lotutako aplikazioentzako.

- 1. Eduki ukituta aplikazio baten ikonoa ikono guztiak keinuka hasi arte.
- 2. Arrastatu aplikazioaren ikonoa karpetan sartu nahi duzun aplikazio desberdin baten ikono gainean.
- 3. Idatzi karpetaren izena.
- 4. Sakatu Sortu.

# Aplikazioa karpetatik atera

- 1. Hasierako pantailako karpeta batean eduki ukituta aplikazio baten ikonoa keinuka hasi arte.
- 2. Arrastatu aplikazioaren ikonoa pantailaren behealdera eta askatu.

# Karpeta berrizendatu

- 1. Hasierako pantailan, sakatu karpeta bat.
- 2. Pantailaren behealdean, eduki ukituta karpetaren izena.
- 3. Idatzi karpetaren izen berria.
- 4. Sakatu Aldatu izena.

# Aplikazioak ezabatzen

Aplikazioak zure BlackBerry gailuko Hasierako pantailatik zuzenean edo BlackBerry World erakusleihotik zuk deskargatutako aplikazioak ezaba ditzakezu.

### Ezabatu deskargatutako elementu bat BlackBerry World-(e)tik

- 1. BlackBerry World Hasierako pantailan, sakatu 🏢
- 2. Sakatu Nire aplikazioak eta jokoak, Nire bideoa edo Nire musika.
- 3. Sakatu Deskargatuta.
- 4. Eduki ukituta elementu bat eta sakatu 📺 .
  - Beranduago aplikazioa berrinstalatu nahi baduzu, sakatu Desinstalatu.
  - Aplikazioa betiko ezabatu nahi baduzu, sakatu Ezabatu.

Desinstalatutako aplikazioak eta jokoak **Nire Mundua** pantailan agertuko dira zerrendatuta. Zerrenda hau ikusteko, sakatu **Nire aplikazioak eta jokoak > Erabilgarri**.

### Ezabatu aplikazio bat zure hasierako pantailatik

- 1. Zure BlackBerry gailuko Hasierako pantailan, eduki ukituta aplikazio baten ikonoa keinuka hasi arte.
- 2. Aplikazio baten ikonoan, sakatu 📺 .

**Aholkua:** Hasierako pantailan dauden aplikazioen zenbait ikono BlackBerry esperientziaren zati bat dira. Aplikazio hauek ezin dira ezabatu eta ezabatutako ikonoa ez da aplikazio hauetan agertuko.

### Aplikazio bat edo joko bat berriz instalatu

- 1. BlackBerry World hasierako pantailan, kolpatu 🇱 > My World > Nire aplikazioak eta jokoak.
- 2. Sakatu Erabilgarri.

- Aplikazio edo joko bat berriro instalatzeko, kolpatu instalatu nahi duzun aplikazioaren edo jokoaren alboko 😰.
- Desinstalatutako aplikazio eta joko guztiak berriro instalatzeko, kolpatu pantailaren behealdeko 😰.

# Dokumentuak eta fitxategiak

# Fitxategi-kudeatzailea

# Fitxategiak ikustea

### Fitxategiak zure gailuan ikusi

Fitxategi-kudeatzailea-(e)k zure BlackBerry gailuan fitxategiak ikusten, gordetzen eta partekatzen laguntzen dizu. Fitxategi batFitxategi-kudeatzailea-(e)n ikusteko:

- 1. Sakatu karpeta bat.
- 2. Sakatu ikusi nahi duzun fitxategia.

Atzera joateko, sakatu < .

**Aholkua:** Zure gailuan BlackBerry Balance gaituta badago eta zure laneko fitxategietara, Hasierako pantailatik sartu nahi baduzu, irristatu hatza pantailaren goialdetik beherantz. Sakatu **Lana**.

### Fitxategiak konektatutako gailuetan edo sareetan ikusi

Zure BlackBerry gailuarekin konektatuta dauden gailuetako fitxategiak ikusi ahal izango dituzu, hala nola, memoria txartela edo USB kable bidez konektatutako gailu bat. Hodeiko aplikazio batean saioa hasi baduzu zure gailuarekin, lainoan biltegiratuta dauden fitxategiak ere ikusi ahal izango dituzu. Beste gailu batean biltegiratutako fitxategi bat ikusteko:

- 1. Sakatu 🔲 .
- 2. Sakatu gailu bat.

Hautatutako gailuan biltegiratzen diren fitxategiak eta karpetakFitxategi-kudeatzailea-(e)n agertzen dira irekitzean edo bistaratzean.

# Fitxategiak kudeatzea

## Berrizendatu fitxategi bat edo karpeta bat

Fitxategien eta karpeten izenak alda daitezke Fitxategi-kudeatzailea-rekin, hala nola, akats bat edo hitz bat finkatzen. Fitxategi bat edo karpeta bat berrizendatzeko:

- 1. Eduki ukituta fitxategia edo karpeta bat.
- 2. Sakatu 🔤 .

Aholkua: Fitxategi mota aldatzeko, eduki ukituta fitxategia. Sakatu 🔳 > 🖊 .

## Karpetak gehitu

Fitxategi-kudeatzailea irekitzean, aurretik definitutako karpeten zerrenda agertzen da. Karpeta bat gehitzeko, gauzatu hau:

- 1. Nabigatu karpeta berria gehitu nahi duzun tokira.
- 2. Sakatu :
- 3. Sakatu 📭

Oharra: Baliteke aurretik zehaztutako karpetarik ez edukitzea.

### Elementu bat bilatuFitxategi-kudeatzailea-(e)an.

- 1. Sakatu Q.
- 2. Sartu bila zabiltzan elementu osoaren izena edo haren zati bat.

**Oharra:** Konektatutako gailu batean elementu bat bilatzeko, bilaketa gailuaFitxategi-kudeatzailea moduan irekita dagoenean gauzatu behar duzu.

### Ordenatu fitxategiak eta karpetak

Zure fitxategiak eta karpetak izenaren, dataren, motaren edo tamainaren arabera ikus ditzakezu. Zure fitxategiak eta karpetak gorantz edo beherantz ikustea nahi duzun ere erabaki dezakezu.

Aholkua: Fitxategiak eta karpetak ikusteko modua aldatzeko, sakatu 📑 zerrendan edo 拱 sareta batean ikusteko.

Sakatu 🚦 > 🚛 .

- Fitxategiak eta karpetak ordenatuta dauden modua aldatzeko, sakatu **Ordenatu** > **Izena**, **Data**, **Mota** edo **Tamaina**.
- Zure fitxategien eta karpeten ordena aldatzeko, sakatu Ordena > Gorantz edo Beherantz.

### Fitxategi ugari hautatu

- 1. Sakatu 🔅 .
- 2. Sakatu 🛃 .
- 3. Sakatu hautatu nahi dituzun elementuak.

Nahi gabe sakatu duzun elementu bat desautatzeko, sakatu elementua berriro.

# Fitxategiak transferitzen

## Fitxategiak partekatu

- 1. Eduki ukituta fitxategi bat.
- 2. Sakatu 🔽.
- Aukeratu helburua. 3.

### Aholkua: Fitxategi ugari partekatzeko, sakatu 🔛 > 🏹 . Sakatu partekatu nahi dituzun fitxategiak. Sakatu 💱 .

### Fitxategiak mugitu

- 1. Eduki ukituta fitxategia edo karpeta bat.
- 2. Sakatu 🔼 .
- 3. Nabigatu fitxategia mugitu nahi duzun tokira.
- 4 Sakatu Mugitu.

### Fitxategia kopiatu

- 1. Eduki ukituta fitxategia edo karpeta bat.
- 2. Sakatu 🛅 .
- 3. Nabigatu fitxategia edo karpeta kopiatu nahi duzun tokira.
- 4. Sakatu Itsatsi.

# Hodeian biltegiratutako fitxategiekin lanean

### Hodeian gordetako fitxategiak berreskuratu

Hodeiko aplikazio batean saioa hasi baduzu zure BlackBerry gailuarekin, Fitxategi-kudeatzailea erabil dezakezu lainoan biltegiratuta dauden fitxategiak ikusteko. Hodeian gordetako fitxategi bat berreskuratzeko:

- 1. Sakatu 🔲 .
- 2. Sakatu hodeiko aplikazio bat.

## Fitxategiak gailuan gorde

BlackBerry gailuan gordetako fitxategi bat ainguratzen duzunean, sare mugikorrera edo hari gabeko sarera konektatu gabe zaudenean ere fitxategiak ikusi ahal izateko. Fitxategia ainguratu gabe badago, ez da erabilgarri egongo lineaz kanpo. Fitxategia gailuan ainguratzeko edo ez ainguratzeko:

Eduki ukituta hodeiko aplikazioan biltegiratutako fitxategia.

- Fitxategia ainguratzeko, sakatu 👎 .
- Fitxategia desainguratzeko, sakatu 🕺 .

### Fitxategi bat hodeiarekin sinkronizatu.

Lineaz kanpo zeunden bitartean, ainguratutako fitxategi bat editatu baduzu, Sinkronizatu orain aukera erabil dezakezu hari gabeko sare batera konektatzean, beste fitxategi batzuk sinkronizatu aurretik, fitxategia hodeiarekin sinkronizatuta dagoela ziurtatzeko. Fitxategi baten sinkronizazioa behartzeko:

- 1. Eduki ukituta fitxategi bat.
- 2. Sakatu 🐼 .

Aholkua: 🕟 Aukera ez badago erabilgarri zure menuan, fitxategia hodeiarekin sinkronizatuko da.

### Aldatu hodeiko aplikazioko ezarpenak

Babeskopia aukerak eta sare-erabilera gisako elementuen konfigurazioa alda dezakezu hodeiko aplikazioetan. Babeskopia aukerak gaitzean, fitxategien eta hautatutako aplikazioetako fitxategien aldaketak automatikoki eguneratzen eta biltegiratzen da hodeian. Zure ezarpenak aldatzeko:

- 1. Sakatu : .
- 2. Sakatu 🔅 .

₽

sakatzean, hodeiko aplikazioa abiarazten da.

# Zip fitxategiekin lan egitea

## Fitxategiak eta karpetak konprimitu

Konprimitu zure fitxategiak memoria espazioa murrizten laguntzeko. Karpeta bakarra, edo hainbat fitxategi edo karpeta konprimi ditzakezu. Fitxategi guztiak karpeta partikular batean konprimitu ditzakezu Guztiak konprimitu aukera erabiliz.

Eduki ukituta fitxategia edo karpeta bat.

- Fitxategi edo karpeta bakarra konprimitzeko, sakatu 👔 .
- Hainbat fitxategi edo karpeta konprimitzeko, sakatu 👩 . Sakatu kopiatu nahi dituzun fitxategiak eta karpetak eta ondoren sakatu 👔 .

## Fitxategiak deskonprimatu

Fitxategiak deskonprimitu eta bere edukia aurreikus dezakezu. Fitxategi bat deskonprimitzean, konprimitutako fitxategiaren izen bera duen fitxategi bat sortzen da. Konprimitu gabeko edukiak karpeta honetan ikus daitezke.

- Fitxategi bat deskonprimitzeko, eduki sakatuta konprimitutako fitxategi bat. Sakatu 🚺 .
- Konprimatutako fitxategi baten edukia aurreikusteko, sakatu fitxategia. ٠

# Biltegiratze-tokia eta multimedia-txartelak

# Multimedia fitxategiak eta dokumentuak mugitzen edo kopiatzen

Dokumentuak, argazkiak, bideoak, musika eta bestelako fitxategiak arrastatu eta utz ditzakezu zure BlackBerry gailua ordenagailuko unitate moduan erabiliz.

BlackBerry Link ere erabil dezakezu zure multimedia fitxategiak eta dokumentuak gailuaren eta ordenagailuaren artean sinkronizatzeko. ZureBlackBerry Link ordenagailutik deskargatzeko bisitatu www.blackberry.com/BlackBerryLink eta hautatu Windows edo Mac aukera. Multimedia-fitxategiak eta dokumentuak sinkronizatzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Link softwareko Laguntza atala.

Aholkua: Fitxategi bat bizkor aurkitzeko zure gailuan, fitxategiaren edo karpetaren izena badakizu, sakatu 🔍 bilatzeko.

### Ordenagailuaren eta gailuaren artean fitxategiak transferitu USB konexioa erabiliz

1. Konektatu zure BlackBerry gailua ordenagailura USB kable bat erabiliz.



- Beharrezkoa bada, idatzi gailuaren pasahitza. Zure gailua eta memoria-txartela unitate gisa agertuko dira zure ordenagailuan.
- 3. Joan kopiatu nahi dituzun fitxategi edo karpetetara.
- 4. Fitxategiak edo karpetak arrastatu eta utzi.

### Ordenagailuaren eta gailuaren artean fitxategiak transferitu Wi-Fi konexioa erabiliz

Biltegiratze pasahitz berria ezarri behar duzu biltegiratzea aktibatzen duzun bakoitzean, Wi-Fi sarea erabiliz. FitxategiakWi-Fi sarera mugitu aurretik, biltegiratzera sartzeko pasahitza idazteko eskatuko zaizu.

- 1. Zure BlackBerry gailuko Hasierako pantailan, ukitu pantailatik beherantz.
- 2. Sakatu 🗱 Ezarpenak > Honi buruz.
- 3. Pantailaren goiko aldean, goitibeherako zerrendan sakatu **Sarea** eta gogoratu **IPv4** helbidea.
- 4. Sakatu 🗸 .
- 5. Sakatu Biltegiratzea eta sarbidea.
- 6. Ezarri Wi-Fi bidez sartu l aukeran
- 7. Idatzi biltegiratzera sartzeko pasahitza.
- 8. Sakatu Identifikazioa sarean eta gogoratu Erabiltzailearen izena.
- 9. Ordenagailuan, egin honako ekintza hauetako bat:
  - Ordenagailuak Windows sistema eragilea erabiltzen badu, Abiarazi komandoan, idatzi IP helbidea formatu honetan: \\xx.xxx.xxx.
  - Ordenagailuak Mac sistema eragilea erabiltzen badu, sakatu **Joan** > **Konektatu zerbitzarira**. Idatzi IP helbidea formatu honetan: smb://xx.xxx.xxx.
- 10. Joan kopiatu nahi dituzun fitxategi edo karpetetara.
- 11. Eskatzen zaizunean, idatzi erabiltzailearen izena eta biltegiratzera sartzeko pasahitza.
- 12. Fitxategiak edo karpetak arrastatu eta utzi.

## Aktibatu USB biltegiratze masiboa

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu Ezarpenak > Biltegiratzea eta sarbidea.
- 3. Ezarri USB biltegiratze masiboa l aukeran.

USB biltegiratze masiboa gehiago ez erabiltzeko, deskonektatu zure USB kablea.

# Mikro SIM txartela, bateria eta multimedia-txartela sartzea

### Bateriaren estalkia kendu

Aholkua: Bateriaren estalkia malgua da eta oker daiteke kentzerakoan.

Bateriaren estalkia kentzeko, tiratu gorantz bateriaren estalkiaren behealdea.



### Sartu edo atera mikro SIM txartela

**KONTUZ:** Zure BlackBerry gailua mikro SIM txartelarekin erabiltzeko diseinatu da. Zure gailuan kalteak saihesteko, ez sartu SIM txartelaren moldagailua gailuan.

Zerbitzu-hornitzailearen eta gailua erosi zenuen tokiaren arabera, baliteke mikro SIM txartela dagoeneko sartuta egotea.

Mikro SIM txartela sartzeko, irristatu bere lekura, ilustrazioan erakusten den bezala.

Mikro SIM txartela ateratzeko:

- 1. Bultza mikro SIM txartela zati bat kanpora atera dadin, hatz erakuslea irekigunean jarrita.
- 2. Irristatu mikro SIM txartela erabat kanpora, hatz erakuslea edo hatz lodia erabiliz, edo hatz lodiarekin mikro SIM txartelaren goialdean sakatuta.





### Bateria sartu edo kendu

BlackBerry gailua erabiltzen hasi baino lehen, bateria kargatu beharko duzu. Zure gailua zetorren kutxan dagoen bateria ez dago guztiz kargatuta.

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Bateria sartzeko, kontaktuak lerrokatu.
- Bateria kentzeko, bateriaren kontaktuen beste aldetik, jaso eta tira egin bateriatik kanporantz.





# Memoria txartela erabiliz

Espazio gehiago behar duzu zure dei-tonuak, bideoak, argazkiak eta abestiak biltegiratzeko? Dokumentuak eta multimedia fitxategiak gordetzeko espazio gehiago nahi baduzu, mikroSD txartela sar dezakezu zure BlackBerry gailuan. Memoria-txartela erabiltzeak zure gailuaren errendimendua eta indarraren eraginkortasuna areagotu dezake.

Datu kantitate handia mugitu edo ikus dezakezu, memoria-txartela mikro-SD txartela onartzen duen beste gailu batean sartuz soilik.

## Onartutako memoria txartelak

Zure BlackBerry gailuak 64 GBrainoko mikroSD memoria-txartelak onartzen ditu. MikroSD memoria-txartelak soilik onartzen ditu.

32 GB baino gehiagoko multimedia-txartel bat erabiltzeko, baliteke multimedia txartela FAT32 formatura formateatu behar izatea. Zure gailua erabil dezakezu multimedia-txartela formateatzeko.

### Formateatu memoria txartela

Multimedia-txartelarekin lotutako arazoak konpontzeko, multimedia-txartela formatea dezakezu. Multimedia-txartela formateatzen duzunean, multimedia-txarteleko datu guztiak ezabatuko dira.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Biltegiratzea eta sarbidea.
- 3. Kolpatu Formateatu multimedia-txartela.

### Multimedia-txarteleko datuak ezabatu

Pribatutasuna babesten laguntzeko, behin betiko ezaba ditzakezu multimedia-txarteleko datu guztiak. Datu kopuruaren arabera, baliteke prozesua gauzatzeko denbora behar izatea.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Biltegiratzea eta sarbidea.
- 3. Kolpatu Ezabatu multimedia-txartela.

Multimedia-txartela berriz erabiltzeko, formateatu behar duzu.

# Enkriptatzea aktibatu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🔯 Ezarpenak > Segurtasuna eta Pribatutasuna: > Enkriptatzea.
- 3. Egin hauetako bat:
  - Ezarri Gailuaren enkriptatzea I aukeran.
  - Ezarri SD txartela enkriptatzea I aukeran.

**KONTUZ:** Saiatu zure memoria-txartelean dituzun multimedia datuak desenkriptatzen edo hauen babes-kopia egiten segurtasun-ezabatzea gauzatu aurretik, zure BlackBerry gailuko datuak ezabatzeko diseinatuta baitago, baita enkriptatze-gakoa ere. Ezingo dituzu zure memoria-txarteleko multimedia datu enkriptatuetara sartu enkriptatze-gako hau ez baduzu.

# Begiratu zenbat biltegiratze leku gelditzen zaizun libre

Erabilitako eta libre duzun lekua ikus dezakezu zure BlackBerry gailuan eta memoria-txartelean. Espazioa zein fitxategi motek okupatzen duten banakapena ikus dezakezu.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🗱 Ezarpenak > Biltegiratzea eta sarbidea.
- 3. Sakatu Gailu-biltegiratzearen xehetasunak edo Multimedia-txartelaren xehetasunak.

Aholkua: Biltegiratzeko zenbat leku libre duzun bistaratuko da Fitxategi-kudeatzailea aplikazioa minimizatzen duzunean.

# Ohiko galderak: Biltegiratze lekua eta memoria

### Nola libratu dezaket biltegiratzeko lekua?

Fitxategi eta aplikazio gehiago sartzeko espazio libratu nahi baduzu, saiatu ekintza hauetako bat gauzatzen:

- Gorde dokumentuak eta multimedia fitxategiak zure memoria-txartelean. Argazkiak eta bideoak automatikoki gordetzeko zure memoria-txartelean, hasierako pantailan, sakatu 
   Irristatu hatza pantailaren goialdetik eta sakatu
- Murriztu ateratzen dituzun argazkien eta grabatzen dituzun bideoen tamaina. Hasierako pantailan, sakatu is > i. Aldatu Aspektu-erlazioa. Sakatu is > i. Aldatu Tamaina aukera.
- Transferitu zure datuetako batzuk zure ordenagailura USB konexioa, Wi-Fi konexioa edo BlackBerry Linkerabiliz.ZureBlackBerry Link ordenagailutik deskargatzeko bisitatu www.blackberry.com/BlackBerryLink eta hautatu Windows edo Mac aukera.
- Ezabatu behar ez dituzun fitxategiak. Elementu ugari ezabatzeko, aplikazio batean, sakatu :> 
   Hautatu elementuak eta sakatu :

### Gailuaren errendimendua optimizatu

BlackBerry gailua normalean baino polikiago dabilela ikusten baduzu, saiatu ekintza hauetako bat burutzen:

- Itxi erabiltzen ari ez zaren edozein aplikazio.
- Ezabatu gorde nahi ez dituzun mezuak.

• Zure arakatzaileko pribatutasun ezarpenetan, garbitu zure historiala, cookie-ak eta bestelako web datuak.

# Errore mezuak: Memoria txartela

Zure BlackBerry gailuak memoria-txartelarekin arazo bat dagoela hautematen badu, errorearen xehetasun gehiago ikusi ahal izango dituzu zure Biltegiratze eta sarbide ezarpenetan.

### Ez da zure memoria txartela ezagutu

Baliteke memoria txartela formatu ez irakurgarrian egotea. Pentsatu memoria txartela formateatzeko aukeran.

**KONTUZ:** Memoria-txartelaren datuak ezabatu egingo dira zure memoria-txartela formateatzen duzunean.

### Memoria-txartela pasahitzarekin babestuta dago

Pasahitz bat memoria-txartelera eta bertan biltegiratutako datuetara sarbidea blokeatzen ari da. Sartu pasahitzarekin babestuta ez dagoen memoria-txartel bat zure BlackBerry gailuan.

### Zure memoria txartela irakurtzeko soilik moduan dago.

Memoria txartelean fitxategiak ikusi eta ireki ditzakezu. Ezin dituzu memoria txarteleko fitxategiak mugitu, ezabatu edo aldatu.

### Zure memoria txartelak ez du erantzuten

Memoria-txartela ezin da zure BlackBerry gailuarekin komunikatu. Pentsatu beste memoria txartel bat erabiltzea ongi datorkizun.

### Ez da memoria txartelik aurkitu

Ziurtatu memoria-txartel bat dagoela zure BlackBerry gailuan eta behar bezala sartu dela.

# Arazoak: Biltegiratze lekua

### Ordenagailuak ez du nire gailua ezagutzen konektatzean

Zure ordenagailuak ez badu automatikoki antzematen zure BlackBerry gailua, saiatu honakoa gauzatzen:

• Berretsi USB kablea eta konexio puntuak.

- Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.Sakatu Ezarpenak > Biltegiratzea eta sarbidea. Zure ordenagailuaren sistema eragilearen arabera, aldatuUSB Konexioak Konektatu Windows-era edo Konektatu Mac-era aukerara.
- Pentsatu zure ordenagailuko driverrak eguneratzea edo instalatzea ongi datorkizun. Behar dituzun unitateak automatikoki instalatuko dira BlackBerry Link deskargatzen duzunean. ZureBlackBerry Link ordenagailutik deskargatzeko bisitatu www.blackberry.com/BlackBerryLink eta hautatu Windows edo Mac aukera.

# Ezarpena eta aukerak

# Konexioak

# Zure gailua zein hari gabeko sareetara konektatuta dagoen begiratu

BlackBerry gailuak ez du zertan gailuko zerrendan agertzen den sare mota guztietara konektatu behar. Gailua zerrendan dauden sare guztietara konekta daiteke, baina sare bakoitzera konektatzeko gaitasuna edukitzea hari gabeko zerbitzuplanaren araberakoa izango da. Gailua konektatutako hari gabeko sareei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi gailuaren Segurtasunari eta produktuari buruzko informazioa dokumentua.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🏟 Ezarpenak > Honi buruz.
- 3. Pantailaren goialdean dagoen goitibeherako zerrenda, sakatu Sarea.

# Gailuari ezizena ezarri

Zure BlackBerry gailuaren izena alda dezakezu beste gailu batzuetan agertzeko. Ezizen hau erabilgarria da fitxategiak partekatzen dituzunean hari gabeko konexioarekin edo Bluetooth-a teknologia erabiliz.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🔅 Ezarpenak > Honi buruz.

ail

3. Gailuaren izena eremuan, idatzi gailuaren izen berria.

# Hari gabeko konexioen ikonoak

Ikono hauek pantailaren goi-eskuin ertzean agertuko dira zure BlackBerry gailuak unean duen hari gabeko estaldura maila adierazteko.

Agertzen den barra finko kopuruak, sare mugikorraren seinalearen indarra adierazten du. Seinalea ahula bada, baliteke zure gailuak indar gehiago erabili behar izatea konexioa mantentzeko.

4glte 4g 3g 2g 1X H+ H G E	Erakusten den sare motara konektatuta dago zure gailua eta sare mugikor-planean dituzun ezaugarri guztiak erabil ditzakezu.
4g 3g 2g 1 <sub>x</sub> h₊ h g e	Erakusten den sare motara konektatuta dago zure gailua, baina sarearen erabilgarritasuna mugatuta dago. Seguruenik telefono deiak egin ditzakezu, baina ezingo duzu Internetera sartu edo posta elektronikorik bidali.
X	Ez duzu sare mugikorrean estaldurarik.
	Gailua ibiltaritzan dago. Kostu osagarriak aplika daitezke
8	BlackBerry Infrastructure-ra konektatuta zaude.
\$	Agertzen den uhin finko kopuruakWi-Fi seinalearen indarra adierazten du. Seinalea ahula bada, baliteke zure gailuak indar gehiago erabili behar izatea konexioa mantentzeko.
62	Gailua VPN batera konektatuta dago.
স	Zure gailua Hegaldi-moduan dago eta hari gabeko sare- konexio guztiak desaktibatuta daude. Wi-Fi edo Bluetooth-a teknologia berriz aktiba dezakezu baina ez zure sare mugikorreko konexioa.
	Errorea gertatu da mikro SIM txartelarekin. Erroreari buruzko informazioa eskuratzeko, irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera. Kolpatu <b>Ezarpenak</b> > Sare-konexioak > Sare mugikorra.
<b></b>	Larrialdi-deiak soilik egin ditzakezu.

Ikono hauek Hasierako pantailako goi-eskuin ertzean agertuko dira zure gailua Mobile Hotspot modua, Interneteko sareainguraketa, Bluetooth-a edo NFC teknologiak erabiliz beste gailu batera konektatuta badago edo konektatzen saiatzen ari bada.

Baliteke BlackBerry gailu modeloan NFC eginbidea erabilgarri ez egotea zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen edo zure administratzailearen ezarpenen arabera.

©	Mobile Hotspot modua aktibatuta dago. Ikonoa finkoa bada Mobile Hotspot konektatuta dago.
	Interneteko sare-ainguraketa aktibatuta dago. Ikonoa finkoa bada, zure gailua beste gailu batera konektatuta dago.



N

Bluetooth-a teknologia aktibatuta dago. Ikonoa finkoa bada, Bluetooth-a teknologia konektatuta dago.

NFC aktibatuta dago.

# Aholkuak: Konexio bat hautatzen

Zure BlackBerry gailuak konexio irismen zabala du zure gailuarekin egin ditzakezun gauzak hobetzeko eta beste gailu batzuekin elkarri eragiteko. Begiratu konexioen zerrenda, konexio mota desberdinak ezagutzeko, konexio bakoitza noiz erabili daiteken ezagutzeko aholku batzuk eta egiten ez zenekien zenbait gauza ikasteko.

### Sare-konexioak

### Sare mugikorra

Sare mugikor bati esker deiak egin ditzakezu zure BlackBerry gailuarekin eta datu-plan bat baduzu datu-zerbitzuak ere erabili ahal izango dituzu, hala nola Internet arakatzea. Zenbait tokitan, ospitaletan edo hegazkinetan, zure sare mugikorraren konexioa desaktibatu beharko duzu, baina normalean, zure sare mugikorraren konexioa aktibatuta utz dezakezu.

### Wi-Fi

Wi-Fi sare konexioa zure gailuan datu-zerbitzuak lortzeko beste modu bat da. Baina sare mugikorra erabiltzean ez bezala, Wi-Fi hauxe erabiltzen baduzu ez duzu kostu gehigarririk izango zure datu-planean. Zure gailua sare mugikorrak erabiltzen saiatu aurretik datuen oinarrizko funtzioak interneten erabiltzeko gordetako Wi-Fi sareak erabiltzeko dago diseinatuta, hala nola, Internet erabiltzeko eta aplikazioak deskargatzeko. Wi-Fi aktibatuta utz dezakezu gordetako Wi-Fi sare baten irismenaren barruan zaudenean, zure gailua automatikoki konekta dadin, baina gogoan izan denbora guztian Wi-Fi aktibatuta mantentzen baduzu, zure bateria azkarrago agortuko dela.

### Gailuen arteko konexioak

### USB

USB kablea zure BlackBerry gailuaren eta ordenagailuaren artean bi aldeko konexioa sortzeko erabil dezakezu. Zure gailua ordenagailura konektatzen duzunean USB kable baten bidez, zure gailua biltegi-gailu aldagarria moduan agertuko da ordenagailuan. Ordenagailuaren funtzionaltasunen arabera, USB konexioa erabil dezakezu bi gailuen artean fitxategiak pasatzeko eta askatzeko.

### Bluetooth-a teknologia

Bluetooth-a hari gabeko teknologiak zure BlackBerry gailuaren eta Bluetooth-a gaitutako beste gailu baten artean konexio zuzena gauzatzea ahalbidetzen du. Bluetooth-a konexioaren bidez fitxategiak transferitu ditzakezun arren, edukiak segidan bidaltzeko gai delako, gehiago erabiltzen dira Bluetooth-a konexioak BlackBerry gailuan musika entzuteko banandutako bozgorailu baten bidez edo deiak mikrofono bidez egiteko zure BlackBerry gailuaren sare konexioa erabiltze.

### NFC

NFC irismen laburra duen hari gabeko teknologia da eta BlackBerry gailuaren eta NFC gaitutako gailuen edo NFC etiketen artean datuak bizkor transmititzeko erabiltzen da. NFC-rekin ez duzu informazioa parekatu beharrik izango konektatzeko, beraz oso erabilgarria da berehalako ekintzako burutzeko, adibidez, kontaktu-txartelak transferitzeko ezagutu berri dituzun pertsonei edo NFC etiketa bat duen poster batetik informazioa eskuratzeko. Zure hari gabeko zerbitzu hornitzailearen eta zure gailuan instalatuta dituzun aplikazioen arabera, NFC zure BlackBerry gailua diruzorro digital bihurtzeko ere erabil dezakezu, ordainketak zure BlackBerry gailuaren bidez eginez.

### Internet konexio partekatuak

Zure BlackBerry gailuak sare mugikorrean duen konexioa erabil dezakezu beste gailu batzuk Interneten sartzeko. Funtzionalitate hau bereziki erabilgarria da ordenagailu eramangarriarekin edo Wi-Fi tabletarekin Interneten nabigatu nahi duzunean eta Wi-Fi sare batera sarbiderik ez duzunean.

### Interneteko sare-ainguraketa

Interneteko sare-ainguraketa erabil dezakezu gailu bakar bat konektatu nahi duzunean Internetera zure BlackBerry gailuko konexio mugikorraren bidez. Zure BlackBerry gailua USB kable bat erabiliz konekta dezakezu edo bestela, bi gailuek Bluetooth-a onartzen badute Bluetooth-a teknologia erabil dezakezu.

### Hotspot mugikorra

Hotspot mugikor modua erabil dezakezu gehienez, zortzi gailu desberdin konektatzeko zure BlackBerry gailura. (Konekta dezakezu gailu kopurua zure hari gabeko zerbitzu hornitzailearen araberakoa izango da.) Zure gailua Hotspot mugikor modua erabiliz konektatzea, Wi-Fi router batera konektatzea bezala da, zure gailuko Wi-Fi konexioak erabil ditzakezu, baina ez duzu zertan Wi-Fi sare batera sartu.

### VPN konexioak

BlackBerry gailua sare pribatu birtual (VPN) batera konekta dezakezu sare mugikorraren bidez edo Wi-Fi konexio bat erabiliz. Gailua VPNra konektatuta dagoen bitartean, datuk bidali eta jaso ditzakezu sare pribatutik sare publikora.

# Hegaldi modua aktibatu

Zenbait tokitan (hegazkinetan edo ospitaletan) BlackBerry gailuko konexio guztiak desaktibatu beharko dituzu. Hegaldi moduari esker, azkar desaktiba ditzakezu konexioak eta, hegaldi modua erabiltzen amaitzen duzunean, modua desaktibatuz gero, lehen aktibatuta zeuden konexio guztiak berrezartzen dira.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Sare-konexioak.
- 3. Ezarri Hegaldi modua Aktibatuta moduan.

# Gailua HDMI pantaila batera konektatu

- 1. Konektatu zureBlackBerry gailua HDMI pantaila batera, HDMI kablea erabiliz.
- Zure gailuak automatikoki hautemango du zure gailua konektatuta dagoen HDMI pantailaren bereizmena. Hala ere, bereizmena aldatu nahi baduzu, irristatu hatza hasierako pantailatik beherantz. Kolpatu i Ezarpenak > Pantaila. HDMI bistaratze-modua menuko goitibeherako zerrendan, kolpatu erabili nahi duzun pantaila-modua.



# Sare mugikorra

## Sare mugikorrera konektatu

Mugikorreko sarera aldatzeko, hegaldi moduak itzalita egon behar du.

- 1. Hasierako pantailan, ukitu pantailatik beherantz.
- 2. Sakatu 🗱 Ezarpenak > Sare-konexioak > Sare mugikorra.
- 3. Ezarri Sare mugikorra etengailua I jarri dezan.

Sare konexioa eteteko, ezarri Sare mugikorra etengailua O jarri dezan.

## Zure VPNra automatikoki konektatu

BlackBerry gailua sare pribatu birtualera (VPN) automatikoki konekta dadin ezar dezakezu, sare mugikorreko estaldura duzun bakoitzean.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Sare-konexioak > VPN.
- 3. Kolpatu 👘 .
- 4. Goitibeherako zerrendan, kolpatu erabili nahi duzun VPN profila. Zerrendan ez badago VPN profilik, sortu zeurea edo jarri harremanetan administratzailearekin.
- 5. Hautatu Aktibatuta Konektatu sare mugikorraren bidez aukeran.

## Ibiltaritza

Gehienetan, BlackBerry gailua automatikoki konektatuko da dagokion hari gabeko sarera, zure hari gabeko zerbitzuhornitzailearen estaldura-eremutik kanpora bidaiatzen duzunean. Baina, zenbait kasutan, zerbitzu-hornitzailearekin harremanetan jarri beharko duzu mikro SIM txartela edo gailua behar bezala hornitzeko. Gailua ibiltaritzarako konfiguratuta dagoen ala ez edo ibiltaritza-kostuak aplikatuko zaizkizun ziur ez bazaude, ideia ona da, bidaiatu aurretik, hari gabeko zerbitzu-hornitzaileari galdetzea.

### Hari gabeko sareak eskuz aldatu

BlackBerry gailua bidaiatzen duzunean hari gabeko sare egoki batera konektatzeko diseinatu da, baina baliteke sareak eskuz aldatu behar izatea konektatzeko arazoak badituzu edo sarearen seinalea ahula bada.

Hari gabeko zerbitzu-planak zerbitzu hori barruan hartu behar du eta gailua GSM edo UMTS sare batera konektatuta egon behar du.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🏟 Ezarpenak > Sare-konexioak > Sare mugikorra.
- 3. Sare mugikorra Desaktibatuta badago, ukitu Aktibatzeko.
- 4. Ezarri Sarea hautatzeko modua Eskuzkoa aukeran.
- 5. Zure gailuak sareak eskaneatutakoan, sakatu sare bat.

### Desaktibatu datu-zerbitzuak ibiltaritzan

Haririk gabeko zerbitzu planaren arabera, baliteke gai izatea datu-zerbitzuak (mezu elektronikoak, PIN mezuak, eranskindun testu-mezuak eta arakatzaile-zerbitzua) BlackBerry gailuan desaktibatzeko. Modu horretan, telefonoa eta oinarrizko testu-mezularitza soilik egongo da erabilgarri. Ibiltaritzan zaudenean datu-zerbitzuak desaktibatzen badituzu, ibiltaritzako kostu gehigarriak jasotzea saihestuko duzu. Informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.

1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Sare-konexioak > Sare mugikorra.
- 3. Sare mugikorra Desaktibatuta badago, ukitu Aktibatzeko.
- 4. Datu-zerbitzuak ibiltaritzan ataleko goitibeherako zerrendan, sakatu O edo Galdetu.

#### Arazoak: Sare mugikorra

#### Ezin dut sare mugikorrera konektatu

Probatu jarraian zehazten deiren soluzioak:

- Egiaztatu hegaldi modua desaktibatuta dagoela. Hegaldi modua aktibatuta badago, ezingo da sare mugikorra aktibatu. Hegaldi modua desaktibatzeko, irristatu pantailaren goitik behera. Kolpatu **Ezarpenak > Sare-konexioak**. Hautatu **Desaktibatuta Hegaldi modua** aukeran.
- Egiaztatu hari gabeko sarerako konexioa aktibatu duzula. Konexioa egiaztatzeko, **Ezarpenak** pantailan, sakatu **Sareak** eta konexioak > Sare mugikorra. Egiaztatu Sare mugikorra etengailua I dagoela.
- Egiaztatu zureBlackBerry gailua hari gabeko zerbitzu hornitzailearen sarera konektatuta dagoela. Hari gabeko sareak eskuz aldatzen badituzu, gailuak hari gabeko BlackBerry sare horretara konektatuta jarraituko du hari gabeko zerbitzu hornitzailearen sarea berriro hautatzen duzun arte.
- Gailuak mikro SIM txartela erabiltzen badu, egiaztatu gailuan ongi sartu duzula.
- Gailua normalean CDMA sare batera konektatzen bada eta nazioarteko ibiltaritza onartzen badu, ziurtatu gailua ibiltaritza moduan dagoela eta mikro SIM txartela behar bezala sartuta dagoela.

## Wi-Fi

#### Konektatu Wi-Fi sare batera

Sare batera konektatzen zarenean Wi-Fi gailuak BlackBerry sareko informazioa gordetzen du. Sare horren eremuan sartzen zaren hurrengoan Wi-Fi piztuta badago, Wi-Fi automatikoki konektatuko da.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu Wi-Fi.
- 3. Wi-Fi Desaktibatuta badago, ukitu aktibatzeko.
- 4. Sakatu sare bat.
  - Pasahitza eskatzen duen pantaila agertzen bada, idatzi Wi-Fi sarearen pasahitza. Kolpatu Konektatu.
  - Wi-Fi bideratzailean sar bazaitezke eta Wi-Fi Protected Setup erabili nahi baduzu, kolpatu teklatuaren goiko pantaila, teklatua ixteko. Kolpatu 🚺 . Jarraitu gailuaren pantailako argibideei.
- 5. Sakatu Konektatu.

Aholkua: Gordetako Wi-Fi sare batera konektatu nahi duzun hurrengoan, sarea zure gailuaren barrutian badago, irristatu hatza Hasierako pantailatik behera eta sakatu 🛜 .

#### Wi-Fi sareetara eskuz konektatu

Ezkutuko Wi-Fi sare batera konektatu nahi baduzu edo arazoak badituzu automatikoki konektatzeko, eskuz konekta zaitezke.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu Wi-Fi > + .
- 3. **SSID** eremuan, idatzi sarearen izena.
- 4. Hautatu sarearen segurtasun mota eta zehaztu bestelako edozein informazio osagarri. Zein informazio zehaztu behar duzun jakiteko, hitz egin zure administratzailearekin edo Wi-Fi sarea kudeatzen duen pertsonarekin.
- 5. Sakatu Konektatu.

#### Tutoriala: BlackBerry 10 gailuan Wi-Fi konfiguratu.

Tutorial honekin, BlackBerry 10 gailu batean Wi-Fi bat nola konfiguratzen den ikusi eta praktika dezakezu.

Oharra: Tutoriala ingelesez bakarrik dago erabilgarri.

Hasi tutoriala

http://docs.blackberry.com/tutorials/wifi/en

#### Gordetako Wi-Fi sareak ezabatu

BlackBerry gailuak 64 sare gorde ditzake, gehienez. Gailuan gordetako sare pila baduzu eta guztiak erabiltzen ez badituzu, batzuk ezaba ditzakezu Gordetako sareak pantaila txukuntzeko. Ezkutuko SSID erabiltzen duten gordetako sareak ezabatuz gero, bateriak gehiago iraungo du.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu Wi-Fi.
- 3. Egiaztatu **Wi-Fi** etengailua I dagoela.
- 4. Sakatu 拱 .
- 5. Sakatu ezabatu nahi duzun sarea.
- 6. Sakatu 💼 .

#### Gordetako Wi-Fi sareak desgaitu edo berriro gaitu

Baliteke, BlackBerry gailua gordetako Wi-Fi sare batera automatikoki konektatu nahi ez izatea, baina gordetako sarea ez ezabatu nahi izatea ere. Horretarako sarea desgaitu dezakezu.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu Wi-Fi.
- 3. Egiaztatu **Wi-Fi** etengailua **I** dagoela.
- 4. Sakatu 🔜 .
- 5. Sakatu sare bat.
  - Sarea desgaitzeko, ezarri Gaitu konexioak O aukeran.
  - Sarea berriz gaitzeko, ezarri Gaitu konexioak I aukeran.

#### Wi-Fi sarearen ezarpenak

Normalean ez duzu Wi-Fi sarerako ezarpenik aldatu behar, hala ere, batzuetan zure ezarpenak aldatu behar izango dituzu konektatzeko arazoak badituzu edo eskuz konektatu behar baduzu.

Wi-Fi sare bakoitzarentzako erabilgarri dauden ezarpenak konektatuta zauden sarearen araberakoak dira. Zein ezarpen erabili jakiteko: etxeko sarera konektatzen ari bazara, ikusi hari gabeko bideratzailearekin batera banatutako informazioa; lanekoWi-Fi sarera konektatzen ari bazara, hitz egin administratzailearekin; hotspot batera konektatzen ari bazara, ikusi hotspotari buruzko informazioa edo hitz egin hotspoteko langile batekin, hark eman badiezazuke konektatzeari buruzko informazioa.

#### Pasahitza

Wi-Fi sarea pasahitzarekin babestuta badago, idatzi pasahitza.

#### SSID

Sareak bere burua identifikatzeko erabiltzen duen izena da SSIDa. Normalean, eremua automatikoki beteko da, baina Wi-Fi sarea ezkutatuta badago, SSIDa idatzi beharko duzu konektatzeko. eta hautatu **Ezkutuko SSIDa** kontrol-laukia.

#### Segurtasun mota

Ezarri Wi-Fi sareak zein segurtasun mota erabiltzen dituen. Konektatu nahi duzun sarearen arabera, baliteke **Segurtasun azpimota** eta **Barneko esteka-segurtasuna** aukerak ere ikustea.

#### CA ziurtagiria

Ezarri BlackBerry gailuak Wi-Fi sare zuzenera konektatzen ari dela egiaztatzeko erabili beharko luzeen erroko ziurtagiria.

#### **VPN** profilak

Sare batera konektatzen ari zarenean VPN profil bat erabiltzeko, hautatu erabili nahi duzun profila.

#### Banda mota

Besterik adierazi ezean, Banda duala hautatuta egon ohi da. Wi-Fi sarea banda dualekoa bada, gailua 5.0 GHz bandan konektatzen saiatuko da, 2.4 GHz banda nabarmen indartsuagoa denean izan ezik. Banda bakarra erabili banda dualera konektatu nahi baduzu, aukeratu zein banda nahiago duzun.

#### Eskuratu automatikoki IPa

Kasu gehienetan, aukera hau markatuta egongo da, baina BlackBerry gailuaren IP helbidea eskuz zehaztu nahi baduzu, aukera hau **O** gisa ezarri behar duzu eta IP helbidea sartzeko aukera agertuko da.

#### IPv6 gaitu

Zehaztu sareak IPv6 protokoloa erabiltzen duen ala ez.

#### Proxya erabili

Ezarri aukera hau I moduan proxy zerbitzari batera konektatu nahi baduzu. Ezarpen hau hautatzen duzunean, ezarpen osagarriak agertuko dira. Zein ezarpen erabili jakiteko, ikusi proxy zerbitzariarekin batera banatutako informazioa.

#### Sarbide-puntua transferitzea

Sareak sarbide-puntu ugari baditu, zehaztu gailuak konektatuta jarraituko duen sarbide-puntu batetik bestera aldatzen duzunean.

#### Gehitu VPN profil bat

Wi-Fi edo VPN konexioa behar duzu VPN profil berria gehitu aurretik.

Baliteke VPN profil bat edo gehiago edukitzea zure BlackBerry gailuan, zure administratzaileak zuretzat ezarritako aukeren arabera.

BlackBerry Enterprise Service 10-ek onartzen duen laneko kontua erabiltzen baduzu, baliteke zenbait VPN profil automatikoki gehitze eta VPN profilak eskuz gehitu behar ez izatea. Ez baduzu VPN profil bat gehitzeko aukerarik ikusten, zure administratzaileak konexio mota hori desaktibatu duela esan nahi du.

- 1. Hasierako pantailan, ukitu pantailatik beherantz.
- 2. Sakatu 🙀 Ezarpenak >Sare-konexioak > VPN > Gehitu.
- 3. Bete eremuak. Ez baduzu eskatzen den informazioa, jarri zure administratzailearekin kontaktuan.
- 4. Sakatu Gorde.

#### Arazoak: Wi-Fi

#### Arazoak konpontzeko laguntzailea: Ezin naiz Wi-Fi batera konektatu

Arazoak konpontzeko laguntzaileak zure Wi-Fi konexio arazoa konpontzeko bideratuta dauden galderak eta eginbideak proposatuko dizkizu.

Abiarazi arazoak konpontzeko laguntzailea.

http://docs.blackberry.com/troubleshooting/wi-fi/en

Oharra: Arazoak konpontzeko laguntzaile hau ingelesez bakarrik dago eskuragarri.

#### Ezin naiz Wi-Fi batera konektatu

Hasi oinarrizko jaulkipen hauek egiaztatzen:

- Egiaztatu Wi-Fi sarerako konexioa aktibatuta duzula. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goitik behera. Egiaztatu Wi-Fi ikonoa urdin dagoela.
- Egiaztatu Wi-Fi sare baten estaldurapean zaudela. Etxeko sare batera konektatzen ari bazara, ikusi hari gabeko beste gailu batzuk konektatzeko gai diren. Gailua konektatzen ez bada, baliteke bideratzailea berrezarri behar izatea. Laneko Wi-Fi edo hotspot batera konektatzen ari bazara, hitz egin administratzailearekin edo hotspoteko langilearekin.
- Baliteke konexioak iraungi izana. Saiatu berriro konektatzen.
- Nahi duzun Wi-Fi sarea agertzen ez bada Wi-Fi ezarpenen pantailan, agian ezkutuan dagoelako da. Sarearen izena badakizu, saiatu Wi-Fi sarera eskuz konektatzen.
- Egiaztatu Mobile Hotspot modua desaktibatuta dagoela. Mobile Hotspot modua aktibatuta badago, gailua ezingo da Wi-Fi sarera konektatu.

Goiko irtenbideek ez badizute lagundu, saiatu ondorengo konponbide aurreratuekin:

- Egiaztatu gailuko BlackBerry ordua sareko orduarekin sinkronizatuta dagoela. Orduak desberdinak badira, baliteke horrek konektatzen ez uztea (esaterako, sarera konektatzeko gailuan ziurtagiria eskatzen badu eta ziurtagiri horrek iraungitze data badu).
- Wi-Fi sareetara eskuz konektatzen bazara, saiatu beste Wi-Fi sare batera konektatzen.
- Zure posta elektronikoa lan-kontu bati lotuta badago, baliteke gailuak hari gabeko sarbide-puntu jakin batzuetarako konexioa eragoztea. Informazio gehiagorako, jarri harremanetan administratzailearekin.

Oraindik konektatu gabe? Ados, probatu hau:

- Egiaztatu sarearen Wi-Fi ezarpenak zuzenak direla. Zein ezarpen erabili jakiteko, etxeko sareetan begiratu bideratzailearekin batera etorritako informazioa; laneko Wi-Fi sareetan, hitz egin administratzailearekin; eta hotspot publikoetan, begiratu hotspotak emandako edozein informazio edo hitz egin hotspoteko langile batekin, baliteke hark nola konektatu jakitea.
- Sakatu bideratzaileko WPS botoia ezarpena erabiltzen baduzu Wi-Fi Protected Setup-(e)an, egiaztatuWi-Fi bideratzaileak Wi-Fi Protected Setuperabiltzen duela eta bere profila bidaltzeko konfiguratuta dagoela. Ziurtatu ez dagoela aldi berean sare berera konektatzen saiatzen ari den gailurik, eta estaldura eremuan profila bidaltzeko konfiguratuta dagoen Wi-Firouter bakarra dagoela. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi bideratzailearekin batera etorritako informazioa.
- PEAP, EAP-TLS, EAP-FAST edo EAP-TTLS protokoloetakoren erabiltzen baduzu Wi-Fi Wi-Fi sarera konektatzeko, egiaztatu autentifikazio zerbitzariarentzako ziurtagiria sortu zuen zerbitzari autoritate ziurtagiri-emailearen erroko ziurtagiria instalatuta duzula. Sarera konektatu baino lehenago instalatu behar da erro-ziurtagiria gailura. Informazio gehiagorako eskuratzeko, hitz egin administratzailearekin.
- EAP-TLS erabiltzen baduzu, Wi-Fi sarera konektatzeko egiaztatu autentifikazio ziurtagiria instalatu duzula gailuan. Sarera konektatu baino lehenago instalatu behar da autentifikazio ziurtagiria gailura. Informazio gehiagorako eskuratzeko, hitz egin administratzailearekin.

 Laguntza emango dizun norbaitekin hitz egin nahi baduzu, diagnosiaren informazioan sar zaitezke Wi-Fi ezarpenen pantailako sakatuz. Saioa hasteko behar duzun informazioa zure laguntza-ordezkariari bidaltzeko Diagnostikoaren informazioa goitibeherako zerrendan, sakatu Erregistroak. Sakatu Kopiatu erregistroak.

## Mobile Hotspot modua

#### Partekatu zure Internet konexioa Hotspot mugikorra erabiliz

Hotspot mugikorra modua erabiltzen duzunean zure BlackBerry gailuak gaitutako beste Wi-Fi gailu batzuk konektatzeko Wi-Fi sarea sortzen du Internet zure sare mugikorraren konexioaren bidez erabil dezaten. Eginbide honi esker, zure gailuak Internetera konekta ditzakezu zure BlackBerry gailuak sare mugikorraren konexioa duen edozein tokitan, baina ezaugarri honek sare mugikorra erabiltzen duenez, baliteke datu-kostu gehigarri altuak suposatzea.

Zenbait sare mugikorretan, baliteke posta elektronikoa eta BBM gisako zerbitzuak erabilgarri ez egotea Mobile Hotspot modua aktibatuta dagoen bitartean.

BlackBerry gailuan Hotspot mugikorra modua konfiguratutakoan, Wi-Fi gaitutako gailuarekin hotspot mugikor batera konektatzea beste edozein bideratzailera konektatzearen antzekoa da.

Hotspot mugikorra modua erabili aurretik, irakurri segurtasunari eta produktuari buruzko informazioa www.blackberry.com/docs/smartphones helbidean.

#### Erabili Mobile Hotspot zure Internet konexioa partekatzeko

Hotspot mugikorra modua aktibatu aurretik, egiaztatu zureBlackBerry gailua sare mugikorrera konektatuta dagoela.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🗱 Ezarpenak > Sare-konexioak > Mobile Hotspot.
- 3. Hotspot mugikor modua ez baduzu inoiz erabili, jarraitu pantailako argibideei. Irakurri arretaz pantailak Hotspot mugikorraren ezaugarriari buruzko informazio garrantzitsua ematen baitizute. Gogoratu zure Hotspot mugikorraren pasahitza beranduago erabiltzeko.
- 4. Ezarri Hotspot mugikorra etengailua l aukeran.
- 5. Mobile Hotspot konektatu nahi duzun gailuan, gailua Wi-Fi sare batera konektatzerakoan egiten dituzun pauso berdinak jarraitu. Mobile Hotspot izena eta ezarri duzun pasahitza ezagutu beharko dituzu konfiguratze prozesuan.

#### Aurkitu zure Hotspot mugikorra moduko ezarpenak

Mobile Hotspot lehenengoz aktibatzen duzunean konfiguratuko dituzu zure Mobile Hotspot ezarpen gehienak. Beranduago ere izango duzu ezarpen horiek aldatzeko aukera, Mobile Hotspot saio aktibo batean ez zaudenean.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🗱 Ezarpenak > Sare-konexioak > Mobile Hotspot.
- 3. Sakatu 🔁

## Deskonektatu gailua zure hotspot mugikorretik

Gailutik Mobile Hotspot deskonektatu ondoren gailua berriro konektatu nahi baduzu, berriro hasi beharko duzu saioa Mobile Hotspot moduan.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🗱 Ezarpenak > Sare-konexioak > Mobile Hotspot.
- 3. Sakatu zure hotspot mugikorretik deskonektatu nahi duzun gailuaren izena.
- 4. Sakatu 🗵 .

#### Arazoak: Hotspot mugikorra modua

#### Ezin du nire gailua Hotspot mugikor gisa erabili

- Egiaztatu sare mugikor batera konektatuta zaudela. 📶 agertzen bada hasierako pantailako goi-eskuinaldean sare mugikorra aktibatuta eta konektatuta dago.
- Egiaztatu hari gabeko zerbitzu-plana Hotspot mugikorra modua erabiltzeko konfiguratu dela. Ez badago konfiguratuta zure zerbitzu plana aldatu beharko duzu Hotspot mugikorra zure BlackBerry gailuan funtzionatzen hasteko.
- Baliteke zure hari gabeko zerbitzu-hornitzaileak Hotspot mugikorra erabiltzea ez onartzea ibiltaritza moduan zauden bitartean. Informazio gehiago eskuratzeko, egiaztatu zure zerbitzu-plana edo jarri harremanetan hari gabeko zerbitzu-hornitzailearekin.
- Gailua lanerako erabiltzen ari bazara, baliteke erakundeak Mobile Hotspot modua erabiltzen ez uztea. Informazio gehiago eskuratzeko, galdetu administratzaileari.
- Ibiltaritza moduan zauden bitartean, zure hari gabeko planak Hotspot mugikorra modua erabiltzea onartzen badu, **Sare mugikorra** menuko ezarpen pantailan, egiaztatu **Datu zerbitzuak ibiltaritzan** aukera aktibatuta dagoela.

## Ezin dut gailu bat baino gehiago konektatu nire Hotspot mugikorrera

Hari gabeko zerbitzu-planaren arabera, baliteke Hotspot mugikorrera gailu bat baino gehiago ezin konektatzea edo konekta dezakezun gailu kopurua zortzi baino txikiagoa izatea.

## Interneteko sare-ainguraketa

# Zure sare mugikorraren konexioa Interneteko sare ainguratuaren bidez partekatzen.

Interneteko sare-ainguraketak zure BlackBerry gailuko konexioa beste gailu batzuekin konektatzeko aukera ematen dizu, hala nola ordenagailu eramangarria edo tableta. Modu honetan Internetera sartzeko aukera izango duzu zure BlackBerry gailuekin sare mugikor seinalea duzun edozein lekutan.

Baliteke kargu gehigarriak edukitzea Interneteko sare-ainguraketa erabiltzeagatik. Zenbait saretan ezin dituzu zenbait zerbitzu erabili BlackBerry gailuan Interneteko sare-ainguratua erabiltzen duzun bitartean, adibidez, posta elektronikoa eta BlackBerry Messenger.

#### Interneteko sare-ainguraketa erabili Internet konexioa partekatzeko

Zure BlackBerry gailua aingura dezakezu USB kable bat edo Bluetooth-a konexioa erabiliz.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Sare-konexioak > Interneteko sare-ainguraketa.
- 3. Internet bidezko ainguraketa modua ez baduzu inoiz erabili, jarraitu pantailako argibideei. Irakurri arretaz konfigurazio pantailak Interneteko sare-ainguratuari ezaugarriari buruzko informazio garrantzitsua ematen baitizute.
- 4. Konektatu goitibeherako zerrenda erabiliz moduan, sakatu USB edo Bluetooth.
- 5. Ezarri Interneteko sare-ainguratua I aukeran
- 6. KonektatuBlackBerry gailua ordenagailu eramangarri batera edo tablet batera USB kablea edoBluetooth-a bidezko konexioa erabiliz.

#### Arazoak: Interneteko sare-ainguraketa

#### Ezin dut Internet sare-ainguraketa erabili

- Egiaztatu zureBlackBerry gailua sare mugikorrera konektatuta dagoela. 📶 agertzen bada hasierako pantailako goieskuinaldean, zure gailua sare mugikorrera konektatuta dago.
- Egiaztatu hari gabeko zerbitzu-plana Interneteko sare-ainguraketa modua erabiltzeko konfiguratu dela. Ez badago konfiguratuta zure zerbitzu-plana aldatu beharko duzu Interneteko sare-ainguraketa erabiltzen hasi aurretik.
- Gailua lanerako erabiltzen ari bazara, baliteke erakundeak Interneteko sare-ainguraketa modua erabiltzen ez uztea. Informazio gehiago eskuratzeko, galdetu administratzaileari.
- Ibiltaritza moduan zauden bitartean Sare mugikorra menuko ezarpen pantailan, egiaztatu Datu zerbitzuak ibiltaritzan aukera aktibatuta dagoela.

## Bluetooth-a

#### AktibatuBluetooth-a teknologia

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🐒 .

Bluetooth-a teknologia aktibatuta dagoenean, 👔 urdin kolorez agertzen da eta 👔 bistaratuko da pantailaren goi-ezker ertzean.

Bluetooth-a Teknologia desaktibatzeko, sakatu 👔 berriro.

#### Bluetooth-a gaitutako gailu batekin parekatu eta konektatu

Ziurtatu Bluetooth-a teknologia aktibatuta dagoelako konektatu nahi dituzun gailuetan.

BlackBerry gailua Bluetooth-a gaituta duen beste gailu batera konektatu baino lehen, parekatu egin beharko dituzu.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu Bluetooth.
- Ziurtatu Bluetooth-a teknologia aktibatuta dagoela.
  BlackBerry gailuak automatikoki detektatuko du barrutian ikusgai dagoen edozein gailu.
- 4. Beharrezko bada, inguruko Bluetooth-a gaitutako gailuak berriro bilatzeko, kolpatu Freskatu.
- 5. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Konektatu nahi duzun gailua **Gailuak** zerrendan agertzen bada, kolpatu gailuaren izena. Jarraitu pantailako argibideei.
  - Gailua ez bada**Gailuak** zerrendan agertzen, baliteke ikusgarri ez egotea. Egiaztatu gailua ikusgarri dagoela eta saiatu berriro. Ez badakizu nola egiaztatu gailu bat ikusgarri dagoen, kontsultatu gailuarekin zetorren dokumentazioa.
  - Gailua ez bada Gailuak zerrendan agertzen eta ezin baduzu ikusgarri bihurtuz konektatu, baliteke gailutik parekatze prozesua burutu behar izatea. Zure BlackBerry gailuan, Ikusgai goitibeherako zerrendan, sakatul edo 2 minutu. Beharrezkoa bada, idatzi BlackBerry gailuaren pasahitza. Hasi parekatze prozesua gailuarekin zetorren dokumentazioko argibideak jarraituz.

Zure gailuak partekatzeko eta komunikatzeko prest daudeBluetooth-a konexioaren bidez. Parekatu duzun gailuaren arabera, zure gailuak konektatuta edo konektatzeko prest egongo dira Bluetooth-a abiaraztean, adibidez fitxategi bat partekatzea.

#### Parekatutako edo gordetako Bluetooth-a gaitutako gailuari izena aldatu

Parekatutako edo gordetako Bluetooth-a gaitutako gailuari BlackBerry gailuan agertzen den izena alda diezaiokezu.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu Bluetootha.
- 3. Egiaztatu Bluetooth-a teknologia aktibatuta dagoela.
- 4. Eduki ukituta izena aldatu nahi diozun gailua.
- 5. Kolpatu 📃 .
- 6. **Gailuaren izena** eremuan, idatzi gailuaren izen berria.

#### Parekatutako Bluetooth gaitutako gailu batetatik deskonektatu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu Bluetooth.
- 3. Eduki ukituta deskonektatu nahi duzun gailua.
- 4. Kolpatu 😪.

#### Gordetako Bluetooth-a gaitutako gailuak ezabatu

Bluetooth-a gailuan gordetako BlackBerry gaitutako gailuen zerrenda luzea baduzu, erabiltzen ez dituzunak ezaba ditzakezu, maiztasunez erabiltzen dituzunak errazago aurkitzeko.

- 1. Hasiera pantailaren goialdetik, irristatu hatza beherantz.
- 2. Kolpatu Bluetootha.
- 3. Eduki kolpatuta gailua.
- 4. Sakatu 💼 .

#### Gailua autoarekin parekatzea

Nire autoa eginbideari esker, BlackBerry gailua autoarekin konekta dezakezu Bluetooth-a teknologia erabiliz. Autoa eta gailua konektatuta daudenean, baliteke gailuak hasierako pantaila eta blokeatutako pantaila pertsonalizatuak bistaratzea. Gainera, aplikazio bereziak ager daitezke BlackBerry World erakusleihoko Autoaren kanala aplikazioan.

Gailuak Bluetooth-a gaitutako autoarekin konexioa detektatzen duen lehenengo aldian, gailuak autoa zure auto gisa ezartzeko eskatuko dizu. Gailua autoarekin parekatu ostean, blokeo-pantailak gailua autora konektatuta dagoela adieraziko dizu eta erabilgarri dauden eginbideak bistaratuko ditu.

#### Nire autoa eginbidea desaktibatu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu Bluetootha.
- 3. Eduki ukituta autoaren izena.
- 4. Kolpatu Kendu nire auto gisa.

#### Bluetooth-a gaitutako autoko ekipoak mezuetan nola sartuko den ezarri

Mezuan Sartzeko Profila (MAP) onartzen duten Bluetooth-a gaitutako zenbait autoko ekipori esker mezuak jaso eta bidal ditzakezu ahots-komandoak erabiliz.

Bluetooth-a Teknologia autoan erabiltzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi autoarekin batera datorren dokumentazioa.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu Bluetooth > 💽 .
  - Denbora iraungi baino lehen zure BlackBerry gailura autoko ekipora mezuak bidaltzeko denbora maiztasuna aldatzeko, doitu **Mezua deskargatzeko denbora-muga** graduatzailea.
  - Autoko ekipoa sar daitekeen kontuak aldatzeko, **Mezuetan sartzeko kontuak** atalean, hautatu edo desautatu kontu bakoitzaren alboko kontrol-laukia.

#### Autoko kitak gailuaren sare-kredentzialak erabiltzea baimendu

Autoko kit batzuk erabili ahal izateko, rSAP modua aktibatu behar duzu, autoko kitak BlackBerry gailuaren sarekredentzialak erabiltzea onartzeko.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu Bluetootha > 🔁 .
- 3. Hautatu I rSAP modua etengailuan.

#### Automatikoki ezarri Bluetooth-a konexioa gailua pizten duzunean

Baliteke zure BlackBerry gailua beti Bluetooth-a gaitutako gailu batera konektatuta edukitzea nahi izatea, entzungailuetara adibidez. BlackBerry gailua BlackBerry aktibatzen den bakoitzean azkena konektatu zen Bluetooth-a gaitutako gailura automatikoki konekta dadin konfigura dezakezu.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu Bluetooth > 💽 .
- 3. Hautatu Konektatu azken gailura, aktibatutakoan kontrol-laukia.

### Onartutako Bluetooth-a profilak

Zure BlackBerry gailua Bluetooth Smart Ready gailu bat da eta profil hauek onartzen ditu. Gailua laneko kontu batekin lotuta badago, baliteke administratzaileak profilen baten erabilera desgaitzea.

Profila	Deskribapena
Audio banaketa aurreratuko profila (A2DP)	Profil honi esker, BlackBerry gailuko audio-fitxategiak aurikular estereoak, bozgorailuak eta autoko kitak gisako audio estereoa onartzen duten Bluetooth-a gaitutako gailuetan zuzenean erreproduzi ditzakezu.
Audioren/Bideoaren urruneko kontrolaren profila (AVRCP)	Profil honi esker, Bluetooth-a gaitutako aurikularreko botoiak erabil ditzakezu, besteak beste, BlackBerry gailuko bolumena doitzeko edo hurrengo edo aurreko multimedia- fitxategia erreproduzitzeko.
Audio/Bideo banaketa orokorreko profila (GAVDP)	Profil honi esker, BlackBerry gailuko audio- eta bideo- edukia Bluetooth-a gaitutako gailuetan zuzenean erreproduzi dezakezu, hala nola, musika- erreproduzitzaileetan, bozgorailu estereoetan, ordenagailu eramangarrietan eta mahaigaineko ordenagailuetan.
Objektu orokorrak trukatzeko profila (GOEP)	Profil honi esker, BlackBerry gailuaren eta Bluetooth-a gaitutako gailuaren artean fitxategiak parteka ditzakezu.
Giza interfazeko gailua (HID)	Profil honi esker, BlackBerry gailua Bluetooth-a gaitutako gailuetara konekta dezakezu, hala nola teklatura edo sagura.
Eskulibreko profila (HFP)	Profil honi esker, BlackBerry gailua eskulibreko profila onartzen duen Bluetooth-a gaitutako aurikularretara konektatzeko. Profilak ahots bidezko markatzea onartzen du.
Mezuetara sartzeko profila (MAP)	Profil honi esker, Bluetooth-a gaitutako autoko kita erabil dezakezu BlackBerry gailuarekin, mezu berrien jakinarazpenak jasotzeko. Profil honek, gainera, mezuak irakurtzen, ezabatzen, arakatzen, idazten eta bidaltzen lagun diezazuke.
Objektuak bultzatzeko profila (OPP)	Profil honi esker, argazkiak, kontaktuak edo gertaerak gisako fitxategiak bidal ditzakezu Bluetooth-a gaitutako gailura.

Profila	Deskribapena
Eremu pertsonaleko sarea - Erabiltzailea/Sarerako sarbide- puntua (PAN - U/NAP)	Profil honi esker, BlackBerry gailua modem gisa erabil dezakezu, Bluetooth-a gaitutako ordenagailu batera konektatuta dagoenean.
Telefonoko agendara sartzeko profila (PBAP)	Profil honi esker, Bluetooth-a gaitutako autoko kita erabil dezakezu BlackBerry gailuko kontaktuen informaziora sartzeko, adibidez, autoko kitaren bidez kontaktu bati deitzeko edo dei-egilearen izena bistaratzeko.
Mikro SIMen sartzeko profila (MSAP)	Profil honi esker, gailua GSM sarean exekutatzen dira gailuetara konekta zaitezke, hala nola, autoko telefonora, eta mikro SIM txartelaren funtzionalitateak gailura zabal ditzakezu.
Serie-atakako profila (SPP)	Profil honi esker, zure gailua mahaigaineko ordenagailuko konektibitatea, zuzeneko hari gabekoa eta datu- transferentzia onartzen dituzten Bluetooth-a gaitutako gailura konekta zaitezke.
Gailua identifikatzeko profila (DIP)	Profil honi esker, Bluetooth-a gaitutako gailuekin BlackBerry gailuaren modeloari buruzko informaziora sar zaitezke, entxufatu eta erreproduzitu eginbideak onartzeko, hala nola beharrezko kontrolatzaileak automatikoki deskargatzeko.

#### Arazoak: Bluetooth

## Ezin dut nire gailua Bluetooth gaitutako gailu batekin parekatu

- Egiaztatu BlackBerry gailua Bluetooth-a gaitutako gailuarekin bateragarria dela. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi Bluetooth-a gaitutako gailuarekin jasotako dokumentazioa.
- Ez baduzu gaitutako Bluetooth-a gailuak pasahitza eskatzen badu eta ez baduzu pasahitza ezagutzen, ikusi Bluetootha gaitutako gailuarekin jasotako dokumentazioa. Batzuetan pasahitza **0000** zenbakiarekin konfiguratzen da zuk aldatzen duzunera arte. Pasahitza ez badakizu, probatu **0000** markatuta.
- Zure BlackBerry gailuak ez badu parekatu nahi duzun Bluetooth-a gaitutako gailurik hautematen, saiatu BlackBerry gailua denbora-tarte labur baterako ikusgai egiten.Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera. Sakatu **Bluetooth. Ikusgai** goitibeherako zerrendan, sakatu **I** edo **2 minutu**. Beharrezkoa bada, idatzi BlackBerry gailuaren pasahitza. Hasi parekatze prozesua gailuarekin zetorren dokumentazioko argibideak jarraituz.
- Bluetooth-a gaitutako gailuak bateria erabiltzen du, konektatu gailua energia-iturri batera eta ondoren saiatu berriro. Gailuaren arabera, baliteke funtzionatzen jarraitu arren, gailua parekatzeko gai ez izatea, bateria maila gutxiegi badu.
- Mobile Hotspot modua aktibatuta badago, egiaztatu Bluetooth-a gaitutako gailura konektatu nahian zabiltzala, Eskulibrea, Serieko ataka edo Eremu pertsonaleko sarea profilen bidez.

# Bluetooth gaitutako nire autoko kitarekin nuen konexioa galtzen dut etengabe

- Egiaztatu autoko kita erabilgarri dagoen software bertsio berriena erabiltzen ari dela. Gaitutako autoko kitaren software bertsioari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikusi autoko kitarekin batera ekarritako dokumentazioa.
- Mugitu BlackBerry gailua autoko beste kokapen batera edo jarri gailua beste norabide batera begira. Baliteke zure gailuaren Bluetooth-a antenaren kokapena autoko kitaren antenarekiko konexioari Bluetooth-a eragin diezaioke.

## NFC

## Zer da NFC?

Baliteke BlackBerry gailu modeloan NFC eginbidea erabilgarri ez egotea zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen edo zure administratzailearen ezarpenen arabera.

NFC irismen motza duen hari gabeko teknologia da eta datuak eta informazioa partekatutako informazioa erabili beharrik gabe bizkor transferitzeko helburuarekin diseinatu da.

Zure gailuan instalatuta dituzun aplikazioen arabera eta NFC-k beste gailu batzuekin duen bateragarritasunaren arabera, NFC erabiltzeko modu interesgarri anitz egon daitezke. Hemen dituzu aukera batzuk:

- Kontaktu-txartelak elkarri eman lagunei edo laneko ezagunei aldi berean.
- Lagun bati argazki bat pasatu.
- Autobusean edo metroan egingo duzun bidaia ordaindu.
- Ordaindu gosarian hartzen duzun kafea diru-zorroa atera gabe.
- Hartu kupoiak kalean.
- Sartu zure eraikinera lanera zoazenean.
- Bidali ikusten ari zaren web orri bat lagun bati.
- Gehitu lagun bat zure BBM kontaktuetara.
- Kopiatu etiketa adimendu baten informazioa NFC etiketa batera.

Hauek NFC-rekin egin ditzakezun adibide batzuk besterik ez dira. Gehiago lortzeko, jolastu zure gailuarekin NFC aktibatuta duzula, erabili sormena eta zer egin dezakezun ikusiko duzu.

## Aktibatu NFC

Baliteke BlackBerry gailu modeloan NFC eginbidea erabilgarri ez egotea zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen edo zure administratzailearen ezarpenen arabera.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🐼 Ezarpenak > Sare-konexioak > NFC.
- 3. Ezarri **NFC Konektagarritasuna I** aukeran.

## NFC teknologia erabiliz fitxategi bat bidali

Baliteke BlackBerry gailu modeloan NFC eginbidea erabilgarri ez egotea zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen edo zure administratzailearen ezarpenen arabera.

NFCrekin mota askotako fitxategiak truka ditzakezu BlackBerry gailuaren eta NFC gaituta duten beste gailu batzuen artean, hala nola argazkiak, musika, kontaktuen informazioa eta web-orriak.

- 1. Bidali nahi duzun fitxategi kopuruaren arabera, zure BlackBerrygailuan gauzatu hauetako bat :
  - Fitxategi bakar bat bidaltzeko, aurkitu eta ireki fitxategi bat.
  - Fitxategi ugari bidaltzeko, bilatu eta nabarmendu bidali nahi dituzun fitxategiak. Sakatu 💱 > NFC.
- 2. Lerrokatu zure BlackBerry gailuaren atzealdea NFC-k gaitutako gailu batekin
- 3. Beharrezkoa bada, sakatu **Bidali**.

**Aholkua:** Kasu gehienetan fitxategiak elkar bidali ditzakezu NFC-k gaitutako bi BlackBerry gailuren artean aldi berean. Funtzionalitate hau oso erabilgarria da Etiketa adimendunak aplikazioan gordetako kontaktuen informazioa elkar bidali nahian bazabiltza.

#### Ezagutu NFC ezarpenak

Baliteke BlackBerry gailu modeloan NFC eginbidea erabilgarri ez egotea zure hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen edo zure administratzailearen ezarpenen arabera.

BlackBerry gailuak fitxategiak jaso aurretik edo ondoren abisatzea nahi duzun konfigura dezakezu. Zure gailua kreditutxartel baten moduan ordainketak egiteko edo, eraikin batera sartzean, sarbide-kredentzialak noiz erabili nahi duzun ere konfigura dezakezu.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🐹 Ezarpenak > Sare-konexioak > NFC.

# Software-eguneratzeak

# Nola eguneratu dezaket nire softwarea BlackBerry 10 gailuan?

Eskualdearen eta hari gabeko zerbitzu-hornitzailearen arabera, baliteke software-eguneratzerik erabilgarri ez egotea.

Babeskopiak egin eta ordenagailuan gorde behar zenituzke, bereziki, edozein software eguneratu aurretik. Uneko babeskopiak zure ordenagailuan gordeta izanez gero, gailuko datuak berreskura ditzakezu BlackBerry gailua galtzen baduzu, lapurtzen badizute edo aurreikusi gabeko edozein arazogatik kaltetzen bazaizu.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🙀 Ezarpenak > Software-eguneratzeak.
- 3. Sakatu Eguneratzeak.

Zure gailuaren softwarea BlackBerry Link erabiliz ere eguneratu daiteke. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi BlackBerry Link-rentzako Laguntza dokumentazioa.

## Hizkuntza

## Pantailako hizkuntza aldatu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Hizkuntza eta idazketa.
- 3. Hizkuntza menuko goitibeherako zerrendan, sakatu erabili nahi duzun hizkuntza.

## Idazteko hizkuntza aldatu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🙀 Ezarpenak > Hizkuntza eta idazketa.
- 3. Sakatu Idazteko hizkuntzak > Hizkuntzak gehitu/kendu.
- 4. Hautatu gaitu nahi duzun hizkuntzaren alboko kontrol-laukia.

Aholkua: Idazketa-hizkuntzak sarri aldatu nahi badituzu, saiatu Hizkuntza-detekzioa aktibatzen Idazteko hizkuntza pantailan. Aukera hau gaitzean, gailuak automatikoki antzemango du gehienez hiru hizkuntza desberdinen artean zein ari zaren erabiltzen.

## Teklatuko hizkuntza aldatu

- 1. Teklatuan, eduki ukituta 💿 .
- 2. Kolpatu zein hizkuntzatan idatzi nahi duzun teklatuan.

## Aldatu zure ahots bidezko idazketaren hizkuntza

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🐼 Ezarpenak > Hizkuntza eta idazketa.
- 3. Kolpatu Ahots bidezko diktaketa.
- 4. Hizkuntza menuko goitibeherako zerrendan, sakatu erabili nahi duzun hizkuntza.

# Teklatua eta idazketa

## Teklatua eta idazketa begiratu batean

BlackBerry gailuarekin interaktuatzeko BlackBerry teklatua erabiltzeko modu ugari daude. Erabili Begirada batean irudia, teklatuaren gaitasunak ezagutzeko.



## Hasierako pantailako lasterbideak

Berehalako ekintza aukerarekin BlackBerry teklatua erabiliz gero, zeregin ugari egin ditzakezu bilaketa-eremuan zenbait komando idazten dituzunean. Hasierako pantailako lasterbideak erabil ditzakezu deiak egiteko, mezu elektronikoak edo testu-mezuak bidaltzeko, BBM berriketa bat hasteko, Facebook egoera eguneratzeko, tweet bat edo LinkedIn eguneratze bat argitaratzeko, Mapak aplikazioan toki bat kokatzeko, musika erreproduzitzeko edo oharrak eta zereginak BlackBerry Remember-en gehitzeko.

#### Deitu

- 1. Hasierako pantailan, kolpatu Q.
- 2. Idatzi deitu **call** eta deitu nahi duzun pertsonaren zenbakia edo izena. Adibidez, **call lan** edo **call 5195550100** idatz dezakezu.
- 3. Ekintzak eremuaren azpian, kolpatu gauzatu nahi duzun ekintza.

### Mezu elektronikoa bidali

- 1. Hasierako pantailan, kolpatu Q.
- 2. Idatzi **email** eta mezu elektronikoa bidali nahi diozun kontaktuaren izena. Adibidez, **email Tanya McPherson** idatz dezakezu.
- 3. **Ekintzak** eremuaren azpian, kolpatu gauzatu nahi duzun ekintza.

#### Testu-mezuak bidali

- 1. Hasierako pantailan, kolpatu Q.
- Idatzi text eta testu-mezua bidali nahi diozun pertsonaren izena edo zenbakia. Adibidez, text Blake edo text 5195550100 idatz dezakezu.
- 3. **Ekintzak** eremuaren azpian, kolpatu gauzatu nahi duzun ekintza.

## BBM berriketa hasi

- 1. Hasierako pantailan, kolpatu 📿 .
- 2. Idatzi BBM eta berriketa hasi nahi duzun pertsonaren izena. Adibidez, BBM Megan Ball idatz dezakezu.
- 3. Ekintzak eremuaren azpian, kolpatu gauzatu nahi duzun ekintza.

#### Facebook egoera eguneratu

- 1. Hasierako pantailan, kolpatu Q.
- 2. Idatzi Facebook eta zure egoeraren eguneratzea. Adibidez, Facebook heading to the car show today idatz dezakezu.
- 3. Ekintzak eremuaren azpian, kolpatu gauzatu nahi duzun ekintza.

### Tweet bat argitaratu

- 1. Hasierako pantailan, kolpatu Q.
- 2. Idatzi tweet eta zure tweeta. Adibidez, tweet loving the weather lately idatz dezakezu.
- 3. **Ekintzak** eremuaren azpian, kolpatu gauzatu nahi duzun ekintza.

#### LinkedIn iruzkin bat argitaratu

- 1. Hasierako pantailan, kolpatu Q.
- 2. Idatzi LinkedIn eta zure eguneratzea. Adibidez, LinkedIn really enjoyed the training session today idatz dezakezu.
- 3. **Ekintzak** eremuaren azpian, kolpatu gauzatu nahi duzun ekintza.

#### Ohar bat BlackBerry Remember-(e)n gehitu

- 1. Hasierako pantailan, kolpatu Q.
- 2. Idatzi note eta ohar horren edukiak. Adibidez, note pick up milk on the way home idatz dezakezu.
- 3. Ekintzak eremuaren azpian, kolpatu gauzatu nahi duzun ekintza.

#### Egiteko bat BlackBerry Remember-(e)n gehitu

- 1. Hasierako pantailan, kolpatu Q
- 2. Idatzi task eta zeregin horren edukiak. Adibidez, task prepare for the meeting tomorrow idatz dezakezu.
- 3. Ekintzak eremuaren azpian, kolpatu gauzatu nahi duzun ekintza.

#### Mapak aplikazioan toki bat aurkitu

- 1. Hasierako pantailan, kolpatu Q
- 2. Idatzi Map eta idatzi horrelako zerbait:
  - Mapak aplikazioan gehitu duzun gogoko toki bat. Adibidez, Map home idatz dezakezu.

- Kontaktu baten izena. Adibidez, Map Megan Ball idatz dezakezu.
- Interesgune bat. Adibidez, **Map coffee shop** idatz dezakezu.
- Helbide bat. Adibidez, Map 175 Columbia St. West, Waterloo, Ontario idatz dezakezu.
- Hiri bat. Adibidez, Map New York City idatz dezakezu
- 3. **Ekintzak** eremuaren azpian, kolpatu gauzatu nahi duzun ekintza.

#### Musika erreproduzitu

- 1. Hasierako pantailan, kolpatu Q
- 2. Idatzi **Play** eta abestiaren izena, albumaren izena, artista edo erreprodukzio-zerrendaren izena. Adibidez, idatzi **Play** classic rock playlist.
- 3. Ekintzak eremuaren azpian, kolpatu gauzatu nahi duzun ekintza.

## Pertsonalizatutako testu-lasterbideak sortzen

Hitz ordezkapenaren bidez, pertsonalizatutako takigrafia-lasterbideak sor ditzakezu, lasterbidea sartzen duzun bakoitzean zure BlackBerry gailuak lasterbide hori hitz edo esaldi oso batekin ordezka dezan.

Aholkua: Hitzen ordezkapena testu automatikoa esamoldearekin ere ezagutzen da.

#### Hitz iragarleak aktibatu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Hizkuntza eta idazketa > Iradokizunak eta zuzenketak.
- 3. Hautatu I Erakutsi iradokizunak etengailuan.

#### Testu-lasterbidea gehitu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Hizkuntza eta idazketa > Iradokizunak eta zuzenketak > Hitz-ordezkapena.
- 3. Kolpatu 🕂 .

#### Testu-lasterbidea aldatu edo ezabatu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Hizkuntza eta idazketa > Iradokizunak eta zuzenketak > Hitz-ordezkapena.
- 3. **Ordezkapen-zerrenda** atalean, kolpatu hitza ordezkatzeko sarrera bat.

#### Ikasitako hitzen zerrenda garbitu

BlackBerry teklatua-k erabileran oinarrituta ikasten ditu hitzak eta esaldiak idatziko duzun hurrengo hitza asmatzeko. Hitzak iradokitzeko erabili den hitzen zerrenda garbi dezakezu pauso hauek jarraituz:

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Hizkuntza eta idazketa > Iradokizunak eta zuzenketak.
- 3. Kolpatu Garbitu ikasitako hitzak.

**Oharra:** Idazten jarraitzen duzun neurrian, ikasitako hitzen zerrenda birsortu egingo da, **Iradokizunak eta zuzenketak** pantailan, **Ikasi hitz berriak** etengailuan **O** hautatzen duzunean izan ezik.

## Teklatua erakutsi

Bi hatzekin, pantailaren beheko aldetik errestatu gorantz.



**Aholkua:** Teklatua ezkutatzeko, kolpatu pantaila testua idazteko eremu batekin kanpo. Teklatua ezkutatu nahi baduzu eta ezin baduzu inon kolpatu pantailan, irristatu bi hatzak teklatuaren goialdetik behera.

## Hitz bat ezabatu

Irristatu hatz bat teklatuan atzera.



Oharra: Eskuinetik ezkerrera idazten den hizkuntza batean ari bazara, irristatu ezkerretik eskuinera.

## Teklatuan idazten

#### Idatzi azentudun karakterea

- 1. BlackBerry teklatua-n, eduki ukituta azentua gehitu nahi diozun letra.
- 2. Azentua duten karaktereak agertzen direnean letraren goi aldean, irristatu zure hatza idatzi nahi duzun azentudun karaktereraino.
- 3. Jaso hatza.

Aholkua: Azentudun karaktereak maiuskulaz idazteko, kolpatu 🕢 lehenengo. Edoe hatza idatzi nahi duzun azentudun karakterearen gainean dagoenean, pausatu hatza jaso baino lehen eta maiuskula modura aldatuko da.

#### Idatzi ikur edo zenbaki bat.

- 1. BlackBerry teklatua-ren behe-ezker aldean, kolpatu **lkurra** tekla. Tekla honen itxura aldatu egingo da idazten ari zaren hizkuntzaren arabera.
- 2. Sakatu idatzi nahi duzun sinboloa edo zenbakia.
- 3. Ez baduzu nahi duzun ikurra aurkitzen eduki ukituta antzerako ikur bat. Irristatu hatza idatzi nahi duzun ikurreraino edo kolpatu 👔 gainerako ikurrak ikusteko.

#### Karaktere bat idatzi maiuskulekin

1. BlackBerry teklatua-n, kolpatu 🟠 .

2. Kolpatu letra bat.

Aholkua: Maiuskulak aktibatzeko, eduki ukituta 🟠 .

## Idatzi azkarrago ezarpenen Laguntza automatizatuarekin

Azkarrago idazten laguntzeko, zure idazketa ezarpenak alda ditzakezu BlackBerry teklatua-n. Teklatuaren oharrak idazketaren progresioaren adierazle entzungarri bat emango dizu. Horrez gain, ezarpenak alda ditzakezu gailuak esaldiak automatikoki maiuskula bihurtzeko edo 🔛 tekla bi aldiz kolpatzean puntua txertatzeko.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Hizkuntza eta idazketa > Iradokizunak eta zuzenketak.
- 3. Sakatu aldatu nahi dituzun ezarpenak.

## Testua ebaki, kopiatu eta itsatsi

- 1. Testua nabarmentzeko, eduki ukituta testua. Mugitu kurtsorea zure aukeraketa aldatzeko.
- 2. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Testua kopiatzeko, eduki ukituta nabarmendutako testua. Sakatu 🛐 .
  - Testua ebakitzeko, eduki ukituta nabarmendutako testua. Sakatu 🔑 .
- Elementua itsasteko, eduki ukituta testua itsatsi nahi duzun tokia. Sakatu

# Idazten duzun bitartean agertzen den hitz-iradokizuna hautatu

BlackBerry gailua esan nahi duzuna eta esaldiko zein tokitan esan nahi duzun jakiteko diseinatuta dago. Zure gailuak informazio hau erabiltzen du hurrena idatziko duzun hitza zein den asmatzeko. Iradokitako hitzak BlackBerry teklatua-n bistaratuko dira. Ondoren, mugimendu bidezko idazketa erabil dezakezu iradokitako hitza hautatzeko. Horretarako, jarri hatza hitzaren azpian eta mugitu gora mezuaren pantailarantz.

#### Hautatu iradokitako hitza

BlackBerry teklatua-n agertzen den hitza erabiltzeko, kokatu zure hatza hitzaren azpian eta pasatu zure pantailara.

#### Aldatu hitz-iradokizunak agertzen direnean

Hitz-iradokizun lehenetsiak agertuko dira BlackBerry teklatuan, idazten duzun bitartean, iradokizunak ikusteko gora begiratu beharrik ez edukitzeko. Iradokizunak hautatzeko orduan zailtasunak badituzu edo teklatua beteta dagoela ikusten baduzu, teklatuan beharrean goian agertzeko konfigura ditzakezu iradokizunak.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Sakatu 🐼 Ezarpenak > Hizkuntza eta idazketa > Pantailako teklatua.
- 3. **Modu bertikala** eta **Modu horizontala** ataletako goitibeherako zerrendetan, hautatu nola nahi duzun hitziradokizunak agertzea.
  - Hitz-iradokizunak teklatuaren gainean agertzeko, sakatu **Zutabean**.
  - Hitz-iradokizunak teklatuan agertzeko, sakatu Gutunean.
  - Hitz-iradokizunak desaktibatzeko, sakatu **O**.

Hitz-iradokizunak pantaila gainean agertzeko konfiguratzen baduzu, iradokizun hori, nahi duzun hitzaren azpitik edozein lekutara mugituz erabil dezakezu.

## Zuzentzaile ortografikoa

#### Zuzentzaile ortografikoa aktibatu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Hizkuntza eta idazketa > Zuzentzaile ortografikoa.
- 3. Hautatu I Zuzentzaile ortografikoa aukeran.

#### Ortografia-iradokizunak onartu

Zuzentzaile ortografikoa aktibatuta badago, akats ortografikoak gorriz azpimarratuta agertuko dira idatzi ahala.

Kolpatu azpimarratutako hitza.

- Iradokizun ortografikoa onartzeko, kolpatu iradokitako hitza.
- Hitz berri bat hiztegi pertsonalizatura gehitzeko, kolpatu Gehitu hiztegian.

#### Zuzentzaile ortografikoaren konfigurazioa aldatu

Zuzenketa ortografikoaren ezarpenak alda ditzakezu, hala nola akronimoak zuzentzeko, maiuskulak eta minuskulak zuzentzeko, eta abar.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Hizkuntza eta idazketa > Zuzentzaile ortografikoa.
- 3. Kolpatu aldatu nahi dituzun ezarpenak.

#### Hiztegi pertsonala editatu

Zuzentzaile ortografikoa erabiltzean oker moduan markatuta dauden hitzak gehi ditzakezu BlackBerry gailuko pertsonalizatutako hiztegi batean; horrela, hurrengo aldian, zuzentzaile ortografikoak zuzen moduan hauteman ditzan. Hiztegi pertsonalera gehitzen dituzun hitzak edonoiz edita ditzakezu.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🙀 Ezarpenak > Hizkuntza eta idazketa > Zuzentzaile ortografikoa > Editatu hiztegi pertsonala.
  - Hiztegi pertsonalean hitz berri bat gehitzeko, kolpatu 🕂 .
  - Lehendik hiztegi pertsonalean dagoen hitz bat editatzeko, kolpatu hitza.
  - Hiztegi pertsonalizatutik hitz bat ezabatzeko, kolpatu 📷 . Kolpatu ezabatu nahi duzun hitzaren alboko 📺 .

## Teklatuaren, sarreren edo idazketaren ezarpenak aldatu

Zure idazkera pertsonaliza dezakezu. Horretarako, BlackBerry teklatua-ren, sarreren edo idazketaren ezarpenak aldatu behar dituzu BlackBerry gailuan.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Hizkuntza eta idazketa.

## Arazoak: Teklatua eta idazketa

#### Ezin dut nire teklatua erakutsi

Zure BlackBerry gailua beste idazketa-gailu batera konektatuta badago, hala nola Bluetooth-a gaitutako teklatura, baliteke BlackBerry teklatua erakusteko gai ez izatea.

Teklatua erakusteko, deskonektatu beste sarrera-gailua eta saiatu berriro.

## Bateria eta energia

# Mikro SIM txartela, bateria eta multimedia-txartela sartzea

#### Bateriaren estalkia kendu

Aholkua: Bateriaren estalkia malgua da eta oker daiteke kentzerakoan.

Bateriaren estalkia kentzeko, tiratu gorantz bateriaren estalkiaren behealdea.



#### Sartu edo atera mikro SIM txartela

**KONTUZ:** Zure BlackBerry gailua mikro SIM txartelarekin erabiltzeko diseinatu da. Zure gailuan kalteak saihesteko, ez sartu SIM txartelaren moldagailua gailuan.

Zerbitzu-hornitzailearen eta gailua erosi zenuen tokiaren arabera, baliteke mikro SIM txartela dagoeneko sartuta egotea.

Mikro SIM txartela sartzeko, irristatu bere lekura, ilustrazioan erakusten den bezala.

Mikro SIM txartela ateratzeko:

1. Bultza mikro SIM txartela zati bat kanpora atera dadin, hatz erakuslea irekigunean jarrita.

2. Irristatu mikro SIM txartela erabat kanpora, hatz erakuslea edo hatz lodia erabiliz, edo hatz lodiarekin mikro SIM txartelaren goialdean sakatuta.





#### Bateria sartu edo kendu

BlackBerry gailua erabiltzen hasi baino lehen, bateria kargatu beharko duzu. Zure gailua zetorren kutxan dagoen bateria ez dago guztiz kargatuta.

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Bateria sartzeko, kontaktuak lerrokatu.
- Bateria kentzeko, bateriaren kontaktuen beste aldetik, jaso eta tira egin bateriatik kanporantz.





## Gailua itzali

Eduki sakatuta BlackBerry gailuaren goialdeko Piztu-itzali/Blokeatu tekla.



#### Gailua Egonean moduan ezarri

Zure BlackBerry gailua Egonean moduan ezartzen duzunean, gailuko pantailaren atzeko argia itzali eta pantaila blokeatuko da. Ez die hari gabeko konexioei eta erlojuaren alarmei eragiten.

Eduki sakatuta gailuaren goialdeko Piztu-itzali/Blokeatu tekla.

Gailua esnatzeko, irristatu hatza gailuaren pantailaren behealdetik gora.



#### Gailua berrabiarazi edo berrezarri

BlackBerry normalean baino polikiago badabil edo ez badu erantzuten, gailua itzaltzeak eta berriz pizteak arazoa konpontzen lagun dezake.

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Zure gailua berrabiarazteko, sakatu Piztu-itzali/Blokeatu tekla gailuaren goialdean. Kolpatu 🚺 .
- Gailua berrezartzeko, eduki ukituta Piztu-itzali/Blokeatu tekla hamar segundoz.

## Gailua kargatu

BlackBerry gailua erabiltzen hasi aurretik, gailuarekin zetorren bateria kargatu beharko duzu, bateria ez baitago guztiz kargatuta.

Kargatu gailua, hura zetorren kutxaren barruko BlackBerry kargagailuaz baliatuz. Ordenagailura konektatutako USB kable baten bidez kargatu dezakezu zure gailua, baina baliteke denbora asko behar izatea kargatzeko.

KONTUZ: Beste kargagailuren bat erabiltzen baduzu, baliteke energia nahikoa ez ematea eta gailua hondatzea.

BlackBerry logotipoa ( ) gailuaren aurrealdera begira dagoela, konektatu kablea gailuaren USB atakan eta entxufatu kargagailua hormako entxufean.



#### Aholkuak: gailua kargatzea

BlackBerry gailuak litio-ioizko bateria du. Mota horretako bateriaren erabilera maximizatzeko, ahal denean, egin hau:

- Saihestu gailua kargatzen ari denean berori erabiltzea; horrela, azkarrago kargatuko da.
- Kargatu gailua sarri, baita bateria asko badu ere.
- Ahal dela ez kargatu, erabili edo utzi gailua oso toki hotz edo beroetan; adibidez, autoaren aginte-mahaian.
- Ahal dela ez utzi gailua denbora luzez itzalita bateria gutxirekin.
- Gailuaren bateria atera badaiteke eta, gailua egun batzuetan soilik erabili behar baduzu, ez kargatu bateria osorik. Bateria kendu eta toki lehor batean gorde dezakezu, gelako tenperaturan, bateria mantentzeko.

## Bateria eta kargatze ikonoak

Bateriaren mailaren ikonoak BlackBerry gailuko hasierako pantailaren goialdean agertzen dira.

Bateria kargatzen ari da.
Bateria guztiz kargatuta dago.
Bateria ez da kargatzen ari energia iturriak ez duelako nahikoa indarrik. Erabili zureBlackBerry gailuarekin zetorren kargagailua bateria kargatzeko.

Bateriak karga baxua du eta baliteke zure hari gabeko konexioa itzali izana gehiago irauteko. Bateriaren karga oso baxua bada, baliteke gailua itzaltzea. Gorde aldaketak eta kargatu zure gailua.
Arazo bat dago bateriarekin, baliteke bateria ordezkatu behar izatea. BlackBerry-k onartutako bateria bakarrik erabili zure gailuan.
Bateria ez dago txertatuta.

## Bateriaren maila begiratu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goitik behera.
- 2. Kolpatu 🔅 Ezarpenak > Honi buruz.
- 3. Kategoria goitibeherako zerrendan, kolpatu Hardwarea.
- 4. Gelditzen den bateriaren ehunekoa ikusteko, ikusi **Bateria** atala.

## Gailuko bateriaren iraupena, memoriaren erabilera, CPU erabilera eta biltegiratze-tokia kontrolatu

Zenbat bateria eta energia gelditzen zaizun, zenbat memoria erabiltzen ari den eta zenbat biltegiratze-toki dagoen egiazta dezakezu. Horrez gain, bateria gehien erabiltzen ari diren aplikazioak eta zerbitzuak, gailuaren memoria, biltegiratze-tokia edo CPU baliabideak ere kontrola ditzakezu, eta zenbait aplikazio itxi edo ezaba ditzakezu, bateria aurreztu edo gailuaren errendimendua hobetzeko.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🔯 Ezarpenak > Aplikazio-kudeatzailea > Gailuaren kontrola.
- 3. Gailuaren estatistika mota desberdinak kontrolatzeko, kolpatu pantailaren goialdeko **Bateria**, **CPU**, **Memoria** edo **Biltegia** aukera.

**Aholkua:** Bateria eta CPU pantailetan, gailuaren eta erabileraren estatistikak ikus ditzakezu hainbat denbora-tartetan. Bateria edo CPU pantailetan estatistiken denbora-tartea aldatzeko, kolpatu pantailaren goialdeko **Gailuaren kontrola**. Kolpatu denbora-tartea.

# Aplikazio edo zerbitzu jakin baten bateriaren eta erabileraren estatistikak ikusi

1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.

- 2. Kolpatu 🔯 Ezarpenak > Aplikazio-kudeatzailea > Gailuaren kontrola.
- 3. Kolpatu aplikazio edo zerbitzu bat.

#### Gailuaren kontrola pantailako aplikazioak itxi edo ezabatu

Irekitako aplikazio bat bateria, gailuaren memoria edo CPU baliabide ugari erabiltzen ari dela ohartzen bazara, itxi eta amaitu aplikazioarekin lotutako prozesu guztiak. Horrez gain, zenbait aplikazio behin betiko ezaba ditzakezu Gailuaren kontrola pantailatik. Zenbait aplikazio instalatuta eta irekita egon behar dute beti; beraz, ezin dira itxi edo ezabatu.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🔯 Ezarpenak > Aplikazio-kudeatzailea > Gailuaren kontrola.
- 3. Kolpatu aplikazio bat.
- 4. Gauzatu ekintza hauetako bat:
  - Aplikazioa ixteko, kolpatu 🚫.
  - Aplikazioa behin betiko ezabatzeko, kolpatu 📺 .

## LED eta bateria jakinarazpenak



LED argi finko batek zure BlackBerry gailua aktibatzen ari dela adierazten du.



Keinuka dagoen LED argi batek bateriak karga baxua duela eta zure gailua kargatzen ari dela adierazten du.



Finko dagoen LED argi batek zure gailua kargagailu batera konektatuta dagoela eta kargatu dela adierazten du.

## Gailuaren eta bateriaren segurtasuna

BlackBerry-k BlackBerry gailuaren modeloan erabiltzeko zehaztutako bateria soilik erabili beharko zenuke. Beste bateriaren bat erabiliz gero, baliteke gailuarekin batera emandako bermea baliorik gabe geratzea.

KONTUZ: Leherketa arriskua dago bateria mota okerrarekin ordezkatzen bada.

#### Gailua eta bateria botatzea

Birziklatu BlackBerry gailua eta bateria tokiko arauen arabera. Ez bota zure gailua edo bateria sutara. Zure gailua edo bateria edo bateria ez da etxeko zakarrontzira bota behar.

Zure gailua birziklatzeko BlackBerry-ri itzultzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, bisitatu www.blackberry.com/ recycling webgunea ordenagailuko arakatzailetik. Birziklatze eta truke-programa zenbait gunetan erabil daitezke bakarrik.

### BlackBerry eta ingurumen jasangarritasuna

BlackBerry-ren asmoa BlackBerry produktuek ingurunean egiten duten eragina murriztea da. BlackBerry-k jasangarritasunarekin lotutako esfortzuei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, bisitatu http://www.rim.com/company/ corporate-responsibility/product\_sustainability.shtml.

# Gailuaren segurtasunari, bermeari eta pribatutasunari buruzko informazioa ikusi

Pribatutasun-politika ikusteko, BlackBerry gailuak Internetera konektatuta egon behar du.

Hartu une bat gailuaren lizentzia-kontratua, berme mugatua, segurtasun-informazioa eta pribatutasun-politika berrikusteko. Dokumentu horiek gailuaren ezarpenen pantailan daude erabilgarri. Erabilerari, bateriari eta besteko segurtasun-neurriei eta bermearen estaldurari buruzko informazio garrantzitsua du.

- 1. Irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Honi buruz.
- 3. Kategoria goitibeherako zerrendan, kolpatu Lege-oharra.
- 4. Kolpatu esteka bat.

## Ohiko galderak: Bateria eta energia

#### Nola luzatu dezaket bateriaren iraupena?

Bateriaren iraupena desberdina izango da BlackBerry gailuari ematen diozun erabileraren arabera. Bateriak gehiago iraun dezan, hona eman faktore batzuk:

#### 🔅 Pantaila lausotu

Luzatu bateriaren iraupena, pantaila lausotzeko gailuaren ezarpenak aldatuta.

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Pantailaren distira doitzeko, horma-paper ilunak aukeratu edo pantaila blokeatzeko denbora-muga aldatzeko, irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Pantaila.
- BlackBerry zorroan dagoenean, gailua automatikoki blokeatu eta lausotzeko, irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera. Kolpatu 
  Ezarpenak > Segurtasuna eta pribatutasuna > Gailuaren pasahitza > Blokeatu gailua zorroan dagoenean.

## 📣 Bolumena jaitsi

Gauzatu ekintza hauetako bat:

- Gailuaren bolumena jaisteko, erabili gailuaren eskuinaldean dauden bolumen-teklak.
- Aplikazioaren bolumenen, jakinarazpenen eta gisakoen beste bolumen-ezarpen batzuk doitzeko, irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera. Kolpatu 🙀 Ezarpenak > Sistemaren bolumena edo Jakinarazpenak.
- Bolumenaren ezarpenak doitzeko irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera.

## 🗖 Aplikazioak itxi

Luzatu kargaren iraupena, erabiltzen amaitu dituzun aplikazioak eta eginbideak itxita. Horrela, ez dute atzealdean exekutatuta jarraituko. Zenbait eginbidek beste batzuek baino bateria gehiago kontsumitzen dute. Erabiltzen ez dituzunean, itxi edo desaktibatu aplikazio hauek: kamera, BlackBerry arakatzailea, Ahots-kontrola, GPSa eta Bluetooth-a teknologia.

#### (p) Konexioak desaktibatu

Zure gailua hari gabeko estaldura-eremutik kanpo badago, desaktibatu konexioa gailuak sarearen seinalea etengabe bilatu ez dezan.

- 1. Irristatu hatza hasierako pantailaren goialdetik behera.
- Kolpatu Ezarpenak > Sare-konexioak.

#### 📀 Softwarea eguneratu

Bateria asko aurrez dezakezu BlackBerry 10 OSen bertsio berriena erabiltzen baduzu. Gailuaren software-eguneratze bat erabilgarri badago, jakinarazpen bat agertuko zaizu BlackBerry Hub-en.

#### 🔳 Multimedia-txartela erabili

Gastatu bateria gutxiago, gailuan datu gutxiago izanda. Gorde datuak memoria-txartelean telefonoan biltegiratu beharrean.

#### 📷 Flasha desaktibatu

Aurreztu bateria gehiago, argazkiak flashik gabe aterata.

**Aholkua:** Gailu elektroniko gehienetan bezala, bateria ez da hain bizkor agortuko eguzkitik eta leku beroetatik urrun mantentzen baduzu, kontaktu-eremuak garbi mantentzen badituzu eta bateria erregulartasunez kargatzen baduzu. Ahal dela ez utzi gailua denbora luzez itzalita bateria gutxirekin.

#### Non aurki dezaket bateria berria edo ordezkoa?

Zure BlackBerry gailua kargatzea komeni ez den uneetarako, baliteke beste bateria bat kargatuta eta erabiltzeko prest eduki nahi izatea. Zure gailurako ordezko bateriak erosteko, bisitatu http://shop.blackberry.com webgunea.

Autoan, etxean, bulegoan eta bidaietan kargatzeko soluzio desberdinak ere aurkituko dituzu.

# Erabilerraztasuna

## Erabilerraztasun-ezarpenak pertsonalizatu

BlackBerry gailua zure beharrak egokitzeko pertsonaliza dezakezu. Adibidez, pantaila handiagotu, audiofonoa gailuarekin erabili eta letraren tamaina alda dezakezu.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🔯 Ezarpenak > Erabilerraztasuna.
- 3. Aldatu ezarpenak.

## Lupa modua aktibatu

Lupa modua erabil dezakezu BlackBerry gailuko pantailako informazioa handiagotzeko. Pantaila handiagotu edo txikiagotu dezakezu, baita normalean zoom-aukerak onartzen ez duen aplikazioan bazaude ere.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Erabilerraztasuna.
- Ezarri I Lupa modua etengailuan.
  Pantailako informazioa berehala handiagotuko da.
- 4. Handiagotutako pantailan mugitzeko, erabili bi hatz pantaila nahi duzun norabidean mugitzeko.


#### Handitze maila pertsonalizatu

Lupa modua erabiltzen duzunean, handitze maila pertsonaliza dezakezu pantailan. Uneko pantaila utzi gabe handitzea doitzeko, gauzatu ekintza hauetako bat Lupa moduan:

- Gehiago handitzeko, handiagotu hatzak elkarrengandik urrunduz.
- Gutxiago handitzeko, txikiagotu hatzak elkarrengana hurbilduta.

Handiagotze maximora iristen zerenean, BlackBerry gailuak bibratu egingo du.



#### Lupa modua aldi baterako desaktibatu

Baliteke batzuetan, zure pantaila handitzeko aukera aldi baterako desaktibatu nahi izatea pantaila osoa aldi berean ikusteko. Ondoren aktibatu Lupa modua berriro, egiten ari zinenarekin jarraitzeko. Lupa modua aldi baterako desaktibatzeko:

• Bi hatz erabiliz, irristatu hatza pantailaren goialdetik.



Lupa modua berriro aktibatzeko, errepikatu goiko urratsak

### Letraren tamaina aldatu

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Pantaila.
- 3. Letraren tamaina goitibeherako zerrendan, kolpatu erabili nahi duzun letraren tamaina.

### Audiofono modua aktibatu

BlackBerry gailuaren modeloaren arabera, baliteke eginbidea ez onartzea.

Audiofono modua gailuaren eta audiofonoaren arteko bateragarritasuna hobetzeko diseinatu da. Audiofono modua aktibatuta duzunean, 📰 agertuko da egoera-barran.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Erabilerraztasuna > Audiofonoaren ezarpenak.
- 3. Hautatu I Audiofono modua etengailuan.

### TTY laguntza aktibatu

BlackBerry gailura konektatu nahi duzun TTY gailuak 45,45 b/s-etara funtzionatu behar du.

Gailua jasotako deiak testu bihurtzen dituen TTY kanpoko gailu batera konektatzen uzteko diseinatuta da TTY laguntza.

TTY gailua 2,5 mm-ko entzungailuaren entxufea erabiltzeko diseinatuta badago, moldagailu bat erabili behar duzu TTY gailua zure gailuan konektatzeko. BlackBerry-k gailuarekin erabiltzeko onartu duen moldagailua eskuratu nahi baduzu, sar zaitez www.shopblackberry.com helbidean.

- 1. Konektatu TTY gailua zure gailuarekin, TTY gailuarekin zetozen argibideak jarraituz.
- 2. Telefonoko aplikazioetan, irristatu hatza pantailaren goialdetik behera.
- 3. Kolpatu 🌣 > TTY.
- 4. Ezarri **I TTY** aukeran.

### BlackBerry Screen Reader aktibatu edo desaktibatu

BlackBerry Screen Reader-ek testutik hizketara (TTS) interakzioa eskaintzen dizu BlackBerry telefonoko pantailarekin.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Erabilerraztasuna.
- 3. Kolpatu Pantaila-irakurgailua.
- 4. Hautatu Aktibatuta Pantaila-irakurgailua aukeran.
- Kolpatu Jarraitu hautatzeko eta kolpatu bi aldiz jarraitzeko.
  BlackBerry Screen Reader aktibatzen duzun bakoitzean egiaztatze-mezu hori ikusi nahi ez baduzu, desaktibatu Berrespen-mezua aukera, pantaila-irakurgailuaren ezarpenetan.

BlackBerry Screen Reader erraz aktibatzeko, sakatu hiru aldiz Piztu/Itzali tekla. BlackBerry Screen Reader horrela aktibatzerik nahi ez baduzu, **Gaitu hiru kolpe erabiliz** aukera desaktiba dezakezu pantaila-irakurgailuaren ezarpenetan.

BlackBerry Screen Reader desaktibatzeko, sakatu hiru aldiz Piztu/Itzali tekla.

### BlackBerry Screen Reader ezarpenak

#### Pantaila iluna modua aktibatu edo desaktibatu

BlackBerry Screen Reader erabiltzen ari bazara, pribatutasuna gehitu eta bateria aurrez dezakezu Pantaila iluna modua erabiliz. Modu horrek pantailaren atzealdeko argiaren distira % 10 murrizten du.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Erabilerraztasuna.
- 3. Kolpatu **Pantaila-irakurgailua**.
- 4. Hautatu Aktibatuta Pantaila iluna modua aukeran.

#### Bolumena, abiadura eta tonua doitu

Baliteke BlackBerry Screen Reader-en abiadura bizkortu nahi izatea, Interneten nabigatzen zabiltzanean, edo mantsotu nahi izatea, argibideak jasotzen ari zarenean. Baliteke bolumena igo nahi izatea, kanpoan zaudenean, edo jaitsi nahi izatea, etxean edo toki isilago batean zaudenean. Horrez gain, baliteke tonua doitu nahi izatea, irakurgailuari errazago ulertzeko. BlackBerry Screen Reader-ek irakurgailuaren bolumena, abiadura eta tonua doitzen uzten dizu, edozein egoeretan esperientzia pertsonalizatua emateko.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Erabilerraztasuna.
- 3. Kolpatu **Pantaila-irakurgailua**.
- 4. Mugitu **Bolumena**, **Abiadura** eta **Tonua** graduatzaileak.

#### Hitz-jarioa doitu

Badira ahal duzun informazio guztia eskuratu beharreko uneak. Momentu horietan, ezarri BlackBerry Screen Reader-en hitz-jario handia. Gailua gehiago ezagutzen duzunean, hitz-jarioa txikitu dezakezu, informazio gutxiago emateko.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Erabilerraztasuna.
- 3. Kolpatu Pantaila-irakurgailua.
- 4. Kolpatu Hitz-jarioa.
- 5. Goitibeherako zerrendan, kolpatu Handia edo Txikia.

#### Isilik deietan ezarpena aktibatu

Inori ez zaio gustatzen telefono-dei batean molestatzea. Isilik deietan ezarpenari esker, BlackBerry Screen Reader-ek ez dizu informaziorik irakurriko dei batean zauden bitartean.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > Erabilerraztasuna.
- 3. Kolpatu Pantaila-irakurgailua.
- 4. Hautatu **Aktibatuta Isilik deietan** aukeran.

#### Teklatuaren oihartzuna aktibatu edo desaktibatu

Ziurtatu esan nahi duzuna esaten ari zarela. Teklatuaren oihartzuna eginbideak idazten ari zaren informazioa irakurtzen dizu, testua idazten ari zarenean.

1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.

- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Erabilerraztasuna.
- 3. Kolpatu Pantaila-irakurgailua.
- 4. Kolpatu **Teklatuaren oihartzuna**.
- 5. Goitibeherako zerrendan, kolpatu Bat ere ez, Karaktereak, Hitzak edo Karaktereak eta hitzak.

#### BlackBerry Screen Reader-ek erabiltzen duen hizkuntza aldatu

Hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten badituzu, BlackBerry Screen Reader-ek ere hitz egin ditzake. Webeko edukia edo mezu elektronikoko edukia BlackBerry gailuan hobetsitako hizkuntza ez den beste hizkuntza batean irakurtzen ari bazara azkar alda dezakezu TTS hizkuntza.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Erabilerraztasuna.
- 3. Kolpatu Pantaila-irakurgailua.
- 4. TTS hizkuntza goitibeherako zerrendan, kolpatu hizkuntza.

### BlackBerry Screen Reader keinuak

BlackBerry Screen Reader-ek BlackBerry gailuko beste hainbat aplikaziotan erabiltzen diren eta BlackBerry Screen Reader-enak bakarrik diren keinuen konbinazioa erabiltzen du. Pantailaren ertzetan hasten diren keinuak (hala nola pantailaren goialdetik behera irristatzea ezarpenetara sartzeko edo pantailaren behealdetik gora irristatzea, aplikazioa minimizatzeko) beste aplikazioetako berak dira Pantaila-irakurgailua aplikazioan ere. Alabaina, badira BlackBerry Screen Reader aktibatuta dagoenean nabigatzen lagunduko dizuten beste keinu batzuk ere.

**Oharra:** Aplikazio jakin batzuetan erabiltzeko keinu jakin batzuk ere badaude, adibidez BlackBerry Egutegia aplikazioan, Telefonoa aplikazioan, BlackBerry Hub--en eta hasierako pantailan.

Zeregina	Keinua
Ezarri eta hitz egin interesgunera	Kolpatu hatz batekin.
<b>Oharra:</b> Interesgunea eremu bat, botoi bat, hautatze-eremu bat, esteka bat, paragrafo bat, esaldi bat, hitz bat, irudi bat edo eginbideko beste edozein pantaila izan daiteke.	
Ezagutu modura sartu	Eduki kolpatuta hatz batekin eta mugitu hatza.
<b>Oharra:</b> Ezagutu moduari esker interesgunearekin interaktua dezakezu, hau da, letrekin, hitzekin, botoiekin, estekekin, menuko elementuekin eta argazkiekin. Interesgune horiek nabarmendu egingo dira pantailan.	Interesgunea hatzaren azpiko objektuari ezarriko zaio.
Interesgunearen azalpena irakurri	Kolpatu bi hatzekin.
Aktibatu interesgunea	Kolpatu bi aldiz hatz batekin.

Zeregina	Keinua
<b>Oharra:</b> Interesgunea aktibatzen duzunean, pantailako zati horrekin interaktuatu nahi duzula adierazten ari zara.	
Hautatu elementu bat	Kolpatu hiru aldiz hatz batekin.
Eduki sakatuta	Eduki bi aldiz kolpatuta.
Nabigatu aurreko edo hurrengo interesgunera	Irristatu ezkerrera hatz batekin, hurrengo interesgunera joateko; irristatu eskuinera hatz batekin, aurreko puntura joateko.
Zabaldu edo korritu zerrenda bat	Irristatu gora bi hatzekin, gora korritzeko; irristatu behera bi hatzekin, behera korritzeko.
Joan pantailaren eremuko gora edo behera	Irristatu gora bi hatzekin eta eduki ukituta gora joateko; irristatu behera eta eduki irristatuta bi hatzekin behera korritzeko.
Aldatu graduatzailearen balioa	Irristatu gora hatz batekin, graduatzailearen balioa handitzeko; irristatu behera hatz batekin, graduatzailearen balioa txikitzeko.
Mugitu testuaren (adibidez, karaktere bat, hitz bat, lerro bat esaldi bat edo paragrafo bat) edo web-edukiaren (adibidez, goiburuak eta estekak) aurreko edo hurrengo atalera.	Irristatu ezkerrera hatz batekin, aurreko testu edo edukira joateko; irristatu eskuinera hatz batekin, hurrengo testu edo edukira joateko.
Aldatu testuaren edo web-edukiaren tamaina	Irristatu gora hatz batekin edukiaren tamaina handitzen den bitartean; irristatu behera hatz batekin, edukiaren tamaina txikitzen den bitartean.
Mugitu ezkerrera, eskuinera, gora edo behera	Irristatu ezkerrera, eskuinera, gora edo behera hiru hatzekin.
Gelditu BlackBerry Screen Reader interesguneak irakurtzez	Irristatu behera eta, gero, ezkerrera hatz batekin.
Gauzatu aplikazioaren ekintza lehenetsia (argazki bat atera Kamera aplikazioarekin; edo bideo bat hasi eta amaitu Bideoa aplikazioan)	Kolpatu bi aldi bi hatzekin.
Mututu BlackBerry Screen Reader	Irristatu behera eta ezkerrera bi hatzekin.
Irakurri data eta ordua	Irristatu azkar behera eta, gero, irristatu gora hatz batekin.
Irakurri egoera-barrako informazioa (bateria eta irrati- konektibitatea barne)	Irristatu azkar gora eta, gero, irristatu behera hatz batekin.

#### BlackBerry Screen Reader-en ezarpen azkarren modua erabiltzea

Ezarpen azkarren moduarekin, maiz aldatzen diren ezarpenak aldatu eta BlackBerry Screen Reader.en ezarpen osagarrietan sar zaitezke. Ezarpen azkarren modura sartzen zarenean, 3 segundo dituzu zeregina osatzeko. Ez baduzu osatzen, gailua automatikoki irtengo da modutik eta bibratu egingo du zuri horren berri emateko. Ezarpen azkarren modura sartzen zarenean, zereginen zerrenda bertikala agertuko da. Keinu hauek erabil ditzakezu zerrendarekin interaktuatzeko.

Zeregina	Keinua
Sartu ezarpen azkarren modura	Irristatu behera eta, gero, eskuinera hatz batekin
Hautatu elementu bat	Kolpatu hatz batekin. Hautatu ostean, gailua ezarpen azkarren modutik irtengo da.
Elementu bat aktibatu edo desaktibatu	Kolpatu hatz batekin etengailua aktibatzeko edo desaktibatzeko. 3 segundo eta gero, gailua automatikoki irtengo da ezarpen azkarren modutik.
Hautatu zerrendako elementu bat	Kolpatu hatz batekin aukera batetik bestera mugitzeko. Kolpe bakoitzak hurrengo aukerara eramango zaitu. Zerrendako azken aukerara iritsitakoan, hurrengo kolpeak zerrendaren hasierara eramango zaitu. 3 segundo eta gero, gailua automatikoki irtengo da ezarpen azkarren modutik.
Hautatu zerrendako elementu bat Ezagutu modua erabiliz	Eduki kolpatuta hatz batekin. Arrastatu hatza zerrendan gora edo behera eta kolpatu beste hatz batekin, zerrendako elementu bat hautatzeko. Gailua ez da automatikoki ezarpen azkarren modutik irteten.
Aldatu hizketaren bolumena	Irristatu gora hatz batekin, bolumena igotzeko. Irristatu behera hatz batekin, bolumena jaisteko.
Aldatu hizketaren hitz-jarioa	Kolpatu hatz batekin, hitz-jarioaren maila aldatzeko. Hautagai dauden mailak Handia eta Txikia dira.
Aldatu hizketaren abiadura	Irristatu ezkerrera hatz batekin, hizketaren emaria handitzeko. Irristatu eskuinera hatz batekin, hizketaren emaria txikitzeko.
Atzeratu hizketa	Irristatu gora eta behera, esandako azken hamar elementuak berriro erreproduzitzeko.
Letreiatu hitza	Irristatu ezkerrera, esandako azken hitza letraz letra letreiatzeko. Irristatu eskuinera azken elementua fonetikoki letreiatzeko (Adibidez, zuhaitza, Eskandinavia eta abar). Letreiatzea Atzeratu aukerarekin ere erabil daiteke, esandako azken hamar elementuak letreiatzeko.

#### BlackBerry Screen Reader keinuak BlackBerry Egutegia aplikazioan, Telefonoa aplikazioan eta BlackBerry Hub -en erabiltzea

Badira BlackBerry Egutegia aplikazioan soilik erabil ditzakezun BlackBerry Screen Reader keinuak

Zeregina	Keinua
Joan hurrengo egunera, astera edo hilabetera	Irristatu eskuinera hiru hatzekin.
Joan aurreko egunera, astera edo hilabetera	Irristatu ezkerrera hiru hatzekin.

Badira Telefonoa aplikazioan soilik erabil ditzakezun BlackBerry Screen Reader keinuak

Zeregina	Keinua
Erantzun deia	Kolpatu bi aldiz bi hatzekin sarrerako deiaren pantailan.
Ez ikusi telefono-dei bat	Eduki kolpatuta bi aldiz bi hatzekin sarrerako deiaren pantailan.
Eseki telefonoa	Eduki kolpatuta bi aldiz bi hatzekin gailuko pantailaren edozein tokitan.

BlackBerry Hub-en soilik erabil ditzakezun BlackBerry Screen Reader keinuak daude.

Zeregina	Keinua
Ezabatu helbide elektroniko baten lagun arteko izena mezuen Nork edo CC eremuetatik.	Kolpatu helbidea hautatzeko eta irristatu ezkerrera hiru hatzekin.

#### BlackBerry Screen Reader hasierako pantailan erabiltzea

Hasierako pantailan zaudenean, BlackBerry Screen Reader keinu osagarri hauek erabil ditzakezu.

Zeregina	Keinua
Aldatu lan-eremutik eremu pertsonalera, eta alderantziz	Irristatu behera pantailaren eskuinaldetik gertu, hiru hatz erabiliz.
Minimizatu aplikazioa eta erakutsi marko aktiboak	Irristatu behealdetik gora. BlackBerry Screen Reader-etik kanpo erabiltzen den keinu bera da.
Itxi marko aktibo bat	Eduki kolpatuta hatz batekin eta mugitu hatza aplikaziora. Interesgunea hatzaren azpian ezarriko da. Ondoren, kolpatu bi aldiz bi hatzekin, aplikazioa ixteko.

Zeregina	Keinua
Ezabatu hasierako pantailako aplikazio bat	Kolpatu hatz batekin ezabatu nahi duzun elementua hautatzeko. Eduki kolpatuta hatz batekin, hasierako pantailako ezabatze-modura sartzeko. Kolpatu bi aldiz bi hatzekin, aplikazioa ezabatzeko.

#### BlackBerry Screen Reader keinuak BlackBerry teklatua -rekin erabiltzea

BlackBerry Screen Reader-ek beste keinu batzuk gehiago erabiltzen ditu BlackBerry teklatua-rekin.

Zeregina	Keinua
Aldatu teklatuaren diseinua	Irristatu behera hatz batekin.
Onartu iragarritako hitza	Irristatu gora hatz batekin.
Ezabatu hitza (ezkerretik eskuinera irakurtzen diren hizkuntzetan)	Irristatu eskuinetik ezkerrera bi hatzekin.
Ezabatu hitza (eskuinetik ezkerrera irakurtzen diren hizkuntzetan)	Irristatu ezkerretik eskuinera bi hatzekin.

### Azpitituluak aktibatu

Azpitituluak onartzen dituzten bideo-fitxategiak erreproduzitzen dituzunean, BlackBerry gailuko pantailan azpitituluak bistaratzen dira.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🐼 Ezarpenak > Erabilerraztasuna.
- 3. Hautatu I Azpitituluak etengailuan.

## BlackBerry Link eginbideak zure gailuan

### Zure gailuko BlackBerry Link eginbideei buruz

BlackBerry Link baduzu ordenagailuan, zure BlackBerry gailua honetarako erabil dezakezu:

- Ikusi eta ezabatu zure ordenagailuan biltegiratuta dauden fitxategiak.
- Sinkronizatu musika, argazkiak, bideoak eta dokumentuak zure gailuaren eta ordenagailuaren artean.

BlackBerry Link aplikazioaren bertsio berriena ordenagailura deskargatzeko edo datuak gailu berrira transferitzeko, bisitatu www.blackberry.com/BlackBerryLink helbidea.

### Zure ordenagailuan biltegiratutako fitxategiekin lanean

#### Sartu zure ordenagailuan biltegiratutako fitxategietara

BlackBerry 10 OS-ren bertsio zaharrena erabiltzen ari bazara, BlackBerry gailua erabil dezakezu zure ordenagailuan musika, irudiak, bideoak eta dokumentuak ikusteko edo ezabatzeko. Eginbide hau erabiltzeko, BlackBerry Link ordenagailuan irekita eta BlackBerry ID-ekin lotuta egon behar du

Zure ordenagailuko BlackBerry Link-(e)n sartzea nahi duzun karpetak zehaztu ditzakezu.

- 1. Konektatu gailua hari gabeko sarera. Adibidez, Wi-Fi sarea.
- 2. Fitxategi-kudeatzailea aplikazioan, kolpatu 📳 . BlackBerry Balance gaituta badago zure gailuan, erabili Fitxategi-kudeatzailea aplikazioa zure eremu pertsonalean.
- 3. Sakatu erabili nahi duzun ordenagailua.

Aholkua: Egiaztatu zure ordenagailuko ezarpenak edo konektatu ordenagailua energia iturri batera ordenagailua lo moduan ez sartzeko edo ez itzaltzeko.

#### Editatu edo ezabatu fitxategia

Gauzatu ekintza hauetako bat:

• Zure ordenagailuan biltegiratuta dagoen fitxategi bat editatzeko, kolpatu fitxategia. BlackBerry gailuak fitxategia editatzea onartzen badu, kolpatu 📝 .

Aholkua: Aldaketak toki lehenetsian gordetzen badituzu, 🔌 ikonoak zehaztuko du BlackBerry Link-ek fitxategia noiz sinkronizatzen duen eta ordenagailuan jatorrizko bertsioaren gainean noiz gainidazten duen.

• Ordenagailuan gordeta dagoen fitxategi bat betiko ezabatzeko, eduki ukituta fitxategia.Kolpatu 📺 .

#### Fitxategia gailuan kopiatu

Ordenagailuan gordeta dagoen fitxategi bat BlackBerry gailuan gorde ondoren, fitxategi hori ikusi ahal izango duzu Internetera konektatuta ez zaudenean.

- 1. Eduki ukituta zure ordenagailuan biltegiratuta dagoen fitxategi bat.
- 2. Kolpatu 🛐 .
- 3. Nabigatu fitxategia gorde nahi duzun tokira. Adibidez, zure memoria txartelean.
- 4. Sakatu **Itsatsi**.

BlackBerry Link -(e)n zure gailuko eta ordenagailuko fitxategiak sinkronizatzen baditu, baliteke fitxategiaren bi bertsio edukitzea ordenagailuan (jatorrizko fitxategia eta zure gailuan gordetako fitxategia). Ziurtatu azkenekoz editatu zenuen bertsioa ireki duzula fitxategia berriro eguneratu behar baduzu.

#### Ikusi parekatutako ordenagailuak

BlackBerry gailua hamar ordenagailutara konektatu daiteke aldi berean BlackBerry Link erabiliz.

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🗱 Ezarpenak > BlackBerry Link.

Aholkua: Ordenagailuko fitxategietan sare mugikorraren bidez sartzeko, hautatu I Erabili sare mugikorra etengailuan.

Ordenagailu bat zerrendatik kentzeko, eduki ukituta ordenagailua. Kolpatu 📺 .

### Arazoak:BlackBerry Link

#### Ezin ditut nire ordenagailuko fitxategiak eskuratu.

BlackBerry gailua erabiliz ordenagailuko fitxategietan sartzeko, BlackBerry Link Internetera konektatuta dagoen ordenagailuan irekita egon behar du.

Ordenagailua ez baduzu iturri moduan ikusten Fitxategi-kudeatzailea aplikazioan, saiatu ekintza hauetako bat burutzen:

- 1. Minimizatu Fitxategi-kudeatzailea eta egiaztatu ez duzula 📑 aplikazioan ikusten. Ikono hori ikusten baduzu, erabili Fitxategi-kudeatzailea aplikazioa eremu pertsonalean.
- 2. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 3. Egiaztatu gailua hari gabeko sare batera konektatuta dagoela.
- 4. Kolpatu 🙀 Ezarpenak. Probatu hau:
- BlackBerry ID atalean, egiaztatu ordenagailuan erabili duzun BlackBerry ID berarekin hasi duzula saioa.
- Gailua Wi-Fi sare batera konektatuta egon beharrean sare mugikor batera konektatuta badago, **BlackBerry Link** atalean, hautatu **I Erabili sare mugikorra** etengailuan.
- BlackBerry Link atalean, egiaztatu BlackBerry Link aukeran I hautatuta dagoela.

Hala ere, ordenagailuko fitxategiak ikusi ezin badituzu, saiatu ekintza hauetako bat ordenagailuan gauzatzen:

- Egiaztatu zure ordenagailua piztuta dagoela eta ez lo moduan.
- Egiaztatu atzitu nahi dituzun fitxategiak BlackBerry Link-en zehaztutako kokapenean daudela.
- Baliteke zenbait laneko sarek edo sare publikok gailu fitxategietan sartzen ez uztea. Konektatu beste sare batera eta saiatu berriro.

Arazoei buruzko informazio gehiago eskuratzeko ikusiBlackBerry Link-(e)ko laguntza zure ordenagailuan.

#### Bikoiztutako kontaktuak eta egutegiko sarrerak ditut

Kontaktuak eta egutegiko sarrerak BlackBerry Link erabiliz inportatu badituzu, baliteke sarrera bikoiztuak izatea gailuan, gailua eta ordenagailua sinkronizatu ostean.

Gailuko kontaktuak bateratuta eta helbide liburuko bikoiztuak ezabatuta ken ditzakezu bikoiztuak, edo gailuko tokiko datuak garbituta.

Gailuko tokiko datuak ezabatuta bikoiztutako kontaktuak eta egutegiko sarrerak kentzeko, egin hau:

- 1. Hasierako pantailan, irristatu pantailaren goialdetik behera.
- 2. Kolpatu 🙀 Ezarpenak > Kontuak.
- 3. Kolpatu 🚺.
- 4. Kolpatu Garbitu tokiko egutegia eta Garbitu tokiko kontaktuak.

**KONTUZ:** Tokiko datuak garbituz gero, behin betiko ezabatuko dira gailuan soilik gordetako kontaktuak eta egutegiko sarrerak.

# Lege-oharra

©2013 BlackBerry. Eskubide guztiak erreserbatuta. BlackBerry® eta harekin lotutako marka komertzialak, izenak eta logotipoak BlackBerry Limited enpresarenak dira eta AEBtan eta beste herrialde batzuetan erregistratuta daude eta/edo erabiltzen dira.

Adobe eta Flash Adobe Systems Incorporated enpresaren markak dira. Android, Gmail eta YouTube dira Google, Inc. enpresaren markak. Apple, iCal, iPhone eta Mac are trademarks of Apple Inc. Bluetooth-a Bluetooth SlGen marka komertziala da. Box Box, Inc. enpresaren marka da. DLNAk ziurtatua Digital Living Network Alliance enpresaren marka. Evernote Evernote Corporation enpresaren marka da. Facebook da Facebook, Inc. enpresaren marka. GSM da GSM MOU Association elkartearen marka. HDMI HDMI Licensing, LLC. enpresaren marka erregistratua da. IBM Notes eta IBM Notes Traveler International Business Machines Corporation enpresaren markak dira. joyn is a trademark of GSMA. LinkedIn is a trademark of LinkedIn Corporation. Microsoft, ActiveSync, Excel, Outlook, PowerPoint eta Windows Microsoft Corporation enpresaren markak dira. QR Code DENSO WAVE INCORPORATED enpresaren marka da Japonian eta beste herrialde batzuetan. Sina Weibo Beijing Sina Internet Information Service Co. Ltd. enpresaren marka da. Sorenson Spark Sorenson Media, Inc. enpresaren marka da. Twitter da Twitter, Inc. enpresaren marka. Miracast, Wi-Fi eta Wi-Fi Protected Setup Wi-Fi Alliance enpresaren markak dira. Cisco WebEx Meetings, Cisco WebEx eta WebEx Cisco Systems, Inc. enpresaren eta/edo Amerikako Estatu Batuetako eta beste herrialde batzuetako haren kideen marka komertzialak dira. Gainerako marka bakoitzak bere jabea du.

Dokumentazio hau, hemen adierazitako dokumentazio guztia eta www.blackberry.com/go/docs gunean eskainitako edo eskuragarri dagoen dokumentazioa "DAGOEN BEZALA" eta "ESKURAGARRI DAGOEN MODUAN" eskaintzen da BlackBerry Limited enpresaren eta enpresa afiliatuen ("BlackBerry") baldintza, babes, berme edo deklaraziorik gabe eta BlackBerry-k ez du erantzukizunik hartzen dokumentazio honetan egon daitezkeen errore edo utzikeria tipografiko, teknikoengatik edo zehaztasun faltagatik. BlackBerry-ren jabetza-informazioa eta informazio konfidentziala edo merkataritza-sekretuak babesteko, baliteke dokumentazio honetan BlackBerry teknologiaren hainbat aspektu termino orokorretan azalduta agertzea. BlackBerry-k ez du konpromisorik hartzen aldaketa, eguneratze, hobekuntza edo gehitzeak dokumentazioari egiteko.

Baliteke dokumentazioan hirugarrenen informazio iturriak aipatzea (hardwareak, softwareak, produktuak, zerbitzuak, osagaiak). Eduki horiek copyright edota hirugarrenen webguneek babestutakoak izan daitezke (orokorrean "Hirugarren alderdien produktu eta zerbitzuak"). BlackBerry-k ez du kontrolatzen eta ez du erantzukizunik Hirugarren alderdien produktu eta zerbitzuen gainean; ezta euren eduki, zehaztasun, copyright, bateragarritasun, iraupen, fidagarritasun, legaltasun, dezentzia, esteka edo haiei lotutako edozein aspektuen gainean ere. Hirugarren alderdien produktuak eta zerbitzuak eta zerbitzuak aipatzeak ez du esan nahi BlackBerry-k Hirugarren alderdien produktu eta zerbitzuak, inolaz ere, babesten edo laguntzen dituenik.

LEGEARI JARRAIKI, HURRENGOAK BAZTERTZEN DIRA: BALDINTZAK, LAGUNTZAK, BERMEAK, ESPRESUAK EDO EZ, MURRIZPENIK GABE, IRAUPENARI, EDOZEIN ERABILERARAKO EGOKITASUNARI, MERKATALGARRITASUNARI, KALITATEARI, EDO TITULUARI LOTUTAKOAK EDOTA MERKATAL ERABILERA BATEN LEGE EDO ARAU BATEN ONDORIOZKOAK, EDO DOKUMENTAZIO EDO ERABILERARI LOTUTAKOAK, EDOTA EDOZEIN SOFTWARE, HARDWARE EDO ZERBITZUREN IRAUPENARI LOTUTAKOAK EDOTA AIPATUTAKO HIRUGARREN ALDERDIEN PRODUKTU ETA ZERBITZUEN IRAUPENARI LOTUTAKOAK. BALITEKE ESTATU ETA PROBINTZIAREN ARABERAKOAK DIREN BESTELAKO ESKUBIDEAK ERE EGOTEA. BALITEKE HAINBAT JURISDIKZIOTAN BERME ETA BALDINTZAK BAZTERTZEA EDO MURRIZTEA BAIMENDUTA EZ EGOTEA. LEGEARI JARRAIKI, DOKUMENTAZIOARI LOTUTAKO BERME EDO BALDINTZAK GOIAN ESANDAKOAREN ARABERA EZIN DIRA BAZTERTU, BAINA MURRIZTU DAITEZKE ETA LAROGEITA HAMAR (90) EGUNEKO EPEA IZANGO DUZU EROSKETAREN EGUNETIK AURRERA EDOZEIN KEXA AURKEZTEKO.

ZURE JURISDIKZIOKO LEGEARI JARRAIKI, DOKUMENTAZIO HONI LOTUTAKO KALTEEN GAINEAN, EDO BERE ERABILERARI LOTUTAKOEN GAINEAN, BLACKBERRY-K EZ DU, INOLAZ ERE, ERANTZUKIZUNIK IZANGO. EZTA SOFTWARE, HARDWARE, ZERBITZU EDOTA HIRUGARREN ALDERDIEN PRODUKTU EDO ZERBITZUEI LOTUTAKO ERABILERA EDO IRAUPENARI LOTUTAKOEN GAINEAN ERE, MURRIZPENIK GABE ONDOKO KALTEEI DAGOKIONEAN: KALTE ZUZEN, ONDORIOZKO, ADIBIDEZKO, EZBEHARREKO, ZEHARKAKO, BEREZI EDO LARRIAK, ETEKIN GALERAK, AURREZPEN EZAK, NEGOZIO ETENAK, NEGOZIOARI LOTUTAKO INFORMAZIO GALERAK, NEGOZIO AUKEREN GALERAK, DATUEN GALERA EDO KORRUPZIOA, DATUAK BIDALTZEKO EDO JASOTZEKO EZINTASUNA, BLACKBERRY-REN PRODUKTU EDO ZERBITZUEKIN BATERA ERABILITAKO APLIKAZIOEI LOTUTAKO ARAZOAK, ETENEN KOSTUAK, BLACKBERRY-REN PRODUKTU EDO ZERBITZUEN ERABILERAREN GALERA, ORDEZKAPENEZKO ONDAREEN KOSTUAK, ESTALDURA, ERAIKUNTZA EDO ZERBITZU KOSTUAK, KAPITAL KOSTUAK EDO ANTZERAKO DIRUZKO GALERAK, KALTE HAIEK AURREIKUSITA ALA EZ IZANIK ERE, ETA BLACKBERRY-K HAIEI BURUZKO ABISUA EMAN BADU ERE.

ZURE JURISDIKZIOKO LEGEARI JARRAIKI, BLACKBERRY-K EZ DU INOLAKO ERANTZUKIZUNIK IZANGO ZUREKIN, KONTRATUZ ZEIN BESTEREN BIDEZ, NEGLIGENTZIA ERANTZUKIZUNA EDO ERANTZUKIZUN LARRIA BARNE.

MURRIZPENAK ETA BAZTERTZEAK HAUEI APLIKATZEN ZAIZKIE: (A) EKINTZA, ESKAERA EDO EKINTZAREN ARRAZOIA KONTUAN HARTU GABE BAINA EZ MURRIZTUTA KONTRATUAREN APURKETARA EDO BESTELAKO ERANTZUKIZUN LEGALERA, OINARRIZKO APURKETA EDO AKORDIO HONEN AMAITZEA EDO BARNEKO EDOZEIN EDUKI MANTENDUKO DELARIK; ETA (B) BLACKBERRY ETA HARI LOTUTAKO ENPRESAK, ONDORENGOAK, AGENTEAK ETA HORNITZAILEAK (AIREZKO ZERBITZU HORNITZAILEAK BARNE), BLACKBERRY-K BAIMENDUTAKO HORNITZAILEAK (AIREZKO ZERBITZU-HORNITZAILEAK BARNE ERE BAI) ETA HAUEN GUZTIEN ZUZENDARI, LANGILE ETA LOTUTAKO LANGILE INDEPENDENTEAK.

GOIAN EZARRITAKO MURRIZPEN ETA BAZTERTZEEZ GAIN, INONGO KASUTAN, BLACKBERRY-REN EDO HAIEI LOTUTAKO ENPRESEN ZUZENDARI, LANGILE, AGENTE, HORNITZAILE EDO LANGILE INDEPENDENTEEK EZ DUTE DOKUMENTAZIO HONI LOTUTAKO ERANTZUKIZUNIK IZANGO.

Hirugarren alderdien produktu edo zerbitzuak instalatu edo erabili baino lehen edo harpidetza hartu baino lehen, zure erantzunkizuna izango da zure airezko zerbitzuen hornitzaileak bere funtzioak onartzen dituela egiaztatzea. Baliteke hornitzaile batzuk Internet arakatzaile funtzioa ez eskaintzea BlackBerry<sup>®</sup> Internet Service zerbitzuaren harpidetzarekin batera. Egiaztatu zure hornitzailearekin eskuragarritasuna, ibiltaritza itunak, zerbitzu planak eta funtzioak. Hirugarrenen produktuak eta zerbitzuak BlackBerry produktuekin eta zerbitzuekin instalatzeko, baliteke patente, marka, copyright edo bestelako lizentziak behar izatea hirugarrenen eskubideak ez urratzeko. Zu zara arduradun bakarra hirugarrenen produktu eta zerbitzuak erabiltzerakoan eta egiaztatzeko hirugarrenen lizentziak behar diren ala ez. Beharrezkoak badira zure erantzukizuna da hauek eskuratzea. Ezingo duzu Hirugarren alderdien produktu edo zerbitzurik instalatu beharrezko lizentziak eskuratu arte. BlackBerry-ren produktu eta zerbitzuekin eskaintzen diren hirugarrenen produktuak eta zerbitzuak zure onerako eskaintzen dira "DAUDEN BEZALA" eta ez dute BlackBerry-ren aldetik inolako babesik, bermerik edo deklaraziorik eta BlackBerry-k ez du inolako erantzukizunik hartzen horiekiko. Hirugarren alderdien produktuak eta zerbitzuak erabiltzerakoan, horiei lotutako lizentzia eta terminoak jarraitu beharko dituzu, hirugarren alderdiekin hitzartutakoarekin arabera, BlackBerry-ren termino edo lizentzien araberakoa baldin bada izan ezik.

Hemen adierazitako funtzio batzuek BlackBerry Enterprise Server zerbitzariaren, BlackBerry Desktop Softwarearen, eta/edo BlackBerry Device Softwarearen gutxieneko bertsioak behar dituzte.

BlackBerry-ren produktu eta zerbitzuen erabilera terminoak BlackBerry-ri lotutako beste lizentzia edo akordio batean ezarrita egongo dira. DOKUMENTAZIO HONETAN EZ DAGO EDUKIRIK BLACKBERRY-REN EDOZEIN PRODUKTU EDO ZERBITZUREN GAINEKO IDATZIZKO AKORDIO ETA BERMEEN ETA HAIEI LOTUTAKOEN EDUKIA ORDEZKATZEKO XEDEA DUENIK.

Gidaliburu honetan ematen den informazioa jarraian zehazten diren telefono modeloei aplikatuko zaie:

STL100-1 / RFG81UW, RFG82UW

STL100-2/RFH121LW

STL100-3 / RFF91LW, RFK121LW

STL100-4/ RFA91LW

BlackBerry Limited 2200 University Avenue East Waterloo, Ontario Canada N2K 0A7

BlackBerry UK Limited 200 Bath Road Slough, Berkshire SL1 3XE United Kingdom

Kanadan argitaratua